Repeating the preceding procedure k times, eventually we obtain an splittable K-Lie algebra $\mathfrak{L}_k = \mathfrak{N}_k \oplus \mathfrak{S}_k$, where $\mathfrak{N}_k = \langle x_1, \ldots, x_s, x'_1, \ldots, x'_k \rangle_K$ is the nilpotent radical and $\mathfrak{S}_k = \langle z_1, \ldots, z_l, z'_1, \ldots, z'_k \rangle_K$ is a reductive K-Lie algebra. Furthermore, $\mathfrak{L}_k$ extends $\mathfrak{L}_K$ with the correspondence $\tilde{y}_j = x'_j + z'_j$. Note that $\dim_K \mathfrak{N}_k = s + k = \mathrm{rk}\, R_s(\mathfrak{L})$. □

Therefore, we gather all the ingredients to obtain the principal result:

proof of Theorem A.4. Let $\mathfrak{L}$ be a R-Lie lattice of rank r. There exists an splittable R-Lie lattice $\bar{\mathfrak{L}}$ extending $\mathfrak{L}$ such that $R_n(\mathfrak{L}) \le R_n(\bar{\mathfrak{L}})$ and $\mathrm{rk}\, R_n(\bar{\mathfrak{L}}) = R_s(\mathfrak{L})$. Proposition A.13 provides an R-Lie algebra representation Φ of $\bar{\mathfrak{L}}$ which is injective in $R_n(\bar{\mathfrak{L}})$ and whose degree is bounded by $f(\mathrm{rk}\, R_n(\bar{\mathfrak{L}}))$ for the non-decreasing function $f\colon \mathbb{N}_0 \to \mathbb{N}$, $r \mapsto \sqrt{\frac{r+1}{r}} \cdot 4^r$.

Therefore $\tilde{\Phi} := \Phi|_{\mathfrak{L}} \oplus \mathrm{Ad}$ is an R-Lie algebra representation of $\mathfrak{L}$ that is faithful, as

$$\ker \tilde{\Phi} = \ker \Phi|_{\mathfrak{L}} \cap \ker \mathrm{Ad} \subseteq (\mathfrak{L} \setminus R_n(\mathfrak{L})) \cap Z(\mathfrak{L}) = \{0\}.$$

Thus, since $\mathrm{rk}\, R_n\left(\bar{\mathfrak{L}}\right) = \mathrm{rk}\, R_s(\mathfrak{L})$, then

$$\deg \mathfrak{L} \le \deg \tilde{\Phi} \le f(\mathrm{rk}\, R_s(\mathfrak{L})) + r \le f(r) + r.$$

Finally, the (A.5) gives the precise bound. □

A.4 Notes

The original results of this appendix are collected in [77].

We shall finish the appendix with a couple of remarks. Firstly, Harish-Chandra gave in [34] yet another proof of Ado's Theorem, and improved the result by observing that we could construct a finite faithful representation that maps the elements of the nilpotent radical to nilpotent endomorphisms –$f \in \mathrm{End}_R(W)$ is nilpotent if there exists $C \in \mathbb{N}$ such that $f^C = 0$–. Such representations are called *nil-representation*s, and it is worth pointing out that all the representations that appear throughout the appendix are nil-representation. Indeed, the adjoint representation is a nil-representation in view of Jacobi's identity, and for every $x \in R_n(\mathfrak{L})$ we know that

$$x^{c+1} \in \mathfrak{U}^c(R_n(\mathfrak{L})),$$

so

$$\Phi(x)^{c+1} \equiv \ell_x^{c+1} = \ell_{x^{c+1}} \equiv 0 \mod \mathfrak{U}^c(R_n(\mathfrak{L})).$$

That is, $\mathfrak{L}_c$ is an nil-representation.

Secondly, by using more involved combinatorial arguments, it is possible to prove that

$$\mathrm{rk}\left(\frac{\mathcal{U}_R(\mathfrak{L})}{\mathfrak{U}^c(\mathfrak{L})}\right) < \alpha\frac{2^r}{\sqrt{r}},$$

where

$$\alpha = \sqrt{\frac{2}{\pi}}\prod_{j=1}^{\infty}\frac{2^j}{2^j - 1} \in (2.762, 2.763)$$

(compare with [13, Lemma 5 (3)]). However, for our goals, chiefly the application in Chapter 2, the bound of Theorem A.4 is good enough. Nonetheless, it is worth a remark that over general PIDs, we could retrieve (A.1), the best bound yet known for fields.

Bibliography

[1] Abercombrie, A. G.: Subgroups and subrings of profinite rings, *Math. Proc. Cambr. Phil. Soc.* **116**, 209-222 (1994).

[2] Ado, I. D.: The representation of Lie algebras by matrices, Amer. Math. Soc. Translations **21**(2) (1949); translation from *Usehi Matem. Nauk (NS)* **6**(22), 159-173 (1947).

[3] Atiyah, M., F. and Macdonald, I., G.: Introduction to Commutative Algebra, Addison-Wesley, Reading (1969).

[4] Baer, R.: Nilpotent groups and their generalization, *Trans. Amer. Math. Soc.* **47**, 393-434 (1940).

[5] Bahturin, Y.: Identitical relations in Lie algebras, De Gruyter Expositions in Mathematics **68**, De Gruyter, Berlin-Boston (2021).

[6] Barnea, Y. and Shalev, A.: Hausdorff dimension, pro-p groups and Kac-Moody algebras, *Trans. Amer. Math. Soc.* **349**, 5073-5091 (1997).

[7] Barnea, Y., Shalev, A. and Zelmanov, E. I.: Graded subalgebras of affine Kac-Moody algebras, *Israel J. Math.* **104**, 321-334 (1998).

[8] Birkhoff, G.: Representatibility of Lie algebras and Lie groups by matrices, *Ann. of Math.* **38**, 526-532 (1937).

[9] Bishmuth, R.: Rational formal group laws, B. Sc. Thesis, McMaster University, Hamilton, Ontario (1976).

[10] Bourbaki, N.: Commutative Algebra, Chapters 1-7, Springer-Verlag, Berlin-Heidelberg (1989).

[11] Bourbaki, N.: Lie Groups and Lie Algebras, Chapters 1-3, Springer-Verlag, Berlin-Heidelberg (1989).

[12] Breuillard, E. and Gelander, T.: A topological Tits alternative, *Ann. of Math.* **166**, 427-474 (2007).

[13] Burde, D.: On a refinement of Ado's Theorem, *Arch. Math.* **70** 118-127, (1998).

[14] Camina, R. and Du Sautoy, M.: Linearity of $\mathbb{Z}_p[[t]]$-Perfect Groups, *Geom. Dedicata* **107**, 1-16 (2004).

[15] Carter, R., W.: Simple groups of Lie type, John Wiley & Sons, London-New York (1989).

[16] Casals-Ruiz, M. and Zozaya, A.: Linearity of compact R-analytic groups, *submitted.*

[17] Chang, C. C. and Keisler, H. J.: Model Theory, North Holland, New York (1990).

[18] Chevalley, C.: Publications de l'Institut Mathématique de l'Université de Nancago, Actualités Scientifiques et Industrielles **1226**, Hermann, Paris (1968).

[19] Churkin, V. A.: The matrix representation of Lie algebras over rings, *Math. Notes* **10**(6), 835-839 (1971); translation from: *Mat. Zametki* **10**, 671-678 (1971).

[20] Clement, A. E., Majewicz, S. and Zyman, M.: The theory of nilpotent groups, Birkhäuser, Cham (2017).

[21] Cohen, I. S.: On the structure and ideal theory of complete local rings, *Trans. Amer. Math. Soc.* **59**, 54-106 (1946).

[22] Detomi, E., Klopsch, B. and Shumyatsky, P.: Strong conciseness in profinite groups, *J. London Math. Soc.* **102**, 977-993 (2020).

[23] Detomi, E., Morigi, M. and Shumyatsky, P.: On conciseness of words in profinite groups, *J. Pure Appl. Algebra* **220**, 3010-3015 (2016).

[24] Dixon, J., Du Sautoy, M., Mann, A. and Segal, D.: Analytic Pro-p Groups, 2nd ed., Cambridge University Press, Cambridge (1999).

[25] Eisenbud, D.: Commutative algebra with a view toward algebraic geometry, Graduate Texts in Mathematics **150**, Springer-Verlag, Berlin-Heidelberg-New York (1995).

[26] Falconer, K.: Fractal geometry: mathematical foundations and applications, 3rd edn. Wiley, Chichester (2014).

[27] Fernández-Alcober, G. A., Giannelli, E. and González-Sánchez, J.: Hausdorff dimension in R-analytic profinite groups, *J. of Group Theory* **20**, 579-587 (2017).

[28] Folland, G. B.: Real Analysis: modern techniques and their applications, John Wiley & Sons, New York (1999).

[29] George, K. M.: Verbal properties of certain groups, D.Phil. Thesis, University of Cambridge, Cambridge (1976).

[30] González-Sánchez, J. and Zozaya, A.: Standard Hausdorff spectrum of compact $\mathbb{F}_p[[t]]$-analytic groups, *Monatsh Math* **195**(3), 401-419 (2021).

[31] de Graaf, W. A.: Constructing faithful matrix representation of Lie algebras, Proceedings of the 1997 International Symposium on Symbolic and Algebraic Computation, ISSAC'97, pp. 54-59, ACM Press, New York (1997).

[32] Greco, S. and Salmon, P.: Topics in $\mathfrak{m}$-adic topologies, Ergebnisse der Mathematik und ihrer Grenzgebiete **58**, Springer-Verlag, Berlin-Heidelberg (1971).

[33] Hall, P.: Verbal and marginal subgroups, *J. Reine Angew. Math.* **182**, 156-157 (1949).

[34] Harish-Chandra: On representation of Lie algebra, *Ann. of Math.* **50**, 900-915 (1949).

[35] Hazewinkel, M.: Formal Groups and Applications, Academic Press, New York-San Francisco-London (1978).

[36] de las Heras, I. and Zozaya, A.: Hausdorffen dimentsioa talde profinituetan, *Ekaia* **40**, 291-314 (2021).

[37] Humphreys, J. E.: Linear Algebraic Groups, Springer-Verlag, New York-Berlin-Heidelberg (1975).

[38] Huppert, B.: Endliche Gruppen I, Springer-Verlag, Berlin-Heidelberg-New York (1967).

[39] Ivanov, S. V.: P. Hall's conjecture on the finiteness of verbal subgroups, *Sov. Math.* **33**, 71-76 (1989); translation from *Izv. Vyssh. Uchebn. Zaved. Mat.* **6**, 60–70 (1989).

[40] Iwasawa, K.: On the representation of Lie algebras, *Jap. J. Math.* **19**, 405-426 (1948).

[41] Jacobson, N.: Lie Algebras, Dover Publications, Inc., New York (1979).

[42] Jaikin-Zapirain, A.: On linear just infinite pro-p groups, *J. Algebra* **255**, 392-404 (2002).

[43] Jaikin-Zapirain, A.: On linearity of finitely generated R-analytic groups, *Math. Z.* **253**, 333-345 (2006).

[44] Jaikin-Zapirain, A.: On the verbal width of finitely generated pro-p groups, *Rev. Mat. Iberoam.* **24**, 617-630 (2008).

[45] Jaikin-Zapirain, A. and Klopsch, B.: Analytic groups over general pro-p domains, *J. London Math. Soc.* **76**, 365-383 (2007).

[46] Jordan, C.: Traité des subtitutions et de équations algébriques, Les Grands Classiques Gauthier-Villars, Paris (1870).

[47] Klopsch, B. and Thillaisundaram, A.: A pro-p group with infinite normal Hausdorff spectra. *Pacific J. Math.* **303**, 569-603 (2019).

[48] Klopsch, B., Thillaisundaram, A. and Zugadi-Reizabal, A.: Hausdorff dimension in p-adic analytic groups. *Israel J. Math.* **231**, 1-23 (2019).

[49] Lang, S.: Algebra, Graduate Texts in Mathematics **211**, Springer-Verlag, New York (2005).

[50] Lazard, M.: Groupes analytiques p-adiques, *Publ. Math. I.H.E.S.* **26**, 5-219 (1965).

[51] Lee, J. M.: Introduction to Smooth Manifolds, 2nd ed., Springer, New York (2013).

[52] Lubotzky, A.: Group presentation, *p*-adic analytic groups and lattices in $\mathrm{SL}_2(\mathbb{C})$, *Ann. of Math.* **118**, 115-130 (1983).

[53] Lubotzky, A. and Mann, A.: On groups of polynomial subgroup growth, *Invent. Math.* **104**, 521-533 (1991).

[54] Lubotzky, A. and Shalev, A.: On some Λ-analytic pro-*p* groups, *Israel J. Math.* **85**, 307-337 (1994).

[55] Mal'cev, A.: On isomorphic matrix representations of infinite groups, *Rec. Math. N.S.* **8**(50), 405-422 (1940).

[56] Merzljakov, Yu. I.: Algebraic linear groups as full groups of automorphisms and the closeness of their verbal subgroups, *Algebra i Logika* **6**, 83-94 (1967).

[57] Merzljakov, Yu. I.: Verbal and marginal subgroups of linear groups, *Dokl. Akad. Nauk SSSR* **177**, 1008-1011 (1967).

[58] Moens, W. A.: Faithful representations of minimal degree for Lie algebras with an abelian radical, PhD Thesis, Universität Wein, Vienna (2009).

[59] Munkres, J.R.: Topology, 2nd ed., Pearson Education, Harlow (2014).

[60] Neretin Yu.: A construction of finite-dimensional faithful representation of Lie algebras. Proceedings of the 22nd Winter School on "Geometry and Physics" (Srni, 2002). *Rend. Circ. Mat. Palermo (2) Suppl. No.* **71**, 159–161 (2003).

[61] Neumann, H.: Varieties of Groups, Springer-Verlag, New York (1967).

[62] Ol'shanskiĭ, A., Yu.: Geometry of defining relations in groups, vol. 70, Mathematics and Applications (Soviet Series), Kluwer Academic Publishers Group, Dordrecht (1991).

[63] Reed, B. E.: Representations of solvable Lie algebras, *Michigan Math. J.* **16**, 227-233 (1969).

[64] Rives, L. and Zalesskii, P.: Profinite Groups, 2nd ed., A Series of Modern Surveys in Mathematics **40**, Springer-Verlag, Berlin-Heidelberg (2000).

[65] Robinson, D. J. S: A course in the theory of groups, 2nd ed., Springer-Verlag, New York (1982).

[66] Roman'kov, V. A.: Width of verbal subgroups in solvable groups, *Algebra and Logic* **21**, 41-49 (1982); translation from *Algebra i Logika* **21**, 60–72 (1982).

[67] Segal, D.: Words. Notes on Verbal Width in Groups, Cambridge University Press, Cambridge (2009).

[68] Serre, J. P.: Lie Algebras and Lie Groups, Lecture Notes in Mathematics vol. **1500**, Springer-Verlag, Berlin-Heidelberg (2006).

[69] Simons, N. J.: The width of verbal subgroups in profinite groups, PhD Thesis, University of Oxford, Oxford (2009).

[70] Strade, H.: Simple Lie Algebras Over Fields of Positive Characteristic. Structure Theory, vol. I, De Gruyter, Berlin-Boston (2004).

[71] Stroud, P. W.: Topics in the theory of verbal subgroups, PhD Thesis, University of Cambridge, Cambridge (1966).

[72] Turner-Smith, R. F.: Finiteness conditions for verbal subgroups, *J. London Math. Soc.* **41**, 166-176 (1966).

[73] Wehrfritz, B. A. F.: Infinite Linear Groups, Springer-Verlag, Berlin-Heidelberg-New York (1973).

[74] Weigel, T.: A Remark on the Ado-Iwasawa Theorem, *J. Algebra* **212**, 613-625 (1999).

[75] Zariski, O. and Samuel, P.: Commutative Algebra, Vol. I and II, Springer-Verlag, Berlin-Heidelberg-New York (1958).

[76] Zozaya, A.: Conciseness in compact R-analytic groups, *submitted*.

[77] Zozaya, A.: A remark on Ado's Theorem for principal ideal domains, *in preparation*.

Index

δ-covering, 68
$\mathfrak{m}$-adic topology, 11
p-adic analytic, 19

Ado
  Theorem, 112
affine set, 85
algebra
  central simple ∼, 92
  semisimple ∼, 115
  splittable ∼, 120
  tensor ∼, 115
analytic
  ∼ dimension, 16, 24
  ∼ group, 18
  ∼ manifold, 16
  ∼ map, 15, 17
  ∼ subgroup, 42
  ∼ submanifold, 39
  ∼ subset, 41
  strictly ∼ map, 17
atlas, 16
  compatible ∼, 16
  maximal ∼, 16

Baire
  Category Theory, 99
Baker-Hausdorff
  formula, 50
bi-Lipschitz, 68
bianalytic map, 30
box dimension, 68, 69
  standard lower ∼, 74
  upper ∼, 68
  lower ∼, 68
  standard ∼, 79

centroid, 92
chain rule, 27
chart, 16
  adapted ∼, 43
  compatible ∼, 16
  regular ∼, 16
Chevalley
  classical group, 88
Cohen
  Structure Theorem, 12, 35
conciseness
  strong ∼, 107
  verbal ∼, 97
coordinate
  ∼ change map, 16
  ∼ system, 17
  canonical ∼ system, 18
  change of ∼, 31
corank, 42, 114

derivation, 120

derived
  ∼ lenght, 122
differential, 27
dimension
  ∼ submanifold, 39
  analytic ∼, 16, 24
  box ∼, 68
  Hausdorff ∼, 68
  local analytic ∼, 17
  Minkowski-Bouligand ∼, 68
discrimination, 57

evaluation
  ∼ epimorphism, 55
  ∼ map, 14

filter, 60
filtration series, 65
  p-power ∼, 66
  normal ∼, 69
  standard ∼, 21, 72
finite intersection property, 61
formal group law, 19
  additive ∼, 20
  multiplicative ∼, 20
formal morphism, 27
fraction field, 12
full residuality, 57

Going Up Theorem, 56

Hall-Petrescu
  formula, 102
Hall-Witt
  identity, 26
Hausdorff
  ∼ density, 91
  ∼ dimension, 68
  ∼ measure, 68
  ∼ spectrum, 66
  standard ∼ dimension, 67, 76
  standard ∼ spectrum, 67, 76
Hilbert
  ∼ function, 73
  ∼ polynomial, 73

identity component, 103
immersed subset, 39
immersion, 32
  weak ∼, 30
inverse
  formal ∼, 19
inversion
  ∼ map, 18
isolated module, 114
isolator, 114
Iwasawa
  Theorem, 113

Jacobi
  identity, 112
Jacobian, 27

Krull
  Intersection Theorem, 11

Leibniz
  identity, 120
Levi
  ∼ factor, 122
  Theorem, 122
Lie algebra, 27, 111
  ∼ centre, 115
  ∼ homomorphism, 112
  ∼ representation, 112
  associated ∼, 26
  concrete ∼, 112
  graded ∼, 90
  nilpotent ∼, 117
  perfect ∼, 92

soluble ∼, 122
Lie bracket, 26, 111
Lie lattice, 112
powerful ∼, 50
linear
∼ algebraic group, 98
∼ representation, 47
∼ algebraic group, 98, 103
∼ group, 47
general ∼ group, 18, 85
special ∼ group, 88
local
∼ ring, 11
∼ ring homomorphism, 51

manifold
analytic ∼, 16
pure ∼, 17
marginal
∼ subgroup, 96
Minkowski-Bouligand
∼ dimension, 68
monotonicity, 68
multiplication
∼ map, 18
left ∼ map, 29

nil-representation, 127
nilpotency
∼ class, 117
nilpotent
∼ radical, 120
nowhere constant map, 107

Poincaré-Birkhoff-Witt
Theorem, 115
power series
∼ universal property, 14
∼ ring, 13
convergent ∼, 14
principal ideal domain (PID), 12
pro-p domain, 12
profinite space, 107

radical
nilpotent ∼, 120
soluble ∼, 103, 122
unipotent ∼, 103
reductive group, 104
regular point, 42
representation, 112
∼ degree, 112
adjoint ∼, 114
faithful ∼, 112
finite ∼, 112
induced ∼, 48
linear ∼, 47
matricial ∼, 112
regular ∼, 116
residue field, 11
residue rank, 31
restriction of scalars, 38

Schur
Theorem, 102
series
derived ∼, 122
lower central ∼, 117
soluble
∼ radical, 103, 122
special orthogonal group, 89
stability
countable ∼, 68
finite ∼, 69
standard
∼ filtration series, 21
∼ group, 19
strong triangle inequality, 12

subimmersion, 33
submanifold
  ∼ dimension, 39
  analytic ∼, 39
  weak ∼, 40
submersion, 32
  weak ∼, 30
symplectic group, 89

Tits
  topological alternative, 88
topologically nilpotent, 14
translation, 18

ultrafilter, 60
  ∼ theorem, 61
  non-principal ∼, 60
ultrametric space, 12
ultrapower, 61
ultraproduct, 61
uniformiser, 13
uniformly powerful group, 49
unipotent
  ∼ matrix, 103
  ∼ radical, 103
  ∼ subgroup, 103
unique factorisatin domain (UFD), 45
universal enveloping algebra, 115
  universal property, 116

verbal
  ∼ conciseness, 97
  ∼ ellipticity, 98
  ∼ robustness, 97
  ∼ subgroup, 96
  ∼ width, 98

word, 95
  ∼ map, 95
  ∼ value, 95
  Burnside ∼, 97
  commutator ∼, 97
  derived ∼, 97
  elliptic ∼, 98
  empty ∼, 95
  equivalent ∼, 95
  lower central ∼, 97

Zassenhaus
  extension, 121
Zorn
  Lemma, 92

Part II

Talde R-analitiko profinituak

Konbentzioak. Eraztun guztiak trukakorrak eta identitatedunak dira. Gainera, tesian zehar p beti zenbaki lehen bat izanen da, eta q zenbaki lehen baten berretura.

Notazioa. Notazio gehiena estandarrra da, $A^{(n)}$ izan ezik. Horrek A multzoaren $n$garren berretura kartesiarra adierazten du (notazio hori erabiliko da $\mathfrak{a}$ idealaren $\mathfrak{a}^{(n)}$ berretura kartesiarra eta $\mathfrak{a}^n$ berretura ideala bereizteko, izan ere, maiz $(\mathfrak{a}^n)^{(m)}$ modukoak agertuko dira). Era berean, $f\colon A \to B$ funtzioa emanda, $f^{(n)}$ moduan izendatuko dugu $A^{(n)} \to B^{(n)}$, $(a_1, \ldots, a_n) \mapsto (f(a_1), \ldots, f(a_n))$ funtzioa.

Gainerako terminologia honakoa da:

$\mathbb{N}$	zenbaki arruntak
$\mathbb{N}_0$	zenbaki arruntak 0-rekin
$\mathbb{Z}$	zenbaki osoak
$\mathbb{Z}_p$	zenbaki oso p-adikoak
$\mathbb{Q}$	zenbaki arrazionalak
$\mathbb{Q}_p$	zenbaki p-adikoak
$\mathbb{R}$	zenbaki errealak
$\mathbb{R}_{\geq 0}$	zenbaki erreal ez-negatiboak
$\mathbb{C}$	zenbaki konplexuak
$\mathbb{F}_q$	q tamainako gorputz finitua
$\log_a$	a oinarriko logaritmoa
$\mathcal{P}(A)$	A-ren parteak
$A \times B$	A eta B-ren biderketa kartesiarra
$\prod_{i \in I} A_i$	$\{A_i\}_{i \in I}$ multzo zuzenduaren biderketa kartesiarra
$A^{(k)}$	A-ren $k$garren berretura kartesiarra
$A \oplus B$	A eta B-ren batura zuzena
$\bigoplus_{i \in I} A_i$	$\{A_i\}_{i \in I}$ multzo zuzenduaren batura zuzena
$A \ltimes B$	A eta B-ren biderketa erdizuzena
$\prod_{i \in I} A_i / \mathcal{U}$	$\{A_i\}_{i \in I}$ familiaren ultrabiderketa $\mathcal{U}$ ultrafiltroarekin
$A^{\mathcal{U}}$	A-ren ultraberretura $\mathcal{U}$ ultrafiltroarekin

$A \subseteq B$	A B-ren azpimultzoa da
$A \subseteq_o B$	A B-ren azpimultzo irekia da
$A \subseteq_c B$	A B-ren azpimultzo itxia da
$A \leq B$	A B-ren azpitaldea da
$A \leq_o B$	A B-ren azpitalde irekia da
$A \leq_c B$	A B-ren azpitalde itxia da
$A \trianglelefteq B$	A B-ren azpitalde normala da
$A \trianglelefteq_o B$	A B-ren azpitalde normal irekia da
$A \trianglelefteq_c B$	A B-ren azpitalde normal itxia da
$A \operatorname{char} B$	A B-ren azpitalde karakteristikoa da

Izan bitez G taldea eta $g, x, y \in G$:

x^y	$y^{-1}xy$
$[x, y]$	$x^{-1}y^{-1}xy$
$[x_1, \ldots, x_n]$	$[[x_1, \ldots, x_{n-1}], x_n]$
$Z(G)$	G-ren zentroa
$C_G(g)$	$g \in G$-ren zentralizatzailea
$G' = [G, G]$	G-ren azpitalde deribatua: $\langle [x, y] \mid x, y \in G \rangle$.
G^n	$n$garren berretura azpitaldea: $\langle g^n \mid g \in G \rangle$
$[H_1, \ldots, H_n]$	$\langle [h_1, \ldots, h_n] \mid h_i \in H_i \rangle$
c_y	konjokazio isomorfismoa: $G \to G$, $x \mapsto x^y$
L_y	ezker biderketa funtzioa $G \to G$, $x \mapsto yx$
R_y	eskuin biderketa funtzioa $G \to G$, $x \mapsto xy$

$\ker f$	f talde (eraztun) homomorfismoaren nukleoa
$\operatorname{im} f$	f talde (eraztun) homomorfismoaren irudia
$\operatorname{Hom}(A, B)$	$f \colon A \to B$ talde (eraztun) homomorfismo guztiak

Izan bedi Q eraztuna:
Izan bedi K gorputza:

K^{alg}	K-ren itxitura aljebraikoa
$\dim_K$	K-bektore espazio dimentsioa

Izan bedi M barietate R-analitikoa:

$\mathcal{U}(Q)$	Q-ren unitateak
$\operatorname{char} Q$	Q-ren karakteristika
$\dim_{\mathrm{Krull}} Q$	Q-ren Krullen dimentsioa
$\mathrm{Frac}(Q)$	Q-ren zatikien gorputza (Q integritate domeinua denean)
$Q[[t_1, \ldots, t_m]]$	koefizienteak Q-n dituzten berretura serie formalen eraztuna

$\mathrm{M}_{n\times m}(Q)$	koefizienteak Q-n dituzten $n \times m$ tamainako matrizeak
$\mathrm{M}_n(Q)$	koefizienteak Q-n dituzten $n \times n$ tamainako matrizeak
$\mathrm{GL}_n(Q)$	koefizienteak Q-n dituen talde lineal orokorra
$\mathrm{SL}_n(Q)$	koefizienteak Q-n dituen talde lineal berezia
$\mathrm{SO}_n(Q)$	koefizienteak Q-n dituen talde ortogonal berezia
$\mathrm{Sp}_n(Q)$	koefizienteak Q-n dituen talde sinplektikoa

$\dim_x M$	M barietatearen dimentsio analitikoa x puntuan
$\dim M$	M barietate puruaren dimentsio analitikoa

Izan bedi $\mathcal{G}$ talde aljebraiko lineala:

$R_u(\mathcal{G})$	erradikal unipotentea

rk	matrize baten heina
res. rk	matrize baten hondar-heina
det	matrize baten determinantea
tr	matrize baten aztarna

$D\mathbf{U}$	$\mathbf{U}$ berretura serie tuplaren diferentziala
$\mathcal{J}_x F$	F-ren matrize jacobirarra x puntuan

$\operatorname{rk} M$	M modulu askearen heina
$\mathrm{Iso}_M(N)$	N-ren isolatzailea M-n
$\mathrm{End}_R(M)$	M moduluaren R-endomorfismoak

hdim	Hausdorffen dimentsioa
hspec	Hausdorffen espektroa
hdim_{st}	Hausdorffem dimentsio estandarra
hspec_{st}	Hausdorffen espektro estandarra
bdim	kutxa-dimentsioa
bdim_{st}	kutxa-dimentsio estandarra
lbdim	behe kutxa-dimentsioa
lbdim_{st}	behe kutxa-dimentsio estandarra
ubdim	goi kutxa-dimentsioa
ubdim_{st}	goi kutxa-dimentsio estandarra

$w\{G\}$	G-ren w-balio multzoa
$w(G)$	w-ren hitzezko azpitaldea G-n
$w^*(G)$	w-ren azpitalde marjinala G-n
$X^{*\ell}$	$X \cup X^{-1} \cup \{1\}$ multzoko ℓ elementuren biderketak osatutako multzoa

$\deg \mathfrak{L}$	$\mathfrak{L}$ Lie aljebraren maila
$\deg \phi$	ϕ Lie adierazpenaren maila
$Z(\mathfrak{L})$	$\mathfrak{L}$ Lie aljebraren zentroa
$R_n(\mathfrak{L})$	$\mathfrak{L}$ aljebraren erradikal nilpotentea
$R_s(\mathfrak{L})$	$\mathfrak{L}$ aljebraren erradikal ebazgarria
$\mathbf{T}_R(\mathfrak{L})$	$\mathfrak{L}$ aljebraren tortsio aljebra
$\mathcal{U}_R(\mathfrak{L})$	$\mathfrak{L}$ aljebraren inguratze aljebra unibertsala
$\text{Der}_R(\mathfrak{L})$	$\mathfrak{L}$ aljebraren deribazioak
$\text{Cent}(\mathfrak{L})$	$\mathfrak{L}$ aljebraren zentroidea

"I tend to think too much.
My greatest successes came from decisions I made when I stopped thinking and simply did what felt right.
Even if there was no good explanation for what I did. [...]
Even if there were very good reasons for me not to do what I did."

Kvothe, (Patrick Rothfuss, *The Name of the Wind*)

Sarrera

Tesi hau talde analitikoen inguruko monografikoa da. Talde horiek eraztun topologiko egoki baten gainean barietate analitikoak ere badiren talde abstraktuak dira, bi egitura horiek bateragarriak izanik. Hots, biderketa funtzioa eta alderantzizko funtzioa analitikoak dira.

Gorputz topologikoen gaineko talde analitikoen teoria talde profinituen adibide-iturburua da. Noski, $\mathbb{R}$ eta $\mathbb{C}$ gorputz klasikoen gaineko barietateak, finituak izan ezean, ez dira talde profinituak; aldi berean trinkoak eta $\mathbb{C}^{(n)}$-ko azpimultzo guztiz diskonexu bati homeomorfoak izan behar baitute. Aitzitik, oinarriko eraztuna bere kabuz, talde abeldar gisa, talde profinitua denean, talde analitiko profinituak ager daitezke. Esate baterako, Lazardek, *Groupes analytiques p-adiques* [50] tratatuan, talde p-adiko analitikoak, hau da, $\mathbb{Q}_p$ zenbaki p-adikoen –baliokideki, $\mathbb{Z}_p$ zenbaki oso p-adikoen– gaineko Lieren talde analitikoak aurkeztu zituen; eta talde p-adiko analitiko trinkoak talde profinituak direla frogatu zuen.

Jatorrizko ikuspegi analitiko hutsetik at, talde p-adiko analitikoen karakterizazio anitz daude ([24, Apendizea A]-n topa daiteke zerrenda zehatza). Horien artean, Lazard berak *talde p-adiko analitikoetarako Hilberten 5. problema* dei dezakeguna ebazteko erakutsi zuen talde p-adiko trinkoak hain justu birtualki heina finituko pro-p taldeak direla. Alegia, indize finituko pro-p azpitalde bat duten talde profinituak dira non pro-p azpitalde horren azpitalde guztiak finituki sortuak diren eta haien sortzaile kopurua bornatuta dagoen. Geroztik, talde hauen inguruan teoria emankorra garatu da, eta hainbat propietate interesgarri aurkitu dira: guztiek, $\mathbb{Z}_p$ zenbaki p-adiko osoen taldeak izan ezik, *Golod-Shafarevichen ezberdintza* betetzen dute (Lubotzky [52]), *azpitalde hazkunde polinomiala* dute

(Lubotzky eta Mann [53]), hitz guztiek *zabalera* finitua dute (Jaikin-Zapirain [44]), etab.

Orobat, R eraztun topologiko orokor batetik abiatu, eta haren gainean barietate egitura modu berean definituz talde p-adikoen nozioa orokortu daiteke. Hots, R-ren gaineko talde analitikoak, aurrerantzean *talde R-analitikoak* deituko ditugunak, defini daitezke. Hala, Bourbakik (edo hobeki esanda bourbakistek) [11] eta Serrek [68] $\mathbb{F}_p((t))$ gorputz lokalaren gaineko talde analitikoak, hau da, talde p-adikoen parekoak karakteristika positiboan, aztertu zituzten. Areago, bigarren edizioa argitaratzean autoreek *Analytic pro-p groups* [24] liburuari hamahirugarren kapitulu bat gehitu zioten. Bertan *pro-p domeinu* orokorren gainean talde analitikoak definitu zituzten, eta, horrenbestez, teoria orokorrago horren lehenbiziko urratsak eman zituzten. Gogora dezagun pro-p domeinu bat *R integritate-domeinu lokal noetherdar bat dela, osoa ideal maximalak definitzen duen metrikarekiko eta p karakteristikako hondar-gorputz finitua duena* (Azpiatala 1.1.1-en eraztun horiek eta haien definizioan ageri diren kontzeptuak azaltzen dira). Talde orokorrago horiek propietate aljebraiko onak dituzte (ikusi [14], [42], [43], [45] edota [54]); ez, ordea, talde p-adiko analitikoenak bezain onak. Bereziki, ez dago, ezta aieru mailan ere, talde analitiko horien karakterizaziorik talde teoriako termino hutsetan.

Tesi honen xedea teoria horri jarraipena ematea da. Alde batetik, talde R-analitikoen azterketa sistematikoarekin jarraitzen dugu, eta, horrenbestez, tesi hau nolabait [24, Kapitulua 13]-ren jarraipena da. Bestetik, teoria hori ikerketa emaitza berriekin hornitzen da. Horietako gehienek talde p-adiko analitikoetarako jada ezagunak ziren propietateak talde R-analitiko orkorragoetara hedatzen dituzte; areago, usuenik kasu p-adikoa frogen funtsezko osagaia da.

Aipa dezagun edukia kapituz kapitulu xehetasun gehiagorekin: **Kapitulua 1**en, talde R-analitikoak aurkezten dira, arestian aipatutako [24, Kapitulua 13]-n oinarrituz. Arreta berezia jarriko zaie talde R-estandarrei, ziurrenik talde R-analitikoen adibide nagusia, eta horiei elkar dakiokeen Lieren aljebrari. Halaber, kapituluan zehar gerora erabiliko dugun makineria garatuko dugu, talde R-analitikoen inguruko oinarrizko kontzeptu asko oraindik literaturan garatzeke baitzeuden. Besteak beste, [24, 349. orria]-n autoreek azpimarratzen dute "*kapitulu honetako talde analitiko orokorragoetarako, kontzeptu horiek [azpibarietateak eta zatidura barietateak] oraindik garatzeke daude*"*, eta horixe da 1.5 atalean

*Jatorrizko esaldia ingelesezko bertsioan topa daiteke.

egiten dena.

Kapitulua 2 linealtasunari buruzkoa da. Zehazkiago, *R zero karakteristikako pro-p domeinua denean, talde R-analitiko trinkoak linealak direla* frogatuko dugu, hau da, $\mathrm{GL}_n(K)$ *talde linear orokorrean* murgildu daitezkeela K gorputz batentzat. Horrek Lubotzky eta Shaleven galdera bati (ikusi [54, 311 orriko 2. galdera]) erantzun partziala ematen dio. Emanen dugun froga talde p-adiko analitikoen linealtasunean oinarritzen da, eta eredu teoriako kutsua du. Izan ere, talde R-analitikoa $\mathrm{GL}_n(\mathbb{Z}_p)$-ren ultraberretura egoki batean murgiltzen dugu. Hala ere, eredu teoria ez da tesiko gai nagusietako bat, eta, hortaz, emanen dugun froga, ahal den heinean, eredu teorian aurretiazko ezagutzarik izan gabe ulertzeko modukoa da.

Kapitulua 3 Hausdorffen dimentsioaren ingurukoa da. Ikusiko dugu talde R-analitiko trinko batean taldearen egitura analitikoa aintzat hartzen duen metrika bat dagoela, eta metrika horrekiko Hausdorffen dimentsioa, $\mathrm{hdim}\colon \mathcal{P}(G) \to [0,1]$ dimentsio fraktal bat, nola definitu gogoratuko dugu. Kapituluak bi zati nagusi ditu. Lehenik eta behin, azpibarietate itxi baten dimentsio analitikoaren eta Hausdorffen dimentsioaren arteko lotura aztertuko dugu. Azterlan hau Fernández-Alcober, Gianelli eta González-Sánchezen [27] artikuluan oinarritzen da. Bigarrenik, batik bat talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitikoetan jarriko dugu arreta, eta horien Hausdorffen espektroa, hau da,

$$\mathrm{hspec}(G) := \{\mathrm{hdim}(H) \mid H \leq G \text{ azpitalde itxia da}\}$$

multzoa, deskribatuko dugu.

Kapitulua 4-n hitzak aztertuko ditugu. Hitz bat k aldagaitan k sortzaileko $F(x_1,\ldots,x_k)$ talde askeko $w = w(x_1,\ldots,x_k)$ elementu bat baino ez da, eta G taldea emanda $w\colon G^{(k)} \to G$ aplikazioa definitzen du modu naturalean, $(g_1,\ldots,g_k)$-ren irudia w-n x_i-ren ordez g_i ordezkatuta lortzen den G-ko elementua delarik. Talde R-analitikoen testuinguruan, P. Hallek [33] proposatutako hitzen inguruko problemak landuko ditugu. Bertako terminolgia erabiliz, *talde R-analitiko trinkoetan hitz guztiak laburrak direla* frogatuko dugu, hau da, *G talde R-analitiko trinkoan w funtzioaren irudia, $\mathrm{im}\, w \subseteq G$, finitua bada, $w(G) = \langle \mathrm{im}\, w\rangle$ azpitalde berbala ere finitua da.*

Azkenik **Apendizea A**-n Adoren Teoremaren aldaera bat frogatuko da, ideal nagusietako domeinu baten gainean modulu askeak diren Lieren aljebretarako. Izan ere, Kapitulua 2-n teoremaren bertsio hori behar da.

Kapitulu bakoitzaren amaieran, *Oharrak* atala dago. Horietan, egilearen ekarpen originalak zehazten dira, eta beste askotariko iruzkinak egiten dira. Eskuizkribu hau autonomoa izatea nahi denez, kontzeptu gehienak xehetasunez aurkezten dira. Hala ere, talde profinituen eta pro-p talde inguruan ezagutza jakintzat ematen da, eta, behar izanez gero, irakurleak [24, Kapitulua 1]-era jo dezake.

Las frases de efecto [...] son una plaga maligna. Empezar por el principio, como si ese principio fuese la punta siempre visible de un hilo mal enrollado del que basta tirar y seguir tirando para llegar a la otra punta [...], como si [...] hubiésemos tenido en las manos un hilo liso y continuo del que no ha sido preciso dehacer nudos ni desenredar marañas.

(José Saramago, *La caverna*)

1

Talde R-analitikoak

Tesi hau talde R-analitikoei buruz da. Lehenbiziko kapitulu honetan talde horiek sakonki aurkeztuko dira, eta haien inguruko teoria garatuko da, datozen kapiluetan erabiltzeko asmoz.

1.1 Pro-p domeinuak

Lehenik eta behin, azter ditzagun barietateen koefiziente eraztunak.

Eraztun lokal bat $\mathfrak{m}$ ideal maximal bakarra duen R eraztuna da. Laburtasunagatik eraztun lokalak usuenik $(R, \mathfrak{m})$ moduan adieraziko ditugu, eta haien *hondar-gorputza* $R/\mathfrak{m}$ zatidura gorputza da. Areago, $(R, \mathfrak{m})$ integritate domeinu noetherdar lokala bada, Krullen Ebakidura Teoremaren arabera (ikusi, esate baterako, [3, Korolarioa 10.18]), $\left\{\mathfrak{m}^N\right\}_{N\in\mathbb{N}}$ familia, ideal maximalaren berretura idealak, R-ren filtrazio serie bat da, hau da, $\bigcap_{N\in\mathbb{N}} \mathfrak{m}^N = \{0\}$ da. Hori dela eta, R topologia batez horni daiteke, *topologia* $\mathfrak{m}$-*adikoa* deituko duguna. Topologia hori $||\cdot||\colon R \to \mathbb{R}_{\geq 0}$ norma baten bidez definitzen da non $||0|| = 0$ eta

$$||x|| = c^{-N} \text{ non } x \in \mathfrak{m}^N \setminus \mathfrak{m}^{N+1}$$

diren, $c > 1$ edozein zenbaki erreal izanik. Topologia horretan $\left\{\mathfrak{m}^N\right\}_{N\in\mathbb{N}}$ familia 0-ren ingurune oinarria da, eta hori da, hain zuzen ere, topologiaren izenaren jatorria. Are gehiago, aitzineko norma ez-arkimedearra da, hau da, *ezberdintza triangular gogorra*

$$||x+y|| \leq \max\{||x||, ||y||\} \ \forall x, y \in R$$

betetzen du, eta, beraz, R *espazio ultrametrikoa* da. Ondorioz, R osoa bada eta $\sum_{N\in\mathbb{N}} a_N$ R-ko elementuen serieak $a_N \in \mathfrak{m}^N$ betetzen badu, serie hori konbergentea da (ikusi [68, Zatia II, Kapitulua I, 64 orriko Teorema]).

Hori guztia aintzat hartuta, nagusiki eraztun hauekin eginen dugu lan:

Definizioa 1.1. *Pro-p domeinu* bat $(R, \mathfrak{m})$ integritate domeinu noetherdar lokal bat da zeina osoa den topologia $\mathfrak{m}$-adikoarekiko eta zeinaren hondar-gorputza p karakteristikako gorputz finitua den.

Oharra. Oroitu $\varprojlim_{N\in\mathbb{N}} R/\mathfrak{m}^N$ alderantzizko limitea $(R, \mathfrak{m})$ eraztun lokalaren osaketa dela topologia $\mathfrak{m}$-adikoarekiko (ikusi [32, Proposizioa 2.15]). Horrenbestez, R pro-p domeinua denean, osaketa hori R bera da, eta hondar-gorputza p^c tamainako gorputz finitua denez, R pro-p taldea da batuketarekiko.

Domeinu horien adibide aipagarrienak $\mathbb{Z}_p[[t_1, \ldots, t_m]]$ $(m \geq 0)$ eta $\mathbb{F}_q[t_1, \ldots, t_m]]$ $(m \geq 1)$ dira. Hots, $\mathbb{Z}_p$ zenbaki oso p-adikoak, koefizienteak $\mathbb{Z}_p$-n dituzten berretura serieen eraztunak eta koefizienteak $\mathbb{F}_q$-n, q elementuko gorputz finitua, dituzten berretura serieen eraztunak. Are gehiago, teorema klasiko honen arabera, zein-nahi pro-p domeinu ez dago aipatutako adibide horietatik oso urruti:

Teorema 1.2 (Cohenen Egitura Teorema [21])**.** *Izan bitez R pro-p domeinua eta $m = \dim_{\mathrm{Krull}}(R)$. Orduan, badago $S \subseteq R$ azpieraztuna zeina $S \cong \mathbb{Z}_p[[t_1, \ldots, t_{m-1}]]$ den,* $\operatorname{char} R = 0$ *denean edo $S \cong \mathbb{F}_p[[t_1, \ldots, t_m]]$ den* $\operatorname{char} R = p$ *positiboa denean. Orobat, R finituki sortutako S-modulua da.*

Bereziki, $\mathbb{Z}_p$ eta $\mathbb{F}_p[[t]]$ ideal nagusietako domeinuak (IND) eta R integritate domeinua direnez:

Korolarioa 1.3. *Izan bedi R bat Krull dimentsioko pro-p domeinua. Orduan, R finituki sortutako $\mathbb{Z}_p$-modulu askea da* $\operatorname{char} R = 0$ *bada, edo finituki sortutako $\mathbb{F}_p[[t]]$-modulu askea da* $\operatorname{char}(R) = p$ *positiboa bada.*

Hemendik aurrera, R pro-p domeinu bat izanen da eta $\mathfrak{m}$ haren ideal maximala. Halaber, besterik ezean, ageri diren kontzeptu topologiko guztiek topologia $\mathfrak{m}$-adikoari eginen diote erreferentzia. Gainera, K erabiliko dugu $\operatorname{Frac} R$, R-ren *zatikien gorputza*, adierazteko.

Aitzineko norma $K = \mathrm{Frac}(R)$ zatikien gorputzera hedatu daiteke. Izan ere, definitu

$$\left|\left|\frac{x}{y}\right|\right|_K := \frac{||x||_R}{||y||_R},$$

$x \in R$ eta $y \in R \setminus \{0\}$ guztietarako. Hala ere, R INDa izan ezean, $||\cdot||_K$ normak definituriko topologiak ez du R-ren topologia $\mathfrak{m}$-adikoa hedatzen, $\mathfrak{m}^N$ ez baita K-ren azpimultzo irekia lehenengoarekiko.

Aitzitik, $(R, \mathfrak{m})$ INDa bada, $k + \mathfrak{m}^N$ multzoa, non $k \in K$ eta $N \in \mathbb{N}$ diren, irekia da K-ren topologia naturalarekiko. Horrela, π eraztunaren *uniformizatzailea* bada, hau da, $\mathfrak{m}$ ideal maximalaren sortzaile bat, $k \in K$ elementu bakoitzerako badago $N \in \mathbb{N}_0$ zenbaki osoa non $\pi^N k \in R \backslash \mathfrak{m}$ den, eta, horrenbestez, K-ko norma modu baliokide honetan defini daiteke:

$$||k||_K = c^N$$

(definizio hau ez da uniformizatzailearen menpekoa; izan ere, π eta ρ bi uniformizatzaile badira, existitzen da $u \in \mathcal{U}(R)$ unitatea non $\rho = u\pi$ den).

Ikusiko denez, bereizketa hau, IND diren eta IND ez diren pro-p domeinuen artean, funtsezkoa da barietate analitikoen teorian.

1.1.1 Berretura serie eraztunak pro-p domeinuen gainean

Deitu $Q[[X_1, \ldots, X_n]]$ koefizienteak Q-n dituzten n aldagaitako berretura serie formalen eraztunari. Hots,

$$\mathbf{F}(X_1, \ldots, X_n) = \sum_{\alpha_i \in \mathbb{N}_0} a_{\alpha_1, \ldots, \alpha_n} X_1^{\alpha_1} \ldots X_n^{\alpha_n},$$

$a_{\alpha_1, \ldots, \alpha_n} \in Q$ izanik, elementuek osatzen duten eraztuna. Finka ditzagun tesian zehar erabiliko ditugun laburdura batzuk: $a_\alpha = a_{\alpha_1, \ldots, \alpha_n}$, $\mathbf{X}^\alpha = X_1^{\alpha_1} \ldots X_n^{\alpha_n}$, $F(\mathbf{X}) = F(X_1, \ldots, X_n)$ eta $Q[[\mathbf{X}]] = Q[[X_1, \ldots, X_n]]$. Baita $|\alpha| = \sum_{i=1}^n \alpha_i \in \mathbb{N}_0$ graduazioa ere edozein $\alpha = (\alpha_1, \ldots, \alpha_n) \in \mathbb{N}_0^{(n)}$ tuplarentzat.

Pro-p domeinuak eraztun topologikoak direnez, berretura serieen konbergentzia azter daiteke. Alegia, $F(\mathbf{X}) \in K[[\mathbf{X}]]$ koefizienteak $K = \mathrm{Frac}(R)$ zatikien gorputzean dituen berretura seriea konbergentea da $\mathbf{x} = (x_1, \ldots, x_n) \in R^{(n)}$ puntuan, $\sum_\alpha a_\alpha \mathbf{x}^\alpha$ R-ko elementuen seriea konbergentea bada. Horrela, besterik gabe $F(\mathbf{x})$ idazterakoan inplizituki F berretura serie formala $\mathbf{x}$ puntuan konbergentea dela adierazten dugu.

Lema 1.4. *Izan bitez R pro-p domeinua eta $F(X_1,\dots,X_n) \in R[[X_1,\dots,X_n]]$ berretura serie formala. Orduan, $\boldsymbol{x} \in \mathfrak{m}^{(n)}$ bada, F konbergentea da $\boldsymbol{x}$ puntuan.*

Orokorrago, izan bedi R pro-p domeinua, eta laburtzeko idatz dezagun $\Lambda = \mathrm{Frac}(R)$ R INDa bada eta $\Lambda = R$ bestelakoan. Horrela, [24, Lema 6.45] dela eta, 0-ren $\left(\mathfrak{m}^M\right)^{(n)}$ motako ingurune ireki batean konbergenteak diren $\Lambda[[\mathbf{X}]]$-ko berretura serieen multzoa

$$\Lambda_0[[\mathbf{X}]] := \left\{ \sum_{\alpha \in \mathbb{N}_0^{(n)}} a_\alpha \mathbf{X}^\alpha \in \Lambda[[\mathbf{X}]] \,\middle|\, \exists N \in \mathbb{N} \text{ non } a_\alpha \mathfrak{m}^{N|\alpha|} \subseteq R \ \forall \alpha \neq \mathbf{0} \right\} \quad (1.1)$$

da. Ohartu R ez denean INDa $\Lambda_0[[\mathbf{X}]] = R[[\mathbf{X}]]$ baino ez dela.

Berretura serie horien zenbait propietate ezagun gogoratuko ditugu, tesian zehar behin eta berriz erabiliko baitira. Irakurleak [10, Kapitulua III], [24, Atala 6.6] edo [68, Zatia II, Kapitulua II] kontsulta ditzake gaian sakondu nahi izanez gero.

Lema 1.5 (cf. [24, Lema 13.3])**.** *Demagun $F \in \Lambda_0[[X_1,\dots,X_n]]$ berretura serie formala konbergentea dela $\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(n)}$-n. Orduan, $F\colon \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(n)} \to R$ ebaluaketa funtzioa jarraitua da.*

Teorema 1.6 (Berretura serie eraztunen propietate unibertsala, cf. [10, Kapitulua III, §5, Proposizioa 6])**.** *Izan bedi $\varphi\colon Q \to P$ eraztun topologiko normatuen arteko eraztun homomorfismoa. Demagun P osoa eta linealki topologizatua dela eta izan bitez $p_1,\dots,p_n \in P$ elementu topologikoki nilpotenteak, hau da, $\lim_{j\to\infty} ||p_i^j||_P = 0$ betetzen da $i \in \{1,\dots,n\}$ guztietarako. Orduan, existitzen da*

$$\Phi_{\varphi,p_1,\dots,p_n}\colon Q[[X_1,\dots,X_n]] \to P$$

eraztun homomorfismoa non $\Phi_{\varphi,p_1,\dots,p_n}(X_i) = p_i$ den $i \in \{1,\dots,n\}$ guztietarako eta $\Phi_{\varphi,p_1,\dots,p_n}(q) = \varphi(q)$ den $q \in Q$ guztietarako. Halaber, $\varphi\colon Q \to P$ pro-p domeinuen arteko eraztun homomorfismo jarraitua bada, $\Phi_{\varphi,p_1,\dots,p_n}$ ere pro-p-domeinuen arteko homomorfismo jarraitua da.

Ohartu $(R,\mathfrak{m})$ pro-p domeinua bada, normaren definizioagatik edozein $x \in \mathfrak{m}$ elementu topologikoki nilpotentea dela.

Lema 1.7 (cf. [24, Korolarioa 6.48])**.** *Izan bitez $\boldsymbol{F} \in R[[X_1,\dots,X_n]]^{(m)}$ eta $\mathbf{G} \in R[[X_1,\dots,X_m]]^{(l)}$. Demagun $\boldsymbol{F}(\mathbf{0}) \in \mathfrak{m}^{(m)}$ dela, orduan $\mathbf{G} \circ \boldsymbol{F}$ konposaketa ongi definitua dago eta $R[[X_1,\dots,X_n]]^{(l)}$-ko elementua da.*

Froga. Izan bitez $\mathbf{G} = (G_1, \dots, G_l)$ eta $\mathbf{Y}$ indeterminatuen m-tupla bat. Ohartu $\mathbf{G} \circ \mathbf{F} = (\Phi(G_1(\mathbf{Y})), \dots, \Phi(G_l(\mathbf{Y})))$ dela, $\Phi \colon R[[Y_1, \dots, Y_m]] \to R[[X_1, \dots, X_n]]$ eraztun homomorfismoa propietate unibertsalaren bidez esleipen hauek definitzen dutelarik: $\Phi(r) = r$ da $r \in R$ guztietarako, eta $\Phi(Y_i) = F_i(X_1, \dots, X_n) \in (\mathfrak{m}, X_1, \dots, X_n)$, $i \in \{1, \dots, m\}$ guztietarako. □

Azkenik, emaitza hau funtsezkoa izanen da berretura serieekin lan egiterakoan:

Lema 1.8 (cf. [42, Lema 9] eta [68, 68. orriko Lema])**.** *Izan bitez $(R, \mathfrak{m})$ pro-p domeinua, $U \subseteq_o \mathfrak{m}^{(n)}$ azpimultzo irekia eta $F \in \Lambda_0[[X_1, \dots, X_n]]$ berretura serie formala. Demagun $F(\boldsymbol{x}) = 0$ dela $\boldsymbol{x} \in U$ guztietarako. Orduan, $F = 0$ da.*

Froga. Aldagai kopuruan indukzioz demagun $n = 1$ dela, eta, beraz, $F(X) = \sum_{i \geq 0} a_i X^i$ dela.

Demagun lehenengo $F(X) \in R[[X]]$ eta $0 \in U$ direla. Absurdura eramanez, suposa dezagun $F(X) \neq 0$ dela eta hartu $m \in \mathbb{N}_0$, $a_m \neq 0$ betetzen duen zenbaki arrunt txikiena. Definitu $G(X) = \sum_{i \geq m} a_i X^{i-m}$ berretura seriea, orduan $G(0) = a_m \neq 0$ da, eta jarraitutasuna dela eta badago $V \subseteq_o U$ 0-ren ingurune irekia non G ez den anulatzen. Are gehiago, R nilpotente-gabea denez, X^m ez da $V \setminus \{0\}$-n anulatzen. Horrenbestez, R integritatea domeinua denez,

$$F(X) = X^m \sum_{i \geq m} a_i X^{i-m} = X^m G(X)$$

ez da $V \setminus \{0\} \subseteq U$ azpimultzo ez-hutsean anulatzen, hasierako hipotesiarekin kontraesana dena.

Bigarrenik, demagun R INDa eta $F(X) \in K[[X]]$ direla, baina $0 \in U$ dela. Hartu π uniformizatzailea, orduan, badago $N \in \mathbb{N}$ zenbaki osoa non $\mathfrak{m}^N \subseteq U$ eta

$$\overline{a}_i := a_i \pi^{iN} \in R$$

diren $i \geq 0$ guztietarako. Horrela, hartu $\overline{F}(X) := \sum_{i \geq 0} \overline{a}_i X^i \in R[[X]]$. Serie hori $\mathfrak{m}^N$-n konbergentea denez eta bertan zero balioa hartzen duenez, lehenengo kasuaren arabera $\overline{F}(X) = 0$ dugu, hau da, $a_i \pi^{iN} = 0$ da $i \geq 0$ guztietarako. Beraz, R integritate domeinua denez, $a_i = 0$ da $i \geq 0$ guztietarako.

Azkenik, izan bedi $\Lambda = K$ R INDa bada eta $\Lambda = R$ bestelakoan. Hartu $x \in U$ eta propietate unibertsala erabilita definitu $\Phi \colon \Lambda[[X]] \to \Lambda[[X]]$ eraztun isomorfismoa $X \mapsto X + x$ esleipenaren bidez. Horrela, $\Phi(F)$ berretura serieak $-x + U := \{-x + u \mid u \in U\}$-n zero balioa hartzen du eta multzo horrek 0 barruan du. Beraz, aurreko kasuen arabera $\Phi(F) = 0$ da, eta $F = 0$ da, Φ eraztun isomorfismoa baita. □

1.2 Talde R-analitikoak

Atal honetan tesiaren aztergaia aurketuzko dugu, talde R-analitikoak hain zuzen ere.

Definizioa 1.9. Izan bedi $U \subseteq_o R^{(n)}$ azpimultzo irekia. Orduan, $f\colon U \to R$ funtzioa $x \in U$-n *R-analitikoa* dela diogu existitzen badira $N \in \mathbb{N}$ eta $F \in \Lambda_0[[X_1, \ldots, X_n]]$ berretura serie formal konbergentea non

(i) $x + \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(n)} \subseteq U$ eta

(ii) $f(x+y) = F(y)$ den $y \in \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(n)}$ guztietarako.

Era berean, $f = (f_1, \ldots, f_m)\colon U \to R^{(m)}$ funtzioa x puntuan R-analitikoa da, f_i guztiak x-n R -analitikoak badira, eta $f = (f_1, \ldots, f_m)\colon U \to R^{(m)}$ funtzioa U-n R-analitikoa da U-ko puntu guztietan R-analitikoa bada.

Ohartu f funtzioa puntu batean analitikoa bada puntuaren ingurune ireki batean ere hala dela. Izan ere, definizioko notazioarekin, f funtzioa x puntuan analitikoa bada, $z \in x + \left(\mathfrak{m}^N\right)$-n analitikoa da. Izan ere,

$$f(z+y) = f(x+y+(z-x)) = F(y+(z-x)) \; \forall y \in \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}$$

da eta $F(X+(z-x))$ berretura serie konbergentea da; azken batean $\Phi(F)$ baino ez da, Φ eraztun isomorfismoa propietate unibertsalaren bidez $X \mapsto X + (z-x)$ esleipenak definitzen duelarik.

Definizioa 1.10. Izan bitez R pro-p domeinua eta M espazio topologikoa.

(i) M-ren *R-karta* bat (U, ϕ, n) hirukote bat da, non $U \subseteq_o M$, $n \in \mathbb{N}_0$ eta $\phi\colon U \to \phi(U) \subseteq R^{(n)}$ homeomorfismoa diren, $\phi(U)$-ri $R^{(n)}$-ko azpiespazio topologia jarriz .

(ii) M-ren *atlas* bat $\mathcal{A} = \{(U_i, \phi_i, n_i)\}_{i \in I}$ R-karta bilduma bat da non $M = \cup_{i \in I} U_i$ den eta karta guztiak *binaka bateragarriak* diren, hau da,

$$\phi_i \circ \phi_j^{-1}|_{\phi_j(U_i \cap U_j)}\colon \phi_j(U_i \cap U_j) \to R^{(n_i)}$$

koordenatu aldaketa funtzioak R-analitikoak dira $i, j \in I$ guztietarako.

Bi atlas, $\mathcal{A}$ eta $\mathcal{B}$, *bateragarriak* dira $\mathcal{A} \cup \mathcal{B}$ ere M-ren atlas bat denean, eta atlas bat *maximala* dela diogu beste zein-nahi atlas bateragarri haren parte denean.

(iii) *Barietate R-analitiko* bat atlas maximal batek definitutako egitura analitikoaz hornitutako espazio topologikoa da.

Tesian zehar erabiliko diren zenbait termino zehaztea komeni da:

Oharra 1.11. (i) Karta bat, (U, ϕ, n), *x puntuarena* dela diogu $x \in U$ dela adierazteko.
(ii) Karta bat, (U, ϕ, n), *erregularra* da $\phi(U) = x + \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(n)}$ bada $x \in R^{(n)}$ eta $N \in \mathbb{N}$ batentzat. Hori murrizketa tekniko bat baino ez da, azpimultzo txikiago batera pasata edozein punturen inguruan R-karta bateragarri erregular bat eraiki baitezakegu.
(iii) Karta baten, (U, ϕ, n), n zenbaki osoa kartaren *dimentsioa* da. Horrela, x puntuaren *dimentsio analitikoa*, $\dim_x M$ adieraziko duguna, x-ren edozein kartaren dimentsioa da. Teoria garatu ahala, Korolarioa 1.30en frogatuko dugu (U_1, ϕ_1, n_1) eta (U_2, ϕ_2, n_2) kartek $U_1 \cap U_2 \neq \varnothing$ betetzen badute, orduan $n_1 = n_2$ dela. Bereziki, dimentsio analitikoa ongi definituta dago, ez baita karten menpekoa.

Aipatu behar da pro-p domeinuen gainean, ohiko barietate erreal edo konplexuetan ez bezala, dimentsioa ez dela propietate topologikoa, kartak zehazten duen propietate hertsiki analitikoa baizik. Adibidez, $\mathbb{Z}_p$ eta $\mathbb{Z}_p^{(2)}$ talde topologiko isomorfoak dira.
(iv) Barietate R-analitiko bat *purua* da $\dim_x M$ konstantea bada $x \in M$ guztietarako.

Definizioa 1.9ren antzeko eran, barietate R-analitikoen arteko funtzio R-analitikoak defini daitezke:

Definizioa 1.12. Izan bitez M eta N barietate R-analitikoak. Orduan, $F\colon N \to M$ *funtzio R-analitikoa* da $x \in N$ puntuan existitzen badira x-ren (U, ϕ, n) R-karta N-n eta $F(x)$-ren (V, ψ, m) R-karta M-n non $F^{-1}(V)$ irekia den U-n eta

$$\psi \circ F \circ \phi^{-1}|_{\phi(U \cap F^{-1}(V))}\colon \phi\left(U \cap F^{-1}(V)\right) \to R^{(m)} \tag{1.2}$$

funtzio R-analitikoa den (Definizioa 1.9(i)eko zentzuan). Era berean, *F funtzio R-analitikoa* da N-ko puntu guztietan analitikoa denean.

Halaber, ohikoa da (1.2) funtzioari *F koordenatutan* deitzea, eta gehienetan terminologia hori informalki erabiliko dugu kartak zeintzuk diren zehaztu gabe. Bestetik, F funtzioa $S \subseteq N$ multzoan *hertsiki analitikoa* dela diogu, Definizioa 1.12n ageri diren kartek $S \subseteq U \cap F^{-1}(V)$ betetzen badute eta existitzen bada $\mathbf{U} \in R[[X_1, \ldots, X_n]]^{(m)}$ berretura serie formalen tupla non

$$\psi \circ F \circ \phi^{-1}(\phi(x)) = \mathbf{U}(x)$$

den $x \in S$ guztietarako. Alegia, sinpleki esatearren, funtzio hertsiki R-analitikoak berretura serie tupla *bakarraren* bidez eman daitezkeen funtzio R-analitikoak dira.

Serrek [68] erabilitako nozio hau ere baliagarria izanen da:

Definizioa 1.13. Izan bitez M barietate R-analitikoa, $U \subseteq_o M$ eta $x \in U$. Orduan, $\mathcal{F} = \{f_i \colon U \to R\}_{i=1}^{n}$ funtzio R-analitiko familia x puntuan M-ren *koordenatu sistema* da, existitzen bada $U' \subseteq_o U$ x-ren ingurune irekia non $(U', F|_{U'}, n)$, $F = (f_1, \ldots, f_n)$, R-karta bat den.

Ohartu definizioz, $\mathcal{F}$ funtzio familia x puntuan koordenatu sistema bada, lokalki x-ren inguruan ere hala dela.

Adibideak 1.14. (i) Barietate R-analitikoen adibide kanonikoa $M = \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(n)}$ da, non $N, n \in \mathbb{N}$ den. Horrela, *koordenatu sistema kanonikoa* $\{\pi_i\}_{i=1}^{n}$ baino ez da, $\pi_i \colon \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(n)} \to \mathfrak{m}^N$ *i*garren proiekzio funtzioa izanik. Bestetik, edozein $x \in M$-rako, $t_x \colon M \to M$, $y \mapsto y + x$ *translazio funtzioaren* osagaiek $\{\pi_i \circ t_x\}_{i=1}^{n}$ koordenatu sistema bat osatzen dute.

(ii) Izan bedi $K = \mathrm{Frac}(R)$ eta hornitu $K^{(n)}$ espazioa $k \in K^{(n)}$ puntuaren $\left\{k + \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(n)}\right\}_{N \in \mathbb{N}}$ ingurune oinarriak definituriko topologiarekin. Orduan, $K^{(n)}$ barietate R-analitiko purua da $\{(U_k, \varphi_k, n)\}_{k \in K^{(n)}}$ atlasarekin, non $U_k = k + R^{(n)}$ eta $\varphi_k \colon U_k \to R^{(n)}$, $x \mapsto x - k$ diren (konturatu adibide honetan $K^{(n)}$-ri inposatzen ari gatzaizkion topologia ez dela oro har zatidura gorputzaren topologia naturala. Are gehiago, R eraztuna INDa izan ezean bi topologiak ez datoz bat).

(iii) Izan bitez $\mathrm{M}_{n \times m}(\mathfrak{m})$ matrizeak. $\mathrm{M}_{n \times m}(\mathfrak{m})$ multzoa naturalki $\mathfrak{m}^{(nm)}$-rekin identifika dezakegu, eta, beraz, barietate R-analitikoa da. Era berean, *talde lineal orokorra*, $\mathrm{GL}_n(R)$, barietate R-analitikoa da $\{(U_A, \phi_A, n^2)\}_{A \in \mathrm{GL}_n(R)}$ atlasarekin, non $U_A = A + \mathrm{M}_n(\mathfrak{m})$ eta $\phi_A \colon U_A \to \mathrm{M}_n(\mathfrak{m})$, $A + M \mapsto M$ diren.

(iv) Izan bitez M eta N barietate R-analitikoak hurrenez hurren $\{(U_i, \phi_i, n_i)\}_{i \in I}$ eta $\{(V_j, \psi_j, m_j)\}_{j \in J}$ atlasekin. Orduan, $M \times N$ biderketa ere barietate R-analitikoa da $\{(U_i \times V_j, \phi_i \times \psi_j, n_i + m_j)\}_{i \in I,\ j \in J}$ atlasarekin.

Propietate hauek erraz ondorioztatzen dira Lema 1.5 eta Lema 1.7tik:

Lema 1.15. (i) *Funtzio R-analitiko guztiak jarraituak dira.*

(ii) (cf. [24, Lema 13.4]) *Funtzio R-analitikoen konposaketa R-analitikoa da.*

(iii) *Funtzio hertsiki R-analitikoen konposaketa hertsiki R-analitikoa da.*

Bukatzeko, osagai guztiak bilduz, eman dezagun tesiko definizio nagusia:

Definizioa 1.16. *Talde R-analitiko* bat barietate analitikoa ere baden G talde topologiko bat da,

(i) $m\colon G \times G \to G$, $(g, h) \mapsto g \cdot h$ *biderketa funtzioa* eta

(ii) $\iota\colon G \to G$, $g \mapsto g^{-1}$ *alderantzizko funtzioa*

funtzio R-analitikoak izanik.

Talde $\mathbb{Z}_p$-analitikoak aldi berean definizio horren jatorria eta adibide nagusia dira, eta literaturan besterik gabe *talde p-adiko analitiko* deitu ohi zaie.

1.3 Talde R-estandarrak

Talde R-estandarrak talde R-analitikoen familia berezia dira.

Definizioa 1.17. Izan bedi S talde R-analitikoa. Orduan, S taldea N mailako eta d dimentsioko *talde R-estandarra* dela diogu $\{(S, \phi, d)\}$ karta globala existitzen denean non honakoa betetzen den:

(i) $\phi(S) = \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}$,

(ii) $\phi(1) = \mathbf{0}$ eta

(iii) $j \in \{1, \ldots, d\}$ guztietarako badaude $F_j \in R[[X_1, \ldots, X_{2d}]]$ berretura serie formalak non

$$\phi(xy) = (F_1(\phi(x), \phi(y)), \ldots, F_d(\phi(x), \phi(y))) \;\; \forall x, y \in S.$$

Aurreko definizioko (iii) baldintza betetzen duen edozein $\mathbf{F} = (F_1, \ldots, F_d)$ berretura serie tuplak honako bi propietate hauek ere betetzen ditu:

(F1) $\mathbf{F}(\mathbf{X}, \mathbf{0}) = \mathbf{X}$ eta $\mathbf{F}(\mathbf{0}, \mathbf{Y}) = \mathbf{Y}$ (bereziki, F_i guztiek zero gai askea dute), eta

(F2) $\mathbf{F}(\mathbf{X}, \mathbf{F}(\mathbf{Y}, \mathbf{Z})) = \mathbf{F}(\mathbf{F}(\mathbf{X}, \mathbf{Y}), \mathbf{Z})$, (hemen $\mathbf{X}$, $\mathbf{Y}$ eta $\mathbf{Z}$ aldagaien d-tuplak dira); azken batean, $\phi(1) = \mathbf{0}$ izatearen eta talde eragiketaren elkarkortasunaren berehalako ondorioak dira (ikusi [51, Kapitulua 5]). Alderantziz, $\mathbf{F} \in R[[X_1, \ldots, X_{2d}]]^{(d)}$ tupla batek aitzineko bi baldintzak betetzen baditu, $\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}$ $(N \in \mathbb{N})$ multzoa talde egitura batez hornitzen du. Hortaz, (F1) eta (F2) baldintzak betetzen dituen edozein tupla d dimentsioko *talde eragiketa formala* dela diogu. Areago, haren *alderantzizko formala* existitzen da, alegia $\mathbf{I} = (I_1, \ldots, I_d) \in R[[X_1, \ldots, X_d]]^{(d)}$ berretura serie tupla zeinak

$$\mathbf{F}(\mathbf{I}(\mathbf{X}), \mathbf{X}) = \mathbf{F}(\mathbf{X}, \mathbf{I}(\mathbf{X})) = \mathbf{0}$$

betetzen duen (ikusi [24, Proposizioa 13.16 (ii)]).

Zenbaitetan talde R-estandarrak (S, ϕ) edo $(S, \mathbf{F})$ moduan adieraziko dira, homeomorfismoa edota talde eragiketa formala zein den azpimarratzeko.

Bestalde, (F1)etik ondoriozta dezakegu

$$\mathbf{F}(\mathbf{X}, \mathbf{Y}) = \mathbf{X} + \mathbf{Y} + \mathbf{B}(\mathbf{X}, \mathbf{Y}) + \mathbf{G}(\mathbf{X}, \mathbf{Y}) \tag{1.3}$$

formakoa dela, non $\mathbf{B}$ forma bilineala den eta $\mathbf{G}$ osatzen duten monomio guztiek gutxienez 3 maila totala duten. Halaber, $\mathbf{B}$ eta $\mathbf{G}$-n ageri diren monomio guztiek X_i eta Y_j-ren berretura ez-nulu bat dute $i, j \in \{1, \ldots, d\}$ batzuetarako.

Oharra 1.18 (cf. [68, Zatia II, Kapitulua IV, §7])**.** Bestetik, (1.3) identitatetik abiatuz, alderantzizko formalarentzat eta konjokazio funtzioentzat antzeko formulak erdietsi ditzakegu. Izan ere, $\mathbf{F}$-ren alderantzizko formala $\mathbf{I}$ bada, orduan

$$\mathbf{I}(\mathbf{X}) = -\mathbf{X} + \mathbf{B}(\mathbf{X}, \mathbf{X}) + \tilde{\mathbf{G}}(\mathbf{X}) \tag{1.4}$$

da, non $\tilde{\mathbf{G}}$-n ageri diren monomio guztiek gutxienez 3 maila duten. Horrenbestez, konjokazio funtzioek forma hau dute:

$$\mathbf{F}(\mathbf{I}(\mathbf{Y}), \mathbf{F}(\mathbf{X}, \mathbf{Y})) = \mathbf{X} + \mathbf{B}(\mathbf{X}, \mathbf{Y}) - \mathbf{B}(\mathbf{Y}, \mathbf{X}) + \hat{\mathbf{G}}(\mathbf{X}, \mathbf{Y}) \tag{1.5}$$

non $\hat{\mathbf{G}}$-n ageri diren monomio guztiek gutxienez 3 maila duten eta guztietan X_i eta Y_j-ren berretura ez-nulu bat ageri den $i, j \in \{1, \ldots, d\}$ batzuetarako.

Adibideak 1.19. (i) Talde R-estandar batukorra $\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}$ multzoa da ohiko batuketarekin, hau da, $\mathbf{F}(\mathbf{X}, \mathbf{Y}) = \mathbf{X} + \mathbf{Y}$ *talde eragiketa formal batukorrarekin.*

(ii) Talde R-estandar biderkakorra $G = 1 + \mathfrak{m}^N$ da. Haren atlas globala $\phi \colon G \to \mathfrak{m}^N$, $1 + m \mapsto m$ da, eta $F(X, Y) = X + Y + XY$ *talde eragiketa formal biderkakorrak* definitzen du eragiketa.

(iii) Aurreko bi talde eragiketa formalak orokortu ditzakegu: aise frogatzen da 1 dimentsioko talde eragiketa formal polinomiko guztiek $F_c(X, Y) = X + Y + cXY$ forma dutela $c \in R$ batentzat (ikusi [9, Korolarioa 2.2.4]).

(iv) Izan bedi $\mathrm{GL}_n^1(R)$ *lehenbiziko kongruentzia taldea*: $\mathrm{GL}_n(R) \to \mathrm{GL}_n(R/\mathfrak{m})$ modulo $\mathfrak{m}$ murrizte aplikazioaren nukleoa, hau da, $\mathrm{GL}_n^1(R) = I_n + \mathrm{M}_n(\mathfrak{m})$. Talde hori talde R-estandarra da, n^2 dimentsioa du, haren R-karta globala $\mathrm{GL}^1(R) \to \mathrm{M}_n(\mathfrak{m}) = \mathfrak{m}^{n^2}$, $I_n + A \mapsto A$ da eta talde eragiketa formala $\mathbf{F}(\mathbf{X}, \mathbf{Y}) = \mathbf{X} + \mathbf{Y} + \mathbf{X} \cdot \mathbf{Y}$ da, non $\mathbf{X}$ eta $\mathbf{Y}$ n-bider-n tamainako indeterminatu matrizeak eta $\cdot$ ohiko matrize biderketa diren.

(v) Karakteristika positiboan, Chevalleyk emandako 2 dimentsioko talde eragiketa formal hau dugu:

$$\mathbf{F}(X_1, X_2, Y_1, Y_2) = (X_1 + Y_1, X_2 + Y_2 + X_1^p Y_2)$$

(ikusi [18, Kapitulua II, §10, Adibidea V]).

Talde R-estandar batek, (S, ϕ), *filtrazio serie R-estandar* hau ematen du:

$$S_n := \phi^{-1}\left(\left(\mathfrak{m}^{N+n}\right)^{(d)}\right) \ \forall n \in \mathbb{N}_0, \tag{1.6}$$

non N eta d, hurrenez hurren, taldearen maila eta dimentsioa diren. Berehalakoa da, (1.5) aintzat hartuta, $S_n \trianglelefteq_o S$ azpitalde ireki normala dela ikustea $n \in \mathbb{N}$ guztietarako. Halaber, R trinkoa denez, S talde topologiko trinkoa da, eta, beraz, S_n guztiek indize finitua dute S-n, baina are gehiago esan dezakegu:

Lema 1.20 (cf. [27, Lema 2.3]). *Izan bedi (S, ϕ, d) N mailako talde R-estandarra. Orduan,*

$$|S : S_n| = \left|\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)} : \left(\mathfrak{m}^{N+n}\right)^{(d)}\right|,$$

non bigarrenak talde batukor indizea adierazten duen.

Froga. Alde batetik, (1.3) dela eta,

$$\phi(x) = \phi\left(xy^{-1}y\right) = \mathbf{F}\left(\phi\left(xy^{-1}\right), \phi(y)\right) = \phi(xy^{-1}) + \phi(y) + \mathbf{H}\left(\phi\left(xy^{-1}\right), \phi(y)\right)$$

non $\mathbf{H}(\mathbf{X}, \mathbf{Y})$-n ageri diren monomio guztiek gutxienez 2 maila duten eta X_i eta Y_j-ren berretura ez-nulu bat duten $i, j \in \{1, \ldots, d\}$ batzuetarako.

Lehenik, $\phi(x) - \phi(y) \in \left(\mathfrak{m}^K\right)^{(d)} \setminus \left(\mathfrak{m}^{K+1}\right)^{(d)}$ bada, orduan

$$\phi\left(xy^{-1}\right) + \mathbf{H}\left(\phi\left(xy^{-1}\right), \phi(y)\right) = \phi(x) - \phi(y) \in \left(\mathfrak{m}^K\right)^{(d)} \setminus \left(\mathfrak{m}^{K+1}\right)^{(d)}$$

da eta, beraz, $\phi\left(xy^{-1}\right) \in \left(\mathfrak{m}^K\right)^{(d)} \setminus \left(\mathfrak{m}^{K+1}\right)^{(d)}$. Alderantziz, $\phi\left(xy^{-1}\right) \in \left(\mathfrak{m}^K\right)^{(d)} \setminus \left(\mathfrak{m}^{K+1}\right)^{(d)}$ bada, orduan

$$\phi(x) - \phi(y) \equiv \phi\left(xy^{-1}\right) \mod \left(\mathfrak{m}^{K+1}\right)^{(d)}$$

da, eta, beraz, $\phi(x) - \phi(y) \in \left(\mathfrak{m}^K\right)^{(d)} \setminus \left(\mathfrak{m}^{K+1}\right)^{(d)}$ da.

Alegia,

$$xy^{-1} \in S_n \iff \phi(x) - \phi(y) \in \left(\mathfrak{m}^{N+n}\right)^{(d)}. \qquad \square$$

Hori dela eta, $\log_{|R/\mathfrak{m}|} |\mathfrak{m}^i : \mathfrak{m}^{i+1}| = \dim_{R/\mathfrak{m}} \left(\mathfrak{m}^i/\mathfrak{m}^{i+1}\right)$ denez,

$$|S : S_n| = p^{cd \sum_{i=0}^{n-1} \dim_{R/\mathfrak{m}}\left(\mathfrak{m}^{N+i}/\mathfrak{m}^{N+i+1}\right)} \tag{1.7}$$

da, $p^c = |R/\mathfrak{m}|$ hondar gorputzaren tamaina izanik. Bereziki, S/S_n taldea p-talde finitua da. Hortaz, kontuan hartuta S talde trinkoak identitatearen $\{S_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ ingurune sistema bat duela non S/S_n p-talde finitua den $n \in \mathbb{N}$ guztietarako, talde R-estandarrak oinarri kontagarriko pro-p taldeak dira.

Hurrengo emaitzari esker, talde R-analitikoen azterketa zenbaitetan talde R-estandarretara murriztu daiteke.

Lema 1.21 (cf. [24, Teorema 13.20])**.** *Izan bitez G talde R-analitikoa eta (U, ϕ, d) identitatearen R-karta. Orduan, U-ren barruan $d = \dim_1 G$ dimentsioko G-ren azpitalde R-estandar ireki bat dago. Bereziki, talde R-analitiko guztiek azpitalde R-estandar ireki bat dute.*

Froga. Translazio egoki batekin konposatuz demagun $\phi(1) = \mathbf{0}$ dela. Biderketa funtzioa, m, eta alderantzizko funtzioa, ι, identitatean R-analitikoak direnez, badaude $N \in \mathbb{N}$ zenbaki osoa eta $F_j \in \Lambda_0[[X_1, \ldots, X_{2d}]]$ eta $I_j \in \Lambda_0[[X_1, \ldots, X_d]]$, $j \in \{1, \ldots, d\}$, berretura serie formalak non $\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)} \subseteq \phi(U)$,

$$\phi \circ m \circ (\phi, \phi)^{-1}(x, y) = (F_1(x, y), \ldots, F_d(x, y)) \;\; \forall x, y \in \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}$$

eta

$$\phi \circ \iota \circ \phi^{-1}(x) = (I_1(x), \ldots, I_d(x)) \quad \forall x \in \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}$$

diren (egia esan, nahikoa da biderketa funtzioa bakarrik hartzea, $\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}$ irekian $\mathbf{I}$ berretura serie tupla $\mathbf{F}$-ren alderantzizko formala baino ez baita).

Bereziki, $\mathbf{F} = (F_1, \ldots, F_d)$ eta $\mathbf{I} = (I_1, \ldots, I_d)$ badira,

$$\mathbf{0} = \phi(1) = \mathbf{F}(\phi(1), \phi(1)) = \mathbf{F}(\mathbf{0}, \mathbf{0})$$

eta

$$\mathbf{0} = \phi(1) = \mathbf{I}(\phi(1)) = \mathbf{I}(\mathbf{0})$$

dira. Hots, F_j eta I_j berretura serie guztiek zero gai askea dute. Beraz, $\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}$ itxia da $\mathbf{F}$ eta $\mathbf{I}$-rekiko, alegia,

$$H := \phi^{-1}\left(\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}\right) \subseteq U$$

G-ren azpitalde irekia da eta

$$\phi(xy) = (F_1(\phi(x), \phi(y)), \ldots, F_d(\phi(x), \phi(y))) \ \ \forall x, y \in H$$

da. Horrela, R ez denean INDa, $\Lambda_0[[\mathbf{X}]] = R[[\mathbf{X}]]$ da, eta, beraz, $(H, \phi|_H)$ taldea N mailako, d dimentsioko eta $\mathbf{F}$ eragiketa lege formaldun azpitalde R-estandar irekia da.

Oinarriko R pro-p domeinua INDa denean, berriz, izan bitez π uniformizatzaile bat eta K zatikien gorputza. Orduan, (1.3)ren arabera,

$$F_j(\mathbf{X}, \mathbf{Y}) = \mathbf{X} + \mathbf{Y} + \sum_{\substack{\alpha, \beta \in \mathbb{N}_0^{(d)} \setminus \{\mathbf{0}\} \\ |\alpha| + |\beta| \geq 2}} a_{j,\alpha,\beta} \mathbf{X}^\alpha \mathbf{Y}^\beta \in K[[\mathbf{X}, \mathbf{Y}]]$$

da, eta $\mathbf{F}$ konbergentea denez $\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}$-n, badago $L \in \mathbb{N}_0$ zenbaki osoa non $a_{j,\alpha,\beta}\pi^{L(|\alpha|+|\beta|)} \in R$ den. Definitu

$$\overline{F}_j(\mathbf{X}, \mathbf{Y}) := \pi^{-L} F_j\left(\pi^L \mathbf{X}, \pi^L \mathbf{Y}\right) = \sum_{\alpha, \beta \in \mathbb{N}_0^{(d)} \setminus \{\mathbf{0}\}} \pi^{-L} a_{j,\alpha,\beta} \pi^{L(|\alpha|+|\beta|)} \mathbf{X}^\alpha \mathbf{Y}^\beta$$

koefizienteak R-n dituen berretura seriea. Hori dela eta,

$$\bar{H} := \phi^{-1}\left(\left(\mathfrak{m}^{N+L}\right)^{(d)}\right)$$

G-ren azpitalde irekia talde R-estandarra da $\psi\colon \bar{H} \to \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}$, $h \mapsto \pi^{-L}\phi(h)$ R-karta globalarekiko eta $\overline{\mathbf{F}} = (\overline{F}_1, \ldots, \overline{F}_d)$ eragiketa lege formalarekiko. Izan ere,

$$\begin{aligned} \psi_j(xy) &= \pi^{-L}\phi_j(xy) = \pi^{-L} F_j(\phi(x), \phi(y)) \\ &= \overline{F}_j\left(\pi^{-L}\phi(x), \pi^{-L}\phi(y)\right) = \overline{F}_j\left(\psi(x), \psi(y)\right), \ \forall x, y \in H \end{aligned} \tag{1.8}$$

da. □

Talde R-estandar bat, (S, ϕ), G-ren atlas natural bat eraikitzeko erabili daiteke, S-tik eratorritako atlasa deituko duguna. Horrela, definitu $\{(xS, \phi_x, d)\}_{x \in G}$ non $\phi_x \colon xS \to \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}$, $y \mapsto \phi(x^{-1}y)$ den. Karta horiek bateragarriak dira,

$$\phi_x \circ \phi_y^{-1} = \phi \circ L_{x^{-1}} \circ L_y \circ \phi^{-1} = \phi \circ L_{x^{-1}y} \circ \phi^{-1}$$

eta $L_{x^{-1}y}$ funtzioa R-analitikoa baitira. Era berean, atlas horiek G-ren jatorrizko egitura R-analitikoarekin bateragarriak dira.

Bide batez ohartu honakoaz:

Korolarioa 1.22. *Izan bedi G talde R-analitikoa. Orduan,* $\dim_x G$ *konstantea da $x \in G$ guztietarako.*

Froga. Oharra 1.11n esan da, nahiz eta Korolarioa 1.30en frogatuko den, $\dim_x G$ R-kartekiko independentea dela. Lema 1.21en arabera, existitzen da $S \leq G$ azpitalde R-estandar irekia, $d := \dim_1 G$ dimentsiokoa, eta $\{(xS, \phi_x, d)\}_{x \in G}$ R-atlasa da, beraz, $\dim_x(G) = d$ da $x \in G$ guztietarako. □

Balio komun horri talde R-analitikoaren *dimentsio (analitikoa)* deritzo, eta, aurreko emaitza kontuan hartuta, talde R-analitikoen kartak (U, ϕ) dupla moduan idatziko ditugu.

1.3.1 Talde R-estandarrak eta talde eragiketak

Lema 1.21en arabera, talde R-analitikoek pro-p azpitalde ireki bat dute, eta, ondorioz, talde R-analitiko trinkoak talde profinituak dira. Gainera, trinkotasunaren baldintzapean Lema 1.21 gogortu daiteke:

Lema 1.23. *Demagun R pro-p domeinua ez dela INDa. Izan bedi G talde R-analitiko trinkoa. Orduan, existitzen da S azpitalde R-estandarra non $g \in G$ guztietarako $c_g \colon S \to S$ konjokazio funtzioa hertsiki R-analitikoa den.*

Froga. Izan bedi d talde R-analitikoaren dimentsioa. Lema 1.21en arabera, existitzen da indize finituko (H, ϕ) azpitalde R-estandarra. Izan bitez N H-ren maila, $\mathbf{F}$ talde eragiketa formala eta $\mathbf{I}$ alderantzizko formala. Hartu T ezker transbertsal bat H-rentzat G-n. Konjokazio funtzioak identitatean R-analitikoak direnez, $t \in T$ bakoitzerako badaude $N_t \geq N$ zenbaki osoa eta $C_j^t \in \Lambda_0[[X_1, \ldots, X_d]]$, $j \in \{1, \ldots, d\}$, berretura serieak non

$$\phi\left(x^t\right) = \left(C_1^t(\phi(x)), \ldots, C_d^t(\phi(x))\right) \ \forall x \in \phi^{-1}\left(\left(\mathfrak{m}^{N_t}\right)^{(d)}\right)$$

den. Izan bedi $L = \max_{t\in T} N_t$, orduan $\left(\mathfrak{m}^L\right)^{(d)}$ multzo irekia $\mathbf{F}$ eta $\mathbf{I}$ berretura serie tuplekiko itxia denez, $S := \phi^{-1}\left(\left(\mathfrak{m}^L\right)^{(d)}\right)$ azpitalde R-estandar irekia da. Halaber,

$$C_j^t(\mathbf{0}) = C_j^t(\phi(1)) = 0$$

denez, C_j^t bakoitzak zero gai askea du, eta, ondorioz, S itxia da edozein $t \in T$ elementurekin konjokatzearekiko eta $c_t\colon S \to S$ hertsiki analitikoa da S-n $t \in T$ guztietarako. Bestalde, $h \in H$ eta $x \in S$ denean,

$$\phi\left(x^h\right) = \mathbf{F}(\mathbf{I}(\phi(h)), \mathbf{F}(\phi(x), \phi(h))),$$

da, eta, beraz, S itxia da h-rekin konjokatzearekiko eta $c_h\colon S \to S$ hertsiki R-analitikoa da S-n. Hortaz, $g \in G$ elementu guztiak th moduan idatzi daitezkenez, $t \in T$ eta $h \in H$ izanik, orduan, S itxia da g-rekin konjokatzearekiko –hau da, S normala da G-n– eta $c_g = c_h \circ c_t$ hertsiki R-analitikoa da S-n. □

Azpiatal hau bukatu bitartean, kontserba dezagun aitzineko frogako notazioa eta errekupera dezagun (S, ϕ) azpitaldetik eratorritako R-atlasa. Atlas horren bitartez, G-ko talde eragiketen deskribapen explizitua eman dezakegu:

Lema 1.24. *Izan bedi G talde R-analitikoa eta demagun badagoela S azpitalde R-estandar normal ireki bat non $g \in G$ guztietarako $c_g\colon S \to S$ konjokazio funtzioa hertsiki R-analitikoa den. Demagun areago S-k induzitutako atlasarekiko c_g funtzioa koordinatutan $\boldsymbol{C}_g$ berretura serieak ematen duela. Izan bitez $t, r \in G$.*

(i) *Alderantzizko funtzioa tS-n koordenatutan $\boldsymbol{C}_{t^{-1}} \circ \boldsymbol{I}$ berretura serie formalen tuplak ematen du. Hots,*

$$\phi_{t^{-1}}\left(x^{-1}\right) = \left(\boldsymbol{C}_{t^{-1}} \circ \boldsymbol{I}\right)\left(\phi_t(x)\right)\ \forall x \in tS.$$

(ii) *Biderketa funtzioa $tS \times rS$-n koordenatutan $\boldsymbol{F}(\boldsymbol{C}_r(\boldsymbol{X}), \boldsymbol{Y})$ berretura serie formalen tuplak ematen du. Hots,*

$$\phi_{tr}(xy) = \boldsymbol{F}(\boldsymbol{C}_r(\phi_t(x)), \phi_r(y))\ \forall x \in tS, y \in rS.$$

Froga. (i) Hartu $x = t\overline{x} \in tS$, orduan

$$\mathbf{C}_{t^{-1}}(\mathbf{I}(\phi_t(x))) = \mathbf{C}_{t^{-1}}\left(\phi\left(\overline{x}^{-1}\right)\right) = \phi\left(\left(\overline{x}^{-1}\right)^{t^{-1}}\right) = \phi_{t^{-1}}\left(x^{-1}\right).$$

(ii) Hartu $x = t\overline{x} \in tS$ eta $y = r\overline{y} \in rS$, orduan

$$\phi_{tr}(xy) = \phi(\overline{x}^r\overline{y}) = \mathbf{F}(\mathbf{C}_r(\phi(\overline{x})), \phi(\overline{y})) = \mathbf{F}(\mathbf{C}_r(\phi_t(x)), \phi_r(y)).$$ □

Bukatzeko, finkatu T ezker transbertsal bat S-rena G-n. Ohartu $\{(tS, \phi_t)\}_{t\in T}$ atlasa nahikoa dela talde eragiketak deskribatzeko. Izan ere, hartu $x, y \in G$ non $xS = yS$ den eta definitu $A_x^y := \phi_y \circ \phi_x^{-1} \colon \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)} \to \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}$ homeomorfismo R-analitikoa. Hots, $\phi_y = A_x^y \circ \phi_x$ da, eta, beraz, Lema 1.24(i) modu honetan berridatz dezakegu:

$$\phi_r\left(x^{-1}\right) = \left(A_{t^{-1}}^r \circ \mathbf{C}_{t^{-1}} \circ \mathbf{I}\right)\left(\phi_t(x)\right) \; \forall x \in tS,$$

$rS = t^{-1}S$ izanik. Berdin biderketa funtziorako, hau da,

$$\phi_p(xy) = A_{tr}^p\left(\mathbf{F}(\mathbf{C}_r(\phi_t(x)), \phi_r(y))\right) \;\; \forall x \in tS, y \in rS,$$

$trS = pS$ izanik.

1.4 Lieren aljebra

Zein-nahi talde R-estandarri Lieren aljebra bat eslei dakioke. Atal honen xedea, [24, Atala 13.3] jarraituz eraikuntza hori deskribatzea da, eta pro-p domeinu orokorretarako [68, Zatia II, Kapitulua III, § 10]eko emaitzak garatzea.

Izan bedi $(S, \mathbf{F})$ talde R-estandarra, N maila eta d dimentsiokoa. Horrela, (1.3)ko notazioarekin, $\mathbf{F}$-ri honako Lieren kortxetea elkartu dakioke

$$[\mathbf{X}, \mathbf{Y}]_{\mathbf{F}} := \mathbf{B}(\mathbf{X}, \mathbf{Y}) - \mathbf{B}(\mathbf{Y}, \mathbf{X})$$

(nahasteko arriskurik ez dagoenean sinpleki $[\cdot, \cdot]$ izendatuko dugu). Ikus dezagun $[\cdot, \cdot]_{\mathbf{F}}$ benetan Lieren kortxetea dela (ikusi Apendizea A kortxetearen definiziorako). Alde batetik, aplikazio bilineala da eta $[\mathbf{X}, \mathbf{X}] = 0$ betetzen du. Bestalde, Jacobiren identitatea betetzen du:

Lema 1.25 (cf. [24, Lema 13.24] eta [68, Zatia II, Kapitulua IV, § 7.6])**.** *Izan bitez $\boldsymbol{X}$, $\boldsymbol{Y}$ eta $\mathbf{Z}$ indeterminatuen d-tuplak. Orduan,*

$$[\boldsymbol{X}, [\boldsymbol{Y}, \mathbf{Z}]] + [\boldsymbol{Y}, [\mathbf{Z}, \boldsymbol{X}]] + [\mathbf{Z}, [\boldsymbol{X}, \boldsymbol{Y}]] = \mathbf{0}$$

da.

Froga. Emaitza Hall-Witten identitatearen (cf. [68, Zatia I, Proposizioa 1.1]) –Jacobiren identitatearen bertsio ez-trukakorra– ondorio zuzena da. Hots, talde guztiek identitate hau betetzen dute:

$$[x^y, [y, z]]\,[y^z, [z, x]]\,[z^x, [x, y]] = 1. \tag{1.9}$$

Hemendik aurrera $O(n)$ laburdura erabiko dugu, hau da, bi indeterminaturen d-tuplaz, $\mathbf{X}$ eta $\mathbf{Y}$, osatutako berretura serie formalak non horietan ageri diren monomio guztiek gutxienez n maila duten eta X_i eta Y_j baten berretura ez-nulu bat ageri den $i, j \in \{1, \ldots, d\}$ batzuetarako. Halaber, $\mathbf{F}(\mathbf{I}(\mathbf{Y}), \mathbf{F}(\mathbf{X}, \mathbf{Y}))$ konjokazio formala $\mathbf{X}^{\mathbf{Y}}$ moduan laburtuko dugu, eta

$$\mathbf{C}(\mathbf{X}, \mathbf{Y}) := \mathbf{F}(\mathbf{I}(\mathbf{X}), \mathbf{F}(\mathbf{I}(\mathbf{Y}), \mathbf{F}(\mathbf{X}, \mathbf{Y})))$$

erabiliko dugu konmutadore adierazteko. Horrela, (1.3)-(1.5)en arabera, $\mathbf{X}^{\mathbf{Y}} = \mathbf{X} + O(2)$ eta $[\mathbf{X}, \mathbf{Y}] = \mathbf{C}(\mathbf{X}, \mathbf{Y}) + O(3)$ dira. Hori dela eta,

$$[\mathbf{X}, [\mathbf{Y}, \mathbf{Z}]] = \mathbf{C}\left(\mathbf{X}^{\mathbf{Y}}, \mathbf{C}(\mathbf{Y}, \mathbf{Z})\right) + O(4)$$

da. Hortaz, (1.9) identitatearen arabera,

$$\begin{aligned} \mathbf{0} &= \mathbf{F}\left(\mathbf{C}\left(\mathbf{X}^{\mathbf{Y}}, \mathbf{C}\left(\mathbf{Y}, \mathbf{Z}\right)\right), \mathbf{F}\left(\mathbf{C}\left(\mathbf{Y}^{\mathbf{Z}}, \mathbf{C}\left(\mathbf{Z}, \mathbf{X}\right)\right), \mathbf{C}\left(\mathbf{Z}^{\mathbf{X}}, \mathbf{C}\left(\mathbf{X}, \mathbf{Y}\right)\right)\right)\right) \\ &= [\mathbf{X}, [\mathbf{Y}, \mathbf{Z}]] + [\mathbf{Y}, [\mathbf{Z}, \mathbf{X}]] + [\mathbf{Z}, [\mathbf{X}, \mathbf{Y}]] + O(4), \end{aligned}$$

Beraz, $[\cdot, \cdot]$-n ageri diren monomio guztiek 2 maila dutenez,

$$[\mathbf{X}, [\mathbf{Y}, \mathbf{Z}]] + [\mathbf{Y}, [\mathbf{Z}, \mathbf{X}]] + [\mathbf{Z}, [\mathbf{X}, \mathbf{Y}]] = \mathbf{0}. \qquad \square$$

Horrenbestez, Lieren kortxete horrek $R^{(d)}$-ren gainean *Lieren aljebra* egitura definitzen du, *S-ri elkarturiko Lieren aljebra* deituko duguna.

Bestetik, R-Lie aljebren arteko aplikazio naturalak R-Lie aljebra homomorfismoak dira, hau da, Lieren kortxeak gordetzen dituzten aplikazio R-linealak. Halaber, funtzio R-analitiko baten hurbilketa lineala haren diferentzialak ematen du. Hots, izan bedi $\mathbf{U}(\mathbf{X}) \in R[[X_1, \ldots, X_n]]^{(m)}$ berretura serie formalen tupla eta demagun $\mathbf{U}(\mathbf{0}) = \mathbf{0}$ dela. Deitu $\mathbf{U}^{[k]}$ moduan $\mathbf{U}$-ren k mailako zati homogeneoari. Bereziki, $\mathbf{U}$-ren zati lineala

$$\mathbf{U}^{[1]}(\mathbf{X}) = \left(\sum_{i=1}^{n} a_{1i} X_i, \ldots, \sum_{i=1}^{n} a_{mi} X_i\right)$$

da. Orduan, $\mathbf{U}$-ren *diferentziala* $\mathbf{U}^{[1]}$-k definitutako $D\mathbf{U}\colon R^{(n)} \to R^{(m)}$ aplikazio lineala da, eta $\mathbf{U}$-ren *matrize jacobiarra* $\mathcal{J}\mathbf{U} := (a_{ij})_{i,j}$ matrizea da, diferentziala definitzen duen matrizea hain zuzen ere. Zailtasun handirik gabeko ariketa da *katearen erregela* frogatzea, hau da, $\mathbf{V}$ berretura serieen n-tupla bada eta $\mathbf{V}(\mathbf{0}) = \mathbf{0}$ betetzen badu, orduan

$$D(\mathbf{U} \circ \mathbf{V}) = D\mathbf{U} \circ D\mathbf{V} \text{ eta } \mathcal{J}(\mathbf{U} \circ \mathbf{V}) = \mathcal{J}\mathbf{U} \cdot \mathcal{J}\mathbf{V}$$

dira.

Era berean, izan bedi $f\colon U \subseteq R^{(n)} \to R^{(m)}$ funtzio R-analitikoa eta demagun $f(x) = 0$ dela. Definizioa 1.12 dela eta, badago $\mathbf{U}$ berretura serie formala non $\mathbf{U}(y) = f(x+y)$ den $y \in U$ guztietarako, U x-ren ingurune egoki bat izanik. Bereziki, $\mathbf{U}(\mathbf{0}) = \mathbf{0}$ da. Orduan, f-ren diferentziala x-n, $D_x f$ izendatuko duguna, $D\mathbf{U}$ da, eta f-ren matrize jacobiarra x-n, $\mathcal{J}_x f$ izendatuko duguna, $\mathcal{J}\mathbf{U}$.

Bi talde R-estandarren, $(S, \mathbf{F}, d)$ eta $(T, \mathbf{G}, e)$, arteko *morfismo formal* bat $\mathbf{U} \in R[[X_1, \ldots, X_d]]^{(e)}$ berretura serie formalen tupla bat da non

$$\mathbf{U}(\mathbf{F}(\mathbf{X}, \mathbf{Y})) = \mathbf{G}(\mathbf{U}(\mathbf{X}), \mathbf{U}(\mathbf{Y}))$$

den. Ikus dezagun diferentzialak Lieren kortxeteak gordetzen dituela:

Lema 1.26 (cf. [24, Proposizioa 13.26] eta [35, Atala 14.2])**.** *Izan bedi $\boldsymbol{U}$ talde morfismo formala. Orduan, $D\boldsymbol{U}$ diferentziala R-Lie aljebra homomorfismoa da, hau da,*

$$\mathbf{U}^{[1]}\left([\boldsymbol{X}, \boldsymbol{Y}]_{\boldsymbol{F}}\right) = \left[\mathbf{U}^{[1]}(\boldsymbol{X}), \mathbf{U}^{[1]}(\boldsymbol{Y})\right]_{\mathbf{G}}.$$

Froga. Froga laburki deskribatu baino ez dugu eginen. Sinpletasunagatik erabili $\cdot$ eta $\cdot^{-1}$ biderketa eta alderantzizkoa izendatzeko, dagozkien eragiketa eta alderantzizko formalen ordez. Gainera, $O(n)$ notazioa Lema 1.25eko era berean erabiliko da. Bereziki, $\mathbf{U}(\mathbf{X}) = \mathbf{U}^{[1]}(\mathbf{X}) + O(2)$ da, eta, ondorioz,

$$\mathbf{U}(\mathbf{X})^{-1} \cdot \mathbf{U}(\mathbf{Y})^{-1} \cdot \mathbf{U}(\mathbf{X}) \cdot \mathbf{U}(\mathbf{Y}) = \left[\mathbf{U}^{[1]}(\mathbf{X}), \mathbf{U}^{[1]}(\mathbf{Y})\right]_{\mathbf{G}} + O(3)$$

eta

$$\mathbf{U}\left(\mathbf{X}^{-1} \cdot \mathbf{Y}^{-1} \cdot \mathbf{X} \cdot \mathbf{Y}\right) = \mathbf{U}^{[1]}\left([\mathbf{X}, \mathbf{Y}]_{\mathbf{F}}\right) + O(3),$$

ditugu. Bi mailako monomioak konparatuz lortzen da emaitza. □

Hortaz, talde R-estandar batek hainbat R-karta global eta horren eraginez hainbat eragiketa lege formal, izan ditzakeen arren, elkarturiko Lieren aljebra guztiak isomorfoak dira $D_{\mathbf{0}}\left(\phi_1 \circ \phi_2^{-1}\right)$-ren bidez (hemen ϕ_i R-karta globalak dira). Hots, S-ri elkarturiko Lieren aljebra, isomorfismoak salbu, bakarra da. Are gehiago, orain arteko guztiak kontuan hartuta, talde R-estandar bati Lieren aljebra bat esleitzearen ideia kategorikoki formalizatu daiteke.

Teorema 1.27 (cf. [24, Atala 13.3])**.** *Orain arteko notazioa mantenduz: $(S, \mathbf{F}) \mapsto \left(R^{(d)}, [\cdot,\cdot]_{\boldsymbol{F}}\right)$ eta $f \mapsto D_{\mathbf{0}} f$ esleipenek funktore bat definitzen dute, $\mathfrak{RStd}$, objektu gisa $(S, \boldsymbol{F})$ talde R-estandarrak eta morfismo gisa f talde morfismo formalak dituen kategoriaren, eta $\mathfrak{RLie}$, objektu gisa R-Lie aljebrak eta morfismo gisa R-Lie algebra homomorfismoak dituen kategoriaren artean.*

Izan bitez $F\colon N \to M$ funtzio R-analikoa, x-ren (U, ϕ, n) R-karta N-n eta $F(x)$-ren (V, ψ, m) R-karta M-n, eta demagun areago $\phi(x) = \mathbf{0}$ eta $\psi(F(x)) = \mathbf{0}$ direla (hau suposizio teknikoa da, translazio egoki batekin konposatuz halako homeomorfismoak lor ditzakegu eta). Orduan, F-ren *diferentziala* eta *matrize jacobiarra* hurrenez hurren $D_x F$ eta $\mathcal{J}_x F$ izendatuko ditugunak, $D_{\mathbf{0}}\left(\psi \circ F \circ \phi^{-1}\right)$ eta $\mathcal{J}_{\mathbf{0}}\left(\psi \circ F \circ \phi^{-1}\right)$ moduan definitzen dira. Definizio horiek jacobiar analitiko klasikoarekin erlazionatuta daude, hots, $\mathbf{U}(\mathbf{X}) \in R[X_1, \ldots, X_n]]^{(m)}$ bada, haren matrize jacobiar "klasikoa"

$$\operatorname{Jac}\mathbf{U}(X_1, \ldots, X_n) := \left(\partial_j U_i(X_1, \ldots, X_n)\right)_{i,j}$$

da, non ∂_j ikurrak X_j aldagaiarekiko deribatu formala adierazten duen. Hori dela eta, lokalki $\mathbf{0}$-ren inguruan $\psi \circ F \circ \phi^{-1}(z) = \mathbf{U}(z)$ bada, $\mathcal{J}_x F = \operatorname{Jac}\mathbf{U}(\mathbf{0})$ da. Gainera, $y \in U \cap F^{-1}(V)$ denean, $\overline{\phi}(x) := \phi(x) - \phi(y)$ eta $\overline{\psi}(x) := \psi(x) - \psi(F(y))$ y-ren eta $F(y)$-ren R-kartak dira, $\overline{\phi}(y) = \mathbf{0}$ eta $\overline{\psi}(F(y)) = \mathbf{0}$ izanik. Horrenbestez, katearen erregela analitikoa dela eta,

$$\begin{aligned}\mathcal{J}_y F = \mathcal{J}_{\mathbf{0}}\left(\overline{\psi} \circ F \circ \overline{\phi}^{-1}\right) &= \mathcal{J}_{\mathbf{0}}\left(\mathbf{U}(\mathbf{X} + \phi(y)) - \psi(F(y))\right) \\ &= \operatorname{Jac}\mathbf{U}(\mathbf{X} + \phi(y))|_{\mathbf{X}=\mathbf{0}} = \operatorname{Jac}\mathbf{U}(\mathbf{X})|_{\mathbf{X}=\phi(y)}. \end{aligned} \tag{1.10}$$

Argudiaketa hori guztia kontuan hartuta, eta notazio sinplifikatzearren, atala bukatu bitartean (U, ϕ, n) x-ren R-karta bada, $\phi(x) = \mathbf{0}$ dela suposatuko dugu.

Aurreko definizio horiek R-karten menpekoak diren arren, matrize jacobiarrean berean bainoago haren heinean interesatuko gara, eta besteak beste honako emaitza hau dugu:

Lema 1.28. *Izan bedi $\mathbf{U} = (U_1, \ldots, U_n) \in R[[X_1, \ldots, X_n]]^{(n)}$ zero gai askea duen berretura serie formalen tupla, eta demagun U_i-ren zati lineala $\sum_{j=1}^{n} a_{ij} X_j$ dela. Demagun areago $\mathbf{U}$ alderanzgarria dela, hau da, badago $\mathbf{V} = (V_1, \ldots, V_n) \in R[[X_1, \ldots, X_n]]^{(n)}$ berretura serie formalen tupla non*

$$V_i \circ \mathbf{U}(\boldsymbol{X}) = U_i \circ \mathbf{V}(\boldsymbol{X}) = X_i$$

den $i \in \{1, \ldots, n\}$ guztietarako. Orduan, $(a_{ij})_{i,j} \in \mathrm{GL}_n(R)$ da.

Froga. Ohartu V_i-ren zati lineala $\sum_{j=1}^{n} b_{ij} X_j$ bada, orduan

$$(\mathbf{U} \circ \mathbf{V})(\mathbf{X}) = \left(\sum_{j=1}^{n}\sum_{k=1}^{n} a_{1k} b_{kj} X_j + O(2), \ldots, \sum_{j=1}^{n}\sum_{k=1}^{n} a_{nk} b_{kj} X_j + O(2)\right) = \mathbf{X}$$

dela, non ohiko legez $O(n)$ bidez gutxienez n mailako monomioz osatutako berretura serieak adierazten ditugun. Hortaz, $(b_{ij})_{i,j}$ da $(a_{ij})_{i,j}$-ren alderantzizko matrizea. □

Adibidea 1.29. Esate baterako, G talde R-analitikoan $L_g\colon G \to G$, $x \mapsto gx$ *ezker biderketa* alderanzgarria da, eta, beraz, Lema 1.28ren arabera, $\mathcal{J}_x L_g \in \mathrm{GL}_n(R)$ da $x \in G$ guztietarako.

Korolarioa 1.30. *Izan bitez M barietate R-analitikoa eta $\{(U_i, \phi_i, d_i)\}_{i=1}^2$ R-kartak. Orduan, $U_1 \cap U_2 \neq \varnothing$ bada, $d_1 = d_2$ da.*

Froga. Hartu $x \in U_1 \cap U_2$. Definizioz, $\phi_1 \circ \phi_2^{-1}$ funtzio R-analitiko alderanzgarria da, beraz, Lema 1.28 dela eta, $\mathcal{J}_x\left(\phi_1 \circ \phi_2^{-1}\right) \in \mathrm{M}_{d_1 \times d_2}(R)$ alderanzgarria da. Bereziki $d_1 = d_2$ da. □

Korolarioa 1.31. *Izan bitez $F\colon N \to M$ funtzio R-analitikoa eta $x \in N$. Izan bitez $\{(U_i, \phi_i, n)\}_{i=1}^2$ eta $\{(V_i, \psi_i, m)\}_{i=1}^2$ hurrenez hurren x-ren R-kartak N-n eta $F(x)$-ren R-kartak M-n. Orduan,*

$$\operatorname{rk} \mathcal{J}_{\mathbf{0}}\left(\psi_1 \circ F \circ \phi_1^{-1}\right) = \operatorname{rk} \mathcal{J}_{\mathbf{0}}\left(\psi_2 \circ F \circ \phi_2^{-1}\right).$$

Froga. Ohartu $\phi_1\left(U_1 \cap U_2 \cap F^{-1}(V_1) \cap F^{-1}(V_2)\right)$-ra murriztuta,

$$\psi_1 \circ F \circ \phi_1^{-1} = \psi_1 \circ \psi_2^{-1} \circ \psi_2 \circ F \circ \phi_2^{-1} \circ \phi_2 \circ \phi_1^{-1}$$

dela, eta, beraz,

$$\mathcal{J}_{\mathbf{0}}\left(\psi_1 \circ F \circ \phi_1^{-1}\right) = \mathcal{J}_{\mathbf{0}}\left(\psi_1 \circ \psi_2^{-1}\right) \mathcal{J}_{\mathbf{0}}\left(\psi_2 \circ F \circ \phi_2^{-1}\right) \mathcal{J}_{\mathbf{0}}\left(\phi_2 \circ \phi_1^{-1}\right)$$

dela. Horrela, $\psi_1 \circ \psi_2^{-1}$ eta $\phi_1 \circ \phi_2^{-1}$ funtzio R-analitiko alderanzgarriak direnez, emaitza Lema 1.28ren ondorioa da. □

Hori dela eta, aipatu denez $\mathcal{J}_x F$ eta $D_x F$-n definizioak, matrize eta funtzio lineal gisa, anbiguoak diren arren, "$\mathcal{J}_x F \in \mathrm{GL}_n(R)$" edo "$D_x F$ *injektiboa da*" moduko baieztapenak matematikoki zuzenak dira. Bereziki, hurrengo definizioa kartez arduratu gabe enuntzia dezakegu:

Definizioa 1.32. Izan bedi $F\colon N \to M$ funtzio R-analitikoa. Orduan,

(i) F *murgilketa ahula* da x-n, $\operatorname{rk} \mathcal{J}_x F = \dim_x N$ bada.

(ii) F *azpiraketa ahula* da x-n, $\operatorname{rk} \mathcal{J}_x F = \dim_x M$ bada.

Era berean, F *murgilketa ahula* da puntu guztietan hala denean, eta berdin *azpiraketa ahuletarako.*

Ondoko teorema [24, Teorema 6.37]ren froga moldatuz frogatu daiteke.

Teorema 1.33 (Alderatzizko Funtzioaren Teorema)**.** *Izan bedi R eraztuna eta izan bitez $U_1, \dots, U_n \in R[[X_1, \dots, X_n]]$ gai askerik gabeko berretura serieak. Izan bedi $\sum_{j=1}^n a_{ij} X_j$ polinomioa U_i-ren zati lineala. Demagun $(a_{ij})_{i,j} \in \mathrm{GL}_n(R)$ dela. Orduan, existitzen dira $V_1, \dots, V_n \in R[[X_1, \dots, X_n]]$ zero gai askea duten berretura serieak non*

$$(V_i \circ \boldsymbol{U})(\boldsymbol{X}) = (U_i \circ \boldsymbol{V})(\boldsymbol{X}) = X_i$$

den $i \in \{1, \dots, n\}$ guztietarako.

Alegia, matrize jacobiarrak funtzio baten alderanzgarritasun lokalaren berri ematen du.

Definizioa 1.34. Izan bedi $F\colon N \to M$ funtzio R-analitikoa. Orduan, F funtzio *R-bianalitikoa** da $x \in N$ puntuan, $\mathcal{J}_x F \in \mathrm{GL}_n(R)$ denean. Halaber, F *R-bianalitikoa* da M-ko puntu guztietan bianalitikoa denean.

Alegia, funtzio bianalitiko kontzeptua isomorfismo nozio naturala da barietate R-analitikoetan: alderantzizko analitikoa duten homeomorfismo R-analitikoak. Nahiz eta froga definizioen ondorio zuzena izan, emaitza hau oinarrizkoa da barietate R-analitikoen testuinguruan.

Teorema 1.35. *Izan bedi $F\colon N \to M$ funtzio R-analitikoa. Orduan, F funtzioa $x \in N$ puntuan R-bianalitikoa da baldin eta soilik baldin $D_x F$ R-modulu isomorfismoa bada.*

Aurrekoa koordenatu aldaketak aztertzeko ere erabil daiteke:

Teorema 1.36 (Koordenatu aldaketak)**.** *Izan bitez M barietate R-analitikoa, $x \in M$, $n = \dim_x M$, $U \subseteq_o M$ non $x \in U$ eta $\{f_i\colon U \to R\}_{i=1}^n$ funtzio R-analitikoen familia non $f_i(x) = 0$ den i guztietarako. Hurrengoak baliokideak dira:*

(i) *$\{f_i\}_{i=1}^n$ koordenatu sistema da x-n.*

(ii) *$F = (f_1, \dots, f_n)$ funtzio R-bianalitikoa da x-n.*

(iii) *$\{D_x f_i\}$ R-modulu oinarria da $\left(R^{(n)}\right)^*$-rentzat ($R^{(n)}$-ren R-modulu duala).*

*Serrek [68]n *étale* terminoa darabil funtzio hauek izendatzeko.

Froga. (i) $\Rightarrow$ (ii). Existitzen da x-ren V ingurune irekia non $(V, F|_V, n)$ x-ren R-karta den, eta, beraz, karta horrekiko F identitatea da koordenatutan.
(ii) $\Rightarrow$ (i). Lokalki F homeomorfismo R-bianalitikoa da Teorema 1.35en poderioz, $\mathcal{J}_x F \in GL_n(R)$ baita. Beraz, existitzen da $V \subseteq_o U$ azpimultzo irekia non $F\colon V \to F(V) \subseteq R^{(n)}$ homeomorfismoa den, eta erraz ikusten da (V, F, n) R-karta M-ren jatorrizko egitura R-analitikoarekin bateragarria dela.
(ii) $\Leftrightarrow$ (iii). Izan bedi $(b_{ij})_{i,j}$ F-ren *edozein* matrize jacobiar x-n. Orduan, $\left\{\sum_{j=1}^n b_{1j}X_j, \ldots, \sum_{j=1}^n b_{nj}X_j\right\}$ aplikazio linealen familia $\left(R^{(n)}\right)^*$-ren oinarria da baldin eta soilik baldin $(b_{ij})_{i,j} \in \mathrm{GL}_n(R)$ bada. $\square$

Barietate analitikoen teoria batik bat gorputzen gainean, nagusiki $\mathbb{C}$, garatu izan da. Emaitza askok, halere, elkarturiko Lieren aljebraren (Lieren teorian *espazio ukitzaile* ere deitzen zaio) bektore espazio egituraren ondorio dira. Pro-p domeinu orokorren gainean, ordea, Lieren aljebrak R-moduluak direnez, argudio gehienak errepikatu daitezke, baina zenbait baldintza gehigarrirekin.

Lieren aljebrak R-moduluak izanik (ez espazio bektorialak), komeni da ohiko heinaren ordez *hondar-heina* kontzeptua erabiltzea. Hots, izan bitez Q eraztuna eta $A \in \mathrm{M}_{n\times m}(Q)$. Orduan, A matrizearen hondar-heina, $\operatorname{res.rk}(A)$ adieraziko duguna, ondoko baldintza betetzen duen $r \in \mathbb{N}_0$ zenbaki oso handiena da: badago $r \times r$ tamainako Δ_r minore bat A-n non $\Delta_r \in \mathcal{U}(Q)$ den. Noski, Q gorputza denean, kontzeptu hau ohiko heinaren baliokidea da, eta $Q = (R, \mathfrak{m})$ pro-p domeinua denean karakterizazio baliokide hau dugu:

$$\operatorname{res.rk}(A) = \operatorname{rk}_{R/\mathfrak{m}}\left(\overline{A}\right),$$

non $\overline{A}$ matrizea A-ren sarrerak modulo $\mathfrak{m}$ murriztuz erdiesten den matrizea den, eta $\operatorname{rk}_{R/\mathfrak{m}}$-k heina $R/\mathfrak{m}$ hondar gorputzean kalkulatzen dela esan nahi duen.

Korolarioa 1.31en heinaren ordez hondar-heina hartzen badugu, emaitza bera lortzen da –aski da froga hitzez hitz errepikatzea–, bereziki ondoko definizioa ez da anbiguoa.

Definizioa 1.37. Izan bedi $F\colon N \to M$ funtzio R-analitikoa. Orduan,

(i) F *murgilketa* da x-n, $\operatorname{res.rk} \mathcal{J}_x F = \dim_x N$ bada.

(ii) F *azpiraketa* da x-n, $\operatorname{res.rk} \mathcal{J}_x F = \dim_x M$ bada.

Era berean, *murgilketa* bat domeinuko puntu guztietan murgilketa den funtzio R-analitikoa da, eta berdin azpiraketetarako.

Lema 1.38. *Izan bedi $F\colon N\to M$ murgilketa R-analitikoa. Orduan, F koordenatutan*

$$\iota\colon R^{(n)}\to R^{(m)},\ (x_1,\dots,x_n)\mapsto\Big(x_1,\dots,x_n,0,\overset{(m-n)}{\dots},0\Big)$$

monomorfismo R-lineala da. Konkretuago, $x\in N$ guztietarako badago x-ren (U,ϕ,n) R-karta N-n eta $F(x)$-ren (V,ψ,m) R-karta M-n non hurrengo diagrama trukakorra den:

$$\begin{array}{ccc} U & \xrightarrow{\quad F\quad} & V \\ \phi\downarrow & & \downarrow\psi \\ R^{(n)} & \xrightarrow{\quad \iota\quad} & R^{(m)}. \end{array}$$

Era berean, azpiraketa bat koordenatutan

$$\pi\colon R^{(n)}\to R^{(m)},\ (x_1,\dots,x_n)\mapsto(x_1,\dots,x_m)$$

epimorfismo R-lineala da.

Froga. Emaitza murgilketetarako frogatuko dugu, azpiraketetarako berdin-berdin frogatzen baita. Lehenik eta behin, emaitza lokala denez, koordenatutan lan eginda, demagun $x=\mathbf{0}\in U=\left(\mathfrak{m}^L\right)^{(n)}\subseteq_o N$, $F(x)=\mathbf{0}\in V=\left(\mathfrak{m}^L\right)^{(m)}\subseteq_o M$ eta $F\in R[[X_1,\dots,X_n]]^{(m)}$ direla.

Bigarrenik, sinpletasunagatik, demagun $\mathcal{J}_{\mathbf{0}}F$-ren lehenbiziko n zutabeen hondar-heina n dela, hau da, $\tilde{F}=(F_1,\dots,F_n)$ bada, orduan $\operatorname{res.rk}\mathcal{J}_{\mathbf{0}}\tilde{F}=n$ da.

Izan bedi $W=\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(m-n)}$, eta definitu $\Phi\colon N\times W\to M$, $(x,w)\mapsto F(x)+(\mathbf{0},w)$ aplikazioa. Orduan,

$$\mathcal{J}_{\mathbf{0}}\Phi=\left(\begin{array}{c|c} \mathcal{J}_{\mathbf{0}}F & \begin{matrix}\mathbf{0}\\ I_{m-n}\end{matrix}\end{array}\right)\in\mathrm{M}_m(R)$$

eta $\operatorname{res.rk}\mathcal{J}_{\mathbf{0}}\Phi=m$ dira. Beraz, Teorema 1.33ren arabera, existitzen da Φ-ren alderantzizko lokala, hau da, badaude U', V' eta W' azpimultzo irekiak, hurrenez hurren $R^{(n)}$, $R^{(m)}$ eta $R^{(m-n)}$-n, non $\Psi\colon V'\to U'\times W'$ funtzioa $\Phi|_{U'\times W'}$-ren alderantzizkoa den. Halaber, ondoko diagrama trukakorra da:

$$\begin{array}{ccc} U' & \xrightarrow{\quad F\quad} & V' \\ \iota\downarrow & & \downarrow\Psi \\ U'\times\{0\}^{(m-n)} & \xrightarrow{\Psi\circ F\circ\iota^{-1}} & U'\times W', \end{array}$$

non $\iota(x) = (x, \mathbf{0})$ den. Azkenik,

$$\Psi \circ F \colon U' \to U' \times W', \ (x_1, \ldots, x_n) \mapsto \Big(x_1, \ldots, x_n, 0, \overset{(m-n)}{\ldots}, 0\Big)$$

da, nahi genuen moduan. □

Bereziki, funtzio R-bianalitiko bat aldi berean murgilketa bat eta azpiraketa bat da, eta, ondorioz, koordenatutan identitatea gisa idatz daiteke.

Definizioa 1.39. Izan bedi $F \colon N \to M$ funtzio R-analitikoa. Orduan, F *azpimurgilketa* da $x \in N$ puntuan existitzen direnean $x \in U \subseteq_o N$, $F(x) \in V \subseteq_o M$ eta W barietate R-analitikoa non $F|_U$ azpiraketa baten eta murgilketa baten konposizioa den. Hots,

$$U \xrightarrow{\pi} W \xrightarrow{\iota} V$$

da, π azpiraketa bat eta ι murgilketa bat izanik.

Lema 1.40. *Izan bedi $F \colon N \to M$ funtzioa R-analitikoa. Hurrengoak baliokideak dira:*

(i) *F azpiraketa da x puntuan.*

(ii) *F koordenatutan, x-ren inguruan,*

$$\overline{F} \colon R^{(n)} \to R^{(m)}, \ (x_1, \ldots, x_n) \mapsto (x_1, \ldots, x_r, 0, \ldots, 0)$$

homomorfismo R-analitikoa gisan idatzi daiteke $r \leq \min\{n, m\}$ baterako, $n = \dim_x N$ eta $m = \dim_{F(x)} M$ izanik.

Froga. Froga Lema 1.38ren ondorioa da.

(i) ⇒ (ii). Definizioz, F lokalki $U \xrightarrow{\pi} W \xrightarrow{\iota} V$ da. Hartu $r = \dim_{\pi(x)} W$. Lema 1.38ren arabera, π eta ι koordenatutan

$$\overline{\pi} \colon R^{(n)} \to R^{(r)}, \ (x_1, \ldots, x_n) \mapsto (x_1, \ldots, x_r)$$

eta

$$\overline{\iota} \colon R^{(r)} \to R^{(m)}, \ (x_1, \ldots, x_r) \mapsto (x_1, \ldots, x_r, 0, \overset{(m-r)}{\ldots}, 0)$$

dira, beraz, F koordenatutan horien konposizioa da.
(ii) ⇒ (i). Existitzen dira x-ren (U, ϕ, n) R-karta eta $F(x)$-ren (V, ψ, m) R-karta non $\psi \circ F \circ \phi^{-1} = \overline{F} = \overline{\iota} \circ \overline{\pi}$ den $\phi(U)$ irekian (hemen $\overline{\pi}$ eta $\overline{\iota}$ aurreko inplikaziokoak dira). Hortaz, $\overline{W} = \overline{\pi}\,(\phi(U))$ $R^{(r)}$-ren azpimultzo irekia da, eta hurrengo diagrama trukakorra da:

$$
\begin{array}{ccccc}
U & & \xrightarrow{\quad F \quad} & & V \\
\downarrow{\scriptstyle\phi} & & & & \uparrow{\scriptstyle\psi^{-1}} \\
\phi(U) & \xrightarrow{\overline{\pi}} & \overline{W} & \xrightarrow{\overline{\iota}} & \psi(V)
\end{array}
$$

Azkenik, $\overline{\pi} \circ \phi$ azpiraketa da eta $\psi^{-1} \circ \overline{\iota}$ murgilketa. □

Hurrengo lema [68, 86. orriko Teorema]ko argudioak errepikatuz frogatzen da. Honako oinarrizko emaitza hau beharko dugu:

Lema 1.41. *Izan bitez Q zero karakteristikako eraztuna eta $F \in Q[[X_1, \ldots, X_n]]$. Demagun azken m aldagaiekiko deribatu formalak 0 direla, hau da, $\partial_j F = 0$ da $j \in \{n-m+1, \ldots, n\}$ guztietarako. Orduan, $F \in Q[[X_1, \ldots, X_{n-m}]]$ da.*

Proposizioa 1.42. *Izan bitez R zero karakteristikako pro-p domeinua eta $F \colon N \to M$ funtzio R-analitikoa. Demagun existitzen dela $r \in \mathbb{N}_0$ zenbaki osoa non $\operatorname{rk} \mathcal{J}_y F = \operatorname{res.rk} \mathcal{J}_y F = r$ den $y \in U$ guztietarako, U x-ren ingurune ireki bat izanik. Orduan, F azpimurgilketa da.*

Froga. Izan bitez $n = \dim_x N$ eta $m = \dim_{F(x)} M$. Emaitza lokala denez, koordenatutan lan eginez, demagun $x = \mathbf{0} \in U = \left(\mathfrak{m}^L\right)^{(n)} \subseteq_o N$, $F(x) = \mathbf{0} \in V = \left(\mathfrak{m}^L\right)^{(m)} \subseteq_o M$ eta $F \in R[[X_1, \ldots, X_n]]^{(m)}$ direla. Halaber, sinpletasunagatik suposa dezagun $\tilde{F} = (F_1, \ldots, F_r)$ bada, $\operatorname{res.rk} \mathcal{J}\tilde{F} = r$ dela. Hori dela eta,

$$\{F_1, \ldots, F_r, \pi_{r+1}, \ldots, \pi_n\}$$

funtzio familia N-ren koordenatu sistema da U-n. Beraz, $U = \left(\mathfrak{m}^L\right)^{(r)} \times \left(\mathfrak{m}^L\right)^{(n-r)}$ hartu eta koordenatu aldaketa baten ondotik $\tilde{F}(x_1, x_2) = x_1$ dela suposa dezakegu, hau da,

$$F(x_1, x_2) = (x_1, \psi(x_1, x_2)),$$

da $\psi \in R[[X_1, \ldots, X_n]]^{(n-r)}$ funtzio egoki batentzat eta $\operatorname{res.rk} \mathcal{J}_{\mathbf{0}} \psi = 0$ da. Bukatzeko, 0-ren ingurune batean ψ berretura serie tupla azken $n-r$ aldagaiekiko independentea dela frogatu behar dugu.

Alde batetik, $\partial_2 \psi = \mathbf{0}$ da U-n, non $\partial_2 \psi$-ren bidez azken $n-r$ aldagaiekiko deribatu formalen matrizea adierazten dugun. Ez balitz hala, (1.10) dela eta, $y \in U$ existituko litzateke non $\operatorname{rk} \mathcal{J}_y F > r$ den, hasierako hipotesiarekin kontraesana dena. Hori dela eta, $\operatorname{char} R = 0$ denez, Lema 1.41en ondorioz, ψ azken $n-r$ aldagaiekiko independentea da, hau da,

$$F(x_1, x_2) = (x_1, \psi(x_1))$$

da. Beraz, izan bedi $\pi\colon \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(n)} \to \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(r)}$ lehenengo r aldagaietara proiekzioa. Orduan, $F = (\mathrm{Id} \times \psi) \circ \pi$ da, eta, hortaz, F lokalki azpiraketa baten eta murgilketa baten konposizioa da. $\square$

1.5 Barietateen eraikuntza

Atal honetan jatorrizko barietate R-analitiko batetik abiatuta barietate berriak nola eraiki aztertuko dugu, bai oinarriko koefiziente eraztuna aldatuz, bai azpibarietate eta zatidura barietate kontzeptuak garatuz.

1.5.1 Eskalare murrizketa

Azpiatal honetan koefiziente eraztunaren azpieraztun baten gainean barietate egitura nola eratorri erakutsiko dugu. Horretarako, [24, Adibidea 13.6]n ageri den prozedura jarraituko dugu.

Izan bitez $(R, \mathfrak{m})$ pro-p domeinua eta Q azpieraztuna. Demagun Q bere kabuz pro-p domeinua dela $\mathfrak{n} := \mathfrak{m} \cap Q$ ideal maximalarekin. Demagun areago R finituki sortutako Q-modulu askea dela. Adibidez, Cohenen Egitura Teorema dela eta, $\dim_{\mathrm{Krull}}(R) = 1$ bada, R finituki sortutako $\mathbb{Z}_p$-modulua da $\operatorname{char} R = 0$ denean, edo finituki sortutatako $\mathbb{F}_p[[t]]$-modulua da $\operatorname{char} R = p$ positiboa denean.

Izan bitez M barietate R-analitikoa eta $\sigma\colon R \to Q^{(e)}$ Q-modulu isomorfismoa, hau da, finkatu $\{v_1, \ldots, v_e\}$ oinarria R-rentzat Q-modulu gisa eta definitu σ honela:

$$\sigma\left(\sum_{i=1}^{e} q_i v_i\right) = (q_1, \ldots, q_e).$$

Horrela, (U, ϕ, n) M-ren R-karta bakoitzerako, M-ren $\left(U, \sigma^{(n)} \circ \phi, ne\right)$ Q-karta dugu. Azken batean, $\left(\sigma^{(n)} \circ \phi\right)(U) \subseteq Q^{(ne)}$ azpimultzo irekia dela bakarrik frogatu behar da. Lehenik eta behin, deitu $\tau = \sigma^{-1}$, orduan, $\tau\left(\left(\mathfrak{n}^N\right)^{(e)}\right) \subseteq \mathfrak{m}^N$ da $N \in \mathbb{N}$ guztietarako. Bigarrenik, hartu $x \in \phi(U)$ elementua, $\phi(U)$ irekia denez $R^{(n)}$-n, existitzen da $N \in \mathbb{N}$ non

$$x + \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(n)} \subseteq \phi(U)$$

den, eta, beraz,

$$\sigma^{(n)}(x) + \left(\mathfrak{n}^N\right)^{(ne)} \subseteq \sigma^{(n)}\left(x + \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(n)}\right) \subseteq \left(\sigma^{(n)} \circ \phi\right)(U)$$

da.

Halaber, modu horretan eraikitako $\big(U, \sigma^{(n)} \circ \phi, ne\big)$ eta $\big(V, \sigma^{(n)} \circ \psi, ne\big)$ Q-kartak bateragarriak dira (ohartu bateragarritasuna $U \cap V \neq \varnothing$ denean soilik aztertu behar dela, eta, hortaz, Korolarioa 1.30en arabera, kartek dimentsio bera izan behar dute). Horrela,

$$\left(\sigma^{(n)} \circ \phi\right) \circ \left(\sigma^{(n)} \circ \psi\right)^{-1} = \sigma^{(n)} \circ (\phi \circ \psi^{-1}) \circ \left(\sigma^{-1}\right)^{(n)}$$

da eta $\phi \circ \psi^{-1}$ funtzioa R-analitikoa da, horrenbestez, bateragarritasuna hurrengo lemaren ondorioa da:

Lema 1.43 (cf. [24, Ariketa 13.4])**.** *Izan bedi $F \in \Lambda_0(R)[[X_1, \ldots, X_n]]$, orduan*

$$\sigma \circ F \circ \left(\sigma^{-1}\right)^{(n)} : \mathfrak{n}^{(en)} \to Q^{(e)}$$

funtzioa hertsiki Q-analitikoa da.

Froga. Ohiko moduan izan bedi $\Lambda(R) = \mathrm{Frac}(R)$ R INDa bada eta $\Lambda(R) = R$ bestalde, eta berdina $\Lambda(Q)$-rako.

Ohartu R INDa denean, R eraztuna Q-ren hedadura integrala denez,

$$\dim_{\mathrm{Krull}}(Q) = \dim_{\mathrm{Krull}}(R) = 1$$

dela, eta, beraz, Q pro-p domeinua INDa da. Ondorioz, π eta ρ hurrenez hurren R eta Q-ren uniformizatzaileak badira, orduan $\rho = \pi^N$ da $N \in \mathbb{N}$ batentzat.

Izan bedi $\{v_1, \ldots, v_e\}$ multzoa σ isomorfismoari dagokion R-ren oinarria Q-modulu gisa eta izendatu $\tau = \sigma^{-1}$. Halaber, suposa dezagun

$$F(X_1, \ldots, X_n) = \sum_{\alpha \in \mathbb{N}_0^{(n)}} a_\alpha X_1^{\alpha_1} \ldots X_n^{\alpha_n} \in \Lambda_0(R)[[X_1, \ldots, X_n]]$$

dela. Ikusi behar dugu existitzen direla $F_l^* \in \Lambda_0(Q)[[X_1, \ldots, X_{en}]]$, $l \in \{1, \ldots, e\}$, berretura serie formalak non

$$F \circ \tau^{(n)}(y_1, \ldots, y_{en}) = \sum_{l=1}^{e} v_l F_l^*\left(y_1, \ldots, y_{en}\right) \;\; \forall y_j \in \mathfrak{n}$$

den. Hots, $x_j = \sum_{i=1}^{e} v_i y_{ij}$ bada $y_{ij} \in \mathfrak{n}$ eta $j \in \{1, \ldots, n\}$ batzuentzat, orduan

$$F(x_1, \ldots, x_n) = \sum_{l=1}^{e} v_l F^*(y_{11}, \ldots, y_{en})$$

da. Lehenik eta behin, ohartu existitzen direla $a_\alpha(k,l) \in \Lambda(Q)$ non

$$a_\alpha v_k = \sum_{l=1}^{e} a_\alpha(k,l) v_l,$$

den $\alpha \in \mathbb{N}_0^{(d)}$ eta $k \in \{1,\ldots,e\}$ guztietarako. Aurrekoa R INDa denean frogatzeko, $F \in \Lambda_0(R)[[\mathbf{X}]]$ eta $\rho = \pi^N$ direla hartu behar da kontuan, eta, beraz, existitzen dela $L \in \mathbb{N}$ zenbaki osoa $a_\alpha \rho^{L|\alpha|} \in R$ izanik $\alpha \in \mathbb{N}_0^{(d)}$ guztietarako. Bereziki,

$$a_\alpha(k,l)\rho^{|\alpha|L} \in Q \ \forall k \in \{1,\ldots,e\}. \tag{1.11}$$

Horrela, Teorema multinomiala aplikatuz, edozein $\alpha = (\alpha_1,\ldots,\alpha_n) \in \mathbb{N}_0^{(n)}$ tuplatarako existitzen dira $\gamma_k(\beta) \in Q$ elementuak non

$$\prod_{j=1}^{n}\left(\sum_{i=1}^{e} v_i Y_{ij}\right)^{\alpha_j} = \sum_{|\beta|=|\alpha|}\sum_{k=1}^{e}\gamma_k(\beta) v_k \prod_{i=1}^{e}\prod_{j=1}^{n} Y_{ij}^{\beta_{ij}}$$

den (Y_{ij}-ak aldagaiak dira). Azkenik, bila genbiltzan berretura serie formalak

$$F_l^*(Y_{11},\ldots,Y_{en}) = \sum_{\alpha\in\mathbb{N}_0^{(d)}}\sum_{|\beta|=|\alpha|}\sum_{k=1}^{e} a_\alpha(k,l)\gamma_k(\beta)\prod_{i=1}^{e}\prod_{j=1}^{n} Y_{ij}^{\beta_{ij}}$$

dira. Horrenbestez, R ez denean INDa, berehalakoa da aurreko berretura serieen koefizienteak Q-n daudela, eta, aldiz, R INDa denean, $F_l^* \in \Lambda_0(Q)[[\mathbf{X}]]$ da (1.11) dela eta. □

Gainera, aurreko barietate Q-analitiko egitura hautatutako σ isomorfismoarekiko independentea da, hau da, R-ren Q-modulu oinarriarekiko independentea. Azken batean, nahikoa da $\mathfrak{m}^N$ barietate R-analitikoan σ eta $\tilde{\sigma}$ Q-modulu isomorfismoek Q-karta baliokideak sortzen dituztela ikustea. Horretarako ohartu

$$\tilde{\sigma}\circ\sigma^{-1}\colon \sigma\left(\mathfrak{m}^N\right) \to \tilde{\sigma}\left(\mathfrak{m}^N\right)$$

ez dela aplikazio lineal bat besterik, $A \in \mathrm{GL}_e(Q)$ oinarri aldaketa matrizeak definiturikoa hain zuzen ere, eta, beraz, $\tilde{\sigma}\circ\sigma^{-1}$ funtzio Q-bianalitikoa da. Hortaz, barietate berriak sortzeko prozedura honi besterik gabe *eskalare murrizketa* deituko diogu, hau da, isomorfismoa zehaztu gabe. Bukatzeko, jar dezagun arreta kasu partikular batean:

Korolarioa 1.44. *Izan bedi R bat Krull dimentsioko pro-p domeinua. Orduan, talde R-analitiko oro eskalareak murriztuz talde p-adiko analitikoa da* $\mathrm{char}(R) = 0$ *bada, edo talde* $\mathbb{F}_p[[t]]$*-analitikoa da* $\mathrm{char}(R) = p$ *positiboa bada.*

Zenbait baldintza gehigarrekin aurrekoaren alderantzikoa ere egia da.

Teorema 1.45. *Izan bedi G talde R-analitiko ez-diskretua.*

(i) (cf. [24, Teorema 13.23]) *Demagun G-k talde p-adiko analitiko egitura onartzen duela, orduan R finituki sortutako* $\mathbb{Z}_p$*-modulua da.*

(ii) (cf. [45, Teorema 1.1]) *Demagun G finituki sortua (talde topologiko gisa) dela eta G-k talde* $\mathbb{F}_p[[t]]$*-analitiko egitura onartzen duela, orduan, R finituki sortutako* $\mathbb{F}_p[[t]]$*-modulua da.*

Bigarren erreferentzian, autoreek beraiek erakusten dute finituki sortua izatearen baldintza beharrezkoa dela, izan ere $\mathbb{F}_p[[t_1]]$ eta $\mathbb{F}_p[[t_1, t_2]]$ talde topologiko batukorrak elkarri isomorfoak dira. Aitzitik, finituki sorturiko taldeetan galdera naturala da egitura analitikoak oinarriko eraztuna zenbateraino zehazten duen. Horrela tentagarria da honakoa espekulatzea:

Aierua 1.46. Demagun G finituki sortutako talde topologiko ez-diskretuak talde R-analitiko eta talde Q-analitiko egiturak onartzen dituela. Orduan, R eta Q eraztunek Krullen dimentsio eta karakteristika bera dute.

1.5.2 Azpibarietateak

Pro-p domeinu orokorren gainean azpibariete kontzeptzua lantzeko dago. Gorputz lokalen gaineko barietate analitikoen teorian hainbat definizio baliokide daude (ikusi [68, 89. orria]). Hemen horietako batzuk landuko ditugu, betiere gogoan izanda zein-nahi barietate definiziok aintzat eduki behar duela azpimultzoa bere kabuz barietate R-analitikoa dela.

Definizioa 1.47. Izan bedi $F \colon N \to M$ murgilketa ahul injektiboa. Orduan, $F(N)$ M-ren *azpimultzo murgildua* da.

Adibidez, izan bedi $\mathfrak{m}$ $\mathbb{Z}_p[[t]]$-ren ideal maximala barietate $\mathbb{Z}_p[[t]]$-analitiko egitura naturalarekin, eta hornitu $t\mathfrak{m}$ multzoa egitura $\mathbb{Z}_p[[t]]$-analitiko batez $\psi \colon t\mathfrak{m} \to \mathfrak{m}$, $tx \mapsto x$ karta globalarekin. Orduan, $\iota \colon t\mathfrak{m} \to \mathfrak{m}$ partekotasuna murgilketa ahula da, $\mathcal{J}_x(\mathrm{Id} \circ \iota \circ \psi^{-1}) = (t)$ baita $x \in t\mathfrak{m}$ guztietarako. Aitzitik, adibide honetan, $t\mathfrak{m}$-ren topologia, apropos ψ homeomorfismo egiteko aukeratua, ez dator azpiespazio topologiarekin bat. Egitura topologikoen arteko bateragarritasuna edukitzea komeni denez, honakoa defini daiteke:

Definizioa 1.48. Izan bedi M barietate R-analitikoa. Orduan, $S \subseteq M$ *azpibarietate R-analitikoa* da $s \in S$ guztietarako existitzen badira $k_s \in \mathbb{N}_0$, s-ren U_s ingurune irekia eta s-ren (V_s, ϕ_s, d_s) R-karta M-n non

- $U_s \subseteq V_s$ eta
- $\phi_s(U_s) = \phi_s(V_s) \cap \left(R^{(k_s)} \times \{0\}^{(d_s - k_s)}\right)$

diren. *Azpibarietatearen dimentsioa* s-n, $\dim_s S$ adieraziko dena, k_s zenbakia da.

Azpiespazio topologiarekin S barietate R-analitikoa da, $s \in S$ puntu bakoitzari $(U_s, (\phi_{s,1}, \ldots, \phi_{s,k_s}), k_s)$ karta eslei baitiezaiokegu. Lema 1.38 aplikatuz honakoa dugu:

Proposizioa 1.49. *Izan bedi $F\colon N \to M$ funtzio R-analitiko injektiboa. Orduan, $F(N)$ M-ren azpibarietate R-analitikoa da baldin eta soilik baldin F murgilketa bada.*

Oharra 1.50. Ohartu azpibarietate R-analitikoak lokalki itxiak direla. Izan ere, M barietate R-analitikoa eta $S \subseteq M$ azpibarietatea badira, $s \in S$ bakoitzerako existitzen dira $U_s \subseteq_o S$ eta $V_s \subseteq_o M$ azpimultzoak non $\phi_s(U_s)$ ekuazio lineal batzuen bitartez definituta dagoen $\phi_s(V_s)$-n. Bereziki, U_s itxia da V_s-n, hau da, $V_s \setminus U_s$ irekia da V_s-n. Hortaz, $V = \cup_{s\in S} V_s$ eta $S = \bigcup_{s\in S} U_s$ direnez, $V \setminus S = \bigcup_{s\in S} V_s \setminus U_s$ irekia da V-n, hau da, S itxia da V multzo irekian.

Hau ere berehalakoa da:

Lema 1.51. *Izan bitez M barietate R-analitikoa eta S azpibarietatea. Demagun* $\dim_s M = \dim_s S$ *dela $s \in S$ guztietarako. Orduan, S irekia da M-n.*

Froga. Definizioa 1.48ko notazioa mantenduko da. Horrela, $k = d_s$ eta ϕ homeomorfismoa direnez, $U_s = V_s$ da. Beraz, $S = \bigcup_{s\in S} V_s$ irekia da M-n. □

Definizioa 1.48 [27]n emandako azpibarietatearen definizio hau baino gogorragoa da:

Definizioa 1.52. Izan bedi M barietate R-analitikoa. Orduan, $S \subseteq M$ *azpibarietate R-analitiko ahula* da $s \in S$ bakoitzerako existitzen direnean s-ren U_s ingurune irekia S-n, s-ren (V_s, ϕ_s, d_s) R-karta M-n eta $E_s \leq K^{(d_s)}$ espazio K-bektoriala, $K = \operatorname{Frac} R$ izanik, non

- $U_s \subseteq V_s$ eta

- $\phi_s(U_s) = \phi_s(V_s) \cap E_s$

diren.

Gorputzen gainean Definizioa 1.48 eta Definizioa 1.52 baliokideak dira. Izan ere, oinarri aldaketa egoki baten ondotik $E_s = K^{(k)} \times \{\mathbf{0}\}$ dela suposa daiteke. Haatik, etsenplu batekin erakutsiko denez, orokorrean ez dira baliokideak. Izan bitez $R = \mathbb{Z}_2[[t]]$ pro-2 domeinua, $\mathfrak{m} = (2, t)R$ ideal maximala, $K = \mathbb{Q}_2((t))$, $M = \mathfrak{m}^{(2)}$ barietate R-analitikoa eta

$$E = \left\{(x, y) \in K^{(2)} \mid 2x - ty = 0\right\}$$

espazio K-bektoriala. Orduan, $M \cap E = \{(ta, 2a) \mid a \in R\}$ multzoa argi eta garbi azpibarietate R-analitiko ahula da, eta

$$\psi\colon M \cap E \to R, (ta, 2a) \mapsto a$$

R-karta globala definitu daiteke. Aitzitik, $\mathcal{J}_s\left(\mathrm{Id} \circ \iota \circ \psi^{-1}\right) = \begin{pmatrix} t \\ 2 \end{pmatrix}$ da $s \in M \cap E$ guztietarako, eta, beraz, ι murgilketa ahula da, baina ez murgilketa. Azken batean, $K^{(2)}$ espazioan oinarri kanonikotik $\beta = \{(t, 2), (0, 1)\}$-ra oinarri aldaketa funtzioa, deitu $L_A\colon K^{(2)} \to K^{(2)}$,

$$A = \begin{pmatrix} 1/t & 0 \\ -2/t & 1 \end{pmatrix}$$

oinarri aldaketa matrizeak definitzen du eta funtzio horrekin $L_A(E) = K^{(1)} \times \{0\}$ da. Hala eta guztiz ere, L_A ez da funtzioa R-bianalitikoa. Bide batez, horrek erakusten du batzuetan azpibarietate ahulentzat koordenatu sistema zehaztea nekeza izan daitekela. Gorputzen gainean hori egiteko era naturala E_s-ren $\beta = \{v_1, \ldots, v_k\}$ oinarria finkatu eta "karta" gisa

$$\psi\colon \phi_s(V_s) \cap E_s \to K^{(k)},\ \sum_{i=1}^{k} \alpha_i v_i \mapsto (\alpha_1, \ldots, \alpha_k) \in K^{(k)}$$

funtzioa erabiltzea da. Baina, oinarri batzuetatako gerta daiteke $\operatorname{im}\psi \not\subseteq R^{(k)}$ izatea, eta, beraz, gerta daiteke ψ R-karta ez izatea.

Gorputzen gaineko Lieren teoria klasikoan, azpibarietate murgilduak (Definizioa 1.47ren baliokidea) eta azpibarietate enbebituak (Definizioa 1.48ren baliokidea) bereizten dira (ikusi [51, Kapitulua 5]). Bigarrena oro har definizio gogorragoa da, baina barietatea trinkoa denean bi kontzeptuak bat datoz, baita INDak diren pro-p domeinuen gaineko barietate analitikoetan ere (ikusi [68, Zatia II, Atala III.11.2]). Pro-p domeinu orokorren gainean, alabaina, ikusi da darabilgun azpibaritate kontzeptua garbi zehaztu behar dela.

Bestetik, [45, Atala 4]n, azpibarietatate $\mathbb{F}_q[[t]]$-analitikoak funtzio analitikoen zuntz gisa karakterizatzen dira. Konkretuago, honakoa frogatzen da:

Proposizioa 1.53 (ikusi [45, Korolarioa 4.2])**.** *Izan bitez M barietate $\mathbb{F}_q[[t]]$-analitikoa eta $S \subseteq M$ azpimultzoa. Demagun*

(i) *S homogeneoa dela, hau da, S orbita bakarraren parte da M-ren automorfismo R-bianalitikoen ekintzarekiko, eta*

(ii) *S azpimultzo analitikoa dela, hau da, $s \in S$ bakoitzerako existitzen dira U ingurune irekia eta $\{f_i\colon U \to \mathbb{F}_q[[t]]\}_{i\in I}$ funtzio $\mathbb{F}_q[[t]]$-analitikoak*

$$S \cap U = \{x \in U \mid f_i(x) = 0 \ \forall i \in I\}$$

izanik.

Orduan, S azpibarietate $\mathbb{F}_q[[t]]$-analitikoa da.†

Ohartu M talde R-analitikoa denean, ezker biderketa funtzioen ekintza iragankorra dela, eta, ondorioz, kasu horretan azpimultzo guztiak homogeneoak dira.

Domeinu orokorretan emaitza honen parekoa frogatzeko, M barietate R-analitikoa eta $S \subseteq M$ badira, S *azpimultzo R-analitikoa* dela diogu $s \in S$ guztietarako existitzen badira U ingurune irekia eta $\{f_i\colon U \to R \mid i = 1, \dots, r_s\}$ funtzio R-analitikoak

$$S \cap U = \{y \in U \mid f_i(y) = 0 \ \forall i = 1, \dots, r_s\}$$

izanik. Alegia, azpimultzo analitiko bat lokalki funtzio analitiko batzuen zeroen multzoa da. Alde batetik, kontzeptu honek azpibarietate nozioa orokortzen du; eta bestetik, $R[[X_1, \dots, X_n]]$ eraztun noetherdarra denez (ikusi [49, Teorema IV.9.4]), definizioa erlaxatu daiteke r_s infinitua izatea baimenduz.

†Oinarriko eraztuna IND denez, emaitza honek azpibarietateen edozein definiziotarako balio du.

Definizioa 1.54. Izan bitez M barietate R-analitikoa eta $S \subseteq M$ azpimultzo R-analitikoa. Orduan, $s \in S$ puntua *erregularra* dela diogu existitzen badira s-ren U ingurune irekia eta $\{f_i \colon U \to R \mid i = 1, \ldots, r_s\}$ funtzio R-analitikoak honakoa betez:

(i) $S \cap U = \{y \in U \mid f_i(y) = 0 \ \forall i = 1, \ldots, r_s\}$ da eta

(ii) $F := (f_1, \ldots, f_{r_s})$ bada, orduan $\operatorname{res.rk}(\mathcal{J}_s F) = r_s$ da.

Definizioko r_s zenbaki osoari S-ren *koheina* deritzo, eta Lema 1.38 dela eta, $r_s \leq \dim_s S$ da.

Lema 1.55. *Izan bitez M barietate R-analitikoa eta $S \subseteq M$. Orduan, S azpibarietatea da baldin eta soilik baldin S-ko puntu guztiak erregularrak badira.*

Froga. Alde batetik, *soilik baldina* berehalakoa da definizioa eta Lema 1.38 kontuan hartuta. Bestetik, *baldina* frogatzeko, izan bitez $x \in S$ eta $d = \dim_x S$. Suposa dezagun x puntua erregularra dela eta r koheina duela, orduan existitzen da x-ren U ingurunea non

$$S \cap U = \{y \in U \mid f_i(y) = 0 \ \forall i = 1, \ldots, r\}$$

den. Izan bedi $F = (f_1, \ldots, f_r)$. Horrela, $\operatorname{res.rk} \mathcal{J}_x F = r$ denez, $\{f_i\}_{i=1}^r$ familia M-ren $\{f_i\}_{i=1}^d$ koordenatu sistema batera hedatu daiteke. Koordenatu sistema horrekin, $U' \subseteq_o U$ azpimultzo ireki txikiago baterako

$$S \cap U' = \{y \in U' \mid f_1(y) = \cdots = f_r(y) = 0\}$$

da, hau da, M azpibarietatea da eta $d - r$ dimentsioa du x-n. □

Azkenik, talde R-analitikoetan talde eta barietate azpiegiturak uztar ditzakegu. Hots,

Definizioa 1.56. Izan bedi G talde R-analitikoa. *Azpitalde analitiko* bat azpibarietate R-analitikoa ere baden $H \leq G$ azpitaldea da.

Lema 1.57. *Azpitalde R-analitikoak itxiak dira.*

Froga. Jakina da talde topologiko batean azpitalde lokalki itxiak benetan itxiak direla, eta, beraz, emaitza Oharra 1.50en ondorioa da. Konkretuago, H lokalki itxia denez, H irekia da $\overline{H}$ itxitura topologikoan. Demagun, absurdura eramanez, $H \neq \overline{H}$ dela, bereziki existitzen dela $gH \subseteq \overline{H}$ ezker koklase ez-tribiala. Horrela, H eta gH azpimultzo irekiak $\bar{H}$-n dentsoak direnez, $gH \cap H \neq \varnothing$ da, koklaseak disjuntuak izatearekin kontraesana dena. □

1.5.3 Zatidura analitikoak

Ideal nagusietako domeinuen gainean zatidura analitikoei buruzko informazioa [68, Zatia II, Atala III.12]n topa daiteke. Halaber, [11, Kapitulua III, §1.6]n talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko bat azpitalde analitiko batekin zatitzean zatidurak egitura $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitikoa duela frogatzen da. Domeinu orokorretan emaitza hori ohiko argudioekin froga daiteke.

Lema 1.58. *Izan bitez G d dimentsioko talde R-analitikoa, $N \trianglelefteq G$ k dimentsioko azpitalde R-analitiko normala eta* $\mathrm{pr}\colon \mathfrak{m}^{(d)} \to \mathfrak{m}^{(d-k)}$ *proiekzioa azken $d-k$ koordenatuetara. Orduan, existitzen da identitatearen (V, ψ) R-karta non* $\mathrm{pr} \circ \psi(x) = \mathrm{pr} \circ \psi(y)$ *den baldin eta soilik baldin $xy^{-1} \in N$ bada.*

Notazioa. Aurreko lemakoa bezalako (V, ψ) R-karta N-ra *moldatua* dagoela esaten da.

Froga. Lehenik eta behin, finka dezagun notazioa: $r = d - k$, $\mathrm{pr}_1\colon \mathfrak{m}^{(d)} \to \mathfrak{m}^{(k)}$ eta $\mathrm{pr}_2\colon \mathfrak{m}^{(d)} \to \mathfrak{m}^{(r)}$, hurrenez hurren, lehenbiziko k eta azken r koordenatuetara proiekzioak dira, hau da, enuntziatuko notazioarekin $\mathrm{pr}_2 = \mathrm{pr}$ da. Horrela, N azpibarietatea denez, existitzen da identitatearen (U, ϕ) R-karta G-n non

$$N \cap U = \{x \in U \mid \phi_{k+1}(x) = \cdots = \phi_d(x) = 0\}$$

den. Gainera, Lema 1.21 dela eta, (U, ϕ) d dimentsioko talde R-estandarra dela suposa dezakegu, eta ϕ erabilita $\left(\mathfrak{m}^M\right)^{(d)}$ multzoarekin identifikatu daiteke, $M \in \mathbb{N}$ baterako. Horrela, talde biderketa $\mathbf{F}$ talde eragiketa formalak ematen du eta identitatea $\mathbf{0}$ da. Hortaz,

$$N \cap U = \{y \in U \mid y_{k+1} = \cdots = y_d = 0\}$$

da, eta $(N \cap U, \phi_1)$, non $\phi_1 = \mathrm{pr}_1|_U$, $\mathbf{0}$-ren R-karta da N-n. Betalde, definitu barietate r-dimentsional hau:

$$W = \{y \in U \mid y_1 = \cdots = y_k = 0\},$$

(W, ϕ_2) R-kartarekin, $\phi_2 = \mathrm{pr}_2|_U$ izanik, eta hartu funtzio R-analitiko hau:

$$\begin{aligned} F\colon\ (N \cap U) \times W &\longrightarrow U \\ (n, w) &\longmapsto n \cdot w = \mathbf{F}(n, w). \end{aligned}$$

Ohartu $\mathcal{J}_{\mathbf{0}}\left(F \circ (\phi_1, \phi_2)^{-1}\right) = I_d$ dela, beraz Alderantzizko Funtzioaren Teoremaren arabera, F is lokalki funtzio R-bianalitikoa da, hau da, existitzen dira U_1

$\mathbf{0}$-ren ingurune irekia N-n, U_2 $\mathbf{0}$-ren ingurune irekia W-n eta U_3 $\mathbf{0}$-ren ingurune irekia U-n, non $F\colon U_1 \times U_2 \to U_3$ funtzio R-bianalitikoa den. Gainera, ingurune txikiagoak hartuz, $U_1 = \left(\mathfrak{m}^L\right)^{(d)} \cap N$ dela suposa dezakegu $L \geq M$ baterako, eta, bereziki, $U_1 \leq U$ dela.

Hartu orain $V = \left(\mathfrak{m}^K\right)^{(d)} \subseteq U_3$, $K \in \mathbb{N}$ egoki baterako, eta $\psi := (\phi_1, \phi_2)\circ F^{-1}|_V$. Ikus dezagun $\mathbf{0}$-ren (V, ψ) R-karta N-ra moldatua dagoela. Demagun, lehenengo, $x, y \in V$ direla non $xy^{-1} = n \in N$ den. Orduan, $x, y \in V \subseteq U_3$ direnez, existitzen dira $n_1, n_2 \in U_1$ eta $h_1, h_2 \in U_2$ elementu bakarrak non $x = n_1h_1$ eta $y = n_2h_2$ diren, eta, beraz, $n_1h_1 = x = nn_2h_2$ da. Horrela, $n = xy^{-1} \in V \cap N$ denez, $n \in U_1$ da, hau da, $nn_2 \in U_1$ da. Beraz, $F|_{U_1\times U_2}$ bijekzioa direnez, $h_2 = h_1$ dugu. Alderantziz, $\mathrm{pr}_2(x) = \mathrm{pr}_2(y)$ bada, orduan $x = n_1h$ eta $y = n_2h$ dira $n_1, n_2 \in U_1$ eta $h \in U_2$ batzuentzat, alegia $xy^{-1} = n_1n_2^{-1} \in N$. □

Proposizioa 1.59. *Izan bitez G talde R-analitikoa eta $N \trianglelefteq S$ azpitalde analitiko normala. Orduan, G/N zatidura taldean egitura analitiko bat existitzen da, eta egitura hori bakarra da zeinarekiko $\pi\colon G \to G/N$ zatidura epimorfismoa azpiraketa den.*

Froga. Finka dezagun notazioa: $d = \dim G$, $k = \dim N$ eta $\mathrm{pr}\colon \mathfrak{m}^{(d)} \to \mathfrak{m}^{(d-k)}$ azken $d-k$ koordenatuetara proiekzioa dira.

Lehenengo, G/N taldean atlas R-analitiko bat eman behar dugu. Horretarako nahikoa da $1N$-ren karta egoki bat ematea. Lema 1.58 dela eta, existitzen da N-ra moldatutako identitatean (V, ψ) R-karta G-n. Beraz, π funtzio irekia denez, $\overline{V} = \pi(V)$ irekia da G/N-n, eta karta N-ra moldatuta dagoenez, $\mathrm{pr}\circ\psi$ ongi definitua dago $\overline{V}$-n. Horrenbestez, $\left(\overline{V}, \mathrm{pr}\circ\psi\right)$ R-kartak $d-k$ dimentsioa du eta $1N \in \overline{V}$ da.

Behin R-karta hori izanda, $L_{aN}\colon G/N \to G/N$ ezker biderketa funtzioen bidez, $\left\{\left(L_{aN}(\overline{V}), \mathrm{pr}\circ\psi \circ L_{a^{-1}N}\right)\right\}_{a\in G}$ atlas R-analitikoa defini dezakegu. Karta horiek bateragarriak dira. Izan ere, jatorrizko karta N-ra moldatua zegoenez, $L_{aN}\left(\overline{V}\right) \cap L_{bN}\left(\overline{V}\right) \neq \varnothing$ denean, $K \in \mathbb{N}$ behar bezain handi baterako honakoa betetzen da:

$$(\mathrm{pr}\circ\psi \circ L_{a^{-1}N}) \circ (\mathrm{pr}\circ\psi \circ L_{b^{-1}N})^{-1}(x) = \mathrm{pr}\circ(\psi \circ L_{a^{-1}b} \circ \psi^{-1})(\mathbf{0}, x),\ \forall x \in \left(\mathfrak{m}^K\right)^{(d-k)} \quad (1.12)$$

–$L_{a^{-1}b}\colon G \to G$ ohiko ezker biderketa funtzioa da– eta, beraz, koordenatu aldaketa funtzioak ere funtzio R-analitikoak dira.

Halaber, $\pi\colon G \to G/N$ epimorfismoa identitatearen inguruan koordenatutan, (V, ψ) eta $\left(\overline{V}, \mathrm{pr}\circ\psi\right)$ kartekiko, pr baino ez da. Horrenbestez, π azpiraketa da identitatean, eta G talde R-analitikoa denez, π azpiraketa da.

Azkenik, demagun zatidura taldean bi egitura R-analitiko daudela $-(G/N)_1$ eta $(G/N)_2$ moduan adieraziko ditugu– eta dagozkien zatidura epimorfismoak azpiraketak direla. Lema 1.38ren arabera, existitzen dira R-kartak non $\pi\colon G \to (G/N)_i$ ($i \in \{1,2\}$) funtzioak koordenatutan $(x_1,\ldots,x_d) \to (x_{k+1},\ldots,x_d)$ diren. Horrela, R-karta horiekiko $\mathrm{Id}\colon (G/N)_1 \to (G/N)_2$ identitatea da koordenatutan. Alegia, Id funtzio R-bianalitikoa da eta barietate egitura bakarra da. □

Azkenik, erraz ikusten da aitzineko barietate egiturarekin zatidura taldean biderketa eta alderantzizkoa funtzio R-analitikoak direla ((1.12)ko modu berean frogatzen da). Hori dela eta, emaitza hau dugu:

Teorema 1.60. *Izan bitez G talde R-analitikoa eta $N \trianglelefteq G$ azpitalde analitiko normala. Orduan, G/N zatidura taldean egitura R-analitiko bat existitzen da, eta egitura hori bakarra da zeinarekiko $\pi\colon G \to G/N$ epimorfismo kanonikoa azpiraketa den.*

1.6 Oharrak

Talde analitikoak pro-p domeinu orokorren gainean lehenbiziko aldiz [24, Kapitulua 13]n definitu ziren, nahiz eta definizio horiek ideal nagusietako domeinu osoen gainean jada [11] eta [68]n agertu. Atala 1.1etik 1.3ra bitartean talde horien propietate orokorrak ageri dira, eta aurkezpenak batez ere [24, Kapitulua 13] darrio. Ekarpen original nagusia Azpiatala 1.3.1 da, bertan talde R-analitikoen talde egitura azpitalde R-estandar egoki baten bitartez deskribatzen da.

Talde eragiketa formal batetik abiatuz Lie aljebra bat eraikitzea [11]n dago eginda, eta Atala 1.4ko emaitza gehienek [68]n daudenak orokortzen dituzte, ideal nagusietako domeinuen ordez pro-p domeinu orokorrak hartuta.

Atala 1.5en egiten den azpibarietate eta zatidura barietate kontzeptuen garapena berria da, eta [24, 349 orria]n iradokita zegoen. Autorearen iritziz, kontzeptu horiek etorkizuneko ikerketetarako baliagarriak izan daitezke.

Atal honetan dagoeneko emandako erreferentziez gain, talde R-analitikoen propietate anitz topa daitezke [45] eta [54] artikuluetan.

Azkenik, eta albo iruzkin gisa, aipatu behar da (1.1)en, Λ-ren definizioak (IND-en eta INDak ez diren domeinuen arteko bereizketak) hasiera batean arbitrario samarra dirudiela. Baina, esate baterako, talde p-adiko analitikoen teorian, $\mathbb{Z}_p$ taldearen $L_p\colon \mathbb{Z}_p \to p\mathbb{Z}_p$ eta $\mathrm{Id}\colon \mathbb{Z}_p \to \mathbb{Z}_p$ R-kartak bateragarriak dira, eta barietate R-analitikoen teoria orokorrean hala izaten jarraitzea nahi dugunez, aurreko bereizketa beharrezkoa da. Azken batean, pro-p domeinuen gaineko teoria analitikoak, garatu ahala, orain arteko gorputz lokalen gaineko, $\mathbb{Q}_p$ kasu, teoria analitikoa *zabaldu* egin behar du. Halere, *R faktorizazio bakarreko domeinua* (FBD) denean, bereizketa hori ekidin daiteke beti $\Lambda = \mathrm{Frac}(R)$ hartuaz. Hori eginez gero, $K[[\mathbf{X}]]$-ko berretura serie konbergenteen multzoa $R[[\mathbf{X}]]$ da INDak ez diren faktorizazio bakarreko pro-p domeinuetarako. Aitzitik, orokorrean egoera ez dago argi. Dena den, komeni da [24, Atala 13.6] irakurtzea, honen inguruko eztabaida sakonagoa baitago bertan.

2

Linealtasuna talde R-analitiko trinkoetan

Izan bedi G taldea, K gorputzaren gaineko n mailako *adierazpen leial* bat $\rho\colon G \to \mathrm{GL}_n(K)$ talde monomomorfismo bat da, edo, baliokideki, n dimensiontsoko W K-espazio bektorial baten gaineko G-ren ekintza leial bat.

Definizioa 2.1. Talde bat *lineala* da haren adierazpen lineal leial bat exisitzen denean.

Horrenbestez, talde linealak matrize alderanzgarrien taldeen azpitaldeak direla pentsa daiteke. Horrela, talde horiek matrize taldeetarako ezagunak diren hainbat propietate dituzte, eta horiekin lan egiterakoan aljebra eta geometria uztartzen dira. Talde linealak Jordanek [46] aurkeztu zituen, eta ondorengo lanetan Jordan berak eta beste matematikari nabarmen anitzek beren azterteka sistematikoa sustatu zuten. Geroztik, talde linealen teoria biziki garatu da, eta aplikazio andana ditu talde teorian bertan zein bertatik kanpo.

Oinarrizko ohar pare bat egin behar ditugu:

Oharra 2.2. (i) Adirazpen linealak gorputzen gainean definitu beharrean, integritate domeinuen gainean ere defini daitezke. Haatik, ohartu G-k integriate domeinu baten gainean adierazpen leial bat badu, gorputz baten gainean ere baduela halakorik.

(ii) Talde birtualki linealak linealak dira. Izan ere, izan bedi $H \leq G$ indize finituko azpitaldea eta demagun H-k W K-bektore espazioan ekiten duela. Hartu H-ren ezker transbertsal bat G-n, deitu T, eta definitu

$$V := \bigoplus_{t \in T} W_t,$$

non $W_t \cong W$ den. Bereziki, V bektore espazioa da eta $|G : H| \dim W$ dimentsioa du. Notazioa erraztearren izendatu (t, w) moduan $w \in W$-ri W_t-n dagokion elementua. Orduan, G-k V-ren gainean ekiten du:

$$g \cdot (t, w) = \left(\widetilde{gt}, w \cdot h\right),$$

hemen $\widetilde{gt}$ elementua T-n gtH koklasearen ordezkaria da, hau da, $\widetilde{gt} \in T$ eta $h = gt\widetilde{gt}^{-1} \in H$ betetzen duen elementu bakarra da. Erraz egiazta daiteke horrek G-ren adierazpen leial bat definitzen duela, *adierazpen eratorria* deituko duguna.

Talde R-analitikoei dagokionez, 1965ean Lazardek talde p-adiko trinkoak linealak direla frogatu zuen. Talde R-analitikoak talde p-adikoen orokorpena direnez, naturala da bigarrenetan berdina gertatzen ote den galdetzea. Alde batetik, Lieren aljebretan eskuragarri dagoen adierazpen adjuntuaren (ikusi Atala A.2) analogoa dugu, hau da, talde R-estandarrak "modulo zentroa" linealak dira.

Proposizioa 2.3 (cf. [42, Proposizioa 5.1])**.** *Izan bedi S talde R-estandarra, orduan $S/Z(S)$ lineala da R-ren gainean.*

Froga. Lehenik, S talde R-estandarra denez, $\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}$-rekin identifika dezakegu, d taldearen dimentsioa eta N maila izanik. Horrela, izan bitez $\mathbf{F}$ eta $\mathbf{I}$ hurrenez hurren S-ren talde eragiketa formala eta alderantzizko formala. Orduan, c_g konjokazio funtzioa hertsiki analitikoa da, eta

$$\mathbf{C}_g(\mathbf{X}) = (C_1^g(\mathbf{X}), \ldots, C_d^g(\mathbf{X})) := \mathbf{F}(\mathbf{F}(\mathbf{I}(g), \mathbf{X}), g)$$

berretura serie formalen tuplak emanda dago (hemen $\mathbf{X}$ aldagaien d-tupla da).

Eman dezagun S-ren ekintza bat finituki sortutako W R-modulu aske batean. Lehenengo, S-k $R[[\mathbf{X}]]$-n ekiten du $g \cdot f(\mathbf{X}) := f \circ \mathbf{C}_g(\mathbf{X}) \in R[[\mathbf{X}]]$ moduan. Bereziki, $\pi_i \in R[[\mathbf{X}]]$ berretura serie formala $\pi_i(\mathbf{X}) = X_i$, $i$garren koordenatura proiekzio funtzioa, bada; (1.5)en arabera, badaude $\pi_{i,\alpha} \in R[[\mathbf{X}]]$ non

$$(g \cdot \pi_i)(\mathbf{X}) = C_i^g(\mathbf{X}) = X_i + \sum_{|\alpha| \geq 1} \pi_{i,\alpha}(g) X_1^{\alpha_1} \ldots X_d^{\alpha_d}$$

den. Izan bedi $\mathcal{I}$

$$\left\{\pi_{i,\alpha} \mid \alpha \in \mathbb{N}_0^{(d)}, i \in \{1, \ldots, d\}\right\} \tag{2.1}$$

berretura serie formalek sorturiko $R[[\mathbf{X}]]$-ren ideala. Horrela, $R[[\mathbf{X}]]$ eraztun noetherdarra denez (ikusi [49, Teorema 9.4]), $\mathcal{I}$ ideala (2.1)eko azpimultzo finitu batek, deitu $\mathcal{F}$, sortzen du. Hartu $m = \max\{|\alpha| \mid \pi_{i,\alpha} \in \mathcal{F}\} \in \mathbb{N}$ eta izendatu $\mathfrak{M}$ moduan $(X_1, \ldots, X_d)R[[\mathbf{X}]]$ ideala, orduan $W = \mathfrak{M}/\mathfrak{M}^{m+1}$ heina finituko R-modulu askea da eta naturalki S-k W-ren gainean eragiten du.

Ikus dezagun ekintza horren nukleoa $Z(S)$ dela, hau da, $S/Z(S)$-ren ekintza leiala dela W-n. Alde batetik, agerikoa da $Z(S)$-ren ekintza tribiala dela W-n. Kontrako norantzan, demagun g elementuaren ekintza tribiala dela W-n. Alegia, $\pi(g) = 0$ da $\pi \in \mathcal{F}$ guztietarako, eta, beraz, $\pi_{i,\alpha}(g) = 0$ da $i \in \{1, \ldots, d\}$ eta $\alpha \in \mathbb{N}_0^{(d)}$ guztietarako. Hortaz, $g \cdot \pi_i(\mathbf{X}) = X_i$ da, hau da, $g \in Z(S)$ da. □

Beste alde batetik, Lazarden froga –Atala 2.1en laburki azalduko dugu– Adoren Teoreman eta Baker-Campbell-Hausdorffen formulan oinarritzen da. Ideia horretan berean oinarrituta, Camina eta Du Sautoyk [14] talde $\mathbb{Z}_p[[t]]$-estandar perfektuak linealak direla frogatu zuten –N mailako S talde R-estandarra perfektua da $S' = S_{2N}$ bada, ikusi (1.6)–. Orobat, Jaikin-Zapirainek [43]n antzeko ideiak erabili zituen, R zero karakteristikako pro-p domeinuen gainean finituki sortutako talde R-analitiko trinkoak linealak direla frogatzeko. Kapitulu honetan azken emaitza hori orokortuko dugu, eta R zero karakteristikako pro-p domeinua denean, talde R-analitiko trinkoak linealak direla frogatuko da.

2.1 Talde p-adiko analitiko trinkoen linealtasuna

Atal honetan, talde p-adiko analitikoetarako arestian aipatutako adierazpen lineal leiala nola eraiki labur-labur deskribatuko dugu, eraikitako adierazpenaren maila kontrolatuz. Lehenik eta behin, gogora dezagun Adoren Teorema, edo hobeki esanda, Churkin [19] eta Weigelen [74] bertsio orokorrago hau (froga eta oinarrizko definizio guztiak Apendizea An topa daitezke):

Teorema 2.4. *Izan bedi $\mathfrak{L}$ heina finituko $\mathbb{Z}_p$-modulu askea den $\mathbb{Z}_p$-Lie aljebra. Orduan, existitzen da $\phi\colon \mathfrak{L} \hookrightarrow \mathrm{M}_n(\mathbb{Z}_p)$ $\mathbb{Z}_p$-Lie aljebra monomorfismoa non n maila soilik $\mathfrak{L}$-ren heinaren menpekoa den.*

Finkatu p zenbaki lehena, eta notazioa sinplifikatzearren, definitu $\mathbf{p} = 2$, $p = 2$ denean eta $\mathbf{p} = p$, p bakoitia denean. Talde $\mathbb{Z}_p$-estandar oro *talde uniformeki berretura-betea* deiturikoa ere bada; hots, S talde $\mathbb{Z}_p$-estandarra bada, finituki sortutako talde tortsiogabea da eta $S' \leq S^{\mathbf{p}}$ betetzen du (ikusi [24, Teoremak

4.5 eta 8.31]). Orobat, kategoria isomorfismo bat dago, d-dimentsioko pro-p talde uniformeki berretura-beteen $\mathfrak{UGroup}$ kategoriaren eta d-dimentsioko $\mathbb{Z}_p$-*erretikulu berretura-beteen* $\mathfrak{pLie}$ kategoriaren artean ($\mathfrak{L}$ $\mathbb{Z}_p$-Lie aljebra $\mathbb{Z}_p$-Lie erretikulu berretura-betea da, d heinako $\mathbb{Z}_p$-modulu askea bada eta $[\mathfrak{L},\mathfrak{L}] \leq \mathbf{p}\mathfrak{L}$ betetzen badu). Alegia, $\mathcal{L}\colon \mathfrak{UGroup} \to \mathfrak{pLie}$ kategoria isomorfimo bat dago, deitu $\mathcal{E}$ haren alderantzizkoari. Isomorfismo horrek d dimentsioko S talde uniformeki berretura-bete bakoitzari d dimentsioko $\mathcal{L}(S)$ $\mathbb{Z}_p$-Lie erretikulu berretura-bete bat esleitzen dio, oinarrian datzan multzoa S bera da, eta modulu eragiketen talde eragiketaren arabera honako moduan definitzen dira: izan bitez $r \in \mathbb{Z}_p$ eta $x, y \in S$, orduan

$$r \cdot x = x^r$$
$$x + y = \lim_{n\to\infty} \left(x^{p^n} y^{p^n}\right)^{p^{-n}}$$
$$[x,y] = \lim_{n\to\infty} \left(\left[x^{p^n}, y^{p^n}\right]\right)^{p^{-2n}},$$

ikusi [24, Atala 4.3] eskuineko formulen definizio zehatzetarako. Esate baterako, $\mathbf{p}\,\mathrm{M}_n(\mathbb{Z}_p)$ multzoa $\mathbb{Z}_p$-Lie aljebra berretura-betea da $[A,B] = AB - BA$ Lieren kortxetearekiko; eta adibide honetan $\mathcal{E}(\mathbf{p}\,\mathrm{M}_n(\mathbb{Z}_p)) \subseteq \mathrm{GL}_n(\mathbb{Z}_p)$ da, $\mathcal{E}$ ohiko matrize exponentziazioa balitz bezala ikus baitaiteke*.

Alderantzizko norantzan, *Baker-Hausdorff-Campbellen formula* bi aldagai eztrukakorretan definituriko $H(x,y)$ berretura serie formala da eta

$$e^{H(x,y)} = e^x e^y$$

identitatea betetzen du. Horrela, $\mathcal{S}$ $\mathbb{Z}_p$-Lie erretikulu berretura-betea bada, $\mathcal{S}$ multzoa talde uniformeki berretura-betea da $xy = H(x,y)$ talde eragiketarekin.

Ondorioz, Adoren Teoremak (Teorema 2.4) emandako $\mathbb{Z}_p$-Lie aljebra monomorfismoa $\phi\colon \mathfrak{L}(S) \hookrightarrow \mathrm{M}_n(\mathbb{Z}_p)$ bada, bada Adoren Teoremak, Teorema 2.4, emandako bada, orduan

$$\phi|_{\mathbf{p}\mathcal{L}(S)}\colon \mathbf{p}\mathcal{L}(S) \to \mathbf{p}\,\mathrm{M}_n(\mathbb{Z}_p)$$

$\mathbb{Z}_p$-Lie erretikulu berretura-beteen arteko $\mathbb{Z}_p$-Lie aljebra monomorfismoa da, eta $\mathcal{E}$ funktorea denez,

$$\mathcal{E}(\phi)\colon \mathcal{E}(\mathbf{p}\mathcal{L}(S)) \hookrightarrow \mathcal{E}(\mathbf{p}\,\mathrm{M}_n(\mathbb{Z}_p)) \subseteq \mathrm{GL}_n(\mathbb{Z}_p)$$

talde monomorfismoa lortzen dugu.

*Benetan $\mathcal{E}\left(\mathbf{p}\,\mathrm{M}_n(\mathbb{Z}_p)\right) = \mathrm{GL}_n^1(\mathbb{Z}_p)$ lehenbizko kongruentzia taldea da.

Azkenik, $\mathbb{Z}_p$-Lie erretikulu berretura-betean batuketarekiko koklaseak eta talde uniformeki berretura-betean talde eragiketarekiko koklaseak bat datoz (ikusi [24, Proposizioa 4.31(iii)]). Beraz,

$$|S : \mathcal{E}\left(\mathbf{p}\mathcal{L}(S)\right)| = |\mathcal{L}(S) : \mathcal{L} \circ \mathcal{E}(\mathbf{p}\mathcal{L}(S))| = |\mathcal{L}(S) : \mathbf{p}\mathcal{L}(S)| = \left|\mathbb{Z}_p^{(d)} : \mathbf{p}\mathbb{Z}_p^{(d)}\right| = \mathbf{p}^d.$$

Hori dela eta, adierazpen eratorria erabiliz,

$$m \colon S \hookrightarrow \mathrm{GL}_{\mathbf{p}^d n}(\mathbb{Z}_p)$$

talde monomorfismoa erdiesten dugu.

Argudio horiek guztiak batuz honako emaitza dugu:

Teorema 2.5. *Izan bedi S talde $\mathbb{Z}_p$-estandarra. Orduan, existitzen da $m \colon S \hookrightarrow \mathrm{GL}_n(\mathbb{Z}_p)$ S-ren adierazpen lineal leiala, eta ϕ-ren n maila soilik S-ren dimentsioaren eta p-ren menpekoa da.*

Bukatzeko, talde $\mathbb{Z}_p$-analitiko trinko guztiek indize finituko talde $\mathbb{Z}_p$-estandar bat dutenez (ikusi Lema 1.21) adierazpen eratorriak Lazarden jatorrizko emaitza ematen digu:

Korolarioa 2.6 (Lazard)**.** *Talde p-adiko analitiko trinkoak $\mathbb{Z}_p$-ren gainean linealak dira.*

2.2 Pro-p domeinu aldaketa

Tesi honetako hainbat emaitzaren atzean idea bera dago: problema bat Krull dimentsioko pro-p domeinu batera murriztu eta talde horietan jada ezagunak diren egitura-emaitzak erabili. Horretarako pro-p domeinuen arteko $\varphi \colon R \to Q$ homomorfismoak erabiliko dira, talde R-analitiko batetik abiatuta talde Q-anatilikoak eraikitzeko. Zehazkiago, izan bedi $F(\mathbf{X}) = \sum_{\alpha \in \mathbb{N}_0^{(d)}} a_\alpha \mathbf{X}^\alpha \in R[[\mathbf{X}]]$ berretura serie formala, koefizienteei φ aplikatuz

$$\mathbf{F}_\varphi = \sum_{\alpha \in \mathbb{N}_0^{(d)}} \varphi(a_\alpha)\mathbf{X}^\alpha \in Q[[\mathbf{X}]]$$

berretura serie formala dugu (hau berretura serie formalen propietate unibertsalaren kasu jakin bat baino ez da, ikusi Teorema 1.6).

Koefizienteak aldatzeko eraztun lokalen arteko homomorfismo naturalak bakarrik hartuko ditugu aintzat, *eraztun homomorfismo lokalak* hain zuzen ere. Horiek eraztun lokalen arteko $\varphi\colon (R,\mathfrak{m}) \to (Q,\mathfrak{n})$ homomorfismoak dira eta $\varphi(\mathfrak{m}) \subseteq \mathfrak{n}$ betetzen dute. Bide batez, ohartu eraztun homomorfismo lokalak jarraituak direla, $\varphi(\mathfrak{m}^n) \subseteq \mathfrak{n}^n$ baita $n \in \mathbb{N}$ guztietarako.

Hurrengo lemaren arabera, deskribaturiko eraztun aldaketa eta berretura serieen konposizioa trukakorrak dira.

Lema 2.7. *Izan bitez $\varphi\colon (R,\mathfrak{m}) \to (Q,\mathfrak{n})$ eraztun homomorfismo lokala eta $\boldsymbol{F} \in R[[X_1,\ldots,X_n]]^{(m)}$ eta $\mathbf{G} \in R[[X_1,\ldots,X_m]]^{(l)}$ berretura serie formalak. Demagun $\boldsymbol{F}(\mathbf{0}) \in \mathfrak{m}^{(m)}$ dela. Orduan, $(\mathbf{G}\circ\boldsymbol{F})_\varphi(X_1,\ldots,X_n) = \mathbf{G}_\varphi \circ \boldsymbol{F}_\varphi(X_1,\ldots,X_n)$ da.*

Froga. Berretura serieen propietate unibertsalaren arabera,

$$\Phi_\varphi\colon R[[X_1,\ldots,X_n]] \to Q[[X_1,\ldots,X_n]]$$

eraztun homomorfismo jarraitu bakarra existitzen da, zeinak $\Phi_\varphi(\mathbf{H}(\mathbf{X})) = \mathbf{H}_\varphi(\mathbf{X})$ betetzen duen $\mathbf{H} \in R[[\mathbf{X}]]$ guztietarako, hemen $\mathbf{X} = (X_1,\ldots,X_n)$ da.

Izan bedi $\mathbf{F}(\mathbf{X}) = (F_1(\mathbf{X}),\ldots,F_m(\mathbf{X}))$. Orduan, $\mathbf{F}(\mathbf{0}) \in \mathfrak{m}^{(m)}$ eta φ lokala direnez, $\Phi_\varphi(F_1(\mathbf{X})),\ldots,\Phi_\varphi(F_m(\mathbf{X}))$ berretura seriak $(\mathfrak{n},X_1,\ldots,X_n)Q[[\mathbf{X}]]$-n daude, hau da, $Q[[\mathbf{X}]]$-ren ideal maximalean. Horregatik, propietate unibertsalaren eraginez,

$$\Phi_1\colon R[[Y_1,\ldots,Y_m]] \to Q[[X_1,\ldots,X_n]]$$

eraztun homomorfismoa defini dezakegu $\Phi_1(r) = \varphi(r)$, $r \in R$ guztietarako, eta $\Phi_1(Y_i) = (F_i)_\varphi(\mathbf{X})$, $i \in \{1,\ldots,m\}$ guztietarako, moduan. Modu berean, $F_1(\mathbf{X})$, …, $F_m(\mathbf{X})$ berretura serieak $R[[\mathbf{X}]]$ eraztunaren ideal maximalean daudenez,

$$\Phi_2\colon R[[Y_1,\ldots,Y_m]] \to R[[X_1,\ldots,X_n]]$$

aplikazioa defini dezakegu, $\Phi_2|_R = \mathrm{Id}_R$ eta $\Phi_2(Y_i) = F_i(\mathbf{X})$, $i \in \{1,\ldots,m\}$, moduan.

Ohartu $\Phi_1(r) = \Phi_\varphi \circ \Phi_2(r) = \varphi(r)$ dela $r \in R$ guztietarako eta $\Phi_1(Y_i) = \Phi_\varphi \circ \Phi_2(Y_i) = (F_i)_\varphi(\mathbf{X})$ dela $i \in \{1,\ldots,m\}$ guztietarako. Horrenbestez, propietate unibertsalaren bakartasuna dela eta, $\Phi_1 = \Phi_\varphi \circ \Phi_2$ da. Bereziki,

$$(\mathbf{G}\circ\mathbf{F})_\varphi(\mathbf{X}) = \Phi_\varphi \circ \Phi_2(\mathbf{G}(\mathbf{Y})) = \Phi_1(\mathbf{G}(\mathbf{Y})) = \mathbf{G}_\varphi \circ \mathbf{F}_\varphi(\mathbf{X}). \qquad \square$$

Hortaz, eraztun aldaketak berretura serieen identitate formalak mantentzen ditu. Bereziki:

Korolarioa 2.8. *Izan bitez R eta Q pro-p domeinuak, $\boldsymbol{F} \in R[[X_1,\ldots,X_{2d}]]^{(d)}$ talde eragiketa formala, $\boldsymbol{I}$ haren alderantzizko formala eta $\varphi\colon R \to Q$ eraztun homomorfismo lokala. Orduan, $\boldsymbol{F}_\varphi$ talde eragiketa formala da eta haren alderantzizko formala $\boldsymbol{I}_\varphi$ da.*

Froga. Izan bitez $\mathbf{X}$, $\mathbf{Y}$ eta $\mathbf{Z}$ aldagaien d-tuplak. Ohartu $\mathbf{F}(\mathbf{0}) = \mathbf{0}$ dela, eta, beraz, Lema 2.7 dela eta,

(i) $\mathbf{F}(\mathbf{F}(\mathbf{X},\mathbf{Y}),\mathbf{Z}) = \mathbf{F}(\mathbf{X},\mathbf{F}(\mathbf{Y},\mathbf{Z}))$ denez,

$$\mathbf{F}_\varphi(\mathbf{F}_\varphi(\mathbf{X},\mathbf{Y}),\mathbf{Z}) = \mathbf{F}_\varphi(\mathbf{X},\mathbf{F}_\varphi(\mathbf{Y},\mathbf{Z}))$$

da, eta

(ii) $\mathbf{F}(\mathbf{X},\mathbf{0}) = \mathbf{F}(\mathbf{0},\mathbf{X}) = \mathbf{X}$ denez, $\mathbf{F}_\varphi(\mathbf{X},\mathbf{0}) = \mathbf{F}_\varphi(\mathbf{0},\mathbf{X}) = \mathbf{X}$ da.

Hortaz, $\mathbf{F}_\varphi \in Q[[X_1,\ldots,X_{2d}]]^{(d)}$ talde eragiketa formala da. Azkenik, $\mathbf{I}(\mathbf{0}) = \mathbf{0}$ eta $\mathbf{F}(\mathbf{I}(\mathbf{X}),\mathbf{X}) = \mathbf{F}(\mathbf{X},\mathbf{I}(\mathbf{X})) = \mathbf{0}$ direnez, Lema 2.7 dela eta,

$$\mathbf{F}_\varphi\left(\mathbf{I}_\varphi(\mathbf{X}),\mathbf{X}\right) = \mathbf{F}_\varphi\left(\mathbf{X},\mathbf{I}_\varphi(\mathbf{X})\right) = \mathbf{0}$$

da, hau da, $\mathbf{I}_\varphi$ da $\mathbf{F}_\varphi$-ren alderantzizko formala. $\square$

Izan bitez orain $\varphi\colon (R,\mathfrak{m}) \to (Q,\mathfrak{n})$ pro-p domeinuen arteko eraztun homomorfismo lokala eta S talde R-estandarra, zeina $\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}$-rekin identifikatu daitekeen, eta demagun $\mathbf{F}$ dela S-ren talde eragiketa formala. Aitzineko $\mathbf{F}_\varphi$ talde eragiketa formala erabilita $L := \left(\mathfrak{n}^N\right)^{(d)}$ multzoa talde Q-estandar egitura batekin hornitu daiteke. Azken batean, talde eragiketa

$$x * y = \mathbf{F}_\varphi(x,y) \tag{2.2}$$

da $x, y \in L$ guztietarako. Hurrengo leman orain arteko notazioa mantenduko dugu.

Lema 2.9. *Izan bedi*

$$\varphi^{(d)}\colon \left(\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}, \boldsymbol{F}\right) \to \left(\left(\mathfrak{n}^N\right)^{(d)}, \boldsymbol{F}_\varphi\right),\ (r_1,\ldots,r_d) \mapsto (\varphi(r_1),\ldots,\varphi(r_d))$$

funtzioa. Orduan, $\varphi^{(d)}$ talde homomorfismoa da.

Froga. Idatzi $\mathbf{F} = (F_1,\ldots,F_d)$ eta

$$F_i(\mathbf{X},\mathbf{Y}) = \sum_{\alpha,\beta\in\mathbb{N}_0^{(d)}} a_{\alpha,\beta}\mathbf{X}^\alpha\mathbf{Y}^\beta \in R[[\mathbf{X},\mathbf{Y}]].$$

Orduan,

$$\begin{aligned}\varphi(F_i(x,y)) &= \varphi\left(\sum_{\alpha,\beta\in\mathbb{N}_0^{(d)}} a_{\alpha,\beta}x_1^{\alpha_1}\dots x_d^{\alpha_d}y_1^{\beta_1}\dots y_d^{\beta_d}\right)\\ &= \sum_{\alpha,\beta\in\mathbb{N}_0^{(d)}} \varphi(a_{\alpha,\beta})\varphi(x_1)^{\alpha_1}\dots\varphi(x_d)^{\alpha_d}\varphi(y_1)^{\beta_1}\dots\varphi(y_d)^{\beta_d}\\ &= (F_i)_\varphi\left(\varphi^{(d)}(x),\varphi^{(d)}(y)\right)\ \forall x,y\in\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)},\end{aligned}$$

bigarren berdintzan φ jarraitua dela erabilita; eta, horrenbestez, $\varphi^{(d)}$ talde homomorfismoa da. □

Demagun orain R ez dela IND bat. Izan bitez orain G talde R-analitiko trinkoa eta $(S,\mathbf{F})$ azpitalde R-estandar normal irekia, eta demagun $g\in G$ guztietarako $c_g\colon S\to S$ konjokazio aplikazioa hertsiki R-analitikoa dela (Lema 1.23k ziurtatzen du horrelako azpitalde R-estandar baten existentzia). Talde Q-analitiko trinko bat eraiki behar dugu, zeinaren azpitalde Q-estandar normala (2.2)n eraikitako $L=\left(\left(\mathfrak{n}^N\right)^{(d)},\mathbf{F}_\varphi\right)$ taldea den. Zehazkiago, hartu S-ren ezker transbertsal bat G-n, deitu T, eta suposatu $1\in T$ dela. Notazioa erraztearren honako laburdura erabiliko dugu: $g\in G$ guztietarako $\tilde{g}$ moduan adieraziko dugu gS koklaseak T-n duen ordezkaria. Horrela, (1.3.1) dela eta –eta bertako notazio mantenduz–, $x\in tS$ eta $y\in rS$ guztietarako beren biderketa

$$\phi_{\widetilde{tr}}(xy)=A_{tr}^{\widetilde{tr}}\left(\mathbf{F}\left(\mathbf{C}_r(\phi_t(x)),\phi_r(y)\right)\right)$$

formulak ematen du. Definitu $H:=T\times L$ eta $\psi_t\colon(t,L)\to L$ homeomorfismoak, non $\psi_t(t,l)=l$ den. Aurreko formula imitatuz, $x\in(t,L)$ eta $y\in(r,L)$ emanda, haien biderketa honela definitzen da:

$$x*y=\left(\widetilde{tr},\left(A_{tr}^{\widetilde{tr}}\right)_\varphi\left(\mathbf{F}_\varphi\left(\left(\mathbf{C}_r\right)_\varphi(\psi_t(x)),\psi_r(y)\right)\right)\right). \tag{2.3}$$

Oharra. Sinpletasunagatik $(1,L)$ koklasea L-rekin identifika dezakegu, eta orduan (2.3) eragiketak (2.2) hedatzen du.

Lema 2.10. *Orain arteko notazioa mantenduz, $(H,*)$ talde Q-analitiko trinkoa da eta $L\trianglelefteq H$ azpitalde normal ireki Q-estandarra.*

Froga. Lehenik eta behin, H barietate Q-analitiko trinkoa da $\{(tL, \psi_t)\}_{t\in T}$ atlasarekiko –notazio abusu batekin, tL moduan izendatuko dugu (t, L) koklasea–. Halaber, H taldea da. Izan ere,

(i) $t, r, p \in T$ badira, Lema 1.24 eta taldearen elkarkortasunaren ondorioz, berretura serie formal gisa

$$A^{\widetilde{trp}}_{t\cdot\widetilde{rp}}\left(\mathbf{F}\left(\mathbf{C}_{\widetilde{rp}}(\mathbf{X}), A^{\widetilde{rp}}_{rp}(\mathbf{F}(\mathbf{C}_p(\mathbf{Y}),\mathbf{Z}))\right)\right) = A^{\widetilde{trp}}_{\widetilde{tr}\cdot p}\left(\mathbf{F}\left(\mathbf{C}_p\left(A^{\widetilde{tr}}_{tr}\left(\mathbf{F}\left(\mathbf{C}_r(\mathbf{X}),\mathbf{Y}\right)\right)\right),\mathbf{Z}\right)\right)$$

betetzen da. Hortaz, $x \in tL$, $y \in rL$ eta $z \in pL$ badira, Lema 2.7 eta identitatea (2.3)ren eraginez,

$$\begin{aligned}
&\psi_{\widetilde{trp}}(x * (y * z)) \\
&\quad= \left(A^{\widetilde{trp}}_{t\cdot\widetilde{rp}}\right)_\varphi \left(\mathbf{F}_\varphi\left(\left(\mathbf{C}_{\widetilde{rp}}\right)_\varphi(\psi_t(x)), \left(A^{\widetilde{rp}}_{rp}\right)_\varphi\left(\mathbf{F}_\varphi\left(\left(\mathbf{C}_p\right)_\varphi(\psi_r(y)), \psi_p(z)\right)\right)\right)\right) \\
&\quad= \left(A^{\widetilde{trp}}_{\widetilde{tr}\cdot p}\right)_\varphi \left(\mathbf{F}_\varphi\left(\left(\mathbf{C}_p\right)_\varphi\left(\left(A^{\widetilde{tr}}_{tr}\right)_\varphi\left(\mathbf{F}_\varphi\left(\left(\mathbf{C}_r\right)_\varphi(\psi_t(x)), \psi_r(y)\right)\right)\right), \psi_p(z)\right)\right) \\
&\quad= \psi_{\widetilde{trp}}((x * y) * z)
\end{aligned}$$

betetzen da.

(ii) Elementu neutroa $(1, \mathbf{0}) \in L$ da.

(iii) Izan bedi $x \in tL$, orduan alderantzizkoa

$$y = \left(\widetilde{t^{-1}}, \left(A^{\widetilde{t^{-1}}}_{t^{-1}}\right)_\varphi \circ \left(\mathbf{C}_{t^{-1}}\right)_\varphi \circ \mathbf{I}_\varphi(\psi_t(x))\right)$$

da. Izan ere, $x * y \in L$ da eta Lema 1.24 kontuan hartuta,

$$A^1_{t\cdot\widetilde{t^{-1}}}\left(\mathbf{F}\left(\mathbf{C}_{\widetilde{t^{-1}}}(\mathbf{X}), A^{\widetilde{t^{-1}}}_{t^{-1}}\left(\mathbf{C}_{t^{-1}}(\mathbf{I}(\mathbf{X}))\right)\right)\right) = \mathbf{0}$$

dugu. Hortaz, Lema 2.7 eta identitatea (2.3)ren eraginez,

$$\begin{aligned}
\mathbf{0} &= \left(A^1_{t\cdot\widetilde{t^{-1}}}\right)_\varphi \left(\mathbf{F}_\varphi\left(\left(\mathbf{C}_{\widetilde{t^{-1}}}\right)_\varphi(\psi_t(x)), \left(A^{\widetilde{t^{-1}}}_{t^{-1}}\right)_\varphi\left(\left(\mathbf{C}_{t^{-1}}\right)_\varphi\left(\mathbf{I}_\varphi(\psi_t(x))\right)\right)\right)\right) \\
&= \left(A^1_{t\cdot\widetilde{t^{-1}}}\right)_\varphi \left(\mathbf{F}_\varphi\left(\left(\mathbf{C}_{\widetilde{t^{-1}}}\right)_\varphi(\psi_t(x)), \psi_{\widetilde{t^{-1}}}(y)\right)\right) \\
&= \psi_1(x * y).
\end{aligned}$$

da. Era berean, $y * x = (1, \mathbf{0})$ da.

Azkenik, L normala da H-n, $1^t = 1$ baita $t \in T$ guztietarako. $\square$

Bukatzeko berehalakoa (baina datozen kapituluetan lagungarria) den ohar hau dugu egiteko:

Oharra 2.11. Talde Q-analitikoaren eraikuntzaren arabera,

$$\phi_{\widetilde{tr}}(x \cdot y) = \mathbf{M}\left(\phi_t(x), \phi_r(y)\right) \quad \forall (x, y) \in tS \times rS.$$

bada $\mathbf{M} \in R[[X_1, \ldots, X_{2d}]]^{(d)}$ berretura serie formal egokiarentzat, orduan,

$$\psi_{\widetilde{tr}}(\bar{x} * \bar{y}) = \mathbf{M}_\varphi\left(\psi_t(\bar{x}), \psi_r(\bar{y})\right) \quad \forall (\bar{x}, \bar{y}) \in tL \times rL$$

da. Orobat, berdina gertatzen da alderantzizko funtzioarekin.

2.2.1 Ebaluazio epimorfismoak

Praktikan aurreko pro-p domeinu aldaketa batik bat *ebaluazio epimorfismoak* erabiliz eginen dugu. Alegia, izan bitez $(R, \mathfrak{m})$ pro-p domeinua eta $a \in \mathfrak{m}^{(m)}$, a-ri dagokion ebaluazio epimorfismoa

$$s_a \colon R[[t_1, \ldots, t_m]] \to R, \; F \mapsto F(a)$$

eraztun epimorfismo lokala da. Epimorfismo horiek $R[[t_1, \ldots, t_m]]$-ren zein-nahi eraztun hedadura integraletara heda daitezke.

Teorema 2.12 (Igotze Teorema (cf. [75, Teorema V.2.3]))**.** *Izan bedi $A \subseteq B$ eraztun hedadura integrala. Orduan, edozein $\mathfrak{p} \subseteq A$ ideal lehenetarako existitzen da $\mathfrak{q} \subseteq B$ ideal lehena non $\mathfrak{q} \cap A = \mathfrak{p}$ den.*

Korolarioa 2.13. *Izan bitez $A \subseteq B$ eraztun hedadura integrala, P integritate domeinua eta $\varphi \colon A \to P$ eraztun epimorfismoa. Orduan, existitzen dira Q integritate domeinua eta φ hedatzen duen $\tilde{\varphi} \colon B \to Q$ epimorfismoa.*

Froga. Izan bedi $\mathfrak{p} = \ker \varphi$, Igotze Teoremaren arabera, existitzen da $\mathfrak{q} \subseteq B$ ideal lehena $\mathfrak{q} \cap A = \mathfrak{p}$ betez. Hori dela eta, diagrama hau trukakorra da:

$$\begin{array}{ccc} B & \xrightarrow{\tilde{\varphi}} & B/\mathfrak{q} \\ \uparrow & & \uparrow \psi \\ A & \xrightarrow{\varphi} & A/\mathfrak{p} \end{array}$$

non $\psi(x + \mathfrak{p}) = x + \mathfrak{q}$ injektiboa den. Horrela $A/\mathfrak{p}$ eraztuna P-rekin identifikatzen badugu, $\tilde{\varphi}$ epimorfismoak φ hedatzen du. $\square$

Oharra 2.14. Aurreko frogak are informazio gehiago ematen du Q-ri buruz. Izan ere, $A \subseteq B$ eraztun hedadura integrala denez, $P \subseteq Q$ ere eraztun hedadura integrala da. Izan ere, B-ko elementu baten erlazio A-integral bat modulo $\mathfrak{p}$ murriztuta, $B/\mathfrak{q}$-n dagokion elementuaren erlazio $A/\mathfrak{p}$-integral bat erdiesten da.

Are gehiago, B pro-p domeinua bada, Q ere hala da, B eraztuna ideal lehen batekin zatituz definitzen da eta.

Azkenik, teoremaren enuntziatuko $A \subseteq B$ hedadura finituki sortua bada, $P \subseteq Q$ eraztun hedadura ere finituki sortua da. Azken batean, hartu B A-modulu gisa sortzen duten elementuak eta murriztu horiek modulo $\mathfrak{q}$; elementu murriztu horiek $B/\mathfrak{q}$ sortzen dute $A/\mathfrak{p}$-modulu gisa.

Ebaluazio epimorfismo hedatu horiek pro-p domeinu guztietan ditugu eskuragarri. Izan ere, Cohenen Egitura Teoremaren (Teorem 1.2) arabera, edozein R pro-p domeinu finituki sortutako eraztun hedadura da $P[[t_1, \ldots, t_m]]$-ren gainean, $m = \dim_{\mathrm{Krull}}(R) - 1$ eta $(P, \mathfrak{n})$ bat Krull dimentsioko pro-p domeinu egoki bat izanik –benetan are gehiago esan daiteke, $P = \mathbb{Z}_p$, $\operatorname{char} R = 0$ denean, eta $P = \mathbb{F}_p[[t]]$, $\operatorname{char} R = p$ denean, baita–. Beraz, $a \in \mathfrak{n}^{(m)}$ guztietarako Q_a integritate domeinua eta $\tilde{s}_a \colon R \to Q_a$ epimorfismo jarraitua dugu. Azkenik, Lema 1.8ren antzeko propietate bat emanen dugu, paragrafo honetan zehar erabilitako notazioa mantenduz:

Korolarioa 2.15. *Izan bitez $U \subseteq_o \mathfrak{n}^{(m)}$ irekia eta $D \subseteq U$ azpimultzo dentsoa. Orduan, $\bigcap_{a \in D} \ker \tilde{s}_a = \{0\}$ da.*

Froga. Izendatu $A = P[[t_1, \ldots, t_m]]$, $\mathfrak{p}_a = \ker s_a$ eta $\mathfrak{q}_a = \ker \tilde{s}_a$ non $a \in \mathfrak{n}^{(m)}$. Lehenik eta behin, $F \in P[[t_1, \ldots, t_m]]$ berretura seriea ebaluatzea jarraitua denez, $F(a) = 0$ bada $a \in D$ guztietarako, orduan $F(a) = 0$ da $a \in U$ guztietarako. Orobat, definizioz $\mathfrak{p}_a = \mathfrak{q}_a \cap A$ da, eta, beraz, Lema 1.8ren ondorioz,

$$\left(\bigcap_{a \in D} \mathfrak{q}_a\right) \cap A = \bigcap_{a \in D} \mathfrak{p}_a = \bigcap_{a \in U} \mathfrak{p}_a = \{0\}$$

da. Demagun absurdura eramanez, existitzen dela $r \in \bigcap_{a \in D} \mathfrak{q}_a \setminus \{0\}$. Orduan, $A \subseteq R$ eraztun hedadura integrala denez, existitzen da $f_r(X) \in A[X]$ polinomio monikoa non

$$f_r(r) = r^n + \sum_{i=0}^{n-1} a_i r^i = 0$$

den. Areago, demagun f_r maila minimokoa dela. Orain, $\bigcap_{a \in D} \mathfrak{q}_a$ ideala denez, $a_0 \in \bigcap_{a \in D} \mathfrak{q}_a \cap A = \{0\}$ da, baina hori n minimoa izatearekin kontraesana da, $f_r(X) = X^{n-1} + \sum_{i=1}^{n-1} a_i X^{i-1}$ hartu baikenezakeen. □

Atal honen xedea honako kontzeptu hau aztertzea da:

Definizioa 2.16. Izan bitez A eta B egitura aljebraiko beraren bi adibide. Orduan, A *guztiz erresidualki* B dela edo B-k A diskriminatzen duela diogu, $S \subseteq A$ azpimultzo finitu guztietarako existitzen bada $h\colon A \to B$ homomorfismoa (dagokion kategorian) non $h|_S$ murrizketa injektiboa den.

Orokorrago, $\mathcal{B} = \{B_i\}_{i\in I}$ familiak A diskriminatzen du edo A guztiz erresidualki $\mathcal{B}$ da, $S \subseteq A$ azpimultzo finitu bakoitzerako existitzen bada $h\colon A \to B_i$ homomorfismo bat, $i \in I$ baten baterako, non $h|_S$ injektiboa den.

Adibidea 2.17. Eman dezagun adibide bat: izan bitez A eta $\mathcal{B} = \{B_i\}_{i\in I}$ eraztunak eta demagun A integritate domeinua dela. Orduan, A guztiz erresidualki $\mathcal{B}$ da baldin eta soilik baldin existitzen bada $\mathcal{F} \subseteq \cup_{i\in I} \operatorname{Hom}(A, B_i)$ homomorfismo familia non

$$\bigcap_{f\in\mathcal{F}} \ker f = \{0\}$$

den. *Soilik baldina* agerikoa da, bestela $x \in A$ elementu ez-nulu bat bailegoke non $f(x) = 0$ den $f\colon A \to B_i$ eraztun homomorfismo guztietarako, eta, beraz, ez legoke $\{0, x\}$ multzo finituan injektiboa den eraztun homomorfismorik.

*Baldin*a ikusteko, izan bedi $S = \{r_i\}_{i\in I} \subseteq A$ azpimultzo finitua. Definitu $r = \prod_{i\neq j}(r_i - r_j) \in R$. Ohartu $r \neq 0$ dela, r_i guztiak ezberdinak direlako eta A integritate domeinua delako. Hori dela eta, existitzen da $f \in \operatorname{Hom}(A, B_i)$ non

$$0 \neq f(r) = \prod_{i\neq j} (f(r_i) - f(r_j))\,,$$

den. Bereziki, $f(r_i) \neq f(r_j)$ da $i \neq j \in I$ guztietarako.

Esate baterako, Lema 1.8ren arabera, R pro-p domeinuak $R[[\mathbf{X}]]$ diskriminatzen du edozein aldagai kopururako $\mathbf{X}$-n.

Lema 2.18. *Izan bedi R pro-p domeinua. Orduan, edozein $S \subseteq R$ mutzo finitutarako existitzen dira bat Krull dimentsioko eta* $\operatorname{char} R$ *karakteristitako Q pro-p domeinua eta $\varphi\colon R \to Q$ eraztun epimorfismo lokala non $\varphi|_S$ injektiboa den. Hots, R pro-p domeinua bat Krull dimentsioko eta* $\operatorname{char} R$ *karakteristikako pro-p domeinen bildumak diskriminatzen du.*

Froga. Izan bedi $m = \dim_{\mathrm{Krull}}(R) - 1$ eta demagun $(P, \mathfrak{n})$ pro-p domeinua $\mathbb{Z}_p$ dela $\mathrm{char}(R) = 0$ denean, eta $P = \mathbb{F}_p[[t]]$ dela $\mathrm{char}(R) = p$ positiboa denean. Azpiatala 2.2.1 dela eta, $a \in \mathfrak{n}^{(m)}$ bakoitzerako existitzen dira Q_a pro-p domeinua eta $s_a \colon P[[t_1, \dots, t_m]] \to P$ ebaluazio epimorfismoa hedatzen duen $\tilde{s}_a \colon R \to Q_a$ eraztun epimorfimo lokala. Halaber, Oharra 2.14ren arabera, $P \subseteq Q_a$ eraztun hedadura integrala da, eta, beraz,

$$\dim_{\mathrm{Krull}} Q_a = \dim_{\mathrm{Krull}} P = 1$$

eta

$$\mathrm{char}\, Q_a = \mathrm{char}\, P = \mathrm{char}\, R$$

dira. Azkenik, Korolarioa 2.15n arabera, $\bigcap_{a \in \mathfrak{n}^{(m)}} \ker \tilde{s}_a = \{0\}$, eta, horrenbestez, Adibidea 2.17k ematen digu emaitza. $\square$

Arestiko frogan aipatu denez, R-k zero karakteristika badu, $\mathbb{Z}_p[[t_1, \dots, t_m]]$ eraztunaren hedadura finitua da. Izan bedi $\mu(R)$ zenbaki arrunta R pro-p domeinua $\mathbb{Z}_p[[t_1, \dots, t_m]]$-modulu gisa sortzeko beharrezkoa den elementu kopuru minimoa. Orduan, Oharra 2.14ren arabera, Q_a gehienez $\mu(R)$ heinako $\mathbb{Z}_p$-modulu askea da.

Proposizioa 2.19. *Izan bitez $(R, \mathfrak{m})$ zero karakteristikako pro-p domeinua eta G talde R-estandarra. Orduan, existitzen da $n \in \mathbb{N}$ zenbaki osoa, R domeinuaren, G-ren dimentsioaren eta G-ren mailaren menpekoa soilik dena, non G guztiz erresidualki $\mathrm{GL}_n(\mathbb{Z}_p)$ den.*

Froga. Definizioz, G taldea $\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}$-rekin identifika dezakegu eta talde egitura

$$\mathbf{F}(\mathbf{X}, \mathbf{Y}) = \sum_{\alpha, \beta \in \mathbb{N}_0^{(d)}} a_{\alpha,\beta} \mathbf{X}^{\alpha} \mathbf{Y}^{\beta} \in R[[\mathbf{X}, \mathbf{Y}]]$$

talde eragiketa formal batek ematen du. Izan bedi $S \subseteq \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}$ d-tuplen azpimultzo finitua, hau da

$$S = \left\{ r_i = (r_{i1}, \dots, r_{id}) \in R^{(d)} \right\}_{i \in I},$$

eta definitu $S' = \{ r_{ij} \mid i \in I,\ j \in \{1, \dots, d\} \} \subseteq R$. Lema 2.18 dela eta, existitzen dira Q_S bat Krull dimentsioko eta zero karakteristitako pro-p domeinua eta $\pi_S \colon (R, \mathfrak{m}) \to (Q_S, \mathfrak{n})$ eraztun homomorfismo lokala, zeina injektiboa den S'-ra murriztean.

Izan bedi $H_S = \left(\mathfrak{n}^N\right)^{(d)}$ taldea,

$$\mathbf{F}_{\pi_S}(\mathbf{X}) = \sum_{\alpha,\beta\in\mathbb{N}_0^{(d)}} \pi_S(a_{\alpha,\beta})\mathbf{X}^\alpha\mathbf{Y}^\beta \in Q[[\mathbf{X},\mathbf{Y}]],$$

talde eragiketa formalarekin (konparatu Korolarioa 2.8) eta barietate Q_S-analitiko egitura naturalarekin. Lema 2.9ren arabera,

$$\pi_S^{(d)}\colon G \to H_S,\ (r_1,\ldots,r_d) \mapsto (\pi_S(r_1),\ldots,\pi_S(r_d))$$

talde homorfismoa da, eta berehalakoa da ohartzea $\pi_S^{(d)}$ S-ra murriztea injektiboa dela.

Halaber, Q_S heina finituko $\mathbb{Z}_p$-modulu askea da eta $\mu'_S \leq \mu(R)$ heina du. Beraz, eskalareak murriztuz (konparatu Korolarioa 1.44), H_S talde p-adiko analitikoa da eta haren dimentsioa $\mu'_S d \leq \mu(R)d$ da. Konkretuago, $\sigma\colon Q_S \to \mathbb{Z}_p^{(\mu'_S)}$ $\mathbb{Z}_p$-modulu isomorfismoa bada, orduan

$$\left(p^N\mathbb{Z}_p\right)^{(\mu'_S)} = \sigma\left(p^N Q_S\right) \subseteq \sigma\left(\mathfrak{n}^N\right)$$

da. Hortaz, H_S azpitalde $\mathbb{Z}_p$-estandar ireki bat du, alegia

$$U_S := \left(\sigma^{(d)}\right)^{-1}\left(p^N\mathbb{Z}_p^{(\mu'_S d)}\right).$$

Are gehiago, Lema 1.20ren arabera, talde indizeak eta ideal indizeak (hau da, indizeak talde batukor gisa) bat datoz, eta, beraz,

$$|H_S : U_S| \leq \left|\mathbb{Z}_p^{(\mu'_S d)} : \left(p^N\mathbb{Z}_p\right)^{(\mu'_S d)}\right| = p^{N\mu'_S d} \leq p^{N\mu(R)d}.$$

Azkenik, Teorema 2.5en ondorioz, existitzen da $m_1\colon U_S \hookrightarrow \mathrm{GL}_{\gamma(\mu(R)d)}(\mathbb{Z}_p)$ adierazpen lineal leiala, $\gamma\colon \mathbb{N} \to \mathbb{N}$ funtzio egoki batentzat. Izan bitez, orain, $n = p^{N\mu(R)d}\gamma(\mu(R)d)$ eta $m\colon H_S \hookrightarrow \mathrm{GL}_n(\mathbb{Z}_p)$ eratorritako talde adierazpen lineal leiala. Orduan, $m \circ \pi_S^{(d)}\colon G \to \mathrm{GL}_n(\mathbb{Z}_p)$ konposaketa talde homormorfismoa da eta injektiboa da S-ra murriztean. □

Hots,

Korolarioa 2.20. *Talde R-estandar oro talde lineal batek diskriminatzen du.*

Atal honetako emaitza nagusia, baita kapitulu osokoa ere, Teorema 2.27 da. Alegia, R zero karakteristikako pro-p domeinua denean, talde R-analitiko trinko guztiek adierazpen lineal leial bat dute.

Lehenengo, problema heuristikoki aztertuko dugu, eta gero, atalean zehar, ideia hori formalizatuko dugu. Aitzineko emaitzetan oinarrituta edozein G talde R-estandarretarako era naturalean

$$G \hookrightarrow \prod_{\substack{S \subseteq G \\ S \text{ finitua}}} \mathrm{GL}_n(\mathbb{Z}_p) \cong \mathrm{GL}_n\left(\prod_{\substack{S \subseteq G \\ S \text{ finitua}}} \mathbb{Z}_p\right)$$

talde monomorfismoa dugu. Haatik, $\mathbb{Z}_p$ eraztunen biderketa kartesiar infinitua ez da integritatea domeinua, eta, horrenbestez, monomorfismo hori moldatu egin behar da. Horretarako eredu teoria erabiliko da, eta irakurleak [17] kontsulta dezake gaiaren ikuspegi orokorra zein beharrezko definiziok topatu nahi izanez gero. Froga besterik gabe liburuko erreferentziak bilbatuz eraiki daitekeen arren, tesiaren osotasunagatik kontzeptuak eta argudioak artaz aurkeztuko dira.

Definizioa 2.21. Izan bedi I multzo infinitua. Orduan, I-ren *filtro* bat $\mathcal{U} \subseteq \mathcal{P}(I)$ azpimultzo bat da non

(U1) $\varnothing \notin \mathcal{U}$ den.

(U2) $A \in \mathcal{U}$ eta $A \subseteq B$ badira, orduan $B \in \mathcal{U}$ den.

(U3) $A, B \in \mathcal{U}$ badira, orduan $A \cap B \in \mathcal{U}$ den.

Filtro bat, deitu $\mathcal{U}$, *ultrafiltro* bat aurrekoez gain propietate hau betetzen duenean:

(U4) $A \subseteq I$ guztietarako, $A \in \mathcal{U}$ da edo $I \setminus A \in \mathcal{U}$ da.

Azkenik, ultrafiltro bat *ez-nagusia* da aurrekoez gain

(U5) $\{i\} \notin \mathcal{U}$ bada $i \in I$ guztietarako.

Oharra 2.22. Filtroen propietate pare bat enuntziatuko dira, gerora argi edukitzearren:

(i) Izan bedi $\mathcal{U}$ filtroa I-n. Orduan, A edo $I \setminus A$ bietako bakarra egon daiteke $\mathcal{U}$-n. Bereziki, $\mathcal{U}$ ultrafiltroa bada, A edo $I \setminus A$ bietako bat eta bakarra dago $\mathcal{U}$-n.

(ii) Izan bedi $\mathcal{U}$ ultrafiltroa I-n eta demagun $A \cup B \in \mathcal{U}$ dela. Orduan, A edo B, bietako bat, $\mathcal{U}$-n dago. Izan ere, bestela (U4) dela eta, $I \setminus A$, $I \setminus B \in \mathcal{U}$ litzateke, eta, beraz, (U3) eta de Morganen legea direla eta,

$$I \setminus (A \cup B) = (I \setminus A) \cap (I \setminus B) \in \mathcal{U},$$

(i) puntuarekin kontraesana dena.

Ultrafiltro Teoremaren (ikusi [17, Korolarioa 1.4.4]) arabera, $\mathcal{F} \subseteq \mathcal{P}(I)$ familiak *ebakidura finituen propietatea* betetzen badu, hau da,

$$F_1 \cap \cdots \cap F_n \neq \varnothing \ \forall n \in \mathbb{N},\ \forall F_1, \ldots, F_n \in \mathcal{F}$$

bada, orduan $\mathcal{F}$ familia I-ren ultrafiltro batera heda daiteke. Hori dela eta, zeinnahi G multzo infinitu emanda, erraza da

$$\mathcal{P}_{\text{fin}}(G) := \{S \subseteq G \mid S \text{ finitua}\} \subseteq \mathcal{P}(G)$$

multzoa ultrafiltro batez hornitzea. Azken batean, $S \in \mathcal{P}_{\text{fin}}(G)$ bakoitzerako definitu $A_S = \{T \in \mathcal{P}_{\text{fin}}(G) \mid S \subseteq T\}$, eta ohartu $S, T \in \mathcal{P}_{\text{fin}}(G)$ direnean

$$A_S \cap A_T = A_{T \cup S}$$

dela. Alegia $\mathcal{V} = \{A_S \mid S \in \mathcal{P}_{\text{fin}}(G)\}$ familiak ebakidura finituen propietatea betetzen du. Ondorioz, Ultrafiltro Teoremagatik existitzen da $\mathcal{V}$ hedatzen duen $\mathcal{U}$ ultrafiltroa. Honi $\mathcal{P}_{\text{fin}}$-eko ultrafiltro natural deituko diogu. Ultrafiltro hori ez-nagusia da. Izan ere, $S \subsetneq G$ multzo finitua emanda, hartu $g \in G \setminus S$, orduan

$$A_{\{g\}} \subseteq \mathcal{P}_{\text{fin}}(G) \setminus \{S\}.$$

Beraz, (U2)ren arabera, $\mathcal{P}_{\text{fin}}(G) \setminus \{S\} \in \mathcal{U}$ da eta Oharra 2.22(i)en ondorioz, $\{S\} \notin \mathcal{U}$ da.

Definizioa 2.23. Izan bitez I multzo infinitua, $\mathcal{G} = \{G_i\}_{i \in I}$ familia eta $\mathcal{U}$ ultrafiltroa I-n. Orduan, $\mathcal{G}$ familiaren *ultrabiderketa* $\prod_{i \in I} G_i$ biderketa kartesiarra modulo

$$(g_i)_{i \in I} \sim (h_i)_{i \in I} \iff \{i \in I \mid g_i = h_i\} \in \mathcal{U}$$

baliokidetasun erlazioa da. Egitura hori $\prod_{i \in I} G_i/_{\mathcal{U}}$ moduan izendatuko dugu, eta $(g_i \mid i \in I)$ tuplaren baliokidetasun klasea $[g_i \mid i \in I]_{\mathcal{U}}$ moduan adieraziko da.

Era berean, $G_i = G$ denean $i \in I$ guztieratarako, ultrabiderketa horri G-ren *ultraberretura* deitzen zaio, eta $G^{\mathcal{U}} = \prod_{i\in I} G/\mathcal{U}$ moduan adierazten da.

Talde familia baten ultrabiderketa (edo beste edozein egitura aljebraikorena) berriro talde bat (edo dagokion egitura aljebraikoa) da biderketa osagaiz osagai egin eta baliokidetasun klasea hartuta. Hori zuzenean oinarrizko definizioak erabiliz froga daiteke, edota Łoś́en Teorematik ondoriozta daiteke.

Lema 2.24. *Izan bedi $\mathcal{U}$ ultrafiltroa I multzo infinituan.*

(i) *Demagun $\{G_i\}_{i\in I}$ talde familia dela, orduan $\bar{G} := \prod_{i\in I} G_i/\mathcal{U}$ taldea da.*

(ii) *Demagun $\{R_i\}_{i\in I}$ eraztun familia dela, orduan $\bar{R} := \prod_{i\in I} R_i/\mathcal{U}$ eraztuna da. Orobat, R_i guztiak integritate domeinuak badira, $\overline{R}$ ere integritate domeinua da.*

Froga. (i) Ohartu $\bar{G}$ multzoa $\prod_{i\in I} G_i$ taldearen zatidura baino ez dela

$$\mathcal{N} = \left\{ (x_i)_{i\in I} \in \prod_{i\in I} G_i \middle| \{i \in I \mid x_i = 1\} \in \mathcal{U} \right\}$$

azpitalde normalarekiko. Frogatu behar dugun bakarra $\mathcal{N}$ azpitalde normala dela da. Horretarako, laburdura hauek erabiliko ditugu: $x = (x_i \mid i \in I)$ tuplarako, J_x bidez izendatuko dugu $\{i \in I \mid x_i = 1\} \subseteq I$ multzoa. Hartu $x = (x_i \mid i \in I)$ eta $y = (y_i \mid i \in I) \in \mathcal{N}$, hau da, $J_x, J_y \in \mathcal{U}$. Orduan,

$$J_x \cap J_y = J_x \cap J_{y^{-1}} \subseteq J_{xy^{-1}},$$

beraz, (U2) eta (U3) direla eta, $J_{xy^{-1}} \in \mathcal{U}$ da, eta, ondorioz, $xy^{-1} \in \mathcal{N}$ da. Antzeko moduan, $g \in \prod_{i\in I} G_i$ guztietarako $J_x \subseteq J_{x^g}$ dugu, eta, beraz, $\mathcal{N}$ azpitalde normala da.

(ii) Lehenbiziko zatia, $\bar{R}$ eraztuna dela, (i) bezala frogatzen da, hau da, $\bar{R}$ multzoa $\prod_{i\in I} R_i$-ren zatidura da

$$\mathcal{I} := \left\{ r \in \prod_{i\in I} R_i \middle| \{i \in I \mid r_i = 0\} \in \mathcal{U} \right\}$$

idealarekiko. Bigarren zatirako, $\bar{R} \neq \{0\}$ da eta, beraz, R_i guztiak integritate domeinuak direnean $\mathcal{I}$ ideal lehena dela frogatu behar da. Hartu $r = [r_i \mid i \in I]_{\mathcal{U}}, s = [s_i \mid i \in I]_{\mathcal{U}} \in \bar{R}$ non

$$[r_i s_i \mid i \in I]_{\mathcal{U}} = rs \in \mathcal{I}$$

den, hau da, $J := \{i \in I \mid r_i s_i = 0\} \in \mathcal{U}$. Definitu $J_r = \{i \in I \mid r_i = 0\}$ eta $J_s = \{i \in I \mid s_i = 0\}$. Orduan, R_i bakoitza integritate domeinua denez, $J = J_r \cup J_s$ da, eta, Oharra 2.22(ii)ren arabera, $J_r \in \mathcal{U}$ da edo $J_s \in \mathcal{U}$ da. Hots, $r \in \mathcal{I}$ da edo $s \in \mathcal{I}$ da. □

Garapen honen ostean, baditugu hasierako argudio heuristikoa moldatzeko tresna guztiak:

Proposizioa 2.25. *Talde R-estandar oro* $\mathrm{GL}_n(\mathbb{Z}_p)$*-ren ultraberretura batean murgildu daiteke.*

Froga. Proposizioa 2.19ren arabera, badago $n \in \mathbb{N}$ non hau betetzen den: $S \subseteq G$ azpimultzo finitu guztietarako, existitzen da $h_S \colon G \to \mathrm{GL}_n(\mathbb{Z}_p)$ talde homomorfismoa eta h_S-ren murrizketa S-ra funtzio injektiboa da.

Izan bedi $\mathcal{U}$ ultrafiltro naturala $\mathcal{P}_{\mathrm{fin}}(G)$-n eta definitu

$$h \colon G \to \mathrm{GL}_n(\mathbb{Z}_p)^{\mathcal{U}},\ g \mapsto [h_S(g) \mid S \in \mathcal{P}_{\mathrm{fin}}(G)]_{\mathcal{U}}$$

talde homomorfismoa.

Injektiboa dela frogatu behar dugu, hau da, $\ker h = \{1\}$ dela. Hartu $g \neq 1$, orduan $h_S(g) \neq 1$ da $S \in A_{\{1,g\}}$ guztietarako. Beraz,

$$Y := \{S \in \mathcal{P}_{\mathrm{fin}}(G) \mid h_S(g) = 1\} \subseteq \mathcal{P}_{\mathrm{fin}}(G) \setminus A_{\{1,g\}}$$

da, eta Oharra 2.22(i) dela eta, $Y \notin \mathcal{U}$ da. Hots, $h(g) \neq 1$ da eta ondorioz h talde monomorfismoa da. □

Honakoa ere beharko dugu:

Lema 2.26. *Izan bitez* $\{R_i\}_{i \in I}$ *eraztun familia eta* $\mathcal{U}$ *ultrafiltroa* I*-n. Orduan, talde gisa*

$$\prod_{i \in I} \mathrm{GL}_n(R_i)/\mathcal{U} \cong \mathrm{GL}_n\left(\prod_{i \in I} R_i/\mathcal{U}\right)$$

da.

Froga. Izan bedi

$$\begin{aligned} f \colon \prod_{i \in I} \mathrm{GL}_n(R_i)/\mathcal{U} &\longrightarrow \mathrm{GL}_n\left(\prod_{i \in I} R_i/\mathcal{U}\right) \\ \left[A^i = (a^i_{j,k})_{j,k} \mid i \in I\right]_{\mathcal{U}} &\longmapsto \left(\left[a^i_{jk} \mid i \in I\right]_{\mathcal{U}}\right)_{j,k} \end{aligned}$$

aplikazioa. Ariketa erraza da f talde isomorfismoa dela ikustea. □

Azkenik, osagai guztiak batuko ditugu emaitza nagusia frogatzeko.

Teorema 2.27. *Izan bedi R zero karakteristikako pro-p domeinua. Orduan, talde R-analitiko trinkoak linealak dira.*

Froga. Talde R-analitiko trinko orok indize finituko azpitalde R-estandar bat du (konparatu Lema 1.21), eta, horrenbestez, adierazpen eratorria dela eta, orokortasunatik galdu bage G talde R-estandarra dela suposa dezakegu.

Bestetik, Teorema 2.25en arabera, G taldea $\mathrm{GL}_n(\mathbb{Z}_p)^{\mathcal{U}}$ ultraberretura batean murgiltzen da, $n \in \mathbb{N}$ egoki baterako. Hots, Lema 2.26ren arabera,

$$G \hookrightarrow \mathrm{GL}_n(\mathbb{Z}_p)^{\mathcal{U}} \cong \mathrm{GL}_n\left(\mathbb{Z}_p^{\mathcal{U}}\right)$$

da, eta Lema 2.24(ii)ren arabera, $\mathbb{Z}_p^{\mathcal{U}}$ integritate domeinua denez, G lineala da. □

2.5 Oharrak

Atala 2.1eko frogen ideiak Lazardi zor dizkiogu. Hala ere, hemengo aurkezpena bestelakoa da, eta batik bat [24, Atala 7.3] darraio. Atala 2.4ko emaitza eta kontzeptu gehienak oinarrizkoak dira eredu teorian dihardutenentzat. Haatik, osotasunaren mesedetan xeheki azaldu ditugu. Ikus daitekeenez, eredu teoriak bere esparrutik at duen aplikazioetako bat talde batzuk linealak direla frogatzea da, eta hori oro har ez da lan erraza. Erabilera hori lehenengoz Mal'cevi otu zitzaion.

Gainerako materiala originala da, eta Casals-Ruizekin batera eginda dago. Emaitza horiek nagusiki [16]n daude, nahiz eta zati batzuk [76]n egon.

3

Hausdorffen dimentsioa talde R-analitiko trinkoetan

DIMENTSIO FRAKTALEK dimentsio topologiko nozioa orokortzen dute. Halere, dimentsio fraktal anitz daude (nahiz eta guztiak espazioaren neurketa gisako batean oinarritu), eta horien artean garrantzitsuenetarikoak Hausdorffen dimentsioa eta Minkowski-Bouliganden dimentsioa, kutxa-dimentsioa ere deiturikoa, dira.

Aipaturiko bi dimentsio horiek edozein espazio metrikotan definitu daitezke, eta talde profinituen testuinguruan Hausdorffen dimentsioa asko aztertu izan da azken hamarkadetan. Izan ere, G oinarri kontagarriko talde profinitu infinitua bada, $\{G_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ *filtrazio serie* bat existitzen da, alegia, azpitalde irekien segida beherakor bat, identitatearen ingurune-oinarria ere badena, hau da, $\bigcap_{n\in\mathbb{N}} G_n = \{1\}$ betetzen du. Filtrazio serie horrek

$$d(x,y) = \inf\left\{|G:G_n|^{-1} \mid xy^{-1} \in G_n\right\}.$$

metrika definitzen du G-n. Distantzia horrekin G espazio metrikoa da, eta, ondorioz, bertan Hausdorffen eta Minkowski-Bouliganden dimentsioak defini daitezke (ikusi Atala 3.1 definizio zehatzetarako), hurrenez hurren, hdim eta lbdim izendatuko ditugunak. Talde profinitu batean neurri bakarra dago, Haarren neurria, baina metrika ez-baliokide anitz daude; eta eskuarki dimentsio fraktalak metrikaren –edo baliokideki metrika definitzeko erabilitako filtrazio seriearen– menpekoak dira. Filtrazio serie jakin baterako $\mathrm{hdim}_{\{G_n\}}(H)$ balioen bilduma aztertu dezakegu, H azpitalde itxietan zehar doalarik, hau da,

$$\mathrm{hspec}_{\{G_n\}}(G) := \left\{\mathrm{hdim}_{\{G_n\}}(H) \mid H \leq_c G\right\},$$

$\{G_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio seriearekiko G-ren *Hausdorffen espektroa* deituko duguna. Minkowski-Bouliganden espektroa modu berean definitu genezakeen arren, filtrazio serie gehienetarako $H \leq_c G$ denean $\mathrm{hdim}(H) = \mathrm{lbdim}(H)$ dela ikusiko dugu (ikusi Teorema 3.7). Horrenbestez, terminologia klasikoa jarraituz, "Hausdorff" izena erabiliko da espektroa izendatzeko.

Filtrazio seriea aldatuz gero, espektro horiek ez dute zertan elkarren antzik eduki. Esate baterako, azter dezagun $\mathbb{Z}_p \oplus \mathbb{Z}_p$ pro-p talde batukorra. Horren gisako finituki sortutako G pro-p taldeetarako badago filtrazio serie natural bat, $G_n = G^{p^n}$ gisa definituriko *p-berretura filtrazio seriea* hain zuzen ere. Filtrazio serie horrekin, $\mathrm{hspec}_{\{G_n\}}(\mathbb{Z}_p \oplus \mathbb{Z}_p) = \{0, 1/2, 1\}$ da, eta bereziki finitua da; baina, [48, Teorema 1.3]n frogatzen denez, existitzen da $\{H_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio seriea zeinetarako $\left[\frac{1}{p+1}, \frac{p-1}{p+1}\right] \subseteq \mathrm{hspec}_{\{H_n\}}(\mathbb{Z}_p \oplus \mathbb{Z}_p)$ den, eta, $p > 2$ denean, espektroa infinitu ezkontagarria da. Alegia, espektroaren finitutasuna ere ez da filtrazio seriearekiko aldagaitza.

Talde profinituetan Hausdorffen dimentsioa aztertzen duen artikulu goiztiarrenetakoa [6] da. Bertan, beste emaitza askoren artean, G pro-p talde p-adiko analitikoetarako $\mathrm{hspec}_{\{G^{p^n}\}}(G)$ finitua dela ikusten da (ikusi [6, Korolarioa 1.2]). Haatik, emaitza horren alderantzizkoa galdera irekia da oraindik.

Galdera 3.1 (cf. [6, Problema 1])**.** Izan bedi G finituki sortutako pro-p taldea eta demagun $\mathrm{hspec}_{\{G^{p^n}\}}(G)$ finitua dela. Orduan, G talde p-adiko analitikoa da?

Aipatu behar da aurreko G taldea ebazgarria ere badenean, galderak erantzun positiboa duela (ikusi [48, Teorema 1.7]).

Talde R-analitiko trinkoetan normalean ezin da p-berretura filtrazio seriea erabili, G^{p^n} ez baita oro har azpitalde irekia. Halere, talde horiek badute filtrazio serie kanoniko bat, taldearen egitura analitikoa aintzat hartzen duena. Etsenplu gisa, Atala 3.2n azpibarietate itxien dimentsio analitikoa eta dimentsio fraktalak, aipatutako filtrazio serie natural horrekiko definituta, erkatuko ditugu, eta identitate hau frogatuko da:

$$\mathrm{hdim}(M) = \mathrm{lbdim}(M) = \frac{\max\{\dim_x M \mid x \in M\}}{\dim H}. \tag{3.1}$$

Filtrazio serie naturalarekiko Hausdorffen dimentsioa –Azpiatala 3.1.3n aurkeztuko da sakonki– *Hausdorffen dimentsio R-estandarra* deituko dugu, eta haren Hausdorffen espektroa *Hausdoffen espektro R-estandarra*, $\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}$, izanen da.

Pro-p talde p-adiko analitikoetarako, Hausdorffen espektroaren finitutasuna birformulatu daiteke:

Teorema 3.2 (cf. [6, Korolarioa 1.2] eta [27, Korolarioa 3.4])**.** *Izan bedi G talde p-adiko analitiko trinkoa. Orduan,* $\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G)$ *finitua eta arrazionala da.*

Aitzitik, egoera guztiz bestelakoa da oinarriko eraztuna ez denean $\mathbb{Z}_p$-ren finituki sortutako eraztun hedadura (oroitu talde R-analitiko bat talde p-adiko analitikoa dela baldin eta soilik baldin R finituki sortutako $\mathbb{Z}_p$-ren eraztun hedadura bada). Kapitulu honetan, batez ere $R = \mathbb{F}_p[[t]]$ kasura mugatuko gara, eta honakoak frogatuko ditugu:

Teorema 3.3. *Izan bedi G talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko trinkoa. Orduan,*

(i) *G-ren Hausdorffen espektro estandarrak $[0, {}^1/_{\dim G}]$ tarte erreala barruan du.*

(ii) *G ebazgarria bada,* $\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G) = [0, 1]$ *da.*

Emaitza horiek iradokitzen dute espektro estandarra nahikoa dela talde p-adiko analitikoak bakantzeko. Izan ere, arestiko emaitzak aieru orokor honekin bateragarriak dira:

Aierua 3.4. Izan bedi G talde R-analitiko trinkoa. Demagun $\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G)$ finitua dela. Orduan, G talde p-adiko analitikoa da.

3.1 Hausdorff eta kutxa-dimentsioak

Atal honetan, arestian aipatutako dimentsio fraktalak laburki deskribatuko ditugu. Beren propietate nagusiak eta zenbait oinarrizko emaitza bilduko ditugu, bereziki talde profinituen testuinguruan garrantzia dutenak.

3.1.1 Oinarrizko definizio eta propietateak

Has gaitezen definizio formalak emanez. Izan bitez (M, d) espazio metrikoa, $X \subseteq M$ azpimultzoa, eta δ eta z zenbaki erreal positiboak. Definitu

$$\mathcal{H}^z_\delta(X) := \inf \sum_{n=1}^{\infty} \mathrm{diam}(U_n)^z,$$

non $\{U_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ multzoa X-ren *δ-estalkia* den, hau da, azpimultzo guztiek gehienez δ diametroa dute, eta infimoa estalki horien guztien artean hartzen da. Bestetik,

$$\mathcal{H}^z(X) := \lim_{\delta\to 0^+} \mathcal{H}^z_\delta(X)$$

limitea existitu egiten da, $\mathcal{H}^z_\delta(X)$ ez-beherakorra baita δ zerora doan heinean. Are gehiago, $\mathcal{H}^z$ kanpo-neurria da M-n (ikusi [28, Proposizioa 11.17]), *z-Hausdorffen neurria* deitu ohi dena. Honakoa betetzen da:

Lema 3.5 (cf. [26, Atala 3.2])**.** *Demagun $\mathcal{H}^s(X) < \infty$ eta $t \geq s$ direla. Orduan, $\mathcal{H}^t(X) = 0$ da.*

Horrela, $X \subseteq M$ multzoaren *Hausdorffen dimentsioa* d metrikarekiko honela definitzen da:

$$\mathrm{hdim}_d(X) := \inf\{s \mid \mathcal{H}^s(X) = 0\} = \sup\{s \mid \mathcal{H}^s(X) = \infty\}$$

–talde profinituetan, metrika $\{G_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio serie baten menpekoa da, eta, horrenbestez, $\mathrm{hdim}_{\{G_n\}}$ notazioa erabiliko dugu–.

Hausdorffen dimentsioa

- *monotonoa* da, hau da, $\mathrm{hdim}_d(X) \leq \mathrm{hdim}_d(Y)$ da $X \subseteq Y$ bada eta
- *kontagarri-egonkorra* da, hau da, $\mathrm{hdim}_d(\cup_{n\in\mathbb{N}} X_n) = \sup_{n\in\mathbb{N}} \mathrm{hdim}_d(X_n)$ da

(konparatu [26, 48-49 orriak]). Bestetik, propietate hau azpimarratu behar dugu:

Proposizioa 3.6 (cf. [26, Proposizioa 3.3])**.** *Izan bedi $f\colon (M_1, d_1) \to (M_2, d_2)$ espazio metrikoen arteko* funtzio bilipschitziarra*, hau da, badaude bi konstante erreal $C, c \in \mathbb{R}_{\geq 0}$ non*

$$c \cdot d_1(x,y) \leq d_2(f(x), f(y)) \leq C \cdot d_1(x,y)\ \forall x,y \in M_1$$

den. Orduan, $\mathrm{hdim}_{d_2}(f(X)) = \mathrm{hdim}_{d_1}(X)$ *da $X \subseteq M_1$ guztietarako. Bereziki, isometriek Hausdorffen dimentsioa gordetzen dute.*

Minkowski-Bouliganden dimentsioa edo *kutxa-dimentsioa* da landuko dugun beste dimentsioa. Izan bedi $N_\delta(X)$ zenbakia X multzoa estaltzeko beharrezkoa den gehienez δ diametroko azpimultzo kopuru minimoa, eta definitu, hurrenez hurren, *behe kutxa-dimentsioa* eta *goi kutxa dimentsioa* (batik bat lehenengoarekin eginen dugu lan), modu honetan:

$$\text{lbdim}_d(X) := \liminf_{\delta\to 0^+} \frac{\log N_\delta(X)}{-\log\delta} \text{ eta } \text{ubdim}_d(X) := \limsup_{\delta\to 0^+} \frac{\log N_\delta(X)}{-\log\delta}.$$

Ohartu aurreko bi adierazpenak logaritmoaren oinarriarekiko independenteak direla. Aurreko bi balioak bat datozenean, alegia zenbaki errealen segida konbergentea denean, balio komun hori X-ren kutxa-dimentsioa da, $\text{bdim}(X)$ adieraziko duguna.

Oinarri kontagarriko talde profinituetan, aitzineko limiteak soilik talde teoriako terminoak erabilita berformulatu daitezke. Horrela, G taldean $\{G_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio serieak definitzen duen metrikak hartzen dituen balio bakarrak $|G:G_n|^{-1}$ dira; eta, xG_n koklasea, hain zuzen ere, x zentroko eta $\delta = |G:G_n|^{-1}$ erradioko bola da. Beraz, edozein $X \subseteq G$ multzotarako $N_\delta(X) = |XG_n : G_n|$ da (honek xG_n motako koklase kopurua adierazten du $x \in X$ elementuren batentzat). Hots,

$$\text{lbdim}_{\{G_n\}}(X) = \liminf_{n\to\infty} \frac{\log|XG_n : G_n|}{\log|G:G_n|}$$

eta

$$\text{ubdim}_{\{G_n\}}(X) = \limsup_{n\to\infty} \frac{\log|XG_n : G_n|}{\log|G:G_n|}$$

dira –kasu honetan azpi-indizean $\{G_n\}$ idatziko da, metrika filtrazio serieak zehazten baitu-. Halaber, definiziotik ondorioztatzen da kutxa-dimentsioak monotonoak eta bilipschitz egonkorrak direla (ikusi [26, Proposizioa 2.5]). Gainera, goi kutxa-dimentsioa *finitu egonkorra* da, hau da,

$$\text{ubdim}(X \cup Y) = \max\{\text{ubdim}(X), \text{ubdim}(Y)\}.$$

Behe kutxa-dimentsioa, berriz, ez da beti finituki egonkorra (ikusi [26, Atala 2.2]).

Abercombriek [1] azpitalde itxietarako –eta filtrazio serie natural batzuk– Hausdorffen dimentsioa eta kutxa-dimentsioa bat datozela frogatu zuen:

Teorema 3.7 (cf. [6, Teorema 2.4])**.** *Izan bitez G oinarri kontagarriko talde profinitua eta* $\{G_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio serie normala*, hau da, $G_n \trianglelefteq G$ da $n \in \mathbb{N}$ guztietarako. Orduan, edozein $H \leq_c G$ azpitalde itxitarako honakoa dugu:*

$$\text{hdim}_{\{G_n\}}(H) = \text{lbdim}_{\{G_n\}}(H) = \liminf_{n\to\infty} \frac{\log|HG_n : G_n|}{\log|G:G_n|}. \tag{3.2}$$

Benetan, hasieran emandako [1] erreferentzian autoreak $\mathrm{lbdim}(H) \leq \mathrm{hdim}(H)$ dela frogatu zuen; beste ezberdintza espazio metriko guztietan betetzen da. Batik bat azpitalde itxien dimentsioaz arduratuko garenez, eta literatura matematikoan erabiltzen den terminologia mantenduz, tesian zehar gehienbat "Hausdorffen dimentsio" izena erabiliko dugu.

3.1.2 Formulak: azpitaldeak eta zatidurak

Kapituluan zehar oinarri kontagarriko talde profinitu baten Hausdorffen dimentsioa azpitaldeen eta zatidura taldeen dimentsioarekin erlazionatzea ezinbestekoa izanen da. Horregatik, zenbaitentan lagungarria izanen da $\mathrm{hdim}^G_{\{G_n\}}$ notazioa erabiltzea, dimentsioa $\{G_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio seriearekiko G *taldean* kalkulatzen ari garela nabarmentzeko.

Lema 3.8 (cf. [48, Lema 5.3])**.** *Izan bitez G oinarri kontagarriko talde profinitua, $\{G_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio serie normala G-n eta $H \leq_c G$ azpitalde itxia. Demagun H-ren Hausdorffen dimentsioa limite propioa dela. Orduan*

$$\mathrm{hdim}^G_{\{G_n\}}(K) = \mathrm{hdim}^G_{\{G_n\}}(H)\,\mathrm{hdim}^H_{\{H\cap G_n\}}(K)$$

da $K \leq_c H$ azpitalde itxi guztietarako.

Oharra 3.9. Enuntziatuan H-ren Hausdorffen dimentsioa limite propioa izanteak

$$\mathrm{hdim}_{\{G_n\}}(H) = \lim_{n\to\infty} \frac{\log|HG_n : G_n|}{\log|G : G_n|}$$

dela esan nahi du.

Froga. Kalkulu sinple bat da:

$$\begin{aligned}\mathrm{hdim}^G_{\{G_n\}}(K) &= \liminf_{n\to\infty} \frac{\log|K : K\cap G_n|}{\log|G : G_n|}\\ &= \lim_{n\to\infty} \frac{\log|H : H\cap G_n|}{\log|G : G_n|} \liminf_{n\to\infty} \frac{\log|K : K\cap H\cap G_n|}{\log|H : H\cap G_n|}\\ &= \mathrm{hdim}^G_{\{G_n\}}(H)\,\mathrm{hdim}^H_{\{H\cap G_n\}}(K).\end{aligned}$$

□

Bestetik, talde profinituen zatiduretarako hau dugu:

Lema 3.10 (cf. [47, Lema 2.2])**.** *Izan bitez G oinarri kontagarriko talde profinitua, $\{G_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio serie normala G-n eta $N \trianglelefteq G$ azpitalde normal itxia. Demagun N-ren Hausdorffen dimentsioa limite propioa dela. Orduan, N barnean duen edozein $H \leq_c G$ azpitalde itxitarako*

$$\mathrm{hdim}^G_{\{G_n\}}(H) = \big(1 - \mathrm{hdim}^G_{\{G_n\}}(N)\big)\,\mathrm{hdim}^{G/N}_{\{G_nN/N\}}(H/N) + \mathrm{hdim}^G_{\{G_n\}}(N).$$

Froga. Ohartu

$$\begin{aligned}
\frac{\log|HG_n:NG_n|}{\log|G:G_n|} &= \frac{\log|G:NG_n|}{\log|G:G_n|}\cdot\frac{\log|HG_n:NG_n|}{\log|G:NG_n|}\\
&= \frac{\log|G:G_n|-\log|NG_n:G_n|}{\log|G:G_n|}\cdot\frac{\log|HG_n:NG_n|}{\log|G:NG_n|}\\
&= \left(1-\frac{\log|NG_n:G_n|}{\log|G:G_n|}\right)\frac{\log|HG_n:NG_n|}{\log|G:NG_n|}.
\end{aligned}$$

Beraz, $\operatorname{hdim}^G_{\{G_n\}}(N)=\eta$ limite propioa denez,

$$\begin{aligned}
\operatorname{hdim}^G_{\{G_n\}}(H) &= \liminf_{n\to\infty}\frac{\log|HG_n:G_n|}{\log|G:G_n|}\\
&= \liminf_{n\to\infty}\left(\frac{\log|HG_n:NG_n|}{\log|G:G_n|}+\frac{\log|NG_n:G_n|}{\log|G:G_n|}\right)\\
&= \liminf_{n\to\infty}\left(\left(1-\frac{\log|NG_n:G_n|}{\log|G:G_n|}\right)\frac{\log|HG_n:NG_n|}{\log|G:NG_n|}\right)+\eta\\
&= (1-\eta)\liminf_{n\to\infty}\left(\frac{\log|HG_n/N:NG_n/N|}{\log|G/N:NG_n/N|}\right)+\eta\\
&= (1-\eta)\operatorname{hdim}^{G/N}_{\{NG_n/N\}}(H/N)+\eta,
\end{aligned}$$

nahi genuen moduan. □

Korolarioa 3.11. *Izan bitez G oinarri kontagarriko talde profinitua, $\{G_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio serie normala G-n eta $N\trianglelefteq G$ azpitalde normal finitua. Orduan,*

$$\operatorname{hspec}_{\{G_n\}}(G)=\operatorname{hspec}_{\{G_nN/N\}}(G/N)$$

da.

Froga. Alde batetik $\operatorname{hdim}^G_{\{G_n\}}(N)=0$ limite propioa denez,

$$\operatorname{hspec}_{\{G_nN/N\}}(G/N)\subseteq\operatorname{hspec}_{\{G_n\}}(G)$$

partekotasuna Korrespondentzia Teoremaren eta Lema 3.10en ondorio zuzena da.

Bestalde, ohartu $\eta\in\operatorname{hspec}_{\{G_n\}}(G)$ guztietarako badagoela $H\leq_c G$ azpitalde itxia non $\operatorname{hdim}^G_{\{G_n\}}(H)=\eta$ den. Hortaz, N finitua eta eskuin biderketa isomorfismoa direnez, Lema 3.10 dela eta,

$$\begin{aligned}\operatorname{hdim}^G_{\{G_n\}}(H) = \operatorname{hdim}^G_{\{G_n\}}\left(\bigcup_{n\in N} Hn\right) \\ = \operatorname{hdim}^G_{\{G_n\}}(HN) = \operatorname{hdim}^G_{\{G_nN/N\}}(HN/N)\end{aligned}$$

dugu. □

Azkenik, aurreko emaitzak konbinatuz korolario hau dugu:

Korolarioa 3.12. *Izan bitez G oinarri kontagarriko talde profinitua, $\{G_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio serie normala G-n eta $N \trianglelefteq K \leq G$ azpitalde itxiak. Suposa dezagun $\operatorname{hdim}^G_{\{G_n\}}(N) = \eta$ eta $\operatorname{hdim}^G_{\{G_n\}}(K) = \kappa$ dimentsioak limite propioak direla eta $\operatorname{hspec}_{\left\{\frac{(K\cap G_n)N}{N}\right\}}(K/N) = [0,1]$ dela. Orduan, $[\eta,\kappa] \subseteq \operatorname{hspec}_{\{G_n\}}(G)$ da.*

Froga. Lehenik eta behin, Lema 3.8ren ondorioz, $\operatorname{hdim}^K_{\{K\cap G_n\}}(N) = \eta/\kappa$ da, eta Korrespondentzia Teorema eta Lema 3.10 kontuan hartuta

$$[\eta/\kappa, 1] = \left\{(1-\eta/\kappa)\alpha + \eta/\kappa \,\middle|\, \alpha \in \operatorname{hspec}_{\left\{\frac{(K\cap G_n)N}{N}\right\}}(K/N)\right\} \subseteq \operatorname{hspec}_{\{K\cap G_n\}}(K)$$

dugu. Horrela, Lema 3.8 erabiliz, $[\eta,\kappa] \subseteq \operatorname{hspec}_{\{G_n\}}(G)$ dela ondorioztatzen dugu. □

Azpiatal hau bukatzeko Klopsch, Thillaisundaram eta Zugadi-Reizabalek [48]n frogatu zuten emaitza bat enuntziatuko dugu. Irizpide hau baliagarria izanen da $[0,1]$ espektrodun talde profinituak aurkitzeko.

Teorema 3.13 (cf. [48, Teorema 5.4])**.** *Izan bitez G oinarri kontagarriko pro-p taldea eta $\{G_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio serie normala. Demagun finituki sortutako $H \leq_c G$ azpitalde itxi guztiek $\operatorname{hdim}_{\{G_n\}}(H) = 0$ betetzen dutela. Orduan, $\operatorname{hspec}_{\{G_n\}}(G) = [0,1]$ da.*

3.1.3 Hausdorffen dimentsio R-estandarra

Talde R-analitiko trinkoetan filtrazio serie natural bat dugu eskuragarri. Izan bitez G d dimentsioko talde R-analitiko trinkoa eta (S,ϕ) N mailako azpitalde ireki R-estandarra. Gogoratu (1.6)n aurkeztu dugun filtrazio serie R-estandarra:

$$S_n := \phi^{-1}\left(\left(\mathfrak{m}^{N+n}\right)^{(d)}\right), \ \forall n \in \mathbb{N}_0.$$

Horiek azpitalde irekiak dira, eta Krullen Ebakidura Teorema (loc. cit.) dela eta, $\{S_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ bada filtrazio serie bat. Orobat, (1.5)en ondorioz, $S_n \trianglelefteq S$ da $n \in \mathbb{N}$ guztietarako (ohartu S_n azpitaldeak S-n direla normalak, baina ez dute zertan G-n normalak izan), eta, beraz, (3.2) formulak S talde R-estandarrean $\{S_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ seriearekin balio du.

Hausdorffen dimentsioa filtrazio seriearen menpekoa denez, hasiera batean bederen, talde R-analitiko trinko batean Hausdorffen dimentsioa, edota kutxa-dimentsioa, filtrazio R-estandarraren menpekoak izan zitezkeen. Haatik, benetan ez da hala: ikusiko denez, dimentsioak filtrazio serie R-estandarrekiko independeak dira. Hori frogatu aitzinetik, ordea, (1.7)ren ondorio hau aztertuko dugu:

Oharra 3.14. Izan bedi $(R, \mathfrak{m})$ pro-p domeinua. Orduan, $(R, \mathfrak{m})$-ren *Hilberten funtzioa* $H\colon \mathbb{N}_0 \to \mathbb{N}$, $n \mapsto \dim_{R/\mathfrak{m}}(\mathfrak{m}^n/\mathfrak{m}^{n+1})$ da, eta n behar bezain handirako $p(n)$ funtzio polinomiko baten berdina da. Polinomio horrek $\dim_{\mathrm{Krull}}(R) - 1$ maila du eta R-ren *Hilberten polinomioa* deitzen zaio (ikusi [25, Kapitulua 6, Teorema C]). Horrenbestez, Euler-Maclaurinen formula dela eta, $\sum_{i=1}^{n-1} p(i)$ batura asintotikoki $\dim_{\mathrm{Krull}} R$ mailako $f(n)$ polinomio bati baliokidea da, hau da, haien zatidurak 1 baliora konbergitzen du n infinitura doan heinean.

Izan bitez, orain, q $R/\mathfrak{m}$ hondar gorputzaren kardinalitatea eta (S, ϕ) d dimentsioko eta N mailako talde R-estandarra. Orduan, (1.7)ren ondorioz,

$$\log_q |S : S_n| = d \sum_{i=N}^{N+n-1} H(i)$$

balioa $df(n)$-ri asintotikoki baliokidea da.

Emaitza honetan, behe kutxa-dimentsioa filtrazio estandarrarekiko independentea dela ikusiko dugu:

Lema 3.15 (cf. [27, Teorema 3.1])**.** *Izan bedi G talde R-analitiko trinkoa eta izan bitez (S, ϕ) eta (T, ψ) bi azpitalde ireki R-estandar. Orduan, $X \subseteq G$ guztietarako*

$$\mathrm{lbdim}_{\{S_n\}}(X) = \mathrm{lbdim}_{\{T_n\}}(X)$$

da.

Oharra. Goi kutxa dimentsiorako berdina gertatzen da, froga berarekin.

Froga. Izen bitez $N(S)$ eta $N(T)$, hurrenez hurren, S eta T azpitaldeen mailak. Lehenik eta behin, frogatu behar dugu badaudela bi zenbaki oso, $a, b \in \mathbb{N}$, non $n - b \in \mathbb{N}$ betetzen duten $n \in \mathbb{N}$ zenbaki oso guztietarako

$$S_{n+a} \leq T_n \leq S_{n-b} \tag{3.3}$$

den. Azken batean, $\psi \circ \phi^{-1}$ funtzio R-analitikoa $\phi(S \cap T) \subseteq \left(\mathfrak{m}^{N(S)}\right)^{(d)}$-n konbergentea denez eta $\psi \circ \phi^{-1}(\mathbf{0}) = \mathbf{0}$ denez, (1.1)en arabera, existitzen da $L \geq N(S)$ non

$$\psi \circ \phi^{-1}\left(\left(\mathfrak{m}^{L+n}\right)^{(d)}\right) \subseteq (\mathfrak{m}^n)^{(d)}$$

den $n \in \mathbb{N}$ guztietarako. Hortaz, $a = L - N(S) + N(T)$ bada, $S_{n+a} \leq T_n$ da $n \in \mathbb{N}$ guztietarako. Era berean, $\phi \circ \psi^{-1}$ funtzioarekin argudio berak errepikatuz (3.3) dugu. Horrenbestez,

$$\begin{aligned}
\operatorname{lbdim}_{\{T_n\}}(X) &= \liminf_{n\to\infty} \frac{\log|XT_n : T_n|}{\log|G : T_n|} \\
&\leq \liminf_{n\to\infty} \frac{\log|XS_{n+a} : S_{n+a}|}{\log|G : S_{n+a}|} \cdot \frac{\log|G : S_{n+a}|}{\log|G : T_n|} \\
&= \liminf_{n\to\infty} \frac{\log|XS_{n+a} : S_{n+a}|}{\log|G : S_{n+a}|} \cdot \frac{\log|G : S_{n+a}|}{\log|G : S_{n+a}| - \log|T_n : S_{n+a}|} \\
&= \operatorname{lbdim}_{\{S_n\}}(X),
\end{aligned}$$

azkenaurreko ezberdintzan

$$\lim_{n\to\infty} \frac{\log|G : S_{n+a}|}{\log|G : S_{n+a}| - \log|T_n : S_{n+a}|} = 1$$

dela erabilita. Izan ere, aurreko oharraren arabera,

$$\log|T_n : S_{n+a}| \leq \log|S_{n-b} : S_{n+a}| = \sum_{N+n-b}^{N+n+a-1} H(i)$$

da. Hortaz, n behar bezain handia denean, eskuineko terminoa $\dim_{\mathrm{Krull}}(R) - 1$ mailako $a + b$ funtzio polinomikoren batura da, eta $\log|G : S_{n+a}| = \log|G : S| + \log|S : S_{n+a}|$, aldiz, $\dim_{\mathrm{Krull}}(R)$ mailako funtzio polinomiko bati asintotikoki baliokidea da. Horrela, S eta T-ren paperak trukatuz bukatzen da froga. □

Hori dela eta, *behe kutxa-dimentsio R-estandarra edo estandarra*, $\operatorname{lbdim}_{\mathrm{st}}$ izendatuko duguna, defini daiteke, kontuan hartu gabe zein filtrazio serie estandarrekin ari garen lanean. Aipagarria da, R INDa denean, Lema 3.15en analogoa Hausdorffen dimentsiorako ere egia dela.

Lema 3.16. *Izan bitez R ideal nagusietako pro-p domeinua, G talde R-analitiko trinkoa eta (S,ϕ) eta (T,ψ) G-ren bi azpitalde R-estandar ireki. Orduan, edozein $X \subseteq G$ azpimultzotarako*

$$\mathrm{hdim}_{\{S_n\}}(X) = \mathrm{hdim}_{\{T_n\}}(X)$$

da.

Froga. Izan bedi q $R/\mathfrak{m}$ hondar-gorputzaren kardinalitatea. Horrela, R INDa denez, $|S_n : S_{n+1}| = |T_n : T_{n+1}| = q^d$ da $n \in \mathbb{N}$ guztietarako. Halaber, (3.3)ren arabera, existitzen dira bi zenbaki oso, $a, b \in \mathbb{N}$, non $S_{n+a} \le T_n \le S_{n-b}$ den $n - b \in \mathbb{N}$ betetzen duten $n \in \mathbb{N}$ zenbaki oso guztietarako. Hortaz,

$$|G : T_n|^{-1} \ge |G : S_{n+a}|^{-1} = q^{-d(a+b)}|G : S_{n-b}|^{-1}$$

da. Beraz, δ_S eta δ_T hurrenez hurren, $\{S_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ eta $\{T_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio serieek definitutako distantziak badira, orduan

$$\delta_T(x,y) \ge q^{-d(a+b)}\delta_S(x,y)$$

da. Era berean, S eta T trukatuz, froga dezakegu badagoela $C > 0$ konstantea non $C \cdot \delta_S(x,y) \ge \delta_T(x,y)$ den. Alegia, (G,δ_S) eta (G,δ_T) espazio metrikoen arteko identitate funtzioa bilipschitziarra da, eta emaitza Proposizioa 3.6ren ondorio zuzena da. □

Izan bitez G talde R-analitiko trinkoa eta $S \le_o G$ azpitalde ireki R-estandarra. Orduan, $\{S_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio serieak G-n zein S-n definitzen ditu Hausdorffen dimentsioak. Atalaren hasieran aurkeztutako notazioa mantenduz, bi dimentsio horiek $\mathrm{hdim}^G_{\{S_n\}}$ eta $\mathrm{hdim}^S_{\{S_n\}}$ moduan bereiziko ditugu.

Lema 3.17. *Izan bitez G talde R-analitiko trinkoa eta (S,ϕ) azpitalde R-estandar irekia.*

(i) *Izan bitez $H \le_c G$ eta $U \subseteq_o H$, orduan $\mathrm{hdim}^G_{\{S_n\}}(H) = \mathrm{hdim}^G_{\{S_n\}}(U)$ da.*

(ii) *Izan bedi $X \subseteq S$, orduan $\mathrm{hdim}^S_{\{S_n\}}(X) = \mathrm{hdim}^G_{\{S_n\}}(X)$ da.*

Bereziki, $\mathrm{hdim}^G_{\{S_n\}}(H) = \mathrm{hdim}^S_{\{S_n\}}(H \cap S)$ *da $H \le_c G$ azpitalde itxi guztietarako.*

Oharra 3.18. Aurreko emaitza *goi* kutxa-dimentsiorako ere betetzen da, zehatz-mehatz froga berarekin. Behe kutxa dimentsiorako, berriz, (ii) bakarrik betetzen da.

Froga. (i) Alde batetik, H talde trinkoa da, G talde trikoaren azpimultzo itxia baita, eta, horrenbestez, badago $g_i \in G$ elementu kopuru finitu bat non $H = \cup_{i=1}^{r} g_i U$ den. Hortaz, kontuan hartuta Hausdorffen dimentsioaren egonkortasun finitua eta ezker biderketa funtzioa isometria bat dela, Proposizioa 3.6 dela eta,

$$\mathrm{hdim}_{\{S_n\}}^{G}(H) = \mathrm{hdim}_{\{S_n\}}^{G}\left(\cup_{i=1}^{r} g_i U\right) = \max_{i=1,\ldots,r} \mathrm{hdim}_{\{S_n\}}^{G}(g_i U) = \mathrm{hdim}_{\{S_n\}}^{G}(U)$$

da.
(ii) Izan bitez δ_G eta δ_S, hurrenez hurren, $\{S_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio serieak G-n eta S-n definituriko metrikak. Orduan, $\delta_G(x,y) = |G:S|^{-1}\delta_S(x,y)$ da, eta, beraz, (S,δ_S)-tik (G,δ_G)-ra partekotasun funtzioa bilipschitzitzarra da. Horrela, formula Proposizioa 3.6ren ondorioa da.

Azkenik, $H \cap S \leq_o H$ azpitalde irekia denez, (i) eta (ii)tik ondorioztatu dezakegu

$$\mathrm{hdim}_{\{S_n\}}^{G}(H) = \mathrm{hdim}_{\{S_n\}}^{G}(H \cap S) = \mathrm{hdim}_{\{S_n\}}^{S}(H \cap S)$$

dela. □

Korolarioa 3.19. *Izan bitez G talde R-analitiko trinkoa eta (S,ϕ) eta (T,ψ) bi azpitalde R-estandar ireki. Orduan, edozein $H \leq_c G$ azpitalde itxitarako*

$$\mathrm{hdim}_{\{S_n\}}(H) = \mathrm{hdim}_{\{T_n\}}(H)$$

da.

Froga. Teorema 3.7, Lema 3.15 eta Oharra 3.18 –Lema 3.17(ii) behe kutxa dimentsiorako betetzen da– aintzat hartuta:

$$\begin{aligned}
\mathrm{hdim}_{\{S_n\}}^{G}(H) &= \mathrm{hdim}_{\{S_n\}}^{S}(H \cap S \cap T) = \mathrm{lbdim}_{\{S_n\}}^{S}(H \cap S \cap T) \\
&= \mathrm{lbdim}_{\{S_n\}}^{G}(H \cap S \cap T) = \mathrm{lbdim}_{\{T_n\}}^{G}(H \cap S \cap T) \\
&= \mathrm{lbdim}_{\{T_n\}}^{T}(H \cap S \cap T) = \mathrm{hdim}_{\{T_n\}}^{T}(H \cap S \cap T) \\
&= \mathrm{hdim}_{\{T_n\}}^{G}(H).
\end{aligned}$$

□

Horrenbestez, $H \leq_c G$ azpitalde itxi baten *Hausdorffen dimentsio estandarra* edo *R-estandarra*, $\mathrm{hdim}_{\mathrm{st}}(H)$ moduan adieraziko dena, $\mathrm{hdim}_{\{S_n\}}(H)$ gisa definitzen da $\{S_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ *edozein* filtrazio R-estandar delarik. Hori kontuan hartuta, G-ren *Hausdorffen espektro estandarra* edo *R-estandarra*

$$\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G) := \{\mathrm{hdim}_{\mathrm{st}}(H) \mid H \leq_c G\}$$

da. Bestalde, Lema 3.17ren berehalako ondorio hau dugu:

Korolarioa 3.20. *Izan bitez G talde R-analitiko trinkoa eta (S, ϕ) azpitalde R-estandar irekia. Orduan,* $\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G) = \mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(S)$ *da.*

Hori dela eta, talde R-analitiko trinko baten Hausdorffen espektro estandarra aztertzerakoan jatorrizko taldea bera R-estandarra dela asumi dezakegu.

Azpiatal hau bukatzeko azter dezagun azpitalde analitikoen eta zatidura talde analitikoen Hausdorffen dimentsio estandarra. Konkretuago, honako lema honek $\mathrm{hdim}^H_{\mathrm{st}}$ dimentsioa eta $\{S_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio serie R-estandarrak H-n induzitzen duen Hausdorffen dimentsioa, $\mathrm{hdim}^H_{\{H\cap S_n\}}$, erlazionatzen ditu.

Lema 3.21. *Izan bitez G talde R-analitiko trinkoa eta H azpitalde R-analitikoa. Orduan,* $\mathrm{hdim}^H_{\{H\cap S_n\}}(K) = \mathrm{hdim}^H_{\mathrm{st}}(K)$ *da $K \leq_c H$ azpitalde itxi guztietarako eta edozein G-ren $\{S_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio serie R-estandarrerako.*

Froga. Lehenik eta behin, izan bitez G taldearen bi filtrazio serie R-estandar, $\{S_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ eta $\{T_n\}_{n\in\mathbb{N}}$. Lema 3.8 eta Korolarioa 3.19 direla eta, berehalakoa da

$$\mathrm{hdim}^H_{\{H\cap S_n\}}(K) = \mathrm{hdim}^H_{\{H\cap T_n\}}(K),\ \forall K \leq_c H \tag{3.4}$$

dela ikustea.

Bigarrenik, ikus dezagun existitzen dela $S \leq_o G$ azpitalde R-estandar irekia non $\{H \cap S_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ seriea H-ren filtrazio serie R-estandarra den. Behin hori frogatuta, (3.4)ren eraginez, edozein $\{T_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio serie R-estandarretarako eta edozein $K \leq_c H$ azpitalde itxitarako

$$\mathrm{hdim}^H_{\{H\cap T_n\}}(K) = \mathrm{hdim}^H_{\{H\cap S_n\}}(K) = \mathrm{hdim}^H_{\mathrm{st}}(K)$$

izanen genuke, nahi dugun moduan.

Izan bitez $d = \dim G$ eta $k = \dim H$. Orduan, H azpitalde R-analitikoa denez, Definizioa 1.48ren arabera, identitatearen (U, ϕ) R-karta existitzen da non $\phi(1) = \mathbf{0}$ eta

$$\begin{aligned}\phi(H \cap U) &= \left\{(x_1, \ldots, x_d) \in \left(\mathfrak{m}^L\right)^{(d)} \,\middle|\, x_{k+1} = \cdots = x_d = 0\right\} \\ &= \left(\mathfrak{m}^L\right)^{(k)} \times \{0\}^{(d-k)}\end{aligned}$$

diren, $N \geq 1$ egoki batentzat. Are gehiago, Lema 1.21 dela eta, U irekiaren barruan $S \leq_o G$ azpitalde ireki R-estandar bat dago, $L \geq N$ mailakoa, eta dagokion homeomorfismoa $\phi|_S$ da. Beraz,

$$\begin{aligned}\phi\left(H\cap S\right) &= \phi\left(S\right)\cap\phi(H\cap U)\\ &= \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}\cap\left(\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(k)}\times\{0\}^{(d-k)}\right) = \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(k)}\times\{0\}^{(d-k)}.\end{aligned}$$

Hortaz, $\mathrm{pr}\colon (\mathfrak{m}^L)^{(k)}\times\{0\}^{(d-k)}\to(\mathfrak{m}^L)^{(k)}$ proiekzio naturala bada, $(H\cap S,\psi)$, non $\psi=\mathrm{pr}\circ\phi|_{H\cap S}$, H-ren azpitalde R-estandar irekia da. Gainera,

$$\psi\left(H\cap S_n\right)=\mathrm{pr}\left(\phi(H\cap U)\cap\phi\left(S_n\right)\right)=\left(\mathfrak{m}^{L+n}\right)^{(k)}$$

da, eta, ondorioz, $\{H\cap S_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ H-ren filtrazio serie R-estandarra da. □

Zatiduretarako, gogoratu G talde R-analitiko trinkoa eta $N\trianglelefteq G$ azpitalde analitiko normala badira, G/N ere talde R-analitiko trinkoa dela Proposizioa 1.59ren arabera. Horrenbestez, erlaziona ditzagun zatiduraren espektro R-estandarra eta $\{S_nN/N\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio seriearekiko lortzen dena.

Lema 3.22. *Izan bitez G talde R-analitiko trinkoa, $\{S_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio serie R-estandarra eta $N\trianglelefteq G$ azpitalde R-analitiko normala. Orduan,*

$$\mathrm{hdim}_{\mathrm{st}}(H)=\mathrm{hdim}_{\left\{\frac{S_nN}{N}\right\}}(H)$$

da $H\leq_c G/N$ guztietarako.

Froga. Hasteko finka dezagun notazioa: $d=\dim G$ eta $e=\dim G/N$ dira, $\pi\colon G\to G/N$ epimorfismo kanonikoa eta $\mathrm{pr}\colon\mathfrak{m}^{(d)}\to\mathfrak{m}^{(e)}$ azken e koordenatuetara proiekzioa.

Lehenik eta behin, $\{S_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ eta $\{T_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ bi filtrazio serie R-estandar badira, Lema 3.15en froga hitzez hitz errepikatuz eta Teorema 3.7 dela eta, ikus daiteke $H\leq_c G/N$ guztietarako

$$\mathrm{hdim}_{\left\{\frac{S_nN}{N}\right\}}(H)=\mathrm{lbdim}_{\left\{\frac{S_nN}{N}\right\}}(H)=\mathrm{lbdim}_{\left\{\frac{T_nN}{N}\right\}}(H)=\mathrm{hdim}_{\left\{\frac{T_nN}{N}\right\}}(H)$$

dela. Ondorioz, nahikoa da $S\leq_o G$ azpitalde R-estandar ireki bat topatzea non $\{S_nN/N\}_{n\in\mathbb{N}}$ G/N-ren filtrazio serie R-estandarra den. Lema 1.58ren arabera, badago N-ra moldatutako identitatearen (U,ϕ) R-karta, hau da, $\phi(1)=\mathbf{0}$ da eta $\mathrm{pr}\circ\phi(x)=\mathrm{pr}\circ\phi(y)$ da baldin eta soilik baldin $xy^{-1}\in N$ bada. Bestetik, Lema 1.21en arabera, U-ren barruan badago $S\leq G$ azpitalde R-estandar irekia, L mailakoa eta $\phi|_S$ homeomorfismoarekin. Izan bedi $\sigma\colon\pi(S)\to S$ sekzio jarraitu bat eta demagun $\sigma(1N) = 1$ dela, [64, Proposizioa 2.2.2] dela eta badago halakorik. Orduan, $\pi(S)$ G/N-ren talde R-estandarra da, L mailakoa, e dimentsiokoa eta $\psi = \mathrm{pr} \circ \phi \circ \sigma$ homeomorfismoarekin. Ohartu (U, ϕ) karta N-ra moldatua egoteagatik, ψ-ren definizioa hautatutako sekzioarekiko independentea dela eta $\psi(S_n N/N) = \mathrm{pr} \circ \phi(S_n) = (\mathfrak{m}^{L+n})^{(e)}$ dela. Alegia, $\{S_n N/N\}_{n\in\mathbb{N}}$ G/N-ren filtrazio serie R-estandarra da. □

3.2 Hausdorffen dimentsioa azpibarietateetan

2017. urteko [27] artikuluan autoreek azpitalde R-analitikoen dimentsio analitikoaren eta Hausdorffen dimentsioaren arteko erlazio aztertzen dute. Oro har azterketa guztia hurrengo kasu partikularrera murrizten da.

Lema 3.23. *Izan bedi $(R, \mathfrak{m})$ pro-p domeinua. Orduan, $\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(k)} \times \{0\}^{(d-k)}$ azpitaldearen kutxa-dimentsioa $\mathfrak{m}^{(d)}$ talde batukorrean eta $\left\{(\mathfrak{m}^n)^{(d)}\right\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio seriearekiko k/d balio duen limite propioa da.*

Oharra. Era berean, $\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(k)} \times \{0\}^{(d-k)}$ multzoaren Hausdorffen dimentsioa ere k/d da, azpitalde itxia baita (ikusi Teorema 3.7).

Froga. Izan bedi q $R/\mathfrak{m}$ hondar gorputzaren kardinalitatea, eta oroitu Oharra 3.14ren arabera,

$$\left|\mathfrak{m}^{(d)} : (\mathfrak{m}^n)^{(d)}\right| = q^{d\sum_{i=1}^{n-1} H(i)}$$

dela H R-ren Hilberten funtzioa izanik, horrela $n \geq N$ denean,

$$\begin{aligned}&\left|\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(k)} \times \{0\}^{(d-k)} : \left(\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(k)} \times \{0\}^{(d-k)}\right) \cap (\mathfrak{m}^n)^{(d)}\right| \\ &\qquad = \left|\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(k)} \times \{0\}^{(d-k)} : (\mathfrak{m}^n)^{(k)} \times \{0\}^{(d-k)}\right| = q^{k\sum_{i=N}^{n-1} H(i)}\end{aligned}$$

da. Hori dela eta,

$$\begin{aligned}&\mathrm{lbdim_{st}}\left(\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(k)} \times \{0\}^{(d-k)}\right) \\ &\qquad = \liminf_{n\to\infty} \frac{\log_q \left|\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(k)} \times \{0\}^{(d-k)} : \left(\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(k)} \times \{0\}^{(d-k)}\right) \cap (\mathfrak{m}^n)^{(d)}\right|}{\log_q \left|\mathfrak{m}^{(d)} : (\mathfrak{m}^n)^{(d)}\right|} \\ &\qquad = \liminf_{n\to\infty} \frac{k\sum_{i=N}^{n-1} H(i)}{d\sum_{i=1}^{n-1} H(i)} = \frac{k}{d}.\end{aligned}$$

Kontuan hartuta azken berdintzan

$$\lim_{n\to\infty} \frac{H(1)+\cdots+H(n-1)}{H(N)+\cdots+H(n-1)} = 1 + \lim_{n\to\infty} \frac{H(1)+\cdots+H(N-1)}{H(N)+\cdots+H(n-1)} = 1$$

dela. Izan ere, erdiko zatikian izendatzailea asintotikoki funtzi polinomiko ez-konstante baten baliokidea da, eta zenbakitzailea, berriz, konstantea da. Bereziki, dimentsioa limite propio bat da. □

Datozen korolarioetan (3.1) identitatea frogatuko dugu.

Korolarioa 3.24. *Izan bitez G talde R-analitiko trinkoa eta $M \subseteq G$ azpibarietate itxia. Orduan,*

$$\operatorname{ubdim}_{\text{st}} M = \frac{\max\{\dim_x M \mid x \in M\}}{\dim G}$$

da, eta dimentsio hori limite propioa da.

Oharra 3.25. Bereziki, limitea propioa denez, M azpibarietatearen *kutxa-dimentsio estandarraz*, $\operatorname{bdim}_{\text{st}} M$, hitz egin dezakegu inolako anbiguotasunik gabe.

Froga. Izan bedi d talde analitikoaren dimentsioa. Definizioa 1.48ren arabera, $x \in M$ bakoitzerako badago $U_x \subseteq_o M$ irekia zeinak x barruan duen eta x-ren (V_x, ψ) R-karta erregularra non $U_x \subseteq V_x$ eta

$$\psi(U_x) = \{(x_1, \ldots, x_d) \in \psi(V_x) \mid x_{k+1} = \cdots = x_d = 0\},$$

$k = \dim_x M$, diren. Bestetik, behar izanez gero azpimultzo batera pasatuz, asumi dezagun orokortasunik galdu gabe $V_x = xS$ dela, $S \leq_o G$ azpitalde R-estandar egoki batentzat $\phi\colon S \to \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}$, $y \mapsto \psi(y)$ karta globalarekin. Alegia,

$$\phi\left(x^{-1}U_x\right) = \psi(U_x) = \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(k)} \times \{0\}^{(d-k)}. \tag{3.5}$$

Bestalde, Lema 1.20 berridazteko modu bat da ϕ isometria bat dela esatea, S-n $\{S_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazioak definitzen duen espazio metrikoaren eta $\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}$ talde batukorraren artean $\left\{\left(\mathfrak{m}^{N+n}\right)^{(d)}\right\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio serieak definitzen duen metrikarekin. Hori dela eta, ezker biderketa funtzioa isometria bat denez, Oharra 3.18 dela eta,

$$\operatorname{ubdim}^G_{\{S_n\}}(U_x) = \operatorname{ubdim}^G_{\{S_n\}}(x^{-1}U_x) = \operatorname{ubdim}^S_{\{S_n\}}(x^{-1}U_x)$$

da. Areago, hurrenez hurren, Proposizioa 3.6, (3.5) identitatea eta Lema 3.23 erabilita

$$\mathrm{ubdim}^{G}_{\{S_n\}}(U_x) = \mathrm{ubdim}^{S}_{\{S_n\}}(x^{-1}U_x) = \mathrm{ubdim}^{(\mathfrak{m}^N)^{(d)}}_{\{(\mathfrak{m}^{N+n})^{(d)}\}}(\phi(x^{-1}U_x)) = \frac{\dim_x M}{\dim G} \tag{3.6}$$

da eta dimentsio hori limite propioa da. Alde batetik, monotoniagatik

$$\frac{\dim_x M}{\dim G} = \mathrm{ubdim}_{\mathrm{st}}(U_x) \leq \mathrm{ubdim}_{\mathrm{st}}(M) \tag{3.7}$$

da $x \in M$ guztietarako. Beste alde batetik, M trinkoa denez –G talde trinkoaren azpimultzo itxia da–, badaude $x_i \in M$ elementuak, kopuru finitu bat, non $M = \cup_{i\in I} U_{x_i}$ den. Horrenbestez, egonkortasun finitua eta (3.6) kontuan hartuta,

$$\mathrm{ubdim}_{\mathrm{st}}(M) = \mathrm{ubdim}_{\mathrm{st}}\left(\cup_{i\in I} U_{x_i}\right) = \max_{i\in I} \mathrm{ubdim}_{\mathrm{st}}(U_{x_i}) \leq \frac{\max\{\dim_x M \mid x \in M\}}{\dim G} \tag{3.8}$$

da. Horrek eta (3.7) identitateak ematen dute emaitza. □

Hausdorffen dimentsiorako pareko emaitza frogatzeko, aurreko argudioak apur bat findu behar dira.

Korolarioa 3.26. *Izan bitez G talde R-analitiko trinkoa, $\{S_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ filtrazio serie R-estandarra eta M azpibarietate itxia. Orduan,*

$$\mathrm{hdim}_{\{S_n\}}(M) = \frac{\max\{\dim_x M \mid x \in M\}}{\dim G}$$

da.

Froga. Frogak aurreko frogaren traza du, eta hango notazioa mantenduko dugu. Besteak beste, $x \in M$ bakoitzerako badaude $U_x \subseteq_o M$ azpimultzo irekia eta (S, ϕ) azpitalde R-estandar irekia non $x^{-1}U_x \subseteq S$ eta

$$\phi(x^{-1}U_x) = \left(\mathfrak{m}^N\right)^{(k)} \times \{0\}^{(d-k)},$$

$k = \dim_x M$, diren. Demagun δ_S dela S azpitalde R-estandarrak G-n definitutako distantzia, orduan (3.6) berdintza frogatzeko erabiliriko argudioak hitzez hitz errepikatuz

$$\mathrm{hdim}_{\delta_S}(U_x) = \frac{\dim_x M}{\dim G}$$

dela froga daiteke. Izan bitez orain (T,ψ) beste azpitalde R-estandar ireki bat eta δ_T azpitalde hori erabilita G-n definitzen den distantzia. Alde batetik, [26, Proposizioa 3.4] eta (3.6) kontuan hartuta,

$$\operatorname{hdim}_{\delta_T}(U_x) \leq \operatorname{lbdim}_{\mathrm{st}}(U_x) \leq \operatorname{ubdim}_{\mathrm{st}}(U_x) = \frac{\dim_x M}{\dim G}$$

da. Definitu $\tilde{U}_x = x^{-1}U_x \cap T$, orduan $\psi(\tilde{U}_x) \subseteq \psi(S \cap T)$ da, eta, beraz,

$$\phi(\tilde{U}_x) = \phi(x^{-1}U_x \cap T) = \left(\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(k)} \times \{0\}^{(d-k)}\right) \cap \phi(S \cap T),$$

denez eta $\phi(S \cap T)$ irekia denez $\mathfrak{m}^{(d)}$-n, badago $K \in \mathbb{N}$ non

$$\left(\mathfrak{m}^K\right)^{(k)} \times \{0\}^{(d-k)} \subseteq \phi(\tilde{U}_x)$$

den. Deitu δ $\mathfrak{m}^{(d)}$-n $\left\{\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}\right\}_{N\in\mathbb{N}}$ filtrazio seriea erabilita definitzen den distantziari. Horrela, ϕ eta ψ isometriak direnez, $\phi \circ \psi^{-1}$ funtzioa ere isometria bat da, $(\psi(S \cap T), \delta)$-tik $(\phi(S \cap T), \delta)$-ra. Hortaz, Lema 3.17, Proposizioa 3.6 eta monotonia kontuan hartuta,

$$\begin{aligned}
\operatorname{hdim}^G_{\delta_T}(U_x) &\geq \operatorname{hdim}^T_{\delta_T}\left(\tilde{U}_x\right) = \operatorname{hdim}^{\mathfrak{m}^{(d)}}_{\delta}\left(\psi(\tilde{U}_x)\right) \\
&= \operatorname{hdim}^{\mathfrak{m}^{(d)}}_{\delta}\left(\phi \circ \psi^{-1} \circ \psi(\tilde{U}_x)\right) = \operatorname{hdim}^{\mathfrak{m}^{(d)}}_{\delta}(\phi(\tilde{U}_x)) \\
&\geq \operatorname{hdim}^{\mathfrak{m}^{(d)}}_{\left\{(\mathfrak{m}^n)^{(d)}\right\}}\left(\left(\mathfrak{m}^K\right)^{(k)} \times \{0\}^{(d-k)}\right) = k/d
\end{aligned}$$

da, azken berdintzan Lema 3.23 erabilita. Hori dela eta, $\operatorname{hdim}(U_x) = \dim_x M / \dim G$ da, edozein delarik ere hasierako filtrazio serie estandarra. Bukatzeko nahikoa da (3.7) eta (3.8)-ko argudiak errepikatzea, baina kutxa-dimentsioaren ordez Hausdorffen dimentsioa hartuta. □

Azpitalde R-analitikoak azpibarietate R-analitiko puru itxiak direnez, [27]ko emaitza nagusia berreskura dezakegu:

Korolarioa 3.27 (cf. [27, Teorema Nagusia])**.** *Izan bitez G talde R-analitiko trinkoa eta H azpitalde R-analitikoa. Orduan,*

$$\operatorname{bdim}_{\mathrm{st}}(H) = \operatorname{hdim}_{\mathrm{st}}(H) = \frac{\dim H}{\dim G}$$

da. Bereziki, bi dimentsio horiek limite propioak dira.

Azkenik $R = \mathbb{Z}_p$ denean, azpitalde itxi guztiak talde p-adiko analitikoak dira (ikusi [24, Teorema 9.6]), eta, horrenbestez, Teorema 3.2ren beste froga bat eman dugu atal honetan. Are gehiago, bide batez, talde horietan Hausdorffen espektro estandarraren deskribapen argia dugu. Izan ere, G talde p-adiko analitiko d-dimentsional trinkoa bada, orduan

$$\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G) \subseteq \left\{0, \frac{1}{d}, \dots, \frac{d-1}{d}, 1\right\}.$$

3.3 Talde R-analitiko trinko abeldarrak

Jarrai dezagun talde R-analitiko profinituen espektro estandarrak deskribatzen. Noski, aurrekoa kontuan hartuta p-adiko analitikoak ez diren taldeetan jarriko dugu arreta, hots, R ez da $\mathbb{Z}_p$-ren finituki sortutako eraztun hedadura izanen. Lehenik eta behin, kasu abeldarra aztertuko dugu.

Oharra. Hemendik aurrera soilik azpitalde itxien Hausdorffen dimentsioaz arduratuko garenez, Teorema 3.7 inplizituki behin eta berriro erabiliko da.

Proposizioa 3.28. *Izan bitez R pro-p domeinua eta (S, ϕ) talde R-estandar abeldarra. Demagun R-k karakteristika positiboa duela edo R-ren Krullen dimentsioa gutxienez 2 dela. Orduan,* $\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(S) = [0, 1]$ *da.*

Froga. Teorema 3.13ren arabera, nahikoa da finituki sortutako $H \leq_c S$ azpitalde guztietarako $\mathrm{hdim}_{\mathrm{st}}(H) = 0$ dela frogatzea. Izan bitez $d = \dim S$ eta $H \leq_c S$ topologikoki r elementuk sorturiko azpitalde itxia.

Demagun lehendabizi R-k p karakteristika positiboa duela, S-ko eragiketa talde eragiketa formal batek ematen duenez, (1.3)ren arabera, $x \in S_n$ bada

$$\phi(x^p) \equiv p\phi(x) = \mathbf{0} \mod \left(\mathfrak{m}^{2n}\right)^{(d)},$$

da, eta, beraz, $x^p \equiv 1 \pmod{S_{2n}}$ da. Hots, S_n/S_{2n} p-talde abeldar elementala da.

Bestalde, S abeldarra denez, $H/(H \cap S_n)$ taldea p-talde abeldarra da eta p^e exponentea du, $e \leq \lceil \log_2(n) \rceil$ batentzat. Halaber, H topologikoki r elementuk sortzen dutenez, $H/(H \cap S_n)$ taldea r elementuk sortzen dute. Hortaz,

$$|H : H \cap S_n| \leq p^{er} \leq p^{\lceil \log_2(n) \rceil r}.$$

Oharra 3.14ren arabera, $|R/\mathfrak{m}| = q = p^c$ bada, $\log_q |S : S_n|$ asintotikoki $df(n)$ funtzio polinomiko bati baliokidea da eta $f(n)$-ren polinomio maila $\dim_{\mathrm{Krull}}(R)$

da; horrenbestez,

$$\mathrm{hdim}_{\mathrm{st}}(H) = \liminf_{n\to\infty} \frac{\log_p |H : H \cap S_n|}{\log_p |S : S_n|} \leq \liminf_{n\to\infty} \frac{r\lceil \log_2(n)\rceil}{cdf(n)} = 0.$$

Era berean, R-k gutxienez 2 Krullen dimentsioa badu, (1.3) dela eta, $x \in S_n$ denean

$$\phi(x^p) \equiv p\phi(x) = \mathbf{0} \mod \left(\mathfrak{m}^{n+1}\right)^{(d)}$$

da, eta, beraz, S_n/S_{n+1} p-talde abeldar elementala da. Hortaz, $H/(H\cap S_n)$ taldea r elementuk sorturiko talde abeldarra da eta haren exponentea p^e bada, orduan $e \leq n-1$ da. Hori dela eta,

$$|H : H \cap S_n| = |H/(H \cap S_n)| \leq p^{re} \leq p^{r(n-1)},$$

eta, Oharra 3.14ren arabera,

$$\mathrm{hdim}_{\mathrm{st}}(H) = \liminf_{n\to\infty} \frac{\log_p |H : H \cap S_n|}{\log_p |S : S_n|} \leq \liminf_{n\to\infty} \frac{r(n-1)}{cdf(n)} = 0$$

da, $f(n)$-ren polinomio maila $\dim_{\mathrm{Krull}}(R) \geq 2$ baita. □

Korolarioa 3.20ren eraginez, aurreko emaitza talde R-analitiko trinkoetara orokortu daiteke.

Korolarioa 3.29. *Izan bitez R pro-p domeinua eta G talde R-analitiko trinko abeldarra. Demagun R-k karakteristika positiboa duela edo R-ren Krullen dimentsioa gutxienez 2 dela. Orduan,* $\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G) = [0,1]$ *da.*

Orobat, jakina da bat dimentsio analitikoko talde R-estandarrak abeldarrak direla (ikusi [35, Teorema 1.6.7]), eta, ondorioz, honakoa dugu:

Korolarioa 3.30. *Izan bedi G bat dimentsioko talde R-analitiko trinkoa. Demagun R pro-p domeinuak karakteristika positiboa edo gutxienez 2 Krullen dimentsioa duela. Orduan,* $\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G) = [0,1]$ *da.*

3.4 Talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko trinkoak

Atala 3.3k hau iradokitzen du: G talde R-analitiko (ez p-adiko analitiko) trinkoa ebazgarria denean, haren espektro estandarra $[0,1]$ tarte erreal osoa da. Hori frogatzeko estrategia espektroan elkarren segidako tarteak txertatzean datza, serie ebazgarriaren ondoz ondoko zatidurak abeldarrak direla erabilita. Izan ere, emaitza hau dugu:

Lema 3.31. *Izan bitez G talde R-analitiko trinkoa eta $N \trianglelefteq K \leq G$ talde R-analitikoak. Demagun* $\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(K/N) = [0,1]$ *dela. Orduan,*

$$\left[\frac{\dim N}{\dim G}, \frac{\dim K}{\dim G}\right] = [\mathrm{hdim}_{\mathrm{st}}(N), \mathrm{hdim}_{\mathrm{st}}(K)] \subseteq \mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G)$$

da.

Froga. Lehenengo berdintza Korolarioa 3.27ren ondorioa da, izan ere $\mathrm{hdim}_{\mathrm{st}}(H) = {}^{\dim H}/_{\dim G}$ da eta dimentsio hori limite propioa da. Bestetik, inklusioa berehalakoa da Korolarioa 3.12, Lema 3.21 eta Lema 3.22 direla eta. □

Horrenbestez, talde R-analitiko trinkoetan azpitalde R-analitikoak bilatzeko irizpide bat behar dugu. Horretarako oztopo nagusia, Lieren teoria klasikoarekin alderatuta, hau da: jakina da Lieren talde erreal (edo p-adiko) batean azpitalde itxi guztiak Lieren azpitaldeak direla. Alabaina, talde R-analitikoetan itxia izatea beharrezko baldintza da (ikusi Lema 1.57), baina ez da nahikoa. Adibidez, hartu $\mathbb{F}_p[[t]]$ talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-estandarra, $\mathbb{F}_p[\![t^2]\!]$ azpitalde itxia bere kabuz talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analikoa da, baina barietate egitura horiek ez dira bateragarriak eta $\mathbb{F}_p[\![t^2]\!]$ ez da azpitalde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitikoa.

Hemendik aurrera $R = \mathbb{F}_p[[t]]$ hartuko dugu. Kasu horretan, azpitalde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitikoak Proposizioa 1.53ren bidez topa daitezke. Emaitza horren arabera, azpimultzo analitikoek azpibarietate $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko egitura dute. Oroitu $X \subseteq M$ azpimultzo analitikoa dela, $x \in X$ bakoitzerako existitzen badira x-ren U ingurune irekia eta U-n definituriko zenbait funtzio $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko, $f_1, \ldots, f_r$ ($r = r_x$ baterako), non

$$X \cap U = \{y \in U \mid f_i(y) = 0 \ \forall i = 1, \ldots, r\}$$

den.

Teorema 3.32 (cf. [45, Korolarioa 4.2])**.** *Izan bedi G talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitikoa. Demagun $H \leq G$ azpitaldea eta azpimultzo analitikoa dela. Orduan, H azpitalde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitikoa da.*

Ikus ditzagun aitzineko teoremaren pare bat aplikazio:

Korolarioa 3.33. *Izan bitez S talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-estandarra eta $a \in S$. Orduan, $Z(S)$ eta $C_S(a)$ azpitalde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitikoak dira.*

Froga. Aurreko teoremaren arabera, nahikoa da $Z(S)$ eta $C_S(a)$ multzo analitikoak direla frogatzea. Lehenengoa, hain zuzen ere [45, Korolarioa 4.3]n frogatzen da, eta bigarrena era berean egiten da. Izan ere, S talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-estandarra denez, $\left(t^N\right)^{(d)}$-rekin identifikatu daiteke (N maila eta d dimentsioa dira), eta biderketa talde eragiketa formal batek definitzen du. Beraz, (1.5) dela eta, badaude $g_{i,\alpha} \in \mathbb{F}_p[[t]][[X_1, \ldots, X_d]]$ berretura serieak non

$$\pi_i\left(y^{-1}ay\right) = a_i + \sum_{|\alpha|\geq 1} g_{i,\alpha}(a) y_1^{\alpha_1} \ldots y_d^{\alpha_d} = a_i + h_i(y)$$

den $y \in S$ guztietarako –hemen $\pi_i\colon \left(t^N\right)^{(d)} \to \left(t^N\right)$ funtzioa $i$garren koordenatura proiekzioa da–. Bestalde, $h_i(y) = \sum_{|\alpha|\geq 1} g_{i,\alpha}(a) y_1^{\alpha_1} \ldots y_d^{\alpha_d}$ funtzioak modu argian $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitikoak dira, eta, horrenbestez,

$$\begin{aligned} C_S(a) &= \left\{y \in S \mid \pi_i\left(y^{-1}ay\right) = a_i \ \forall i = 1, \ldots, d\right\} \\ &= \{y \in S \mid h_i(y) = 0 \ \forall i = 1, \ldots, d\} \end{aligned}$$

da. Bereziki, $C_S(a)$ multzo analitikoa da. □

Bigarren aplikazioak $\mathrm{GL}_n(K)$ talde lineal okorrarekin du zerikusia. Talde horretan ohiko topologiaz gain, R-ren topologia $\mathfrak{m}$-adikotik eratorritakoa, Zariskiren topologia dago. Bigarren horretan azpimultzo itxiak *multzo afinak* dira, hau da, forma honetako azpimultzoak:

$$\{A \in \mathrm{GL}_n(R) \mid f(A) = 0, \ \forall f \in \mathcal{F}\},$$

non $\mathcal{F} \subseteq R[\mathbf{X}]$ polinomio familia bat den ($\mathbf{X}$-n n^2 aldagai daude). Era berean, zein-nahi $H \leq \mathrm{GL}_n(R)$ azpitalde ohiko topologiaren azpiespazio topologiarekin eta Zariskiren topologiarekin horni daiteke, bigarrena ahulagoa izanik (funtzio polinomikoak jarraituak dira topologia $\mathfrak{m}$-adikoarekiko).

Zariskiren topologiari dagokionez, hurrengoak beharko ditugu:

Proposizioa 3.34 (cf. [73, Lema 5.9 eta Teorema 5.11])**.** *Izan bitez $H \leq \mathrm{GL}_n(R)$ eta $\mathcal{H}$ haren Zariski itxitura.*

(i) *Orduan, $\mathcal{H} \leq \mathrm{GL}_n(R)$ da.*

(ii) *Demagun $H \trianglelefteq \mathrm{GL}_n(R)$ dela, orduan $\mathcal{H} \trianglelefteq \mathrm{GL}_n(R)$ da.*

(iii) *Demagun H nilpotentea dela eta c nilpotentzia klasea duela. Orduan, $\mathcal{H}$-k c luzerako serie zentral bat du non serieko azpitalde guztiak Zariski itxiak diren. Bereziki, $\mathcal{H}$ nilpotentea da eta c nilpotentzia klasea du.*

(iv *Demagun H ebazgarria dela eta c ebazgarritasun luzera duela. Orduan, $\mathcal{H}$-k ℓ luzerako serie subnomal bat du non serieko azpitalde guztiak Zariski itxiak diren. Bereziki, $\mathcal{H}$ ebazgarria da eta ℓ ebazgarritasun luzera du.*

(iv) *Izan bedi $K \leq H$ azpitaldea eta demagun $|H : K|$ finitua dela. Izan bedi $\mathcal{K}$ K azpitaldearen Zariski itxitura $\mathrm{GL}_n(K)$-n, orduan $|\mathcal{H} : \mathcal{K}|$ finitua da.*

Korolarioa 3.35. *Izan bitez $G \subseteq \mathrm{GL}_n(\mathbb{F}_p[[t]])$ talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko lineala eta $\mathcal{H} \leq \mathrm{GL}_n(\mathbb{F}_p[[t]])$ azpitalde Zariski itxia. Orduan, $\mathcal{H} \cap G$ azpitalde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitikoa da G-n.*

Froga. Teorema 3.32 kontuan hartuta $\mathcal{H} \cap G$ multzo $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitikoa dela frogatu behar da. Alde batetik, $\mathcal{H}$ Zariski itxia denez, multzo afina da, hau da, existitzen da $\mathcal{F} \subseteq \mathbb{F}_p[[t]][\mathbf{X}]$ polinomio multzoa ($\mathbf{X}$ tuplak n^2 aldagai ditu) non

$$\mathcal{H} = \{A \in \mathrm{GL}_n(\mathbb{F}_p[[t]]) \mid f(A) = 0 \ \forall f \in \mathcal{F}\}$$

den. Areago, $\mathbb{F}_p[[t]][\mathbf{X}]$ noetherdarra denez, $\mathcal{F}$ finitua dela suposa dezakegu, eta, beraz,

$$\mathcal{H} \cap G = \{A \in G \mid f(A) = 0 \ \forall f \in \mathcal{F}\}$$

azpimultzo $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitikoa da. □

Orain, aurreko emaitzak bilduz, Teorema 3.3(ii) froga dezakegu:

Teorema 3.36. *Izan bedi G talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko trinko ebazgarria. Orduan,*

$$\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G) = [0, 1]$$

da.

Froga. Korolarioa 3.20 dela eta, orokortasunik galdu gabe G talde R-estandarra dela suposa dezakegu. Lehendabizi, G taldea $\mathbb{F}_p[[t]]$-ren gainean lineala denean frogatuko dugu baieztapena. Hots, demagun $G \subseteq \mathrm{GL}_n(\mathbb{F}_p[[t]])$ dela, eta izan bedi $\mathcal{G}$ G-ren Zariski itxitura $\mathrm{GL}_n(\mathbb{F}_p[[t]])$-n. Proposizioa 3.34ren arabera, $\mathcal{G}$ talde ebazgarria da eta badago

$$\mathcal{G} = \mathcal{H}_1 \trianglerighteq \mathcal{H}_2 \trianglerighteq \cdots \trianglerighteq \mathcal{H}_{\ell-1} \trianglerighteq \mathcal{H}_\ell = \{1\}$$

azpitalde Zariski itxiz osaturiko serie ebazgarria, hau da, ondoz ondoko zatidurak talde abeldarrak dira. Beraz, Korolarioa 3.35 dela eta,

$$G = \mathcal{H}_1 \cap G \trianglerighteq \mathcal{H}_2 \cap G \trianglerighteq \cdots \trianglerighteq \mathcal{H}_{\ell-1} \cap G \trianglerighteq \mathcal{H}_\ell \cap G = \{1\}$$

azpitalde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitikoz osaturiko G-ren serie subnormala da.

Deitu $H_i = \mathcal{H}_i \cap G$. Horrela, H_i bakoitza G-ren azpitalde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitikoa denez, H_{i-1}/H_i talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko trinko abeldarra da $i \in \{2, \ldots, \ell\}$ guztietarako. Hortaz, Korolarioa 3.29ren ondorioz, $\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(H_i/H_{i-1}) = [0,1]$ da. Lema 3.31 dela eta, $[\mathrm{hdim}_{\mathrm{st}}(H_i), \mathrm{hdim}_{\mathrm{st}}(H_{i-1})] \subseteq \mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G)$ da $i \in \{2, \ldots, \ell\}$ guztietarako, eta, ondorioz, $\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G) = [0,1]$ da.

Jo dezagun azkenik kasu orokorrera. Korolarioa 3.33 dela eta, $Z(G)$ azpitalde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitikoa da eta, horrenbestez, Korolarioa 3.29 eta Lema 3.31ren arabera,

$$[0, \mathrm{hdim}_{\mathrm{st}}\, Z(G)] \subseteq \mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G)$$

da. Bestetik, Proposizioa 1.59 eta Proposizioa 2.3ren ondorioz, $G/Z(G)$ talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko trinkoa $\mathbb{F}_p[[t]]$-ren gainean lineala da. Hori dela eta, kasu lineala, Lema 3.21 eta Lema 3.22 uztartuz,

$$\mathrm{hspec}_{\{S_n Z(G)/Z(G)\}}(G/Z(G)) = \mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}\,(G/Z(G)) = [0,1]$$

dugu, eta Korolarioa 3.12ren arabera,

$$[\mathrm{hdim}_{\mathrm{st}}\, Z(G), 1] \subseteq \mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G),$$

da. Bereziki, espektroa $[0,1]$ tarte osoa da. $\square$

Horrenbestez, Lema 3.31 kontuan hartuta, talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko baten espektroak tarte erreal bat barruan duela frogatzeko moduetako bat G-ren sekzio $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko ebazgarri bat bilatzea da. Gure kasuan, bilaketa hori Titsen alternatibaren analogo topologikoan oinarrituko da. Baina lehenbizi ohartu honakoaz:

Lema 3.37. *Izan bedi G talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-estandarra. Demagun hauetako bat betetzen dela:*

(i) *$Z(G)$ infinitua da edo*

(ii) *G-k ordena infinituko x elementu bat du.*

Orduan, $[0, {}^{1}/_{\dim G}] \subseteq \mathrm{hspec}(G)$ *da.*

Froga. Lehenbiziko baldintzapean, Korolarioa 3.33ren arabera, $Z(G)$ azpitalde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko abeldar infinitua da. Antzeko moduan, bigarren baldintzapean $Z(C_G(x))$ azpitalde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko abeldarra infinitua da, $\langle x \rangle \leq Z(C_G(x))$ baita.

Edozein kasutan G-k $H \leq G$ azpitalde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko abeldar infinitu bat du. Horrela, G trinkoa denez, H-k dimentsio analitiko hertsiki positiboa du, eta, Korolarioa 3.29ren arabera, H-ren espektro estandarra $[0,1]$ tartea da. Horrenbestez, Lema 3.31ren arabera,

$$[0, {}^{\dim H}/_{\dim G}] \subseteq \mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G). \qquad \square$$

Teorema 3.38. *Izan bedi G talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko trinkoa. Orduan,*

$$[0, {}^{1}/_{\dim G}] \subseteq \mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G)$$

da.

Froga. Lehenik eta behin, Korolarioa 3.20gatik suposa dezagun orokortasunik galdu gabe G talde R-estandarra dela. Alde batetik, $Z(G)$ infinitua denean emaitza Teorema 3.37(i)en ondorioa da. Hortaz, suposa dezagun $Z(G)$ finitua dela. Orduan, $G/Z(G)$ talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitikoak $\dim G$ dimentsioa du eta Korolarioa 3.11 dela eta,

$$\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G) = \mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G/Z(G))$$

da. Bestalde, Proposizioa 2.3ren arabera, $G/Z(G)$ talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitikoa $\mathbb{F}_p[[t]]$-ren gainean lineala da. Beraz, Titsen alternatiba topologikoa (ikusi [12, Teorema 1.3]) dela eta, $G/Z(G)$-k azpitalde ebazgarri ireki bat du, deitu H, edo azpitalde aske dentso bat. Lehenbiziko kasuan, H talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko ebazgarria da eta $\dim G/Z(G) = \dim G$ dimentsioa du. Beraz, Teorema 3.36ren arabera,

$$\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G/Z(G)) = [0,1]$$

da. Bigarren kasuan, $G/Z(G)$-k ordena infinituko elementu bat du, eta emaitza Lema 3.37(ii)ren ondorioa da. $\square$

3.5 Chevalleyren talde klasikoak

Talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko trinko baten Hausdorffen espektro estandarrak ez du zertan $[0,1]$ tarte osoa izan. Esate baterako, hartu $\mathrm{SL}_n(\mathbb{F}_p[[t]])$ talde lineal berezia. Jakina da $\mathrm{SL}_n(\mathbb{F}_p[[t]])$ taldea n^2-1 dimentsioko talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko trinkoa dela, eta azpitalde $\mathbb{F}_p[[t]]$-estandar irekia hau duela

$$\mathrm{SL}_n^1(\mathbb{F}_p[[t]]) := \ker\{\mathrm{SL}_n(\mathbb{F}_p[[t]]) \to \mathrm{SL}_n(\mathbb{F}_p[[t]]/t\mathbb{F}_p[[t]])\}.$$

Horrela, [6, Korolarioa 1.5]en $\mathrm{SL}_2(\mathbb{F}_p[[t]])$-ren espektro estandarra guztiz zehazten da $p > 2$ denean, hau da,

$$\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}\left(\mathrm{SL}_2(\mathbb{F}_p[[t]])\right) = [0, 2/3] \cup \{1\}.$$

Gainera, [6, Teorema 1.4]n frogatzen denez, $p > 2$ denean

$$\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}\left(\mathrm{SL}_n(\mathbb{F}_p[[t]])\right) \cap \left(1 - \frac{1}{n+1}, 1\right) = \varnothing$$

da, alegia, 1 puntu isolatua da espektroan. Adibide horretan inspiratuz, espektro ez-osoa duten beste zenbait talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko aurkeztuko ditugu. Zehazkiago, frogatuko dugu gainerako Chevalleyren talde klasikoetan ere 1 puntu isolatua dela espektroan. Horretarako,[6]ko ideiak erabiliko dira, eta Lieren aljebra graduatuan eginen da lan. Hasteko, talde horiek zertan datzaten azalduko dugu laburki. Dena den, funtsezko definizioetarako, erro sistemak kasu, edota gaia sakonago aztertu nahi izanez gero, irakurleak [15]era jo dezake.

Izan bedi R pro-p domeinua.

- R-ren gainean A_n $(n \geq 1)$ motako erro sistemari dagokion Chevalleyren talde klasikoa $\mathrm{SL}_{n+1}(R)$ da.
- R-ren gainean B_n $(n \geq 2)$ motako erro sistemak talde *talde ortogonal berezi* bakoitia definitzen du. Hots,

$$\mathrm{SO}_{2n+1}(R) := \left\{ A \in \mathrm{M}_{2n+1}(R) \;\middle|\; A^t K_{2n+1} A = K_{2n+1} \right\},$$

  non $K_n = \begin{pmatrix} 0 & \dots & 0 & 1 \\ 0 & \dots & 1 & 0 \\ \vdots & \iddots & \vdots & \vdots \\ 1 & \dots & 0 & 0 \end{pmatrix} \in \mathrm{M}_n(R)$ den. Hori $n(2n+1)$ dimentsioko talde R-analitikoa da.

- R-ren gainean C_n $(n \geq 3)$ motako erro sistemak *talde sinplektikoa* definitzen du. Hots,

$$\mathrm{Sp}_{2n}(R) := \left\{ A \in \mathrm{M}_{2n}(R) \mid A^t J_{2n} A = J_{2n} \right\},$$

  non $J_{2n} = \begin{pmatrix} 0 & K_n \\ -K_n & 0 \end{pmatrix}$ den. Hori $n(2n+1)$ dimentsioko talde R-analitikoa da.

- R-ren gainean D_n ($n \geq 4$) motako erro sistemak *talde ortogonal berezi* bikoitia definitzen du. Hots,

  $$\mathrm{SO}_{2n}(R) := \left\{ A \in \mathrm{M}_{2n}(R) \mid A^t K_{2n} A = K_{2n} \right\}.$$

  Hori $n(2n-1)$ dimentsioko talde R-analitikoa da.

Talde horiek guztiak trinkoak dira, izan ere $\mathrm{M}_n(R) \cong R^{(n^2)}$ espazio topologiko trinkoaren azpimultzo itxiak dira. Alegia, Chevalleyren talde klasikoak R-ren gainean talde R-analitiko trinkoak dira. Halaber, beren elkarturiko aljebrak itxura hau du:

Teorema 3.39 (cf. [24, Ariketa 13.11(iii)])**.** *Izan bedi X_n erro sistema A_n ($n \geq 1$), B_n ($n \geq 2$), C_n ($n \geq 3$) edo D_n ($n \geq 4$) motakoa, eta izan bedi $G(R)$ X_n erro sistemari eta R pro-p domeinuari dagokion Chevalleyren talde klasikoa.*

(i) *$X_n = A_n$ bada, badago S talde R-estandar irekia non*

$$\mathcal{L}(S) \cong \mathfrak{sl}_{n+1}(R) = \{A \in \mathrm{M}_{n+1}(R) \mid \mathrm{tr}(A) = 0\}$$

den.

(ii) *$X_n = B_n$ bada, badago S talde R-estandar irekia non*

$$\mathcal{L}(S) \cong \mathfrak{so}_{2n+1}(R) = \left\{A \in \mathrm{M}_{2n+1}(R) \mid A^t = -A\right\}$$

den.

(iii) *$X_n = C_n$ bada, badago S talde R-estandar irekia non*

$$\mathcal{L}(S) \cong \mathfrak{sp}_{2n}(R) = \left\{A \in \mathrm{M}_{2n}(R) \mid J_{2n}A + A^t J_{2n} = 0\right\}$$

den (J_{2n} aurreko modu berean definituta dago).

(iv) *$X_n = D_n$ bada, badago S talde R-estandar irekia non*

$$\mathcal{L}(S) \cong \mathfrak{so}_{2n}(R) = \left\{A \in \mathrm{M}_{2n}(R) \mid A^t = -A\right\}$$

den. Hemen $\mathcal{L}(S)$-k S-ri elkarturiko Lieren aljebra adierazten du (konparatu Atala 1.4).

Lehenik eta behin, [54, Definizioa 2.9]ko objektua aurkeztuko dugu: (S, ϕ) talde R-estandarrari elkartutako $\mathrm{gr}\mathcal{L}(S) = \bigoplus_{n\geq 0} S_n/S_{n+1}$ *Lieren aljebra graduatua*. Aljebra horren Lieren kortxetea

$$[xS_{n+1}, yS_{m+1}]_{\mathrm{gr}\mathcal{L}(S)} := [x, y]S_{n+m+1}$$

araua bilinealki hedatuz lortzen da (eskuineko kortxeteek S taldeko kommutadorea adierazten dute).

Alde batetik, $[\cdot, \cdot]_{\mathrm{gr}\mathcal{L}(S)}$ Lieren kortxetea da. Izan ere, (1.5)en ondorioz,

$$\phi([x, y]) = \mathbf{B}(\phi(x), \phi(y)) - \mathbf{B}(\phi(y), \phi(x)) \mod \phi(S_{n+m+1})$$

da, eta, beraz, Lema 1.25 dela eta, $[\cdot, \cdot]_{\mathrm{gr}\mathcal{L}(S)}$-k Jacobiren identitatea betetzen du. Hots, R-Lie aljebra kortxetea da. Beste alde batetik, $x \in S_n$ eta $y \in S_m$ direnean, $[x, y] \in S_{n+m}$ da, eta, beraz, aurreko aljebra zenbaki arrunten gainean graduatua dago. Bestetik, izan bedi q $R/\mathfrak{m}$ hondar gorputzaren kardinalitatea. Horrela, S_n/S_{n+1} zatidura $R/\mathfrak{m}$-bektore espazioa da, eta, ondorioz, $\mathrm{gr}\mathcal{L}(S)$ $\mathbb{F}_q$-Lie aljebra graduatua da.

Edozein $H \leq_c S$ azpitalde itxik $\mathrm{gr}\mathcal{L}(S)$-ren azpialjebra graduatu bat definitzen du,

$$\mathrm{gr}\mathcal{L}(H) := \bigoplus_{n\geq 0} \frac{(H \cap S_n)S_{n+1}}{S_{n+1}}$$

(notazioa abusatuz $\mathrm{gr}\mathcal{L}(H)$ deituko dugu azpialjebra hori). Talde itxi guztiek azpialjebra bat definitzen duten arren, egon daitezke era honetan agertzen ez diren Lieren azpialjebrak ere.

Orokorrean, $L = \oplus_{n\geq 0} L_n$ graduatutako $\mathbb{F}_q$-Lie aljebran $K = \bigoplus_{n\geq 0} K_n$ graduatutako azpialjebraren *Hausdorffen dentsitatea* honela definitzen da:

$$\mathrm{hD}(K) := \liminf_{n\to\infty} \frac{\sum_{m\leq n} \dim_{\mathbb{F}_q} K_m}{\sum_{m\leq n} \dim_{\mathbb{F}_q} L_m}.$$

Halaber, aurreko definizioen arabera, $\mathrm{hD}(\mathrm{gr}\mathcal{L}(H)) = \mathrm{hdim}_{\{S_n\}}(H)$ da edozein

H azpitalde itxitarako. Izan ere,

$$\begin{aligned}
\mathrm{hD}(\mathrm{gr}\mathcal{L}(H)) &= \liminf_{n\to\infty} \frac{\sum_{m\le n} \dim_{\mathbb{F}_q} {}^{(H\cap S_m)S_{m+1}}/_{S_{m+1}}}{\sum_{m\le n} \dim_{\mathbb{F}_q} {}^{S_m}/_{S_{m+1}}} \\
&= \liminf_{n\to\infty} \frac{\sum_{m\le n} \log_q |H\cap S_m : H\cap S_{m+1}|}{\sum_{m\le n} \log_q |S_m : S_m + 1|} \\
&= \liminf_{n\to\infty} \frac{\log_q \prod_{m\le n} |H\cap S_m : H\cap S_{m+1}|}{\log_q \prod_{m\le n} |S_m : S_{m+1}|} \\
&= \liminf_{n\to\infty} \frac{\log_q |H : H\cap S_{n+1}|}{\log_q |S : S_{n+1}|} = \mathrm{hdim}_{\{S_n\}}(H). \qquad (3.9)
\end{aligned}$$

Hortaz, 1 puntua espektroan isolatua dela frogatzeko, $\mathrm{gr}\mathcal{L}(S)$-ren azpialjebra maximalei erreparatuko diegu. Konkretuago, azpialjebra baten Hausdorffen dentsitatea zehatz-mehatz 1 ez denean, dimentsio hori $1 - {}^1/_d$ balioarekin bornatuta dagoela ikusiko dugu. Horrenbestez, kodimentsio infinituko azpialjebrez arduratuko gara –kodimentsio finitukoek 1 Hausdorffen dentsitatea dute–. Horretarako $\mathrm{gr}\mathcal{L}(S)$-ren deskribapen hau dugu:

Lema 3.40 (cf. [24, Proposizioa 13.27] eta [54, Oharra 2.10 (5)])**.** *Izan bedi S talde R-estandarra. Orduan $R/\mathfrak{m}$-Lie aljebra gisa isomorfoak dira $\mathrm{gr}\mathcal{L}(S)$ eta $\mathcal{L}_0(S) \otimes_{R/\mathfrak{m}} \mathrm{gr}\,\mathfrak{m}$, non*

$$\mathcal{L}_0(S) = {}^{\mathcal{L}(S)}/_{\mathfrak{m}\mathcal{L}(S)} \qquad \text{eta} \qquad \mathrm{gr}\,\mathfrak{m} = \bigoplus_{n\ge 1} \mathfrak{m}^n/\mathfrak{m}^{n+1}$$

diren.

Oharra. Ohartu $\mathrm{gr}\,\mathfrak{m}$ ideala $\mathrm{gr}(R)$ eraztun graduatuaren ideal maximala dela.

Froga. Lehenik, $\mathcal{L}_0(S)$ aljebra $R/\mathfrak{m}$-Lie aljebra gisa $(R/\mathfrak{m})^{(d)}$ da eta haren Lieren kortxetea $[\cdot,\cdot]_{\mathcal{L}}$ modulo $\mathfrak{m}$ murriztuta lortzen da. Beraz, $R/\mathfrak{m}$-bektore espazio gisa $\mathrm{gr}\mathcal{L}(S)$ eta $\mathcal{L}_0 \otimes_{R/\mathfrak{m}} \mathrm{gr}\,\mathfrak{m}$ elkarri isomorfoak dira. Gainera, $[\cdot,\cdot]_{\mathcal{L}}$ bilineala denez eta tentsore biderketak bilialtasuna gordetzen duenez, aurreko isomorfismoa $R/\mathfrak{m}$-Lie aljebra isomorfismoa da. □

Bereziki, $R = \mathbb{F}_p[[t]]$ denean, Lieren aljebra graduatua $\mathcal{L}_0(S) \otimes_{\mathbb{F}_p} t\mathbb{F}_p[t]$ da. Izan bitez orain F gorputza eta $\mathcal{G}$ dimentsio finituko F-aljebra perfektua, hau da, $[\mathcal{G},\mathcal{G}] = \mathcal{G}$ da. Orduan, $\mathcal{G} \otimes_F tF[t]$ Lieren F-aljebra graduatua defini dezakegu, $[A\otimes t^n, B\otimes t^m] := [A,B]_{\mathcal{G}} \otimes t^{n+m}$ izanik Lieren kortxetea tentsore elementalen gainean. Ohartu honakoaz:

Lema 3.41. *Izan bedi aurreko $\mathcal{L} = \mathcal{G} \otimes_F tF[t]$ F-Lie aljebra. Orduan, kodimentsio infinituko F-azpialjebra graduatu oro kodimentsio infinitua edukitzearekiko maximala den F-azpialjebra graduatu baten parte da.*

Froga. Lehenik eta behin, $\mathcal{L}$ finituki sortutako F-azpialjebra bat da. Izan ere, $\{x_1, \ldots, x_m\}$ multzoa $\mathcal{G}$ aljebraren sistema sortzailea bada, $S = \{x_1, \ldots, x_m, x_1 \otimes t, \ldots, x_m \otimes t\}$ multzoak $\mathcal{L}$ sortzen du. Azken batean, $\langle S \rangle_F$, S-k sortutako Lie aljebrak, barruan ditu $\mathcal{G}$ eta $\mathcal{G} \otimes t$. Demagun indukzioz $\mathcal{G} \otimes t^{n-1} \subseteq \langle S \rangle_F$ dela. Orduan, $\mathcal{G}$ perfektua denez,

$$\mathcal{G} \otimes t^n = [\mathcal{G}, \mathcal{G}] \otimes t^n = \left[\mathcal{G} \otimes t^{n-1}, \mathcal{G} \otimes t\right] \subseteq \langle S \rangle_F$$

da.

Azkenik emaitza Zorneren Lemaren ondorioa da. Ikusi behar dugu kodimentsio infinituko F-azpialjebra graduatuen kate guztiek partekotasunarekiko elementu maximal bat dutela. Kodimentsio infinituko F-azpialjebra graduatuak partekotasunarekiko partzialki ordenatuta daude, eta hartu totalki ordenatutako $\{H_i\}_{i \in I}$ azpimultzoa. Definitu $H = \cup_{i \in I} H_i$ F-azpialjebra graduatua. Demagun absurdura eramanez, H-k kodimentsio finitua duela $\mathcal{L}$-n, eta, beraz, finituki sortutako F-Lie azpialjebra dela, hau da, $H = \langle h_1, \ldots, h_r \rangle_F$. Orduan, existitzen da $i_0 \in I$ non $h_k \in H_{i_0}$ den $k \in \{1, \ldots, r\}$ guztietarako, beraz, $H = H_{i_0}$ F-aljebra graduatuak kodimentsio infinitua du $\mathcal{L}$-n, hau da, kontraesana dugu. Hortaz, $\{H_i\}_{i \in I}$ kateak partekotasunarekiko elementu maximal bat du kodimentsio infinituko F-azpialjebra graduatuen familian. □

Hurrengo emaitzari esker, kodimentsio maximala izatearekiko maximalak diren azpialjebra graduatuen dentsitatea borna dezakegu.

Teorema 3.42 (cf. [6, Korolarioa 5.3])**.** *Izan bitez F gorputza, $\mathcal{G}$ F-aljebra bakun zentrala eta $\mathcal{L} = \mathcal{G} \otimes_F tF[t]$. Izan bedi $\mathcal{K}$ kodimentsio infinitua izatearekiko maximala den $\mathcal{L}$-ren F-azpialjebra graduatua. Orduan, $\mathcal{K}$-ren Hausdorffen dentsitatea $1/q$ non q zenbaki lehen bat den, edo $\dim_F \mathcal{H} / \dim_F \mathcal{G}$ da, non $\mathcal{H}$ $\mathcal{G}$-ren azpialjebra graduatu maximal bat den.*

Oharra 3.43. Gogoratu dimentsio finituko $\mathcal{G}$ F-aljebra *bakun zentrala* dela bakuna bada eta haren *zentroidea*, i.e.

$$\mathrm{Cent}(\mathcal{G}) = \{f \in \mathrm{End}_F(\mathcal{G}) \mid f([x, y]) = [f(x), y] \ \forall x, y \in \mathcal{G}\},$$

F-ri isomorfoa bada. Haatik, F finitua bada, aurreko teoremaren baldintzak erlaxatu daitezke, eta nahikoa da $\mathcal{G}$ F-aljebra bakuna izatea. Izan ere, aurreko teorema [7, Teorema 4.1]eko modu berean frogatzen da, eta autoreek [7, Teorema 1.1]en ondoko oharrean dioten moduan, F finitua denean, nahikoa da $\mathcal{G}$ bakuna izatea.

Elkar ditzagun emaitza horiek guztiak azpiatal honetan bila genbiltzan emaitza frogatzeko.

Korolarioa 3.44. *Izan bedi X_n erro sistema A_n $(n \geq 1)$, B_n $(n \geq 2)$, C_n $(n \geq 3)$ edo D_n $(n \geq 4)$ motakoa eta izan bedi $G = G(X_n)$ X_n-ri $\mathbb{F}_p[[t]]$-ren gainean elkarturiko Chevalleyren talde klasikoa. Halaber, izan bedi $L(Q)$ erro sistema horri elkarturiko Lieren aljebra Q eraztunaren gainean. Demagun $L(\mathbb{F}_p)$ bakuna dela, orduan*

$$\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G) \cap \left(1 - \frac{1}{\dim G}, 1\right) = \varnothing$$

da.

Froga. Alde batetik, Teorema 3.39ren arabera, G-k S azpitalde $\mathbb{F}_p[[t]]$-estandar ireki bat du zeinari elkarturiko Lieren aljebra $L(\mathbb{F}_p[[t]])$-ri isomorfoa den. Bestalde, Lema 3.40 dela eta, $\mathrm{gr}\mathcal{L}(S) \cong \mathcal{L}_0 \otimes_{\mathbb{F}_p} \mathrm{gr}\,\mathfrak{m}$ da $\mathbb{F}_p$-bektore espazio gisa, non

$$\mathcal{L}_0 = L(\mathbb{F}_p[[t]])/tL(\mathbb{F}_p[[t]]) \cong L(\mathbb{F}_p) \quad \text{eta} \quad \mathrm{gr}\,\mathfrak{m} = \bigoplus_{n \geq 1} (t^n) \,/\, \left(t^{n+1}\right)$$

diren. Hots, $\mathrm{gr}\mathcal{L}(S) \cong L(\mathbb{F}_p) \otimes_{\mathbb{F}_p} t\mathbb{F}_p[t]$ da.

Beste alde batetik, demagun $H \leq_c S$ azpitalde itxiak $\mathrm{hdim}_{\mathrm{st}}(H) < 1$ betetzen duela. Orduan, $|S : H|$ infinitua da eta $\mathrm{gr}\mathcal{L}(H)$-k kodimentsio infinitua du $\mathrm{gr}\mathcal{L}(S)$-n. Horrela, $L(\mathbb{F}_p)$ bakuna denez, Lema 3.41en arabera, $\mathrm{gr}\mathcal{L}(H)$ $\mathbb{F}_p$-azpialjebra graduatua $\mathrm{gr}\mathcal{L}(S)$-ren $\mathcal{M}$ $\mathbb{F}_p$-azpialjebra graduatu baten barruan dago, $\mathcal{M}$ kodimentsio infinitua izatearekiko maximala izanik. Hortaz, Teorema 3.42, Oharra 3.43 eta identitatea (3.9) direla eta:

$$\begin{aligned}\mathrm{hdim}_{\mathrm{st}}(H) &= \mathrm{hD}(\mathrm{gr}\mathcal{L}(H)) \leq \mathrm{hD}(\mathcal{M}) \\ &\leq \max\left\{\frac{1}{2}, \frac{\dim_{\mathbb{F}_p} \mathcal{H}}{\dim_{\mathbb{F}_p} L(\mathbb{F}_p)} \;\middle|\; \mathcal{H} \text{ azpialjebra maximala da } L(\mathbb{F}_p)\text{-n}\right\} \\ &\leq 1 - \frac{1}{\dim_{\mathbb{F}_p} L(\mathbb{F}_p)} = 1 - \frac{1}{\dim S},\end{aligned}$$

$\dim S = \dim G(X_n) = \dim_{\mathbb{F}_p} L(\mathbb{F}_p)$ baita (konparatu Teorema 3.39). Azkenik, Korolarioa 3.20ren arabera, $\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G) = \mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(S)$ da eta badugu emaitza. □

Azkenik, karakteristika positiboko gorputz finituen gainean, $\mathfrak{so}_n(F)$ eta $\mathfrak{sp}_{2n}(F)$ motako aljebrak sakonki aztertu izan dira. Hala, $p = 2$ denean, horietako bakarra ere ez da bakuna (ikusi [70, Atala 4.4]), baina $p \geq 3$ denean, jakina da $\mathfrak{so}_n(F)$ $(n \geq 5)$ eta $\mathfrak{sp}_{2n}(F)$ $(n \geq 2)$ aljebra bakunak direla (ikusi [70, 181. orria eta Atala 4.4]). Hori dela eta, honakoa ondoriozta dezakegu:

Korolarioa 3.45. *Izan bedi $p \geq 3$ eta demagun G taldea $\mathrm{SO}_n(\mathbb{F}_p[[t]])$ $(n \geq 5)$ edo $\mathrm{Sp}_{2n}(\mathbb{F}_p[[t]])$ $(n \geq 2)$ dela. Orduan,*

$$\mathrm{hspec}_{\mathrm{st}}(G) \cap \left(1 - \frac{1}{\dim G},\ 1\right) = \varnothing$$

da.

3.6 Oharrak

Espazio euklidearretan geometria fraktalaren inguruko erreferentzia behinena Falconerren [26] liburua da. Azpimarratu behar da bertan $\mathbb{R}^{(n)}$-n egiten dela lan, baina emaitzak orokortasun guztiarekin zein-nahi espazio metrikotan betetzen dira; eta kapituluan zehar eman diren erreferentziak onargarriak dira hori kontuan hartuta.

Atala 3.2k [27] darraio, ideia gehienak bertatik hartuta daude, gure kasuan azpibarietateekin, eta ez azpitaldeekin, jarduteak sortutako zailtasun tekniko batzuk salbu.

Azkenik, Atala 3.3tik 3.5era bitarteko emaitzak eskuarki originalak dira, eta [30]en argitaratu dira, González-Sánchezekin elkarlanean. Halere, Atala 3.5eko teknikak Barnea eta Shalevenak [6] dira. Orobat, aipatu behar da Teorema 3.3 talde R-analitiko *guztietara* orokortzeko oztopo nagusia, alta ez bakarra, hau dela: talde R-analitiko trinkoetan oraindik ez dago azpitalde R-analitikoak topatzeko irizpide sinplerik, hots, ez dago Proposizioa 1.53ren pareko emaitzarik.

Azkenik, doktoretzak iraun bitartean, de las Herasekin batera [36] euskarazko dibulgazio artikulua argitaratu da dimentsio fraktalei buruz.

Hasieran bazen Hitza

Joan 1:1

4
Hitzak talde R-analitiko trinkoetan

HITZ bat k aldagaitan k sortzaileko $F(x_1, \ldots, x_k)$ talde askeko $w(x_1, \ldots, x_k)$ elementua da, hau da,

$$x_{i_1}^{\varepsilon_{i_1}} \ldots x_{i_m}^{\varepsilon_{i_m}},$$

non $m \in \mathbb{N}_0$, $i_j \in \{1, , \ldots, k\}$ eta $\varepsilon_{i_j} = \pm 1$ diren; $m = 0$ deneko kasu bereziari *hitz hutsa* deritzo.

Behin G talde bat finkatuta, $w(x_1, \ldots, x_k)$ hitza $w\colon G^{(k)} \to G$ funtzioa balitz bezala ikus daiteke, $w(g_1, \ldots, g_k)$ irudia i guztietarako x_i-ren order g_i jarrita lortzen den G-ko elementua delarik. Funtzio horri w-ren *hitz funtzioa* deitzen zaio. Hitzak bigarren modu horretan ulertzea komeni da, hau da, bi hitz *baliokideak* dira G talde guztietan hitz funtzio bera definitzen badute. Horrela, agerikoa da bi hitz baliokideak direla baldin eta soilik baldin talde askean forma murriztu bera hartzen badute.

Definizioa 4.1. Izan bitez G taldea eta $w(x_1, \ldots, x_k)$ hitza. *Hitz balioen* edo *w-balioen* multzoa G-n

$$w\{G\} := \{w(g_1, \ldots, g_k) \mid g_i \in G\}$$

da, edo, baliokideki, $\operatorname{im} w$ irudia w funtzio gisa badakusagu.

Lema 4.2. *Izan bitez G talde abeldarra eta w hitza. Orduan, $w\{G\}$ azpitaldea da.*

Froga. Taldea abeldarra denez,

$$w(g_1, \ldots, g_k) \cdot w(h_1, \ldots, h_k) = w(g_1h_1, \ldots, g_kh_k) \in w\{G\},$$

eta $w(g_1, \ldots, g_k)^{-1} = w\left(g_1^{-1}, \ldots, g_k^{-1}\right) \in w\{G\}$ dira $g_i, h_i \in G$ guztietarako. $\square$

Dena den, $w\{G\}$ ez da orohar G-ren azpitaldea, eta w-ren *hitzezko azpitaldea* G-n

$$w(G) := \langle w\{G\} \rangle \tag{4.1}$$

moduan definitzen da –nahiz eta eskuizkribu honetan zehar (4.1) definizioa mantenduko dugun, talde topologikoetan $w(G)$ hitz balioek sortutako talde abstraktuaren itxitura topologikoa gisa definitzen da askotan–. Hurrengo emaitza sarritan erabiliko dugu erreferentziarik eman gabe:

Lema 4.3. *Izan bitez w hitza eta $\varphi\colon G \to H$ talde homomorfismoa. Orduan, $\varphi\left(w(G)\right) = w\left(\varphi\left(G\right)\right)$ da. Bereziki, $w(G) \operatorname{char} G$ da eta $N \trianglelefteq G$ denean,*

$$w\left(G/N\right) = w(G)N/N$$

da.

Froga. Ohartu $\varphi(w(g_1, \ldots, g_k)) = w\left(\varphi(g_1), \ldots, \varphi(g_k)\right)$ dela $g_i \in G$ guztietarako. $\square$

Definizioa 4.4. Izan bitez G taldea eta w hitza. Orduan, w-ren *azpitalde marjinala* G-n

$$w^*(G) := \left\{ g \in G \;\middle|\; \begin{array}{c} w(x_1, \ldots, x_k) = w\left(x_1, \ldots, x_{i-1}, x_ig, x_{i+1}, \ldots, x_k\right) \\ \forall i \in \{1, \ldots, k\},\ \forall x_j \in G \end{array} \right\}$$

da. Bestalde, $H \leq G$ *marjinala* da w-rentzat $H \leq w^*(G)$ bada.

Bereziki, $H \leq G$ marjinala denean w-rentzat, $w(H) = \{1\}$ betetzen da. Gainera, $g \in w^*(G)$ bada, $w(x_1, \ldots, x_k) = w(x_1, \ldots, gx_i, \ldots, x_k)$ da $i \in \{1, \ldots, k\}$ eta $x_j \in G$ guztietarako, hau da, definizioan g ezkerrean edo eskuinean jartzearen antisimetria itxurazkoa baino ez da. Izan ere, hartu $g \in G$ elementua eta demagun $w(x_1, \ldots, x_i g, \ldots, x_k) = w(x_1, \ldots, x_k)$ dela $x_j \in G$ guztietarako, orduan

$$\begin{aligned} w(x_1, \ldots, gx_i, \ldots, x_k) &= w(x_1, \ldots, x_i g^{x_i}, \ldots, x_k) \\ &= w\left(x_1, \ldots, (x_i g)^{x_i}, \ldots, x_k\right) \\ &= w\left(x_1^{x_i^{-1}}, \ldots, x_i g, \ldots, x_k^{x_i^{-1}}\right)^{x_i} \\ &= w\left(x_1^{x_i^{-1}}, \ldots, x_i, \ldots, x_k^{x_i^{-1}}\right)^{x_i} = w(x_1, \ldots, x_i, \ldots, x_k) \end{aligned}$$

da.

Adibideak 4.5. Izan bedi G taldea.

(i) G talde totala eta $\{1\}$ azpitalde tribiala hitzezko azpitaldeak dira, hurrenez huren, $w(x) = x$ eta hitz hutsari dagozkionak.

(ii) Hitz arrunt eta ezagunena *kommutadore hitza* da, hau da, $\gamma_2(x, y) = [x, y] = x^{-1}y^{-1}xy$. Haren hitzezko azpitaldea $\gamma_2(G) = G'$ *azpitalde deribatua* da eta dagokion azpitalde marjinala $\gamma_2^*(G) = Z(G)$ zentroa.

(iii) *Hitz behe zentralak* errekurtsiboki

$$\gamma_n(x_1, \ldots, x_n) := [\gamma_{n-1}(x_1, \ldots, x_{n-1}), x_n] \ \forall n \geq 3$$

gisa definitzen dira, eta *hitz deribatuak* errekutsiboki $\delta_1(x_1, x_2) := \gamma_2(x_1, x_2)$ eta

$$\delta_n(x_1, \ldots, x_{2^n}) := [\delta_{n-1}(x_1, \ldots, x_{2^{n-1}}), \delta_{n-1}(x_{2^{n-1}+1}, \ldots, x_{2^n})] \ \forall n \geq 2$$

moduan definitzen dira.

(iv) *Burnsideren hitzak* $w_m(x) = x^m$ dira. Horiek G^m hitzezko azpitaldeak definitzen dituzte, hau da, G-ko elementuen $m$garren berreturek sorturiko taldeak. Eta, adibidez, $w_2^*(G)$ azpitalde marjinala gehienez 2 ordenako elementu zentralek osatzen dute, hau da, $w_2^*(G) = \{g \in Z(G) \mid g^2 = 1\}$ da.

P. Hallek [33] hainbat galdera egin zituen w-balioen multzoaren eta haren hitzezko azpitaldearen eta azpitalde marjinalaren arteko erlazioaren inguruan. Hurrengo definizioak itaun horiek laburtzeko balioko du:

Definizioa 4.6. Izan bitez w hitza eta $\mathcal{C}$ talde klasea.

(i) w hitza *laburra* da $\mathcal{C}$-n, $G \in \mathcal{C}$ guztietarako $w\{G\}$ finitua izateak $w(G)$ ere finitua dela inplikatzen badu.

(ii) w hitza *sendoa* da $\mathcal{C}$-n, $G \in \mathcal{C}$ guztietarako $|G : w^*(G)|$ finitua izateak $w(G)$ finitua dela inplikatzen badu.

Horrela, w *laburra* (*sendoa*) da talde guztien klasean laburra (sendoa) denean. Antzeko moduan, G taldean hitz guztiak laburrak badira, G *hitzez laburra* dela diogu.

Orokorrean, $|w\{G\}| \leq |G : w^*(G)|^k$ denez (k zenbaki osoa w hitzaren aldagai kopurua da), sendotasuna laburtasuna baino gogorragoa da: w laburra bada $\mathcal{C}$-n, orduan w sendoa da $\mathcal{C}$-n. Haatik, talde erresidualki finituetan, eta guri ardura zaizkigun taldeak horrelakoak dira, bi kontzeptuak baliokideak dira:

Lema 4.7 (cf. [67, Lema 1.4.1])**.** *Izan bitez G taldea eta w hitza.*

(i) *$|G : w^*(G)|$ finitua bada, orduan $w\{G\}$ finitua da.*

(ii) *G erresidualki finitua eta $w\{G\}$ finitua badira, orduan $|G : w^*(G)|$ finitua da.*

P. Hallek bat hitz guztiak laburrak zirela iragarri zuen. Aitzitik, ia hiru hamarkadaren ostean, Ivanovek [39] aieru hori errefuxatu zuen, G talde bat eta w hitz bat topatu baitzituen non $w\{G\}$ multzoak bi elementu dituen, baina $w(G)$ talde zikliko infinitua den. Hala ere, kontradibide hori ez da erresidualki finitua, ezta Ol'shanskiĭk (ikusi [62, Teorema 39.7]) eraiki zuen antzeko kontradibidea ere. Horrek Jaikin-Zapirainek [44] eta Segalek [67] proposaturiko aieru honetara garamatza:

Aierua 4.8 (Laburtasunaren aierua talde erresidualki finituetan)**.** Hitz guztiak laburrak dira talde erresidualki finituen klasean.

Talde hitzez laburren klase gutxi batzuk baino ez dira ezagutzen. Talde abeldarren (ikusi Lema 4.2) eta periodikoen (ikusi datorren Lema 4.15) ageriko adibideez gain; 1960ko hamarkadan, Merzjalkovek [57] eta Turner-Smithek [72] hurrenez hurren frogatu zuten talde linealak eta zatidura guztiak erresidualki finituak dituzten taldeak (e.g. talde birtualki nilpotenteak) hitzez laburrak direla.

Hitz balioen multzoa infinitua denean, laburtasunaren pareko kontzeptua *hitz eliptikotasuna* da. Hori definitzeko notazio hau erabiliko da: $X \subseteq G$ azpimultzo baterako, izendatu $X^{*\ell}$ moduan $X \cup X^{-1} \cup \{1\}$ multzoko ℓ elementuren biderketek osatzen duten multzoa.

Definizioa 4.9. Izan bitez G taldea eta w hitza. Orduan, w *eliptikoa* da G-n existitzen bada $\ell \in \mathbb{N}$ non $w(G) = w\{G\}^{*\ell}$ den.

Aurreko baldintza betetzen duten ℓ zenbaki osoetan txikienari w-ren *hitz zabalera* deritzo. Horrela, G taldea *hitzez eliptikoa* da hitz guztiak G-n eliptikoak direnean. Eliptikotasuna laburtasuna baino gogorragoa da: w eliptikoa bada $\mathcal{C}$ talde klaseko talde guztietan, orduan w laburra da $\mathcal{C}$-n.

Lema 4.2ren arabera, talde abeldarrak hitzez eliptikoak dira eta 1 hitz zabalera dute. Horiez gain, talde aljebraiko linealak* (ikusi [56]), finituki sortutako talde abeldar-bider-nilpotenteak (ikusi [29] eta [71]) edo, tesi honen gaiarekin zerikusi zuzena duena, talde p-adiko analitiko trinkoak (ikusi [44]) hitzez eliptikoak dira.

Haatik, hitzez eliptikoak ez diren taldeen adibide naturalak daude (kontradibideak ez dira hitzezko laburtasunarenak bezain konplexuak bederen). Esate baterako, Roman'kovek [66] finituki sortutako pro-p talde ebazgarri bat aurkeztu zuen non $\delta_2(x_1, \ldots, x_4) = [[x_1, x_2], [x_3, x_4]]$ hitz deribatuak zabalera infinitua duen.

Talde profinituei dagokionez, hitz zabalera eta hitzezko azpitaldea itxia izatea lotuta daude.

Proposizioa 4.10. *Izan bitez G Hausdorff talde topologiko trinkoa eta w hitza. Orduan, w eliptikoa da G-n baldin eta soilik baldin $w(G)$ itxia bada.*

Froga. Soilik baldin norantzan, ohartu edozein n-tarako $w\{G\}^{*n}$ itxia dela, multzo trinko baten irudi jarraitua baita. Hortaz, w-ren hitz zabalera ℓ bada, $w(G) = w\{G\}^{*\ell}$ itxia da.

Bestetik *baldina* frogatzeko, ohartu

$$w(G) = \bigcup_{n \in \mathbb{N}} w\{G\}^{*n}$$

dela eta $w\{G\}^{*n}$ guztiak itxiak direla. Hori dela eta, $w(G)$ Hausdorff eta trinkoa denez, Baireren Kategoria Teoremaren (ikusi [59, Teorema 48.2]) arabera, existitzen da m zenbaki osoa non $w\{G\}^{*m}$-k barnealde ez-hutsa duen, hau da, $U \subseteq_o w(G)$ azpimultzo ireki ez-huts bat du barruan. Hortaz,

$$w(G) = \bigcup_{g \in w(G)} gU$$

***talde aljebraiko lineal* diogunean, $\mathrm{GL}_n(K)$-ren azpitalde Zariski itxi bat esan nahi dugu, K gorputz aljebraikoki itxia delarik.

da, eta $w(G)$-ren trinkotasunagatik

$$w(G) = \bigcup_{i=1}^{r} g_i U$$

da $g_1, \dots, g_r \in w(G)$ elementu batzuetarako. Hartu $k \in \mathbb{N}$ non $g_i \in w\{G\}^{*k}$ den $i \in \{1, \dots, r\}$ guztietarako, orduan

$$w(G) = \bigcup_{i=1}^{r} g_i U \subseteq w\{G\}^{*(k+m)},$$

da, nahi genuen moduan. □

Orokorrean, (hitzezko) azpitalde bat itxia den ala ez jakitea erabilgarria da talde profinituekin jarduterakoan. Horregatik, Jaikin-Zapirainen emaitza nabarmen hau enuntziatu behar dugu:

Teorema 4.11 (cf. [44, Teorema 1.1])**.** *Izan bedi $w \in F_k$ hitza k aldagaitan. Orduan, w hitzak zabalera finitua finituki sortutako pro-p talde guztietan baldin eta soilik baldin $w \notin \delta_2(F_k)\,(F_k')^p$ bada.*

Kapitulu honen xedea talde R-analitiko trinkoak hitzez laburrak direla frogatzea da. Aipatu beharrekoa da char $R = 0$ denean, emaitza hori Teorema 2.27ren –talde R-analitiko trinkoak linealak dira– eta Merzjalkoven Teoremaren –talde linealak hitzez laburrak dira– ondorio zuzena dela. Aitzitik, interesgarria da horren froga independentea ematea, zeina pro-p domeinu guztietarako, karakteristika edozein delarik ere, betetzen den.

Are gehiago, emaitza orokor hau talde R-analitiko trinko *guztiak* linealak izatearen aldeko beste ebidentzia bat da.

4.1 Laburtasuna talde R-estandarretan

Talde R-estandarren klasean laburtasuna berehalakoa da:

Proposizioa 4.12. *Izan bitez S talde R-estandarra eta w hitza. Demagun $w\{S\}$ finitua dela, orduan $w(S) = \{1\}$ da.*

Froga. Lehenik eta behin, S taldea $\left(\mathfrak{m}^N\right)^{(d)}$-rekin identifikatu daiteke, non N taldearen maila eta d dimentsioa diren. Horrela, biderketa eta alderantzizkoa bi berretura serie formalen tuplak definitzen dituzte eta eta identitatea $\mathbf{0}$ da. Horrenbestez, w hitz funtzioa $\mathbf{W} \in R[[X_1, \dots, X_{dk}]]^{(d)}$ berretura serie tupla bakarra da (k hitzeko indeterminatu kopurua da). Horrela, $w\{S\}$ finitua eta hitz funtzioa jarraitua direnez, $\mathbf{W}$ lokalki konstantea da; eta, beraz, Lema 1.8ren arabera, $\mathbf{W}$ konstantea da. Hots, $\mathbf{W}(X_1, \dots, X_{dk}) = \mathbf{W}(\mathbf{0}, \dots, \mathbf{0}) = \mathbf{0}$ da, eta, beraz, $w\{S\} = \{\mathbf{0}\}$. □

Emaitza horren pare bat ondorio aipatu behar ditugu. Alde batetik, talde R-analitiko guztiek laburtasunaren aieruaren bertsio ahulago hau betetzen dute:

Korolarioa 4.13. *Izan bitez G talde R-analitikoa eta w hitza. Demagun $w\{G\}$ finitua dela. Orduan, existitzen da S azpitalde R-estandar irekia non w legea den, hau da, $w(S) = \{1\}$ da.*

Froga. Lema 1.21en arabera, badago S azpitalde R-estandar ireki bat G-n. Horrela, $|w\{S\}| \leq |w\{G\}|$ denez, Proposizioa 4.12 dela eta, $w(S) = \{1\}$ da. □

Beste alde batetik, G talde R-analitiko trinkoa bada eta $w\{G\}$ finitua, w-balioen multzoa soilik azpitalde R-estandar jakin baten ezker koklaseei begira kalkula daiteke. Hots, izan bitez G talde R-analitiko trinkoa eta $S \trianglelefteq_o G$ azpitalde R-estandar irekia zeinaren konjokazio funtzioak hertsiki analitikoak diren (bigarrena Lema 1.23 dela eta existitzen da R ez denean IND bat), eta izan bedi T ezker transbertsal bat S-rentzat G-n. Oroitu S-tik eratorritako atlasa, hau da, $\{(tS, \phi_t)\}_{t \in T}$ non $\phi_t(x) = \phi(t^{-1}x)$ den. Lema 1.24ren ondorioz, $w\colon G^{(k)} \to G$ funtzio R-analitikoa $t_1S \times \cdots \times t_kS$ ($t_i \in T$) multzo irekian berretura serie tupla bakarrak emanda dago –w ez da biderketa eta alderantzizko funtzioen konposaketa egokia besterik–. Alegia, existitzen da $\mathbf{W}_{t_1,\dots,t_k} \in R[[X_1, \dots, X_{dk}]]^{(d)}$ berretura serie formalen tupla non

$$\phi_p(w(x_1, \dots, x_k)) = \mathbf{W}_{t_1,\dots,t_k}\left(\phi_{t_1}(x_1), \dots, \phi_{t_k}(x_k)\right) \ \forall x_j \in t_jS \tag{4.2}$$

den, hemen p elementua $w(t_1, \dots, t_k)p^{-1} \in S$ betetzen duen T-ko elementu bakarra da.

Gainera, $w\{G\}$ finitua bada, w funtzio jarraitua lokalki konstantea da, eta Lema 1.8ren eraginez, $\mathbf{W}_{t_1,\dots,t_k}$ konstantea da, hau da,

$$\mathbf{W}_{t_1,\dots,t_k}(X_1, \dots, X_{dk}) = \mathbf{c} \in R^{(d)}.$$

Hots, $\phi_p(w(x_1, \dots, x_k)) = \mathbf{c}$ da $x_j \in t_jS$ guztietarako. Beste era batera esanda:

Proposizioa 4.14. *Izan bitez w hitza, G talde R-analitiko trinkoa eta S azpitalde normal R-estandarra zeinaren konjokazio funtzioak hertsiki analitikoak diren. Orduan, $w\{G\}$ finitua bada, S marjinala da w-rentzat.*

Frogapen teknika hasierako problema bat Krull dimentsioko pro-p domeinu baten gainean analitikoa den talde batera murriztean datza, eta horretarako Atala 2.2n deskribaturiko eraztun aldaketa erabiliko da. Hori dela eta, lehenbiziko bat dimentsioko kasua aztertu behar da. Orobat, talde p-adiko analitiko trinkoak hitzez laburrak dira, linealak baitira Korolarioa 2.6ren arabera. Hortaz, Korolarioa 1.44 kontuan hartuta, $R = \mathbb{F}_p[[t]]$ kasura murriz gaitezke.

Hainbat emaitza tekniko erabiliko ditugu. Horietako batzuk frogatuko dira, baina beste batzuk enuntziatu baino ez ditugu eginen. Lehenik, gogora dezagun emaitza ezagun hau:

Lema 4.15. *Izan bitez G taldea eta w hitza. Demagun $w\{G\}$ finitua dela. Orduan, $w(G)'$ finitua da, eta $w(G)$ finitua da baldin eta soilik baldin w-balio guztiek ordena finitua badute G-n.*

Froga. Izan bedi $g \in G$. Lema 4.3ren arabera, $w\{G\}^g \subseteq w\{G\}$ da, hau da, $x \in w\{G\}$ guztietarako x^G konjokazio klasea $w\{G\}$-n dago. Hortaz,

$$|G : C_G(x)| = \left|x^G\right| \leq |w\{G\}|$$

da, eta $C_G(x)$-k indize finitua du G-n. Horrenbestez, $C_G(w(G)) = \cap_{x\in w\{G\}} C_G(x)$ azpitaldeak indize finitua du G-n, eta, ondorioz, $|w(G) : Z(w(G))|$ ere finitua da. Beraz, Schurren Teoremaren arabera (ikusi [65, Teorema 10.1.4]), $w(G)'$ finitua da.

Azkenik, $w(G)$ finitua bada, exponente finitua eduki behar du. Alderantziz, demagun $w\{G\}$-ko elementuek ordena finitua dutela, orduan $w(G)/w(G)'$ talde abeldarra ordena finituko elementu kopuru finitu batek sortzen du, bereziki, finitua da; eta $w(G)'$ finitua denez emaitza erdiesten dugu. □

Schur motako emaitza hau ere beharko dugu:

Lema 4.16 (cf. [45, Proposizioa 5.1])**.** *Izan bitez G taldea eta N azpitalde normal nilpotentea. Demagun $\frac{NZ(G)}{Z(G)}$ zatidurak exponente finitua duela. Orduan, $[N, G]$ azpitaldeak exponente finitua du.*

Froga. Hall-Petrescuren formularen arabera (ikusi [38, III.9.4]), $m \in \mathbb{N}$ guztietarako

$$x^m y^m = (xy)^m c_2(x,y)^{\binom{m}{2}} \dots c_m(x,y)^{\binom{m}{m}} \tag{4.3}$$

da, non $c_r(x,y) \in \gamma_r(\langle x,y\rangle)$ den.

Izan bedi m zenbakia $\frac{NZ(G)}{Z(G)}$ zatidura taldearen exponentea, orduan (4.3) dela eta, $n \in N$ eta $g \in G$ guztietarako:

$$[n,g]^m \equiv n^{-m}(n[n,g])^m = n^{-m}(n^g)^m = [n^m,g] = 1 \mod \gamma_2(K) \tag{4.4}$$

da, non $K := \langle n,[n,g]\rangle \leq N$ den. Are gehiago, (4.3) eta (4.4) direla eta, $l \in \mathbb{N}$ guztietarako

$$([n_1,g_1]\dots[n_l,g_l])^m \equiv [n_1,g_1]^m \dots [n_l,g_l]^m \equiv 1 \mod \gamma_2(N)$$

da.

Izan bedi $\eta(m)$ zenbakia 2 sortzaileko eta m exponenteko talde nilpotente handienaren ordena†. Nahikoa da $\gamma_2(N)^{\eta(m)} = \{1\}$ dela frogatzea. Horretarako, izan bitez $x,y \in N$ eta $H = \langle x,y\rangle \leq N$. Horrela, $H/Z(H)$ taldea 2 sortzaileko talde nilpotentea denez eta haren exponenteak m zatitzen duenez, finitua da eta $k = |H : Z(H)|$ zenbakiak $\eta(m)$ zatitzen du. Halaber, $\theta\colon H \to Z(H)$, $h \mapsto h^k$ funtzioa H-ren transferra da $Z(H)$-ra (konparatu [65, Teorema 10.1.3]ren frogarekin). Bereziki, θ homomorfismoa da eta $(xy)^k = x^k y^k$ da. Horrela x^k eta y^k elkarrekin trukatzen direnez eta k zenbaki osoak $\eta(m)$ zatitzen duenez,

$$(xy)^{\eta(m)} = x^{\eta(m)}y^{\eta(m)} \ \forall x,y \in N$$

da. Bereziki, $\theta'\colon N \to Z(N)$, $n \mapsto n^{\eta(m)}$ talde homomorfismoa da. Beraz, $\operatorname{im}\theta'$ abeldarra denez, $\gamma_2(N) \leq \ker\theta'$ da, hau da, $\gamma_2(N)^{\eta(m)} = \{1\}$. □

Datozen emaitzek talde aljebraiko linealen teoriako ideiak darabiltzate. Irakurleak [37]ra jo dezake emaitza horien atzeko teorian sakondu nahi badu.

Izan bedi K gorputz aljebraikoki itxia. Testu honetan zehar *talde aljebraiko lineal* bat $\mathrm{GL}_n(K)$-ren $\mathcal{G}$ azpitalde Zariski itxi bat izanen da, eta $\mathcal{G}$-ren *identitate osagaia* identitatearen osagai konexua da.

Proposizioa 4.17 (cf. [37, Proposizioa 7.3])**.** *Izan bedi $\mathcal{G}$ talde aljebraiko lineal konexua.*

(i) *Orduan, $\mathcal{G}^\circ$ indize finituko azpitalde normala da.*

(ii) *Izan bedi, $\mathcal{H} \leq \mathcal{G}$ indize finituko azpitalde itxi konexua, orduan $\mathcal{H} = \mathcal{G}^\circ$ da.*

†Zenbaki hau finitua da, Baerrek [4] frogatu zuenez, talde nilpotenteek Burnsideren problema betetzen dutelako (ikusi [20, Teorema 2.23]).

Matrize bat *unipotentea* da haren autobalio bakarra 1 bada, eta $\mathrm{GL}_n(K)$-ren azpitalde bat *azpitalde unipotentea* da elementu guztiak unipotenteak badira. Talde horien inguruko egiturazko emaitza nagusia talde unipotente oro $U_n(K)$-ren –diagonalean 1ak dituzten matrize goi triangeluarren taldea– azpitalde baten konjokatua dela da (ikusi [37, Korolarioa 17.5]). Bereziki, talde unipotente guztiak nilpotenteak dira, eta oinarriko K gorputza karakteristika positibokoa bada eta $\mathcal{G} \subseteq \mathrm{GL}_n(K)$ talde unipotentea, $\mathcal{G}$-k exponente finitua du, konparatu [38, Kapitulua III, Lema 16.2 eta Teorema 16.5] (nahiz eta erreferentzia gorputz finituetarako izan, argumentuek exponente positiboko gorputzetarako berdin-berdin balio dute).

Bestalde, $\mathcal{G}$ talde aljebraiko lineala emanda, haren *erradikal unipotentea*, $R_u(\mathcal{G})$ izendatuko duguna, $\mathcal{G}$-ko elementu unipotente guztiek osatutako azpitaldea da, edo baliokideki $\mathcal{G}$-ren azpitalde unipotente konexu handiena. Horrela, $R_u(\mathcal{G})$ konexua eta nilpotentea denez, $\mathcal{G}$-ren *erradikal ebazgarrian* dago, hau da, $\mathcal{G}$-ren azpitalde ebazgarri handienaren identitate osagaiaren barruan. Halaber, $\mathcal{G}$ talde aljebraiko lineala *erreduktiboa* dela diogu konexua bada eta $R_u(\mathcal{G})$ tribiala bada.

Eraikuntza horiek guztiak talde aljebraiko linealen teorian garrantzia handikoak dira, haatik soilik definizio nagusiak laburtu eta haien arteko erlazioak enuntziatuko ditugu. Izan ere, honako emaitza teknikoa baino ez dugu behar:

Proposizioa 4.18 (cf. [37, Lema 17.9])**.** *Izan bitez $\mathcal{G}$ talde aljebraiko lineal konexua eta $\mathcal{N}$ haren erradikal ebazgarria. Orduan, $[\mathcal{N},\mathcal{G}]$ unipotentea da.*

Froga. Izan bedi $\mathcal{R}_u(\mathcal{G})$ erradikal unipotentea. Orduan, $\mathcal{G}/\mathcal{R}_u(\mathcal{G})$ erreduktiboa da. Beraz, [37, Lema 17.9]ren arabera, ${}^{\mathcal{N}}/_{\mathcal{R}_u} \subseteq Z\left({}^{\mathcal{G}}/_{\mathcal{R}_u}\right)$ da eta, ondorioz, $[\mathcal{N},\mathcal{G}] \subseteq \mathcal{R}_u(\mathcal{G})$ da. □

Orain atal honetan bila genbiltzan emaitza froga dezakegu:

Teorema 4.19. *Talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko trinkoak hitzez laburrak dira.*

Froga. Izan bitez G talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-analitiko trinkoa eta w hitza. Demagun $w\{G\}$ finitua dela. Lehenik eta behin, Lema 4.15 dela eta, $w(G)'$ finitua da. Ondorioz, behar izanez gero zatidura batera pasata, orokortasunik galdu gabe $w(G)$ finituki sortutako talde abeldarra dela suposa dezakegu.

Korolarioa 4.13ren arabera, existitzen da S talde $\mathbb{F}_p[[t]]$-estandarra non w legea den. Laburtzearren izenda ditzagun $Z = Z(S)$ eta $K = \mathbb{F}_p((t))^{\mathrm{alg}}$, $\mathbb{F}_p((t))$ gorputz lokalaren itxitura aljebraikoa. Proposizioa 2.3gatik, S/Z lineala da $\mathbb{F}_p[[t]]$-ren gainean, eta, ondorioz, lineala da $\mathbb{F}_p((t))$ eta K gorputzen gainean ere. Gainera, Titsen alternatiba topologikoa (loc. cit.) dela eta, S/Z-k azpitalde ebazgarri ireki bat edo azpitalde aske dentso bat du barruan. Baina S/Z taldeak lege bat betetzen duenez, birtualki ebazgarria izan behar da.

Izan bedi $\mathcal{S}$ taldea S/Z-ren Zarizki itxitura $\mathrm{GL}_n(K)$-n, orudan $\mathcal{S}$ birtualki ebazgarria den Proposizioa 3.34ren arabera, eta izan bitez $\mathcal{N}$ $\mathcal{S}$-ren erradikal ebazgarria, hau da, azpitalde ebazgarri konexu handiena eta $\mathbb{N}^\circ$ bere osagai konexua, hau da, $\mathcal{S}$-ren erradikal ebazgarria. Proposizioa 4.17(i) dela eta, $\mathcal{N}$ indize finituko azpitaldea da $\mathcal{S}$-n, beraz, Proposizioa 4.17(ii)ren eraginez, $\mathcal{N}^\circ = \mathcal{S}^\circ$ da.

Izan bedi N/Z taldea S/Z-ren ebakidura $\mathcal{N}^\circ$-rekin, orduan, behar izanez gero muina normalera pasata, N indize finituko azpitalde normala da G-n. Proposizioa 4.18ren arabera, $[\mathcal{N}^\circ, \mathcal{N}^\circ]$ unipotentea da. Bereziki, $[\mathcal{N}^\circ, \mathcal{N}^\circ]$ nilpotentea da eta, K gorputzak karakteristika positiboa duenez, exponente finitua du. Hortaz, $[N,N]Z/Z$ exponente finituko talde nilpotentea da. Horrenbestez, $[N,N]Z$ nilpotentea da eta Lema 4.16ren arabera, $H := [N,N,S]$-k exponente finitua du.

Alde batetik,

$$H = [N,N,S] \geq [N,N,N]$$

da, eta, beraz, G/H birtualki gehienez 2 klaseko talde nilpotentea da. Horrela, $|w\{G/H\}| \leq |w\{G\}|$ denez eta G/H birtualki nilpotentea denez, $w\,(G/H)$ finitua da Turner-Smithen Teoremaren arabera (ikusi [72, Korolarioa 2]).

Beste alde batetik, $w(G) \cap H$ finituki sortutako talde abeldarra da eta exponente finitua du, beraz finitua da. Azkenik,

$$w\left(\frac{G}{H}\right) = \frac{w(G)H}{H} \cong \frac{w(G)}{w(G) \cap H}$$

isomorfismoak ematen du emaitza. □

Korolarioa 4.20. *Izan bedi R bat Krullen dimentsioko pro-p domeinua. Orduan, talde R-analitiko trinkoak hitzez laburrak dira.*

4.3 Laburtasuna talde R-analitiko trinkoetan

Prest gaude emaitza nagusia frogatzeko.

Teorema 4.21. *Talde R-analitiko trinkoak hitzez laburrak dira.*

Froga. Korolarioa 4.20 aintzat hartuta, demagun R pro-p domeinuak gutxienez 2 Krull dimentsioa duela. Izan bitez G talde R-analitiko trinkoa eta w hitz bat k aldagaitan non $w\{G\}$ finitua den. Lema 4.15 dela eta, nahikoa da w-balio guztiek ordena finitua dutela frogatzea.

Lema 1.23ren arabera, existitzen da (S, ϕ) azpitalde R-estandar ireki normala non $g \in G$ guztietarako $c_g \colon S \to S$, $x \mapsto x^g$ konjokazio aplikazioak hertsiki analitikoak diren. Horrela, $n = |G : S|$ bada, $w^n\{G\} \subseteq S$ da eta, Lema 4.15en arabera, $w^n(G)$ finitua da baldin eta soilik baldin $w(G)$ is finitua bada. Hortaz, orokortasunik galdu gabe suposa dezagun $w\{G\} \subseteq S$ dela.

Izan bedi $(P, \mathfrak{m})$ ideal nagusietako pro-p domeinua hau: $P = \mathbb{Z}_p$, $\operatorname{char} R = 0$ denean, eta $P = \mathbb{F}_p[[t]]$, $\operatorname{char} R = p$ positiboa denean. Cohenen Egitura Teoremaren arabera (ikusi Teorema 1.2), R eraztuna $P[[t_1, \ldots, t_m]]$-ren finituki sortutako eraztun hedadura integrala da, $m = \dim_{\mathrm{Krull}}(R) - 1$ izanik. Horrela, $a \in \mathfrak{m}^{(m)}$ bakoitzerako, izan bedi $s_a \colon P[[t_1, \ldots, t_m]] \to P$, $F(t_1, \ldots, t_m) \mapsto F(a)$ ebaluazio homomorfismoa. Korolarioa 2.13k s_a epimorfismoa $\tilde{s}_a \colon R \to Q$ eraztun epimorfismora hedatzen du, non Oharra 2.14ren arabera, $Q = (Q, \mathfrak{n})$ pro-p domeinua P-ren finituki sortutako eraztun hedadura integrala den, bereziki Q-ren Krullen dimentsioa 1 da.

Izan bedi $a \in \mathfrak{m}^{(m)}$, Atala 2.2ko notazioa jarraituz, froga honetan zehar $\mathbf{W}_a$ moduan izendatuko dugu $\mathbf{W}_{\tilde{s}_a} \in Q[[\mathbf{X}]]^{(l)}$ berretura serie formalen tupla, zeinnahi $\mathbf{W} \in R[[\mathbf{X}]]^{(l)}$ berretura serie formalen tuplatarako. Bereziki, $\mathbf{F}$ bada S-ren talde eragiketa formala, orduan $\mathbf{F}_a = \mathbf{F}_{\tilde{s}_a}$ talde eragiketa formala da (ikusi Korolarioa 2.8). Izan bedi T ezker transbertsal bat S-rentzat G-n, eta suposa dezagun $1 \in T$ dela. Hemendik aurrera S-tik eratorritako atlasaz baliatuko gara, hots, $\{(tS, \phi_t)\}_{t \in T}$ non $\phi_t(x) := \phi\left(t^{-1}x\right)$ den (konparatu Atala 1.3).

Lema 2.10 erabilita, definitu $L := \left(\mathfrak{n}^N\right)^{(d)}$ talde Q-estandarra, zeinaren talde eragiketa $\mathbf{F}_a$ talde eragiketa formalak definitzen duen, eta $H := T \times L$ talde Q-analitikoa (2.3)ko eragiketarekin, zeina L-ren gaintaldea balitz bezala ikus daitekeen. Oroitu H-ren egitura Q-analitikoa $\{(tL, \psi_t)\}_{t \in T}$, non $\psi_t(t, l) = l$, atlasak ematen duela.

Atal hau bukatu arte finka dezagun $(t_1, \ldots, t_k) \in T^{(k)}$ tupla, eta demagun, (4.2) dela eta, edozein $l \in \mathbb{N}$ zenbakitarako w^l hitz funtzioa $t_1S \times \cdots \times t_kS$ multzo irekian $\mathbf{W}^l$ berretura serie formalen tuplak emanda dagoela, hau da, $w\{G\} \subseteq S$ dela aintzat hartuta,

$$\phi\left(w^l(x_1, \ldots, x_k)\right) = \mathbf{W}^l\left(\phi_{t_1}(x_1), \ldots, \phi_{t_k}(x_k)\right) \ \forall x_j \in t_jS$$

dugu (notazioa arintzearren explizituki idatziko ez den arren, kontuan eduki $\mathbf{W}^l$ berretura seriea $t_1, \ldots, t_k$ balioen menpekoa ere badela).

Izan bedi $w^l \colon H^{(k)} \to H$ hitz funtzioa $*_a$ eragiketarekin H-n. Lema 2.7 eta Oharra 2.11 direla eta,

$$\psi_1\left(w^l(x_1, \ldots, x_k)\right) = \mathbf{W}_a^l\left(\psi_{t_1}(x_1), \ldots, \psi_{t_k}(x_k)\right) \ \forall x_j \in t_jL$$

da.

Gainera, Proposizioa 4.14ren arabera, $w\{G\}$ finitua denez, S azpitalde marjinala da w-rentzat, hau da, w funtzioa konstantea da $t_1S\times\cdots\times t_kS$ multzo irekian. Hortaz, $w\colon H^{(k)}\to L$ hitz funtzioa konstantea da $t_1'L\times\cdots\times t_k'L$ multzo bakoitzean ($t_j'\in T$), eta $|w\{H\}|\leq |H:L|^k=n^k$ finitua da. Korolarioa 4.20ren arabera, H hitzez laburra da, eta, beraz, existitzen da $\ell_a\in\mathbb{N}$ non $w^{\ell_a}(H)=\{(1,\mathbf{0})\}$ den. Bereziki,

$$\mathbf{W}_a^{\ell_a}(X_1,\ldots,X_{dk})=\mathbf{0} \tag{4.5}$$

da. Definitu $\mathfrak{m}^{(m)}$ espazioaren partiketa hau:

$$\mathfrak{m}_\ell=\left\{a\in\mathfrak{m}^{(m)}\middle|\mathbf{W}_a^\ell=\mathbf{0}\right\},\ \ell\in\mathbb{N}.$$

Horrela, $\mathfrak{m}^{(m)}=\bigcup_{\ell\in\mathbb{N}}\overline{\mathfrak{m}_\ell}$ eta $\mathfrak{m}^{(m)}$ osoa direnez, Baireren Kategoria Teoremaren arabera, existitzen da ℓ' zenbaki osoa non $\overline{\mathfrak{m}_{\ell'}}$ multzoak $V\subseteq_o\mathfrak{m}^{(m)}$ azpimultzo ireki ez-hutsa barruan duen. Halaber, $\mathbf{W}^{\ell'}$ berretura serie formalen tupla konstantea da, hau da,

$$\mathbf{W}^{\ell'}(X_1,\ldots,X_{dk})=(c_1,\ldots,c_d)\in R^{(d)}$$

da, eta $a\in\mathfrak{m}_{\ell'}$ guztietarako

$$(\tilde{s}_a(c_1),\ldots,\tilde{s}_a(c_d))=\mathbf{W}_a^{\ell'}(X_1,\ldots,X_{dk})=\mathbf{0}$$

betetzen da. Hots, $\tilde{s_a}(c_i)=0$ da $a\in\mathfrak{m}_{\ell'}\cap V$ guztietarako. Bestetik, $\mathfrak{m}_{\ell'}\cap V$ dentsoa da V-n, eta Korolarioa 2.15 dela eta, $c_i=0$ da $i\in\{1,\ldots,d\}$ guztietarako. Azkenik, prozedura hau $T^{(k)}$-ko tupla guztietarako errepikatuz, ℓ zenbaki osoa erdiesten dugu non $\phi\left(w^\ell(x_1,\ldots,x_k)\right)=\mathbf{0}$ den $x_i\in G$ guztietarako, alegia $w^\ell(G)=\{1\}$ da. □

Jakina da pro-p talde uniformeki berreturabeteak tortsiogabeak direla (ikusi [24, Teorema 4.5]). Hori dela eta, H talde p-adiko analitiko trinkoa bada, $L\leq H$ azpitalde $\mathbb{Z}_p$-estandar (eta, beraz, uniformeki berreturabete) ireki bat du. Areago, w hitzerako $w\{H\}$ finitua bada, orduan $w(H)$ finitua da. Horrenbestez, $w^{|H:L|}\{H\}$-ko elementuek ordena finitua dute eta aldi berean L talde tortsiogabean daude. Hots, $w^{|H:L|}$ legea da H-n.

Aurrekoa aintzat hartuta, emaitza nagusiaren froga apur bat sinplifika zitekeen R zero karakteristikako pro-p domeinua denean. Izan ere, (4.5) identitatean $\mathbf{W}_a^{|G:S|}=\mathbf{0}$ izanen genuke, zein-nahi $\tilde{s}_a$ ebaluaziotarako, eta, beraz, Baireren Kategoria Teorema erabiltzea ekidin genezakeen. Ohartu, bide batez, horrek frogatuko lukeela w-balioen ordenak $|G:S|$ zatitzen duela.

Talde profinituetan laburtasun nozioa indartu daiteke eta laburtasun gogorra definitu (ikusi [22] eta [23]). Zehazkiago, w hitza $\mathcal{C}$ talde klasean *gogorki laburra* dela diogu $G \in \mathcal{C}$ guztietarako $|w\{G\}| < 2^{\aleph_0}$ izateak $w(G)$ hitzezko azpitaldea finitua dela inplikatzen badu.

Halere, talde R-analitiko trinkoetan laburtasuna eta laburtasun gogorra baliokideak dira.

Lema 4.22 (cf. [22, Proposizioa 2.1])**.** *Izan bedi X espazio topologiko trinkoa eta Y* espazio profinitua*, hau da, espazio topologiko Hausdorff trinko guztiz diskonexua. Demagun $F\colon X \to Y$ funtzio jarraitua ez dela inon konstantea dela, hau da, $U \subseteq_o X$ ireki guztietarako $F|_U$ ez da konstantea. Orduan, $|\operatorname{im} F| \geq 2^{\aleph_0}$ da.*

Froga. Izan bedi $U \subseteq_o X$ multzo itxia eta irekia (e.g. $U = X$). Orduan, $F|_U$ ez denez konstantea, badaude bi azpimultzo $U_1, U_2 \subseteq U$, aldi berean itxiak eta irekiak, non $F(U_1) \cap F(U_2) = \varnothing$ den. Prozedura hau errepikatuz, $\mathbf{x} = (x_n)_{n\geq 1} \in \{1,2\}^{\mathbb{N}}$ segidarako existititzen da

$$U \supseteq U_{x_1} \supseteq U_{x_1,x_2} \supseteq \cdots \supseteq U_{x_1,\ldots,x_n} \supseteq \ldots$$

azpimultzo itxien segida beherakorra. Definitu $U_{\mathbf{x}} := \bigcap_{n\in\mathbb{N}} U_{x_1,\ldots,x_n}$, zeina ezhutsa den, X trinkoa baita. Horrela, $\mathbf{x} \in \{1,2\}^{\mathbb{N}}$ segida bakoitzerako, hautatu $u_{\mathbf{x}} \in U_{\mathbf{x}}$ elementua. Orduan, $F(u_{\mathbf{x}}) \neq F(u_{\mathbf{y}})$ denez, F funtzioa

$$\mathcal{S} := \left\{u_{\mathbf{x}} \mid \mathbf{x} \in \{1,2\}^{\mathbb{N}}\right\}$$

multzoan injektiboa da, eta, beraz, $|F(X)| \geq |F(\mathcal{S})| = 2^{\aleph_0}$ da. □

Proposizioa 4.23. *Izan bitez M eta N barietate R-analitiko trinkoak eta $F\colon M \to N$ funtzio R-analitikoa. Demagun, $|\operatorname{im} F| < 2^{\aleph_0}$ dela, orduan* $\operatorname{im} F$ *finitua da.*

Froga. Izan bitez $m = \dim_x M$ eta $n = \dim_{F(x)} N$. Orduan, F analitikoa denez, $x \in M$ guztietarako existitzen da x puntuaren (U_x, ϕ, m) R-karta erregularra M-n, $F(x)$ puntuaren (V_x, ψ, n) R-karta N-n eta $\mathbf{G} \in R[[X_1, \ldots, X_m]]^{(n)}$ berretura serieen tupla non

$$\psi \circ F \circ \phi^{-1}(y) = \mathbf{G}(y) \ \forall y \in \phi(U_x)$$

den. Horrela, $\phi(U_x) = z + \left(\mathfrak{m}^L\right)^{(m)}$ da $z \in R^{(m)}$ eta $L \in \mathbb{N}$ batzuetarako, bereziki U_x espazio profinitua. Hortaz, $F|_{U_x}\colon U_x \to N$ espazio profinituen arteko funtzio jarraitua da, eta hipotesiz $|F(U_x)| < 2^{\aleph_0}$ betetzen denez, Lema 4.22ren arabera, existitzen da $V \subseteq_o U_x$ irekia non $F|_V$ konstantea den. Horregatik, Lema 1.8 dela eta, $F|_{U_x}$ konstantea da. Trinkotasunagatik $M = \bigcup_{z\in Z} U_z$ da $Z \subseteq M$ azpimultzo finitu baterako, eta, ondorioz, $|\operatorname{im} F| \leq |Z|$ da. □

Bereziki, talde R-analitiko trinko batean $|w\{G\}| < 2^{\aleph_0}$ bada, $w\{G\}$ finitua da. Hori dela eta, kapitulu honetako emaitza nagusia honela berridatz daiteke:

Korolarioa 4.24. *Hitz guztiak gogorki laburrak dira talde R-analitiko trinkoen klasean.*

Orobat, bide batez, zenbait finituki sortutako talde R-analitikotan hitz balioen multzoaren tamainarentzat behe-borne bat erdietsi dugu. Konkretuago, [45, Teorema 1.3]n, autoreek lege bat betetzen duten finituki sortutako talde R-analitiko trinkoak bakartu zituzten, talde p-adiko analitikoak direla frogatu baitzuten.

Korolarioa 4.25. *Izan bitez R pro-p domeinua eta G finituki sortutako talde R-analitiko ez-diskretua. Demagun R-ren Krullen dimentsioa gutxienez 2 dela edo R-ren karakteristika positiboa dela. Orduan, w hitz guztietarako $|w\{G\}| \geq 2^{\aleph_0}$ da.*

Froga. Lema 1.21en arabera, existitzen da $S \leq_o G$ azpitalde R-estandar irekia. Demagun $|w\{G\}| < 2^{\aleph_0}$ dela, orduan $|w\{S\}| < 2^{\aleph_0}$ da, eta S trinkoa denez, Proposizioa 4.12 eta Proposizioa 4.23 direla eta, w legea da S-n. Beraz, [45, Teorema 1.3]ren arabera, S-k aldi berean barietate egitura p-adiko analitikoa eta R-analitikoa onartzen ditu, eta hori kontraesana da Teorema 1.45 (i)ekin. □

4.5 Oharrak

Hitzen eta hitz zabaleraren inguruko material gehigarria Neumann [61] eta Segalen [67] liburuetan topa daiteke. Halaber, P. Hall [33] eta Turner-Smithen [72] jatorrizko artikuluak irakurtzeak ere merezi du, oinarrizko nozioak bertan zehazten baitira. Gainera, laburtasun gogor kontzeptua talde profinituen testuinguruan [22] eta [23] artikuletan ageri da lehenbizikoz. Azkenik, “hitz sendo” terminoa [69]tik hartu da.

Kapitulu honen ekarpen nagusia Teorema 4.21 da, [76]en argitaratua. Halere, Teorema 4.19 hori frogatzeko urrats garrantzitsua da, eta Jaikin-Zapirain eta Klospchen [45] lanean oinarritu gara horretarako.

A

Adoren Teorema ideal nagusietako domeinuetan

Atala 2.1en, Adoren Teorema ospetsuaren aldaera bat behar genuen: Lie aljebra ideal nagusietako domeinu baten gainean definituta dago, eta, aldi berean, adierazpen matrizialaren maila soilik Lie aljebraren heinaren, R-modulu aske gisa, menpekoa izan behar da. Lehenengoa jakina da, [19] edota [74]n frogatzen da eta, baina ez dugu bigarrenerako erreferentzia zehatzik aurkitu. Horregatik, tesiaren osotasuna bermatzeko, apendize honetan teoremaren beharrezko bertsioa frogatuko da, literatura matematikoan gai honen inguruan ageri diren hainbat ideia bilduz.

A.1 Sarrera

Apendize honetan zehar R zero karakteristikako ideal nagusietako domeinu (IND) bat eta K haren zatikien gorputza izanen dira. Halaber, R-aljebra diogunean, besterik zehaztu ezean, ez du zertan identitateduna, elkarkorra edo trukakorra izan.

Gogoratu *R-Lie aljebra* bat, deitu $\mathfrak{L}$, R-modulu bat dela, $[\cdot,\cdot]\colon \mathfrak{L}\times\mathfrak{L}\to\mathfrak{L}$ *Lieren kortxete* batekin batera, hau da, aplikazio R-bilineal antisimetriko bat zeinak *Jacobiren identitatea* betetzen duen:

$$[x,[y,z]] + [y,[z,x]] + [z,[x,y]] = 0,\ \forall x,y,z \in \mathfrak{L}.$$

Lie aljebra homomorfismoak kortxeteak mantentzen dituzten aplikazio linealak dira, hau da, $\phi\colon \mathfrak{L} \to \mathfrak{L}'$ aplikazio linealak non

$$\phi\left([x,y]_{\mathfrak{L}}\right) = [\phi(x),\phi(y)]_{\mathfrak{L}'}\ \forall x,y \in \mathfrak{L}.$$

Aljebra horien adibide nagusia *Lie aljebra konkretuak* dira, hau da, W R-modulu askearen gaineko R-modulu endomorfismoen $\mathrm{End}_R(W)$ taldea

$$[f,g] = f \circ g - g \circ f$$

kortxeatearekin hornituta.

Definizioa A.1. Izan bedi $\mathfrak{L}$ Lie aljebra R-ren gainean. Orduan, $\mathfrak{L}$-ren *Lie aljebra adierazpen* bat

$$\phi\colon \mathfrak{L} \to \mathrm{End}_R(W)$$

R-modulu homomorfismo bat da, W R-modulu aske batentzat, eta ϕ *adierazpen leiala* da ϕ funtzioa injektiboa denean.

Halaber, ϕ-ren *maila*, $\deg\phi$ adieraziko dena, W-ren heina da, eta ϕ *maila finituko adierazpena* edo *adierazpen finitua* dela esanen dugu $\deg\phi$ finitua denean. Baliokideki, $\mathrm{End}_R(W) \cong \mathrm{M}_{\mathrm{rk}\,W}(R)$ denez Lie aljebra gisa (matrizeak $[A,B] = AB - BA$ Lieren kortxetearekin hornituta), r mailako adierazpen leialei r mailako *adierazpen matrizial* ere baderitze.

Gorputzen gainean Lie aljebrak asko aztertu dira, eta Adoren Teoremak horien adierazgarritasunaren berri ematen du:

Teorema A.2 (Ado [2])**.** *Demagun R zero karakteristikako gorputza dela. Izan bedi $\mathfrak{L}$ dimentsio finituko R-Lie aljebra. Orduan, $\mathfrak{L}$-k adierazpen finitu leial bat du.*

Orokorrago, $\mathfrak{L}$-ri R-modulu askea izatea eskaten badiogu, aurreko teorema IND-etara heda daiteke:

Teorema A.3 (Churkin [19]; Weigel [74])**.** *Izan bitez R zero karakteristikako INDa eta $\mathfrak{L}$ heina finituko R-modulu askea den R-Lie aljebra. Orduan, $\mathfrak{L}$-k adierazpen finitu leial bat du.*

Hemendik aurrera [74]ko notazioa jarraituz, *R-Lie erretikulu* bat heina finituko R-modulu askea den R-Lie aljebra bat da. Gorputzen gainean Adoren Teoremaren froga anitz daude (ikusi, esate baterako, [41, Kapitulua VI, 2. Atala]), eta horietako gehienetatik ondorioztatu daiteke eraikitzen den adierazpenaren maila soilik $\dim_K \mathfrak{L}$, aljebraren K-espazio bektorial dimentsioaren, menpekoa dela. Zehatzago esanda, izan bedi

$$\deg \mathfrak{L} := \min\{\deg \phi \mid \phi \ \mathfrak{L}\text{-ren adierazpen leiala da}\},$$

orduan [13] eta [60]ko argudioetan oinarrituta, ikus daiteke R zero karakteristikako gorputza eta $r = \dim_K \mathfrak{L}$ direnean:

$$\deg \mathfrak{L} \leq \alpha \frac{2^r}{\sqrt{r}} \tag{A.1}$$

dela, $\alpha \in \mathbb{R}$ batentzat (ikusi [58, 1.1.2 Atala] froga zehatz baterako). Alabaina, badaude gorputzen gainean $\deg \mathfrak{L}$ aztertzen duten beste hainbat lan ere; aipatu beharrekoak dira [8], [31] edota [63] lanak.

Haatik, R IND orokor bat denean, aipatutako bi frogetatik ez da zuzenean ondorioztatzen $\deg \mathfrak{L}$ zenbaki osoa soilik $\operatorname{rk} \mathfrak{L}$, erretikuluaren heinaren, menpekoa denik. Areago, [74, Proposizioa 3.4]n gerora adierazpenaren maila izanen dena finitua da R eraztun noetherdarra izateagatik ideal segida bat geldikorra delako, baina ezin da zehaztu zenbat idealek osatzen duten segida hori.

Apendize honetan, R-Lie erretikulu baten adierazpen leial bat eraikitzeko modu kuantitatibo bat aurkeztuko dugu, [8] eta [63]ko ideietan oinarrituz. Zehatzago:

Teorema A.4. *Izan bitez R zero karakteristikako INDa eta $\mathfrak{L}$ r heinako R-Lie erretikulua. Orduan,*

$$\deg \mathfrak{L} \leq r + \sqrt{\frac{r+1}{r}4^r}$$

da.

Orobat, aipatu karakteristika positiboko gorputzetarako Adoren Teoremaren parekoa betetzen dela, hori da Iwasawaren Teorema [40] hain zuzen ere. Are gehiago, Teorema A.2ren bertsio orokorrari, koefizienteen gorputzari beste inolako baldintzarik ezarri gabe, Ado-Iwasawaren Teoerema deitzen zaio. Karakteristika positiboan emaitza orokortasun askoz gehiagorekin eman daiteke:

Teorema A.5 (cf. [19, Teorema 3])**.** *Izan bitez R karakteristika positiboko eraztun trukakorra eta $\mathfrak{L}$ heina finituko R-Lie erretikulua. Orduan, existitzen dira W heina finituko R-modulu askea eta $\phi\colon \mathfrak{L} \to \operatorname{End}_R(W)$ R-Lie aljebra monomorfismoa.*

Hori frogatzeko nahikoa da froga originala hitzez hitz errepikatzea, eta, horrenbestez, gorputzen gainean lortzen den borne bera lortzen da R-Lie erretikuluen mailarentzat. Hots,

$$\deg \mathfrak{L} \leq n^{\operatorname{rk}^3 \mathfrak{L}},$$

$n = \operatorname{char} R$ izanik (ikusi [5, Atala 6.2.4]).

Oharrak. Frogetan zehar R-modulu askeen (R INDa izanik) inguruko zenbait propietate erabiliko dira. Honatx gogoratu beharrekoak:

(i) M R-modulu aske baten azpimoduluak askeak dira, eta gehienez $\operatorname{rk}(M)$ heina dute.

Izan bitez M R-modulua eta $N \leq M$ azpimodulua. N-ren *isolatzailea* M-n

$$\operatorname{Iso}_M(N) = \{x \in M \mid \exists r \in R \setminus \{0\} \text{ non } rx \in N\}$$

azpimodulua da, eta N M-n *isolatua* dela diogu $\operatorname{Iso}_M(N) = N$ denean.

(ii) $M/\operatorname{Iso}(N)$ tortsiorik gabeko R-modulua da.

(iii) M R-modulu askea, $N \leq M$ azpimodulu isolatua eta M/N R-modulu finituki sortua badira, M/N R-modulu askea da, eta

$$\operatorname{rk}(M) = \operatorname{rk}(N) + \operatorname{rk}(M/N)$$

da. Kasu honetan, $\operatorname{rk}(M/N)$ zenbakiari N-ren *koheina* deritzogu.

(iv) M heina finituko R-modulu askea eta N azpimodulu isolatua badira, N-k osagarria dauka M-n, hau da, existitzen da L R-modulu askea non $M = N \oplus L$ den.

A.2 Adierazpen adjuntua eta erregularra

Aurkez ditzagun zein-nahi Lie aljebraren bi adierazpen. Alde batetik, $x \in \mathfrak{L}$ elementuak $\operatorname{ad}_x \colon \mathfrak{L} \to \mathfrak{L}$, $y \mapsto [x, y]$ aplikazio lineala definitzen du. Jacobiren identitatea dela eta, esleipen horrek $\mathfrak{L}$-ren $\operatorname{rk} \mathfrak{L}$ mailako *adierazpen adjuntua* definitzen du, hau da,

$$\operatorname{Ad} \colon \mathfrak{L} \to \operatorname{End}_R(\mathfrak{L}), \; x \mapsto \operatorname{ad}_x .$$

Halere, adierazpen hori orohar ez da leila, haren nukleoa $\mathfrak{L}$-ren *zentroa* baita, hau da,

$$Z(\mathfrak{L}) := \{x \in \mathfrak{L} \mid [x, y] = 0 \; \forall y \in \mathfrak{L}\} .$$

Horrenbestez, $\mathfrak{L}$ R-aljebra *semisinplea* bada –hots, ez badu ideal abeldar ez-tribialik–, adierazpen adjuntua leiala da eta $\deg \mathfrak{L} \leq \operatorname{rk} \mathfrak{L}$ da.

Bigarren adierazpena aurkezteko inguratze aljebra unibertsala definitu behar da.

Definizioa A.6 (cf. [41, Kapitulua V, Teorema 1.1])**.** Izan bedi $\mathfrak{L}$ R-Lie aljebra. $\mathfrak{L}$-ren *R-tentsore aljebra*

$$\mathbf{T}_R(\mathfrak{L}) = R \oplus \mathfrak{L}_1 \oplus \mathfrak{L}_2 \oplus \cdots \oplus \mathfrak{L}_i \oplus \dots$$

da, $\mathfrak{L}_i = \mathfrak{L} \otimes \overset{(i)}{\dots} \otimes \mathfrak{L}$ tentsio R-modulua delarik. Horren R-modulu egitura biderketa tentsorialarena da, eta biderketa

$$(x_1 \otimes \cdots \otimes x_i) \otimes (y_1 \otimes \cdots \otimes y_i) = x_1 \otimes \cdots \otimes x_i \otimes y_1 \otimes \cdots \otimes y_i$$

arauak definitzen du. Izan bedi $\mathfrak{R}$

$$[u, v] - (u \otimes v - v \otimes u), \; u, v \in \mathfrak{L}$$

elementuek sortutako $\mathbf{T}_R(\mathfrak{L})$-ren ideala. Orduan, $\mathfrak{L}$-ren *inguratze aljebra unibertsala*

$$\mathcal{U}_R(\mathfrak{L}) := \frac{\mathbf{T}_R(\mathfrak{L})}{\mathfrak{R}}$$

identitatedun R-aljebra elkarkorra da.

Gainera, $\mathfrak{L}$ eta $\mathfrak{L}_1$ elkarrekin identifikatuz gero, $\iota \colon \mathfrak{L} \to \mathcal{U}_R(\mathfrak{L})$ homomorfismoa dugu. Ikus daiteke $\mathfrak{L}$ finituki sortua eta R INDa direnean, ι injektiboa dela (ikusi [74, Teorema 3.2]), eta, beraz, $\mathfrak{L} \subseteq \mathcal{U}_R(\mathfrak{L})$ dela asumi dezakegu. Halaber, notazioa sinplifikatzearren, $x_1 \otimes \cdots \otimes x_k$ elementua $x_1 \dots x_k$ monomioa bezala idatziko dugu. Aljebra unibertsala Poincaré-Birkhoff-Witten teoremak deskribatzen du:

Teorema A.7 (cf. [74, Teorema 3.2])**.** *Izan bitez $\mathfrak{L}$ r heinako R-Lie erretikulua eta $\{x_1, \dots, x_r\}$ haren oinarria. Orduan, $\mathcal{U}_R(\mathfrak{L})$ R-modulu askea da, eta*

$$\{x_1^{\alpha_1} \dots x_r^{\alpha_r} \mid \alpha_i \in \mathbb{N}_0\} \tag{A.2}$$

monomioek oinarri bat osatzen dute.

Bi monomio emanda, haien biderketa (A.2) moduko monomioen konbinazio lineal gisa adieraz daiteke, hurrenez hurren $x_j x_i = x_i x_j - [x_i, x_j]$ identitatea erabiliz indeterminatuak ordenatzeko.

Edozein $\mathfrak{L}$ R-Lie erretikuluk $\mathcal{U}_R(\mathfrak{L})$-ren gainean eragiten du ezker biderketaz. Hots, $x \in \mathfrak{L}$ bakoitzerako $\ell_x\colon \mathcal{U}_R(\mathfrak{L}) \to \mathcal{U}_R(\mathfrak{L})$, $u \mapsto xu$ R-endomorfismoa dugu. Alde batetik, edozein $x, y \in \mathfrak{L}$-tarako

$$[x, y] = xy - yx$$

da $\mathcal{U}_R(\mathfrak{L})$-n eta, beraz, $\mathcal{L}\colon \mathfrak{L} \to \mathrm{End}_R(\mathcal{U}_R(\mathfrak{L}))$, $x \mapsto \ell_x$ R-Lie aljebra homomorfismoa da. Halaber, inguratze aljebra unibertsala identitateduna denez $x \neq y$ denean

$$\ell_x(1) = x \neq y = \ell_y(1)$$

da. Ondorioz, $\mathcal{L}$ adierazpen leiala da, (ezker) *adierazpen erregular* deituko duguna. Alta, $\mathcal{U}_R(\mathfrak{L})$ heina infinitukoa denez, adierazpen hori ez da finitua. Baina inguratze aljebra unibertsala karakterizatzen duen propietate hau dela eta, Lie aljebra adierazpen guztiek $\mathcal{U}_R(\mathfrak{L})$-ren zatidura baten gainean ekiten dute.

Teorema A.8 (Propietate unibertsala, cf. [11, Kapitulua I, § 2.1, Proposizioa 1])**.** *Izan bitez $\mathfrak{L}$ R-Lie erretikulua, A R-aljebra elkarkorra, $[a, b] = ab - ba$ Lieren kortxea ($a, b \in A$ guztietarako) eta $\psi\colon \mathfrak{L} \to (A, [,])$ R-Lie aljebra homomorfismoa. Orduan, existitzen da $\psi^*\colon \mathcal{U}_R(\mathfrak{L}) \to A$ R-aljebra homomorfismo bakarra non $\psi = \psi^* \circ \iota$ den. Alegia, diagrama hau trukakorra da:*



Hain zuzen ere, propietate unibertsal hori da $\mathcal{U}_R(\mathfrak{L})$-ren izenaren arrazoia. Are gehiago, froga daiteke propietate unibertsala betetzen duen edozein R-aljebra $\mathcal{U}_R(\mathfrak{L})$-ri isomorfoa dela (ikusi [41, Kapitulua V, Teorema 1.1.1]).

A.3 Adoren Teorema

Adoren Teorema frogatzeko askotan $\mathfrak{L}$ R-Lie erretikulutik $\mathfrak{L}_K := \mathfrak{L} \otimes_R K$ K-espazio bektorialera pasako gara. Ohartu $\mathfrak{L}_K$ K-aljebra bat dela eta haren Lieren kortxetea $\mathfrak{L}$-ren Lieren kortxeteak tentsorizatuz induzituriko K-aplikazio lineala dela. Kontuan hartu berehalako propietate hauek:

- $\mathfrak{L}_K$ espazio bektorialak $\mathrm{rk}\,\mathfrak{L}$ dimentsioa du,

- $\mathfrak{L} = \langle x_1, \dots, x_r \rangle_R$ bada, orduan $\mathfrak{L}_K = \langle x_1, \dots, x_r \rangle_K$ da eta
- $\mathfrak{I} \trianglelefteq \mathfrak{L}_K$ ideal guztietarako, $\mathfrak{I} \cap \mathfrak{L} \trianglelefteq \mathfrak{L}$ ideal isolatua da.

Teorema hiru urratsetan frogatuko dugu.

A.3.1 Lieren erretikulu nilpotenteak

Lehenik eta behin, demagun $\mathfrak{L}$ r heinako R-Lie erretikulu nilpotentea dela. Gogoratu, $\mathfrak{L}$ Lie erretikuluaren *serie zentral beherakorra* errekurtsiboki

$$\gamma_1(\mathfrak{L}) = \mathfrak{L},\ \gamma_i(\mathfrak{L}) = [\gamma_{i-1}(\mathfrak{L}), \mathfrak{L}]\ \forall i \geq 2$$

moduan definitzen dela, eta $\mathfrak{L}$ nilpotentea dela existitzen bada $\gamma_{c+1}(\mathfrak{L}) = \{0\}$ betetzen duen $c \in \mathbb{N}$ zenbaki osoa. Zenbaki oso horietan txikienari, existituz gero, R-Lie erretikuluaren *nilpotentzia klasea* deritzo. Biderketa tentsoriala lineala denez, erraz ikus daiteke honako emaitza hau:

Lema A.9. *Izan bitez $\mathfrak{L}$ R-Lie erretikulua eta $\mathfrak{I}, \mathfrak{H} \trianglelefteq \mathfrak{L}$ idealak. Orduan,*

$$[\mathfrak{I} \otimes_R K, \mathfrak{H} \otimes_R K] = [\mathfrak{I}, \mathfrak{H}] \otimes_R K$$

da. Beraz, $\mathfrak{L}$ c klaseko R-Lie erretikulu nilpotentea bada, $\mathfrak{L}_K$ c klaseko K-Lie aljebra nilpotentea da.

Orduan,

$$\gamma_0(\mathfrak{L}_K) > \gamma_1(\mathfrak{L}_K) > \cdots > \gamma_i(\mathfrak{L}_K) > \cdots > \gamma_{c+1}(\mathfrak{L}_K) = \{0\}$$

K-espazio bektorialen segida hertsiki beherakorra denez, $c \leq \dim \mathfrak{L}_K = r$ da. Definitu $\mathfrak{L}_i = \gamma_i(\mathfrak{L}_K) \cap \mathfrak{L} \trianglelefteq \mathfrak{L}$ ideal isolatuak, eta hartu $\mathfrak{L}$-ren $\{x_1, \dots, x_r\}$ oinarria non lehenengo $x_1, \dots, x_{r_1}$ elementuak $\mathfrak{L}_c$-ren oinarria diren, lehenengo $x_1, \dots, x_{r_2}$ ($r_2 > r_1$) elementuak $\mathfrak{L}_{c-1}$-en oinarria diren, eta horrela hurrenez hurren. Teorema A.7ren arabera,

$$\mathbf{x}^\alpha := x_1^{\alpha_1} \dots x_r^{\alpha_r},\ \alpha = (\alpha_1, \dots, \alpha_r) \in \mathbb{N}_0^{(r)}$$

monomioek $\mathcal{U}_R(\mathfrak{L})$ inguratze aljebra unibertsalaren oinarria osatzen dute. Hori kontuan hartuta defini dezagun $\omega\colon \mathcal{U}_R(\mathfrak{L}) \to \mathbb{N}_0 \cup \{\infty\}$ *pisu funtzioa* ondoko moduan:

$$\omega(x_i) = \max\{m \mid x_i \in \mathfrak{L}_m\} \qquad\qquad \omega(\mathbf{x}^\alpha) = \textstyle\sum_{i=1}^r \alpha_i \omega(x_i)$$

$$\omega\left(\textstyle\sum_{i=1}^r c_\alpha \mathbf{x}^\alpha\right) = \min\left\{\omega(\mathbf{x}^\alpha) \mid c_\alpha \neq 0\right\} \qquad \text{eta } \omega(0) = \infty.$$

Edozein $m \in \mathbb{N}_0$-tarako definitu

$$\mathfrak{U}^m(\mathfrak{L}) := \{u \in \mathcal{U}_R(\mathfrak{L}) \mid \omega(u) > m\}$$

–$\mathfrak{L}$ erretikulua zein den garbi dagoenean, $\mathfrak{U}^m$ baino ez dugu idatziko–. Ikus dezagun $\mathfrak{U}^m \trianglelefteq \mathcal{U}_R(\mathfrak{L})$ ideal isolatua dela:

(i) Ohartu $0 \in \mathfrak{U}^m$ dela m guztietarako, eta

$$\omega(rx) = \omega(x) \text{ eta } \omega(x+y) \geq \min\{w(x), w(y)\}$$

direla $x, y \in \mathcal{U}_R(\mathfrak{L})$ eta $r \in R \setminus \{0\}$ guztietarako. Gainera, $\omega([x_i, x_j]) \geq \omega(x_i) + \omega(x_j)$ denez (edozein $i, j \in \{1, \ldots, r\}$-tarako),

$$\omega(xy) \geq \omega(x) + \omega(y) \tag{A.3}$$

da. Ondorioz, $\mathfrak{U}^m$ ideala da.

(ii) Izan bedi $r \in R \setminus \{0\}$, orduan

$$rx \in \mathfrak{U}^m \implies \omega(x) = \omega(rx) > m \implies x \in \mathfrak{U}^m,$$

hau da, $\mathfrak{U}^m$ ideal isolatua da.

Bestalde, $\mathcal{U}_R(\mathfrak{L})/\mathfrak{U}^m$ finituki sortua da,

$$\mathcal{B}_m = \{\mathbf{x}^\alpha + \mathfrak{U}^m \mid \omega(\mathbf{x}^\alpha) \leq m\}$$

multzoak sortzen baitu. Hortaz, $\mathfrak{U}^m$ koheina finituko R-modulu aske isolatua da, eta, (A.3)ren arabera, $x \in \mathfrak{L}$ guztietarako $\ell_x(\mathfrak{U}^m) \subseteq \mathfrak{U}^m$ da. Beraz, edozein m-tarako ezker adierazpen erregularrak

$$\mathcal{L}_m \colon \mathfrak{L} \to \mathrm{End}_R\left({}^{\mathcal{U}_R(\mathfrak{L})}/_{\mathfrak{U}^m}\right), \; x \mapsto \ell_x$$

adierazpen finitua ematen du –izan bedi $f \in \mathrm{End}_R(\mathcal{U}_R(\mathfrak{L}))$ non $f(\mathfrak{X}) \subseteq \mathfrak{X}$ den $\mathfrak{X} \trianglelefteq \mathcal{U}_R(\mathfrak{L})$ ideal baterako, notazio abusu batekin, berriro f erabiliko da $x + \mathfrak{X} \mapsto f(x) + \mathfrak{X}$ moduan definituriko $f \in \mathrm{End}_R(\mathcal{U}_R(\mathfrak{L})/\mathfrak{X})$ endomorfismoa izendatzeko–.

Bestetik, $\mathfrak{L} \cap \mathfrak{U}^c(\mathfrak{L}) = \{0\}$ da. Izan ere, $x = \sum_{i=1}^r \alpha_i x_i$ bada,

$$\omega(x) = \omega\left(\sum_{i=1}^r \alpha_i x_i\right) \leq \max_{i=1,\ldots,r} \omega(x_i) = c$$

da.

Hori dela eta, $\mathcal{L}_c$ $\mathfrak{L}$-ren adierazpen leial finitua da, eta horren maila bornatzeko, nahikoa da $|\mathcal{B}_c|$ goitik bornatzea. Alde batetik, $\mathcal{B}_c$-n dauden monomio guztiek gehienez c pisua dute, eta, beraz, gehienez c polinomio maila. Bestetik, r aldagaitan gehienez c mailako monomio kopurua $r+1$ aldagaitan c mailako monomio kopurua da (aldagai laguntzaile bat gehituz homogeneizatu monomio guztiak zehatz-mehatz c maila izan dezaten).

Lema A.10. *r aldagaitan c mailako monomio kopurua $\binom{r+c-1}{c}$ da.*

Beraz, borne laño hau dugu (konparatu [31, Korolarioa 5.1]):

$$\deg \mathfrak{L} \leq \operatorname{rk}\left(\frac{\mathcal{U}_R(\mathfrak{L})}{\mathfrak{U}^c(\mathfrak{L})}\right) \leq \binom{r+c}{c}.$$

Atal hau bukatzeko $\deg \mathfrak{L}$-ren borne ez oso zorrotz bat emanen dugu, baina soilik $\operatorname{rk} \mathfrak{L}$-ren menpe. Izan ere, $c \in \{1, \ldots, r\}$ da, hau da, $c = \alpha r$ da $\alpha \in \{1/r, \ldots, r-1/r, 1\}$ izanik. Bestetik, Stirlingen hurbilketa formularen arabera,

$$\sqrt{2\pi r}\,(r/e)^r \leq r! \leq \sqrt{2\pi r}\,(r/e)^r\, e^{\frac{1}{12r}} \ \forall r \in \mathbb{N}.$$

da. Ondorioz,

$$\begin{aligned}\binom{r+\alpha r}{\alpha r} &\leq \frac{\sqrt{2\pi(r+\alpha r)}(r+\alpha r)^{r+\alpha r}}{\sqrt{2\pi\alpha r}(\alpha r)^{\alpha r}\sqrt{2\pi r}\ r^r} e^{\frac{1}{12(1+\alpha)r}} \\ &\leq \frac{e^{1/12(1+\alpha)r}}{\sqrt{2\pi r}} \frac{\sqrt{1+\alpha}}{\sqrt{\alpha}} \left(\frac{(1+\alpha)^{1+\alpha}}{\alpha^\alpha}\right)^r.\end{aligned}$$

Gainera, bi ezberdintzetan ezkerreko eta eskuineko terminoak asintotikoki baliokideak dira, hau da, haien zatidura 1era doa r infinitura joan ahala. Halaber, $\alpha \in [1/r, 1]$ denez,

$$\frac{\sqrt{1+\alpha}}{\sqrt{\alpha}} \leq \sqrt{r+1} \text{ eta } \frac{(1+\alpha)^{1+\alpha}}{\alpha^\alpha} \leq 4$$

dira. Hots,

$$\frac{e^{1/12(1+\alpha)r}}{\sqrt{2\pi}}\frac{1}{\sqrt{r}}\frac{\sqrt{1+\alpha}}{\sqrt{\alpha}}\left(\frac{(1+\alpha)^{1+\alpha}}{\alpha^{\alpha}}\right)^{r}\leq\sqrt{\frac{r+1}{r}}4^{r}.$$

Horrenbestez,

$$\binom{r+c}{c}\leq\sqrt{\frac{r+1}{r}}4^{r}\quad\forall c\in\{1,\ldots,r\}.\tag{A.4}$$

A.3.2 Lieren erretikulu banangarriak

Bigarren urratsean R-Lie aljebra adierazpen egoki bat emanen dugu R-Lie erretikulu banangarri deituko ditugunetarako.

Ideal nilpotenteen batura berriro ideal nilpotentea da (konparatu [41, Kapitulua I, Proposizioa 7.6]), beraz, finituki sortutako $\mathfrak{L}$ R-Lie aljebra guztiek badute ideal nilpotente oro barruan duen ideal nilpotente bat, $\mathfrak{L}$-ren *erradikal nilpotente* deituko duguna eta $R_n(\mathfrak{L})$ adieraziko dena. Bereziki, $Z(\mathfrak{L})\leq R_n(\mathfrak{L})$ da, eta $R_n(\mathfrak{L})$ ideal isolatua da, $R_n(\mathfrak{L})=R_n(\mathfrak{L}_K)\cap\mathfrak{L}$ da eta.

Horrela, $\mathfrak{L}$ heina finituko R-Lie erretikulua *banangarria* dela diogu, existitzen bada $\mathfrak{S}\leq\mathfrak{L}$ R-Lie azpialjebra bat non $\mathfrak{L}=R_n(\mathfrak{L})\oplus\mathfrak{S}$ den, hau da, $\mathfrak{L}$ Lie aljebra $\mathfrak{S}$-ren biderketa erdizuzena da $R_n(\mathfrak{L})$ idealarekin. Kategoria teoriaren ikuspegitik baliokidea da esatea

$$0\to R_n(\mathfrak{L})\to\mathfrak{L}\to\mathfrak{L}/R_n(\mathfrak{L})\to 0$$

segida zehatz laburra banatu egiten dela R-Lie aljebren kategorian.

Kasu banangarrirako, aurreko adierazpen erregularra eta deribazioetatik eratorritako adierazpenak konbina daitezke:

Definizioa A.11. Izan bedi A R-aljebra. Orduan, $D\in\mathrm{End}_R(A)$ R-modulu endomorfimoa *deribazioa* da *Leibnizen identitatea* betetzen badu, hau da,

$$D(ab)=aD(b)+D(a)b\ \forall a,b\in A.$$

Deribazio guztien multzoa $\mathrm{Der}_R(A)$ izendatzen da.

Esate baterako, Jacobiren identitatearen eraginez, edozein $x\in\mathfrak{L}$-tarako $\mathrm{ad}_x\in\mathrm{Der}_R(\mathfrak{L})$ da. Bestalde, $\mathfrak{L}$ R-Lie erretikuluaren D deribaziotik abiatuta $\mathcal{U}_R(\mathfrak{L})$-ren deribazio bat eraiki daiteke, D^* deituko duguna, Leibnizen identitatea betetzea inposatuz. Hots,

$$D^*(u_1 \dots u_t) = \sum_{i=1}^{t} u_1 \dots u_{i-1} D(u_i) u_{i+1} \dots u_t$$

arauaren hedapen lineala hartu eta $D^*(1) = 0$ definitu (identitatedun aljebra guztietarako bete behar baitu azken horrek). Hedadura hori propietate unibertsalaren kasu partikularra baino ez da (konparatu [41, Kapitulua V, Teorema 1.1(7)]).

Lema A.12. *Izan bitez $\mathfrak{L}$ R-Lie erretikulu nilpotentea eta $D \in \mathrm{Der}_R(\mathfrak{L})$. Orduan, $D^*(\mathfrak{U}^m(\mathfrak{L})) \subseteq \mathfrak{U}^m(\mathfrak{L})$ da $m \in \mathbb{N}$ guztietarako.*

Froga. Demagun ω pisu funtzioa $\mathfrak{L}$-ren $\{x_1, \dots, x_r\}$ R-oinarriarekiko definitu dela (konparatu Azpiatala A.3.1). Orduan, D R-Lie aljebra homomorfismoa denez, $D(\mathfrak{L}_i) \subseteq \mathfrak{L}_i$ da $i \in \{1, \dots, c\}$ guztietarako, eta, beraz, $\omega(D(x_i)) \geq \omega(x_i)$ da $i \in \{1, \dots, r\}$ guztietarako, hau da, oinarriko elementu guztietarako. Horrenbestez, $x_{i_1} \dots x_{i_t} \in \mathfrak{U}^m$ bada, (A.3) dela eta,

$$\omega\left(D^*(x_{i_1} \dots x_{i_t})\right) = \min_{j=1,\dots,t} \{\omega(x_{i_1} \dots D(x_j) \dots x_{i_t})\} \geq \omega(x_{i_1} \dots x_{i_t}) > m. \quad \square$$

Teorema A.13 (Zassenhaussen hedapena, cf. [11, Kapitulua I, § 7.3, Teorema 1] eta [41, Kapitulua VI, Teorema 2.1])**.** *Izan bedi $\mathfrak{L}$ R-Lie erretikulu banangarria eta izan bedi c zenbaki osoa $R_n(\mathfrak{L})$-ren nilpotentzia klasea. Orduan, existitzen da $\mathfrak{L}$-ren*

$$\Phi \colon \mathfrak{L} \to \mathrm{End}_R\left(\frac{\mathcal{U}_R(R_n(\mathfrak{L}))}{\mathfrak{U}^c(R_n(\mathfrak{L}))}\right)$$

adierazpena zeina injektiboa den $R_n(\mathfrak{L})$-n. Bereziki, $\deg \Phi$ *soilik* $\mathrm{rk}\, R_n(\mathfrak{L})$*-ren menpekoa da.*

Froga. Izendatu $\mathfrak{N} := R_n(\mathfrak{L})$. Orduan, $\mathfrak{L} = \mathfrak{N} \oplus \mathfrak{S}$ da, $\mathfrak{S} \leq \mathfrak{L}$ R-Lie azpialjebra baterako, eta Lema A.12 dela eta, $\mathrm{ad}_x^*\left(\mathfrak{U}^c(\mathfrak{N})\right) \subseteq \mathfrak{U}^c(\mathfrak{N})$ da $x \in \mathfrak{L}$ guztietarako. Hortaz, definitu

$$\Phi \colon \mathfrak{L} = \mathfrak{N} \oplus \mathfrak{S} \to \mathrm{End}_R\left({}^{\mathcal{U}_R(\mathfrak{N})}/{}_{\mathfrak{U}^c(\mathfrak{N})}\right), \; n + s \mapsto \ell_n + \mathrm{ad}_s^* .$$

funtzioa. Ikus dezagun Φ R-Lie aljebra homomorfismoa dela. Horretarako nahikoa da

$$\Phi\left([s, n]\right) = [\Phi(s), \Phi(n)] = [\mathrm{ad}_s^*, \ell_n]$$

dela ikustea $n \in \mathfrak{N}$ eta $s \in \mathfrak{S}$ guztietarako. Alde batetik, ohartu $n \in \mathfrak{N}$ eta $D \in \mathrm{Der}_R\left(\mathcal{U}_R(\mathfrak{N})\right)$ guztietarako

$$[D, \ell_n](u) = D \circ \ell_n(u) - \ell_n \circ D(u) = D(n)u = \ell_{D(n)}(u) \ \forall u \in \mathfrak{N}$$

dela. Bestalde, $\mathfrak{N}$ ideala denez, $[s, n] \in \mathfrak{N}$ da, eta, horrenbestez,

$$\Phi\left([s, n]\right) = \ell_{[s,n]} = \ell_{\mathrm{ad}_s^*(n)} = [\mathrm{ad}_s^*, \ell_n] = [\Phi(s), \Phi(n)] \,.$$

Beraz, Φ R-Lie aljebra adierazpena da, eta haren nukleoak ebakidura tribiala du erradikal nilpotentearekin, $\Phi|_{\mathfrak{N}} = \mathcal{L}_c$ eta $\mathcal{L}_c$ adierazpen leiala baitira.

Bukatzeko, identitatea (A.4)ren arabera,

$$\deg \Phi \leq \sqrt{\frac{\mathrm{rk}\, R_n(\mathfrak{L}) + 1}{\mathrm{rk}\, R_n(\mathfrak{L})}} \cdot 4^{\mathrm{rk}\, R_n(\mathfrak{L})} \tag{A.5}$$

da. □

A.3.3 Murgilketa teorema

Nilpotentzia bezala, R-Lie aljebretan ebazgarritasuna defini daiteke: $\mathfrak{L}$ R-Lie aljebraren *serie deribatua* errekurtsiboki

$$\mathfrak{L}^{(1)} := \mathfrak{L},\ \mathfrak{L}^{(i)} := \left[\mathfrak{L}^{(i-1)}, \mathfrak{L}^{(i-1)}\right] \ \forall i \geq 2$$

moduan definitzen da, eta $\mathfrak{L}$ *ebazgarria* da existitzen bada $\ell \in \mathbb{N}$ zenbaki osoa non $\mathfrak{L}^{(\ell)} = \{0\}$ den. Hori betetzen duten zenbaki osoetan txikiena da, hain zuzen ere, $\mathfrak{L}$-ren *deribazio luzera*. Are gehiago, ideal ebazgarrien batura berriro ere ebazgarria da (konparatu [41, Kapitulua I, Proposizioa 7.4]), eta, horrenbestez, finituki sortutako $\mathfrak{L}$ Lie aljebraren *erradikal ebazgarria* defini daiteke, hau da, beste ideal ebazgarri oro barruan duen $R_s(\mathfrak{L})$ ideal ebazgarria. Noski, aljebra nilpotente guztiak ebazgarriak dira eta, ondorioz, $R_n(\mathfrak{L}) \leq R_s(\mathfrak{L})$ da.

Leviren Teoremaren arabera (ikusi [41, Kapitulua III, Atala 9]), R zero karakteristikako gorputza denean, $\mathfrak{L}$ R-Lie aljebra oro $R_s(\mathfrak{L}) \oplus \mathfrak{S}$ moduan deskonposatzen da, $\mathfrak{S} \leq \mathfrak{L}$ R-Lie azpialjebra semisinple bat delarik, *Leviren osagarri* deitua. Eskuarki deskonposizio horrek garrantzia handia du gorputzen gainean Adoren Teorema frogatzerakoan. Izan ere, lehenbiziko $R_s(\mathfrak{L})$-ren adierazpen leial finitu bat eraiki ohi da, eta ondotik adierazpen hori $\mathfrak{L}$-ra hedatu, Zassenhaussen hedapenaren bidez (konparatu Teorema A.13).

Aitzitik, R-Lie aljebra orokorretan Leviren Teorema ez da beti betetzen. Adibidez, hartu $\mathfrak{sl}_2(2\mathbb{Z}) \oplus \mathfrak{t}_2(2\mathbb{Z})$ $\mathbb{Z}$-Lie aljebra, hau da, $2\mathbb{Z}$ eraztunaren gainean 2×2 tamainako eta 0 aztarnako matrizeen eta 2×2 tamainako matrize goi triangeluarren aljebren arteko batura zuzena, ez da bilatutako moduan deskonposatzen (ikusi [19, 838. orriko adibidea]).

Hirugarren eta azken urrats honetan teorema orokorra frogatuko dugu. Horretarako, hasierako $\mathfrak{L}$ R-Lie erretikulua R-Lie erretikulu banangarri batean murgilduko dugu, eta ondoren aurreko azpiatala aplikatu. Azken batean, problema emaitza honetara murrizten da:

Proposizioa A.14 (cf. [19, Teorema 2ren frogako 2. urratsa])**.** *Izan bedi $\mathfrak{L}$ R-Lie erretikulua. Demagun $\mathfrak{L}_K$ K-Lie aljebra banangarri batean murgiltzen dela. Orduan, $\mathfrak{L}$ R-Lie erretikulu banangarri batean, deitu $\bar{\mathfrak{L}}$, murgiltzen da, eta*

(i) $R_n(\mathfrak{L}) \leq R_n(\bar{\mathfrak{L}})$ *eta*

(ii) $\operatorname{rk} R_n(\mathfrak{L}) = \operatorname{rk} R_n(\bar{\mathfrak{L}})$

dira.

Froga. Demagun $\mathfrak{L}_K$ K-Lie aljebra $\mathfrak{L}'_K = \mathfrak{N}'_K \oplus \mathfrak{S}'_K$ erretikulu banangarrian murgiltzen dela, non $\mathfrak{N}'_K = R_n(\mathfrak{L}'_K)$ den. Ohartu bide batez $R_n(\mathfrak{L}) \subseteq R_n(\mathfrak{L}_K) \subseteq R_n(\mathfrak{L}'_K)$ dela.

Izan bedi $\mathfrak{S}$ $\mathfrak{L}$-ren proiekzioa $\mathfrak{S}'_K$-ra, hau da,

$$\mathfrak{S} = \{s \in \mathfrak{S}'_K \mid \exists\, x \in \mathfrak{L} \text{ non } x = n + s \text{ den } n \in \mathfrak{N}'_K \text{ baterako}\}\,.$$

Erraz frogatzen da $\mathfrak{S}$ R-Lie aljebra dela. Izan ere, izan bitez $x_1 = n_1 + s_1$ eta $x_2 = n_2 + s_2 \in \mathfrak{L}$, non $n_i \in \mathfrak{N}'_K$ eta $s_i \in \mathfrak{S}'_K$ ($i \in \{1, 2\}$). Orduan,

$$[x_1, x_2] = [n_1, x_2] + [s_1, n_2] + [s_1, s_2] \tag{A.6}$$

da, eta $[x_1, x_2] \in \mathfrak{L}$, $[n_1, x_2] + [s_1, n_2] \in \mathfrak{N}'_K$ eta $[s_1, s_2] \in \mathfrak{S}'_K$ dira. Hori dela eta, $\mathfrak{S}$ finituki sortua denez, existitzen da $\lambda \in R \setminus \{0\}$ non $\lambda\mathfrak{S} \subseteq \mathfrak{L}$ den.

Izan bitez $s = \operatorname{rk} R_n(\mathfrak{L})$ eta c $\mathfrak{N}'_K$-ren nilpotencia klasea. Definitu $\mathfrak{N}_i := \gamma_i(\mathfrak{N}'_K) \cap \mathfrak{L} \trianglelefteq \mathfrak{L}$, $i \in \{1, \ldots, c\}$, ideal isolatuak. Horrela, $\mathfrak{N}_i \trianglelefteq \mathfrak{N}_1 = R_n(\mathfrak{L})$ da; eta, beraz, $R_n(\mathfrak{L})$-ren $\{x_1, \ldots, x_s\}$ R-oinarri bat aukera dezakegu non lehenengo s_1 elementuak $\mathfrak{N}_c$-ren oinarria diren, lehenengo s_2 elementuak ($s_2 \geq s_1$) $\mathfrak{N}_{c-1}$-en oinarria diren, etab.

Definitu orain

$$\mathfrak{N} := \bigoplus_{i=1}^{c} \frac{1}{\lambda^i}\mathfrak{N}_i \subseteq R_n(\mathfrak{L}_K)$$

R-modulua. Orduan, $\mathfrak{N}$ s heinako R-modulu askea da,

$$\left\{ \frac{1}{\lambda^i} x_j \mid 1 \leq i \leq c,\ s_{c-i} \leq j \leq s_{c-i+1} \right\}$$

oinarria baitu (hemen $s_0 = 1$ eta $s_c = s$ dira). Gainera,

$$\left[\frac{1}{\lambda^i}\mathfrak{N}_i, \frac{1}{\lambda^j}\mathfrak{N}_j \right] = \frac{1}{\lambda^{i+j}} \left[\mathfrak{N}_i, \mathfrak{N}_j\right] \leq \frac{1}{\lambda^{i+j}}\mathfrak{N}_{i+j}$$

denez, $\mathfrak{N}$ R-Lie erretikulu nilpotentea da.

Hartu, hondarrik, $\bar{\mathfrak{L}} := \mathfrak{N} \rtimes \mathfrak{S}$. Ikus dezagun $\bar{\mathfrak{L}}$ R-Lie erretikulua dela, eta $\mathfrak{L}$ barruan duela. Alde batetik, $\mathfrak{S} = \mathfrak{L} + {}^1\!/\!_\lambda \mathfrak{N}_1$ da eta, ondorioz, $\mathfrak{L} \subseteq \bar{\mathfrak{L}}$ da. Gainera,

$$\begin{aligned} \left[\frac{1}{\lambda^i}\mathfrak{N}_i, \mathfrak{S} \right] &\leq \left[\frac{1}{\lambda^i}\mathfrak{N}_i, \mathfrak{L} + \frac{1}{\lambda}\mathfrak{N}_1 \right] \leq \frac{1}{\lambda^i}\left[\mathfrak{N}_i, \mathfrak{L}\right] + \frac{1}{\lambda^{i+1}}\left[\mathfrak{N}_i, \mathfrak{N}_1\right] \\ &\leq \frac{1}{\lambda^i}\mathfrak{N}_i + \frac{1}{\lambda^{i+1}}\mathfrak{N}_{i+1} \leq \mathfrak{N} \end{aligned}$$

da $i \in \{1, \ldots, c\}$ guztietarako. Beraz, $\bar{\mathfrak{L}}$ R-Lie erretikulua da. Azkenik, $\bar{\mathfrak{L}}$-ren erradikal nilpotentea $\mathfrak{N}$ da, eta, horrenbestez, $R_n(\mathfrak{L}) \leq R_n(\bar{\mathfrak{L}})$, $\operatorname{rk} R_n(\bar{\mathfrak{L}}) = \operatorname{rk} R_n(\mathfrak{L}) = s$ eta eraikuntzaz $\bar{\mathfrak{L}}$ banangarria da. □

Orobat, Leviren Teoremaren arabera, R zero karakteristikako gorputza denean $\mathfrak{L}$ R-Lie aljebra banangarria da $R_n(\mathfrak{L}) = R_s(\mathfrak{L})$ bada. Ideal nagusietako domeinuen gainean, ordea, egoera ez dago argi. Halere, $\mathfrak{L}$ R-Lie erretikulu banangarri batean murgildu daiteke, alegia:

Korolarioa A.15. *Izan bedi $\mathfrak{L}$ R-Lie erretikulua eta demagun $R_n(\mathfrak{L}) = R_s(\mathfrak{L})$ dela. Orduan, existitzen da $\mathfrak{L}$ hedatzen duen R-Lie erretikulu banangarri bat, deitu $\bar{\mathfrak{L}}$, non $R_n(\mathfrak{L}) \leq R_n(\bar{\mathfrak{L}})$ eta $\operatorname{rk} R_n(\mathfrak{L}) = \operatorname{rk} R_n(\bar{\mathfrak{L}})$ diren.*

Froga. Leviren Teoremaren arabera, $R_n(\mathfrak{L}_K) = R_s(\mathfrak{L}_K)$ denez, $\mathfrak{L}_K$ banangarria da. □

Azkenik, bila genbiltzan murgilketa teorema dugu, Neretinek frogatu zuena [60] (hurrengo frogak Lieren aljebrako emaitza sakonak darabiltza, eta hemen gainetik aipatu baino ez ditugu eginen).

Teorema A.16 (Murgilketa Teorema, cf. [60]). *Izan bedi $\mathfrak{L}$ R-Lie erretikulua. Existitzen da $\bar{\mathfrak{L}}$ R-Lie erretikulua $\mathfrak{L}$ hedatuz non $R_n(\mathfrak{L}) \leq R_n(\bar{\mathfrak{L}})$ eta* $\operatorname{rk} R_n(\bar{\mathfrak{L}}) = \operatorname{rk} R_s(\mathfrak{L})$ *diren.*

Froga. Proposizioa A.14 kontuan hartuta, nahikoa da $\mathfrak{L}_K$ hedatzen duen $\mathfrak{L}'_K$ K-Lie algebra banangarria eraikitzea $\dim_K R_n(\mathfrak{L}'_K) = \operatorname{rk} R_s(\mathfrak{L})$ izanik.

Demagun $R_n(\mathfrak{L}) = \langle x_1, \ldots, x_s \rangle_R$ dela eta izan bedi $\mathfrak{S}_K = \langle z_1, \ldots, z_l \rangle_K$ $\mathfrak{L}_K$-ren Leviren faktore bat. Orduan, badaude $y_1, \ldots, y_k \in R_s(\mathfrak{L}_K)$ elementu batzuk, $k = \operatorname{rk} R_s(\mathfrak{L}) - s$, non

$$\mathfrak{L}_K = Kx_1 \oplus \cdots \oplus Kx_s \oplus Kz_1 \oplus \cdots \oplus Kz_l \oplus Ky_1 \oplus \cdots \oplus Ky_k$$

den. Gainera, [41, Kapitulua II, Teorema 7.13]ren arabera,

$$[R_s(\mathfrak{L}_K), \mathfrak{L}_K] \leq R_n(\mathfrak{L}_K) \tag{A.7}$$

da. Horrenbestez,

$$\mathfrak{I}_i := \langle x_1, \ldots, x_s, z_1, \ldots, z_h \rangle \oplus Ky_1 \oplus \cdots \oplus Ky_i$$

ideala da $i \in \{0, \ldots, k\}$ guztietarako. Bereziki, $\mathfrak{L}_K = \mathfrak{I}_k$ $\mathfrak{S}_K$-aljebra da. Halaber, $\mathfrak{S}_K$ semisinplea eta $\operatorname{char} K = 0$ direnez, Weylen Erreduzibilitate Osoaren Teorema dela eta (ikusi [41, Kapitulua III, Teorema 7.8]), $\mathfrak{L}_K = \mathfrak{I}_k$ $\mathfrak{S}_K$-modulu semisinplea da, eta existitzen da $K\tilde{y}_k$ $\mathfrak{S}_K$-modulu nagusia non

$$\mathfrak{L}_K = \mathfrak{I}_{k-1} \oplus K\tilde{y}_k$$

den. Horrela, $K\tilde{y}_k$ $\mathfrak{S}_K$-modulua da, baina aldi berean (A.7) dela eta, $[K\tilde{y}_k, \mathfrak{S}_K] \leq R_n(\mathfrak{L}_K)$ da, eta, horrenbestez, $[K\tilde{y}_k, \mathfrak{S}_K] = 0$ da.

Bestetik, $\operatorname{ad}_{\tilde{y}_1} \in \operatorname{Der}_K(\mathfrak{L}_K)$ eta K zero karakteristikakoa direnez, Jordan-Chevalleyren deskonposizioaren arabera (ikusi [41, Kapitulua III, Teorema 11.17] eta [63, Proposizioa 3]), existitzen dira $d_{n,1}$ deribazio nilpotentea (i.e. $d_{n,1}^C = 0$, $C \in \mathbb{N}$ baterako) eta $d_{s,1}$ deribazio semisinplea (i.e. $d_{s,1}$ eragilea diagonalizagarria da K^{alg} itxitura aljebraikoaren gainean) non

$$\operatorname{ad}_{\tilde{y}_1} = d_{n,1} + d_{s,1}$$

den. Are gehiago, deribazio horiek bakarrak dira eta elkarrekin trukatzen dira.

Izan bedi K-Lie aljebra hau:

$$\mathfrak{L}_1 = \langle x_1, \ldots, x_s, x'_1 \rangle_K \oplus \langle z_1, \ldots, z_l, z'_1 \rangle_K,$$

x_1' eta z_1' sinbolo formal hutsak izanik, Lieren kortxete honekin:

$$[u,v]_{\mathfrak{L}_1} = [u,v]_{\mathfrak{L}_K} \qquad [u,x_1']_{\mathfrak{L}_1} = d_{n,1}(u)$$

$$[u,z_1']_{\mathfrak{L}_1} = d_{s,1}(u) \qquad \text{eta } [x_1',z_1']_{\mathfrak{L}_1} = 0,$$

$u,v \in R_n(\mathfrak{L}_k) \rtimes \mathfrak{S}_K$ guztietarako.

Ohartu $\tilde{y}_1 = x_1' + z_1'$ identifikazioak $\mathfrak{I}_1 \hookrightarrow \mathfrak{L}_1$ Lie aljebra monomorfismoa definitzen duela.

Gainera, $\mathrm{ad}_{x_1'}$ deribazio nilpotentea denez,

$$\mathfrak{N}_1 = \langle x_1, \ldots, x_s, x_1' \rangle = R_n(\mathfrak{L}_K) \oplus K x_1'$$

Lie aljebra nilpotentea da. Gainera, $\tilde{y}_1$ eta $\mathfrak{S}_K$ elkarrekin trukatzen direnez, $[z_1', \mathfrak{S}_K] = 0$ da eta, beraz,

$$\mathfrak{S}_1 = \mathfrak{S}_K \oplus K z_1'$$

Lie aljebra erreduktiboa da, Lie aljebra semisinple eta abeldar baten batuketa zuzena baita. Bestalde, $\mathrm{ad}_{z_1'}$ eragile semisinplea denez eta $\mathfrak{S}_K$-ren ekintza $\mathfrak{L}_1$-ren gainean guztiz erreduzigarria denez, $\mathfrak{S}_1$-en ekintza $\mathfrak{L}_1$-n ere guztiz erreduzigarria da. Bereziki, $\mathfrak{I}_{k-2} \trianglelefteq \mathfrak{I}_{k-1} \trianglelefteq \mathfrak{L}_1$ denez, badago $K\tilde{y}_{k-1}$ $\mathfrak{S}_1$-modulu nagusia non

$$\mathfrak{I}_{k-1} = \mathfrak{I}_{k-2} \oplus K\tilde{y}_{k-1}$$

den.

Errepikatu aurreko argudioa $\mathrm{ad}_{\tilde{y}_{k-1}} \in \mathrm{Der}_K(\mathfrak{L}_1)$ deribazioarekin, hots, existitzen da

$$\mathfrak{L}_2 := \langle x_1, \ldots, x_s, x_1', x_2' \rangle_K \oplus \langle z_1, \ldots, z_l, z_1', z_2' \rangle_K$$

K-Lie aljebra bat. Gainera, $\mathfrak{N}_2 = \mathfrak{N}_1 \oplus K x_2'$ nilpotentea da, $\mathfrak{S}_2 = \mathfrak{S}_1 \oplus K z_2'$ erreduktiboa da eta ekintza guztiz erreduzigarria du $\mathfrak{L}_2$-n.

Prozedura hau k aldiz errepikatuz, azkenean $\mathfrak{L}_k = \mathfrak{N}_k \oplus \mathfrak{S}_k$ aljebra banangarria erdiesten da, non $\mathfrak{N}_k = \langle x_1, \ldots, x_s, x_1', \ldots, x_k' \rangle_K$ erradikal nilpotentea den eta $\mathfrak{S}_k = \langle z_1, \ldots, z_l, z_1', \ldots, z_k' \rangle_K$ K-Lie aljebra erreduktiboa. Azkenik, $\mathfrak{L}_k$ Lie aljebrak $\mathfrak{L}_K$ hedatzen du $\tilde{y}_j = x_j' + z_j'$ identifikazioekin, eta $\dim_K R_n(\mathfrak{L}_K') = r + k = \mathrm{rk}\, R_s(\mathfrak{L})$ da. $\square$

Horrenbestez, osagai guztiak bildu daitezke emaitza nagusia frogatzeko:

Teorema A.4ren froga. Izan bedi $\mathfrak{L}$ r heinako R-Lie erretikulua. Orduan, existitzen da $\mathfrak{L}$ hedatzen duen $\bar{\mathfrak{L}}$ R-Lie erretilu banangarria non $R_n(\mathfrak{L}) \leq R_n(\bar{\mathfrak{L}})$ eta $\operatorname{rk} R_n(\bar{\mathfrak{L}}) = \operatorname{rk} R_s(\mathfrak{L})$ diren. Teorema A.13 dela eta, badago $\bar{\mathfrak{L}}$-ren Φ R-Lie aljebra adierazpena zeina injektiboa den $R_n(\bar{\mathfrak{L}})$-n eta Φ-ren maila $f(\operatorname{rk} R_n(\bar{\mathfrak{L}}))$-k bornatzen du $f\colon \mathbb{N}_0 \to \mathbb{N}$, $r \mapsto \sqrt{\frac{r+1}{r}}4^r$ funtzio ez-beherakorrerako (ikusi (A.5)).

Hortaz, $\tilde{\Phi} := \Phi|_{\mathfrak{L}} \oplus \operatorname{Ad}$ adierazpena $\mathfrak{L}$-ren R-Lie adierazpen leiala da,

$$\ker \tilde{\Phi} = \ker \Phi|_{\mathfrak{L}} \cap \ker \operatorname{Ad} \subseteq (\mathfrak{L} \setminus R_n(\mathfrak{L})) \cap Z(\mathfrak{L}) = \{0\}$$

baita. Hori dela eta, $\operatorname{rk} R_n\left(\bar{\mathfrak{L}}\right) = \operatorname{rk} R_s(\mathfrak{L})$ denez, orduan

$$\deg \mathfrak{L} \leq \deg \tilde{\Phi} \leq f(\operatorname{rk} R_s(\mathfrak{L})) + r \leq f(r) + r = \sqrt{\frac{r+1}{r}}4^r + r$$

da. □

A.4 Oharrak

Apendizeko emaitza originalak [77]n biltzen dira.

Bukatzeko ohar pare bat egin behar ditugu. Lehenik eta behin, Harish-Chandrak [34]n, Adoren Teoremaren beste froga bat eman zuen gorputzen gainean, eta emaitza apur bat hobetu zuen, erradikal nilpotenteko elementuak endomorfimo nilpotentetara –$f \in \operatorname{End}_R(W)$ *endomorfimo nilpotentea* da existitzen bada $C \in \mathbb{N}_0$ non $f^C = 0$ den– bidaltzen dituen adierazpen leial bat existitzen dela frogatu baitzuen. Horrelako adierazpenei *nil-adierazpen* deritze. Ohartu, ordea, aitzineko frogan eraikitako $\tilde{\Phi} = \Phi \oplus \operatorname{Ad}$ adierazpena nil-adierazpena dela, adierazpen adjuntua eta Teorema A.13ko Φ adierazpena nil-adierazpenak baitira. Azken batean, edozein $x \in R_n(\mathfrak{L})$-rako

$$x^{c+1} \in \mathfrak{U}^c(R_n(\mathfrak{L}))$$

da, eta, ondorioz,

$$\Phi(x)^{c+1} \equiv \ell_x^{c+1} = \ell_{x^{c+1}} \equiv 0 \mod \mathfrak{U}^c(R_n(\mathfrak{L}))$$

da.

Bigarrenik, argudio konbinatorio garatuagoak erabilita

$$\operatorname{rk}\left(\frac{\mathcal{U}_R(\mathfrak{L})}{\mathfrak{U}^c(\mathfrak{L})}\right) < \alpha\frac{2^r}{\sqrt{r}}$$

dela frogatu daiteke, non

$$\alpha = \sqrt{\frac{2}{\pi}} \prod_{j=1}^{\infty} \frac{2^j}{2^j - 1} \in (2.762, 2.763)$$

balio erreala den (ikusi [13, Lemma 5 (3)]). Hots, ideal nagusietako domeinuetarako gorputzetarako ezagutzen zen bornerik onena, (A.1) borena, berreskuratu daiteke. Hala ere, gure helburuetarako, nagusiki 2. kapituluan erabiltzea, Teorema A.4ko bornea nahikoa da.

Erreferentziak

[1] Abercombrie, A. G.: Subgroups and subrings of profinite rings, *Math. Proc. Cambr. Phil. Soc.* **116**, 209-222 (1994).

[2] Ado, I. D.: The representation of Lie algebras by matrices, Amer. Math. Soc. Translations **21**(2) (1949); hemendik itzulia: *Usehi Matem. Nauk (NS)* **6**(22), 159-173 (1947).

[3] Atiyah, M., F. eta Macdonald, I., G.: Introduction to Commutative Algebra, Addison-Wesley, Reading (1969).

[4] Baer, R.: Nilpotent groups and their generalization, *Trans. Amer. Math. Soc.* **47**, 393-434 (1940).

[5] Bahturin, Y.: Identitical relations in Lie algebras, De Gruyter Expositions in Mathematics **68**, De Gruyter, Berlin-Boston (2021).

[6] Barnea, Y. eta Shalev, A.: Hausdorff dimension, pro-p groups and Kac-Moody algebras, *Trans. Amer. Math. Soc.* **349**, 5073-5091 (1997).

[7] Barnea, Y., Shalev, A. eta Zelmanov, E.I.: Graded subalgebras of affine Kac-Moody algebras, *Israel J. Math.* **104**, 321-334 (1998).

[8] Birkhoff, G.: Representatibility of Lie algebras and Lie groups by matrices, *Ann. of Math.* **38**, 526-532 (1937).

[9] Bishmuth, R.: Rational formal group laws, B. Sc. Tesia, McMaster University, Hamilton, Ontario (1976).

[10] Bourbaki, N.: Commutative Algebra, Chapters 1-7, Springer-Verlag, Berlin-Heidelberg (1989).

[11] Bourbaki, N.: Lie Groups eta Lie Algebras, Chapters 1-3, Springer-Verlag, Berlin-Heidelberg (1989).

[12] Breuillard, E. eta Gelander, T.: A topological Tits alternative, *Ann. of Math.* **166**, 427-474 (2007).

[13] Burde, D.: On a refinement of Ado's Theorem, *Arch. Math.* **70** 118-127, (1998).

[14] Camina, R. eta Du Sautoy, M.: Linearity of $\mathbb{Z}_p[[t]]$-Perfect Groups, *Geom. Dedicata* **107**, 1-16 (2004).

[15] Carter, R., W.: Simple groups of Lie type, John Wiley & Sons, Londres-New York (1989).

[16] Casals-Ruiz, M. eta Zozaya, A.: Linearity of compact R-analytic groups, *submitted*.

[17] Chang, C. C. eta Keisler, H. J.: Model Theory, North Holland, New York (1990).

[18] Chevalley, C.: Publications de l'Institut Mathématique de l'Université de Nancago, Actualités Scientifiques et Industrielles **1226**, Hermann, Paris (1968).

[19] Churkin, V. A.: The matrix representation of Lie algebras over rings, *Math. Notes* **10**(6), 835-839 (1971); hemendik itzulia: *Mat. Zametki* **10**, 671-678 (1971).

[20] Clement, A. E., Majewicz, S. eta Zyman, M.: The theory of nilpotent groups, Birkhäuser, Cham (2017).

[21] Cohen, I. S.: On the structure and ideal theory of complete local rings, *Trans. Amer. Math. Soc.* **59**, 54-106 (1946).

[22] Detomi, E., Klopsch, B. eta Shumyatsky, P.: Strong conciseness in profinite groups, *J. London Math. Soc.* **102**, 977-993 (2020).

[23] Detomi, E., Morigi, M. eta Shumyatsky, P.: On conciseness of words in profinite groups, *J. Pure Appl. Algebra* **220**, 3010-3015 (2016).

[24] Dixon, J., Du Sautoy, M., Mann, A. eta Segal, D.: Analytic Pro-p Groups, 2nd ed., Cambridge University Press, Cambridge (1999).

[25] Eisenbud, D.: Commutative algebra with a view toward algebraic geometry, Graduate Texts in Mathematics **150**, Springer-Verlag, Berlin-Heidelberg-New York (1995).

[26] Falconer, K.: Fractal geometry: mathematical foundations eta applications, 3rd edn. Wiley, Chichester (2014).

[27] Fernández-Alcober, G. A., Giannelli, E. eta González-Sánchez, J.: Hausdorff dimension in R-analytic profinite groups, *J. of Group Theory* **20**, 579-587 (2017).

[28] Folland, G. B.: Real Analysis: modern techniques and their applications, John Wiley & Sons, New York (1999).

[29] George, K. M.: Verbal properties of certain groups, Doktorego Tesia, University of Cambridge, Cambridge (1976).

[30] González-Sánchez, J. eta Zozaya, A.: Standard Hausdorff spectrum of compact $\mathbb{F}_p[[t]]$-analytic groups, *Monatsh Math* **195**(3), 401-419 (2021).

[31] de Graaf, W. A.: Constructing faithful matrix representation of Lie algebras, Proceedings of the 1997 International Symposium on Symbolic and Algebraic Computation, ISSAC'97, pp. 54-59 ACM Press, New York (1997).

[32] Greco, S. eta Salmon, P.: Topics in $\mathfrak{m}$-adic topologies, Ergebnisse der Mathematik und ihrer Grenzgebiete **58**, Springer-Verlag, Berlin-Heidelberg (1971).

[33] Hall, P.: Verbal and marginal subgroups, *J. Reine Angew. Math.* **182**, 156-157 (1949).

[34] Harish-Chandra: On representation of Lie algebra, *Ann. of Math.* **50**, 900-915 (1949).

[35] Hazewinkel, M.: Formal Groups eta Applications, Academic Press, New York-San Frantzisko-Londres (1978).

[36] de las Heras, I. eta Zozaya, A.: Hausdorffen dimentsioa talde profinituetan, *Ekaia* **40**, 291-314 (2021).

[37] Humphreys, J. E.: Linear Algebraic Groups, Springer-Verlag, New York-Berlin-Heidelberg (1975).

[38] Huppert, B.: Endliche Gruppen I, Springer-Verlag, Berlin-Heidelberg-New York (1967).

[39] Ivanov, S. V.: P. Hall's conjecture on the finiteness of verbal subgroups, *Sov. Math.* **33**, 71-76 (1989); translation from *Izv. Vyssh. Uchebn. Zaved. Mat.* **6**, 60–70 (1989).

[40] Iwasawa, K.: On the representation of Lie algebras, *Jap. J. Math.* **19**, 405-426 (1948).

[41] Jacobson, N.: Lie Algebras, Dover Publications, Inc., New York (1979).

[42] Jaikin-Zapirain, A.: On linear just infinite pro-p groups, *J. Algebra* **255**, 392-404 (2002).

[43] Jaikin-Zapirain, A.: On linearity of finitely generated R-analytic groups, *Math. Z.* **253**, 333-345 (2006).

[44] Jaikin-Zapirain, A.: On the verbal width of finitely generated pro-p groups, *Rev. Mat. Iberoam.* **24**, 617-630 (2008).

[45] Jaikin-Zapirain, A. eta Klopsch, B.: Analytic groups over general pro-p domains, *J. London Math. Soc.* **76**, 365-383 (2007).

[46] Jordan, C.: Traité des subtitutions et de équations algébriques, Les Grands Classiques Gauthier-Villars, Paris (1870).

[47] Klopsch, B. eta Thillaisundaram, A.: A pro-p group with infinite normal Hausdorff spectra. *Pacific J. Math.* **303**, 569-603 (2019).

[48] Klopsch, B., Thillaisundaram, A. eta Zugadi-Reizabal, A.: Hausdorff dimension in p-adic analytic groups. *Israel J. Math.* **231**, 1-23 (2019).

[49] Lang, S.: Algebra, Graduate Texts in Mathematics **211**, Springer-Verlag, New York (2005).

[50] Lazard, M.: Groupes analytiques p-adiques, *Publ. Math. I.H.E.S.* **26**, 5-219 (1965)

[51] Lee, J. M.: Introduction to Smooth Manifolds, 2nd ed., Springer, New York (2013).

[52] Lubotzky, A.: Group presentation, p-adic analytic groups and lattices in $\mathrm{SL}_2(\mathbb{C})$, *Ann. of Math.* **118**, 115-130 (1983).

[53] Lubotzky, A. eta Mann, A.: On groups of polynomial subgroup growth, *Invent. Math.* **104**, 521-533 (1991).

[54] Lubotzky, A. eta Shalev, A.: On some Λ-analytic pro-p groups, *Israel J. Math.* **85**, 307-337 (1994).

[55] Mal'cev, A.: On isomorphic matrix representations of infinite groups, *Rec. Math. N.S.* **8**(50), 405-422 (1940).

[56] Merzljakov, Yu. I.: Algebraic linear groups as full groups of automorphisms and the closeness of their verbal subgroups, *Algebra i Logika* **6**, 83-94 (1967) (*errusieraz*).

[57] Merzljakov, Yu. I.: Verbal eta marginal subgroups of linear groups, *Dokl. Akad. Nauk SSSR* **177**, 1008-1011 (1967).

[58] Moens, W. A.: Faithful representations of minimal degree for Lie algebras with an abelian radical, Doktorego Tesia, Universität Wein, Viena (2009).

[59] Munkres, J. R.: Topology, 2nd ed., Pearson Education, Harlow (2014).

[60] Neretin Yu.: A construction of finite-dimensional faithful representation of Lie algebras. Proceedings of the 22nd Winter School on "Geometry and Physics" (Srni, 2002). *Rend. Circ. Mat. Palermo (2) Suppl. No.* **71**, 159–161 (2003).

[61] Neumann, H.: Varieties of Groups, Springer-Verlag, New York (1967).

[62] Ol'shanskiĭ, A., Yu.: Geometry of defining relations in groups, vol. 70, Mathematics and Applications (Soviet Series), Kluwer Academic Publishers Group, Dordrecht (1991).

[63] Reed, B. E.: Representations of solvable Lie algebras, *Michigan Math. J.* **16**, 227-233 (1969).

[64] Rives, L. eta Zalesskii, P.: Profinite Groups, 2nd ed., A Series of Modern Surveys in Mathematics **40**, Springer-Verlag, Berlin-Heidelberg (2000).

[65] Robinson, D. J. S.: A course in the theory of groups, 2nd ed., Springer-Verlag, New York (1982).

[66] Roman'kov, V. A.: Width of verbal subgroups in solvable groups, *Algebra and Logic* **21**, 41-49 (1982); hemendik itzulia: *Algebra i Logika* **21**, 60–72 (1982).

[67] Segal, D.: Words. Notes on Verbal Width in Groups, Cambridge University Press, Cambridge (2009).

[68] Serre, J. P.: Lie Algebras and Lie Groups, Lecture Notes in Mathematics vol. **1500**, Springer-Verlag, Berlin-Heidelberg (2006).

[69] Simons, N. J.: The width of verbal subgroups in profinite groups, Doktorego Tesia, University of Oxford, Oxford (2009).

[70] Strade, H.: Simple Lie Algebras Over Fields of Positive Characteristic. Structure Theory, vol. I, De Gruyter, Berlin-Boston (2004).

[71] Stroud, P. W.: Topics in the theory of verbal subgroups, Doktorego Tesia, University of Cambridge, Cambridge (1966).

[72] Turner-Smith, R. F.: Finiteness conditions for verbal subgroups, *J. London Math. Soc.* **41**, 166-176 (1966).

[73] Wehrfritz, B. A. F.: Infinite Linear Groups, Springer-Verlag, Berlin-Heidelberg-New York (1973).

[74] Weigel, T.: A Remark on the Ado-Iwasawa Theorem, *J. Algebra* **212**, 613-625 (1999).

[75] Zariski, O. eta Samuel, P.: Commutative Algebra, Vol. I eta II, Springer-Verlag, Berlin-Heidelberg-New York (1958).

[76] Zozaya, A.: Conciseness in compact R-analytic groups, *bidalita.*

[77] Zozaya, A.: A remark on Ado's Theorem for principal ideal domains, *prestatzen.*

Indizea

δ-estalki, 210
p-adiko analitiko, 157

adierazpen
∼ adjuntu, 258
∼ eratorri, 188
∼ erregular, 260
∼ finitu, 256
∼ leial, 256
∼ maila, 256
∼ matrizial, 256
lineal, 187
Ado
Teorema, 256
alderantzizko
∼ formal, 158
∼ funtzio, 157
aljebra
∼ bakun zentral, 236
∼ banangarri, 264
∼ semisinple, 259
tentsore ∼, 259
analitiko
azpibarietate ∼, 178
azpimultzo ∼, 180
azpitalde ∼, 181
barietate ∼, 155
dimentsio ∼, 162
funtzio ∼, 154, 155
hertsiki ∼, 155
talde ∼, 157
atlas, 154
∼ bateragarri, 154
∼ maximal, 154
azpimurgilketa, 172
azpibarietate, 178
∼ analitiko, 178
∼ ahul, 178
azpimultzo murgildu, 177
azpiraketa, 170
∼ ahul, 168

Baire
Kategoria Teorema, 243
Baker-Hausdorff-Campell
∼ formula, 190
barietate
∼ analitiko, 155
∼ puru, 155
berretura serie
∼ propietate unibertsal, 152
∼ eraztun, 151
∼ konbergente, 152
bianalitiko, 169
biderketa
∼ funtzio, 157
ezker ∼ funtzio, 168
bilipschitziar, 210

Chevalley
 talde klasiko, 232
Cohen
 Egitura Teorema, 150, 174

deribazio, 264
 ∼ luzera, 266
diferentzial, 165
dimentsio
 ∼ analitiko, 155, 162
 ∼ analitiko lokal, 155
 azpibarietate ∼, 178
 Hausdorffen ∼, 210
 Hausdorffen ∼ estandar, 218
 kutxa ∼, 210
 Minkowski-Bouliganden ∼, 210
diskriminazioa, 198

ebakidura finituen propietate, 202
ebaluaketa
 ∼ epimorfismo, 196
 ∼ funtzio, 152
ebazgarri
 erradikal ∼, 266
egonkortasun
 ∼ finitu, 211
 ∼ kontagarri, 210
erradikal
 ∼ ebazgarri, 248, 266
 ∼ nilpotente, 264
 ∼ unipotente, 248
erreduktibo
 talde ∼, 248
eskalare murrizketa, 176
espazio ultrametrikoa, 150
estandar
 filtrazio serie ∼, 214
 talde ∼, 157
ezberdintza triangular gogor, 150

faktorizazio bakarreko domeinu
 (FBD), 185
filtrazio serie, 207
 ∼ estandar, 159, 214
 ∼ normal, 211
 p-berretura ∼, 208
filtro, 201

Hall-Petrescu
 formula, 246
Hall-Witt
 identitate, 164
Hausdorff
 ∼ dentsitate, 234
 ∼ dimentsio, 210
 ∼ dimentsio estandar, 209, 218
 ∼ espektro, 208
 ∼ espektro estandar, 209, 218
 ∼ neurri, 210
Hilbert
 ∼ funtzio, 215
 ∼ polinomio, 215
hitz, 239
 ∼ azpitaldea, 240
 ∼ balio, 239
 ∼ baliokide, 239
 ∼ behe zentral, 241
 ∼ deribatu, 241
 ∼ eliptikoa, 243
 ∼ huts, 239
 ∼ zabalera, 243
 ∼ funtzio, 239
 Burnsideren ∼, 241
 kommutadore ∼, 241
hitzezko
 ∼ eliptikotasun, 242
 laburtasun ∼, 242
 sendotasun ∼, 242
hondar gorputz, 149

hondar-heina, 170

ideal nagusietako domeinu (IND), 150
identitate osagai, 247
Igotze Teorema, 196
inguratze aljebra unibertsal, 259
  propietate unibertsal, 260
inon konstante funtzio, 252
isolatu modulu, 258
isolatzaile, 258
Iwasawa
  Teorema, 257

Jacobi
  identitate, 164, 256
jacobiar, 165

karta, 154
  ∼ bateragarri, 154
  ∼ erregular, 155
  ∼ moldatu, 182
katearen erregela, 165
koheina, 181, 258
koordenatu
  ∼ aldaketa, 169
  ∼ aldaketa funtzio, 154
  ∼ sistema, 156
  ∼ sistema kanoniko, 156
Krull
  Ebakidura Teorema, 149
kutxa-dimentsio, 210
  ∼ estandar, 222
  behe ∼ estandar, 216
  behe ∼, 210
  goi ∼, 210

labur
  hitzez ∼, 242
laburtasun, 242
  ∼ gogorra, 252
Leibniz
  identitate, 264
Levi
  ∼ osagai, 266
  Teorema, 266
Lie algebra
  ∼ nilpotentea, 261
Lie aljebra, 165, 255
  ∼ adierazpen, 256
  ∼ ebazgarri, 266
  ∼ graduatua, 234
  ∼ homomorfismo, 256
  ∼ konkretua, 256
  ∼ perfektu, 235
  ∼ zentroa, 258
  ∼ elkartua, 165
Lie erretikulu, 257
  ∼ berretura-bete, 190
Lieren kortxete, 164, 255
lineal
  adierazpen ∼, 187
  talde ∼, 187
  talde ∼ berezi, 231
  talde ∼ orokor, 156, 228
  talde aljebraiko ∼, 243
  talde aljebraiko ∼, 247
lokal
  eraztun ∼, 149
  eraztun homomorfismo ∼, 191

marjinal
  azpitalde ∼, 240
Minkowski-Bouligand
  dimentsio, 210
monotono, 210
morfismo formal, 166
multzo afin, 228
murgilketa, 170

∼ ahul, 168

nilpotente
erradikal ∼, 264
klase, 261

ortogonal berezi
talde ∼, 232

Poincaré-Birkhoff-Witt
Teorema, 259
pro-p domeinu, 150
profinitu espazio, 252
puntu erregular, 181

Schur
Teorema, 246
serie
∼ deribatu, 266
∼ zentral beherakor, 261
sinplektiko
talde ∼, 232

talde eragiketa formal, 158
∼ batukor, 158
∼ biderkakor, 158

Tits
alternatiba topologiko, 231
topologia $\mathfrak{m}$-adiko, 149
topologikoki nilpotente, 152
translazio, 156

ultraberretura, 203
ultrabiderketa, 202
ultrafiltro, 201
∼ ez-nagusi, 201
∼ teorema, 202
ultrametriko espazio, 150
uniformeki berretura-bete, 189
uniformizatzaile, 151
unipotente
azpitalde ∼, 248
erradikal ∼, 248
matrize ∼, 248

Zassenhauss
hedapen, 265
zentroide, 236
Zorn
Lema, 236

Colophon

This thesis was typeset in LaTeX using `quotchap` to create chapter heads and to add quotations. All the diagrams were generated using `TikZ-cd`. The bibliography was typeset using `natbib`.